



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

FINANTZA-ERAKUNDEEN KUDEAKETA

Egileak

Juan Antonio Azkunaga Elguezabal

Ana Beraza Garmendia

Ana Blanco Mendialdua

Ainhize Gilsanz López

**EUSKARA ETA ELEANIZTASUNEN ERREKTOREORDETZAREN
SARE ARGITALPENA**

Liburu honek UPV/EHUko Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzaren dirulaguntza jasotzen du

AURKIBIDEA

I. ATALA.- BANKU-SISTEMA ETA HAREN INGURUNEA

1. gaia Finantza-erakundeak gaur egun

II. ATALA.- BANKU-ERAGIKETAK

2. gaia Pasiboko eragiketak
3. gaia Aktiboko eragiketak
4. gaia Kreditu-erakundeen ezohiko eragiketak

III. ATALA.- BANKU-NEGOZIOAREN ERRENTAGARRITASUNA ETA ARRISKUA

5. gaia Kutxen eta bankuen finantza-egoeraren analisia
6. gaia Arriskua finantza-erakundeetan

IV. ATALA.- BANKU-MARKETINA

7. gaia Finantza-erakundeen merkataritza-funtzioa

V. ATALA.- ZUZENDARITZA ESTRATEGIKOA

8. gaia Kreditu-erakundeen estrategia lehiakorrak

I. ATALA: BANKU-SISTEMA ETA HAREN INGURUNEA

1. GAIA: FINANTZA-ERAKUNDEAK GAUR EGUN

1.1. ESPAINIAKO FINANTZA-SISTEMA

FINANTZA-SISTEMA: KONTZEPTUA ETA EZAUGARRIAK

Kontzeptua: erakunde, baliabide eta merkatu multzo bat da, helburu nagusitzat duena Gastu Unitate Superabitarioek (GUS) sortutako aurrezki Gastu Unitate Defizitarioetara (GUD) bideratzea.

Finantza-sistemak honako funtsezko betebeharrak hau du ekonomian: aurreztaileen (GUS) soberakinak jasotzea, eta hartzaile publiko edo pribatuaren (GUD) eskuetan jartzea. Zenbat eta efizienteagoa izan finantza-sistema, orduan eta aurrezki gehiago bideratuko da inbertsioetara, eta horrek ondorio onuragarriak izango ditu herrialdearentzat. Beraz, finantza-sistema ororen ezinbesteko eginkizuna da finantza-baliabideen esleipen eraginkorra bermatzea.

Finantza-sistemaren oinarriko funtzioak:

- Aurrezki inbertsioetarantz bideratzen laguntzea.
- Ordainketa-mekanismoak kudeatzea.

Finantza-sistema batek honako baldintza hauek bete behar ditu:

- Inbertitzaile zein aurreztaileei konfiantza ematea.
- Finantza-tresnen berrikuntza sustatzea.
- Malgua izatea eta egoera ekonomiko aldakorretara moldatzea.

FINANTZA-SISTEMA BATEN EFIKAZIA NEURTZEKO ERAK:

- **KUANTITATIBOAK:** finantza-sistemaren dimentsio absolutua (baliabideen kopurua) eta erlatiboa (baliabideen kopurua / BPG) neurtzen dutenak.
- **KUALITATIBOAK:** instituzioen (konpartimendu estankorik gabekoak) eta finantza-aktiboaren aniztasuna; malgutasuna eta elastikotasuna irizpide gisa harturik.

ASKATASUNA ematea honako arlo hauetan: prezio eta kantitateak, eragiketak eta sarrera-irteerak.

Finantza-sistema bat hiru **elementuz** osatuta dago:

- finantza-aktiboak
- finantza-bitartekariak
- finantza-merkatuak

1.1.1. Finantza-aktiboak

Kontzeptua: Gastu Unitate Defizitarioek (GUD) jaulkitako tituluak dira. Tituluen jabeentzat, aberastasuna mantentzeko bide bat da; tituluak sortzen dituztenentzat, aldiz, pasiboa da. GUDek finantza-aktiboak jaulkitzen dituzte, gastu eta sarrerak orekatuko dituzten baliabideak lortzeko; GUSEk eskuratzen dituzte baliabideok, eta, hala, baliabide horien bitartez mantentzen dute aberastasuna.

Finantza-aktibo horien funtsezko bi xedeak hauek dira:

- Agente ekonomikoen artean funtsak transferitzeko tresnak dira.
- Agente ekonomikoen artean arriskuak transferitzeko tresnak dira.

Finantza-aktiboen ezaugarriak hauek dira: likidezia, arriskua eta errentagarritasuna. Hiru ezaugarriok harreman estua dute elkarren artean.

1.1 taula. Finantza-aktiboak

FUNTZIOAK	Finantza-aktiboak agenteen arteko funtsak transferitzeko tresnak dira. Arriskuak transferitzeko tresnak ere badira.
EZAUGARRIAK	Likidezia: ahalik eta balio gutxien galduz diru bilakatzeko erraztasun-maila. Arriskua/Segurtasuna: finantza-aktiboa definitzen duten eskubideen iguripenek emaitza onak uzteko probabilitatea. Errentagarritasuna: aktiboek onurak sortzeko duten gaitasuna.
TIPOLOGIA	Igorlearen arabera: publikoak / pribatuak. Etekinaren arabera: errenta finkoa / errenta aldakorra Aktiboen likidezia-mailaren arabera: - epe laburrerako finantza-aktiboak edo diruzkoak, diru bilakatzeko epea 18 hilabeteko urte bat baino txikiagoa denean. - finantza-aktiboak epe luzera, haien eskubide guztien epemuga 18 hilabeteko urte bat baino handiagoa denean. Merkatuetakako negoziazio-baldintzen arabera: - aktibo negoziagarriak - aktibo ez-negoziagarriak Beste sailkapen batzuk (aktiboen igorpen- eta transmisio-baldintzen arabera): “izendunak”, titularra islatzen dutenean; “eramaileari” erakoak, eta abar. Ildo horretatik, inbertsio eta eskubideen ezaugarrien arabera ere sailka daitezke aktiboak: akzioak, obligazioak, obligazio bihurgarriak, zabaltze-eskubideak, funtsetan inbertitzeagatik lortutako ziurtagiriak, eta abar.

1.1.2. Finantza-bitartekariak

Kontzeptua: ekonomiako mailegu-emaile eta mailegu-hartzaileen arteko bitartekaritza espezializatutako erakundeen multzoa da. Haien xedea da inbertitzaile eta aurreztaileen arteko harremana bideratzea. Harreman hori oso gutxitan egiten da modu zuzen batean, batik bat gurea bezalako finantza-sistema garatu batean, sistema horrek dituen bilaketa-kostuengatik eta abarrengatik. Hori dela eta, ohikoena izaten da harremana zeharka egitea; finantza-bitartekarien erakunde espezializatuak erabiliz, besteak beste. Finantza-bitartekariak bi taldetan sailka ditzakegu: “artekariak” / “bitartekariak”.

Artekarien ezaugarri nagusia zera da: jarduera bat aurrera eramateko, inbertitzaile eta aurreztaileak elkarrekin harremanetan jarri baino ez dute egiten, inongo finantza-aktiboak eraldatu gabe. Adibidez, burtsako balioak artekarien bitartez salerosten dira; hala, artekariak erosle eta saltzaileen arteko harremana bideratzen saiatzen dira, haien jardunean trukaturako aktiboak eraldatu gabe.

Bitartekarien bereizgarria da finantza-aktiboak eraldatu egiten dituztela beren jarduera aurrera eramatean. Finantza-aktiboak eraldatzeari esker, bitartekari horiek inbertitzaile eta aurreztaileen harremana bideratzen dute, bien beharretara egokituzko; nagusiki, egin beharreko eragiketen epe eta kopuruen inguruan. Eraldaketa horrek arrisku bat dakar finantza-bitartekarien jardueraren garapenean, eta arrisku hori pasiboko eta aktiboko eragiketen arteko bitartekaritza-tartearekin orekatzen da. Gainera,

bitartekariak lortzen dute inbertitzaileek txikiagotzat hartzea finantza-aktiboak erostean sortzen den arriskua, bitartekariak berek egiten dituzten inbertsio dibertsifikatuen ondorioz.

“Haien lana ezinbestekoa da, zeren eta, oro har, inbertitzaileen eta aurreztaileen nahiak ez baitatoz bat jaulkitako aktiboen likidezia-, ziurtasun- eta errentagarritasun-mailari dagokionez; hori dela eta, bitartekariak aktiboak eraldatzen dituzte, aurreztaileentzat egokiak izan daitezen: GUDek jaulkitako aktiboak eskuratzen dituzte (1. mailako aktiboak edo aktibo primarioak), eta, era berean, inbertitzaileen lehentasunak kontuan hartuko dituzten (finantza-bitartekaritza) beste finantza-aktibo batzuk (2. mailako aktiboak) jaulkitzen”.

Laburbilduz, finantza-bitartekariak zerbitzu hauek eskaintzen dizkiete agente ekonomikoiei:

- 1.- Finantza-bitartekariak ekintzei esker, *aktiboen arriskua murriztu egiten da dibertsifikazioaren bitartez.*
- 2.- Finantza-bitartekariak esker, *mailegu-emaila eta mailegu-hartzaileen beharrak elkarri egokitzen zaizkio.*
- 3.- Finantza-bitartekariak *ordainketa-mekanismoa kudeatzen dute.*

Finantza-bitartekariak artean, bi talde handi bereiz ditzakegu¹:

1.- Kreditu-erakundeak: bezeroek eskuragarri dituzten funtsak bereganatzen dituzten erakundeak dira. Etorkizunean funts horiek itzultzeko konpromisoa hartzen dute, eta funtsen helburua edozein izan daiteke (gordailuak, maileguak, finantza-aktiboen behin-behineko lagapenak, edo antzekoak). Halaber, kreditu-erakundeak dira diru elektronikoz ordaintzeko bideak jaulkitzen dituzten erakundeak. Talde horretan sartzen dira: Kreditu Ofizialeko Institutua, bankuak, aurrezki-kutxak eta EAKK (CECA), kreditu-kooperatibak, kredituko finantza-erakundeak (azken horiek badituzte mugak eragiketarako) eta diru elektronikoko erakundeak.²

2.- Kreditu-erakunde ez direnak: aseguru-erakundeak, pentsio-funtsak eta inbertsio-funtsak, balio-elkarte eta -agentziak, eta abar.

1.1.3. Finantza-merkatuak

Kontzeptua: finantza-aktiboen trukea egiteko eta aktibo horien prezioak finkatzeko mekanismoa edo tokia (ez nahitaez fisikoa).

Finantza-merkatuen funtzio nagusiak hauek dira:

- 1.- Merkatuan parte hartzen duten agenteak elkarrekin harremanetan jartzea.
- 2.- Aktiboen prezioak finkatzeko mekanismo izatea.
- 3.- Aktiboak likideziaz hornitzea.
- 4.- Bitartekaritza-epeak eta -kostuak murriztea.

¹ Gai honetako 5. puntuan, xeheago aztertuko ditugu bi talde horiek eta haietako bakoitzaren funtzio zehatzak.

² 44/2002 Legearen 19. artikulua (44/2002 Legea, azaroaren 22koa, Finantza Sistemaren Erreforma Neurriak buruzkoa; BOE, 281. zk., 2002ko azaroaren 23a).

Merkatua eraginkorra izango da, funtzio horiek ahalik eta hobekien betetzen dituen neurrian. Merkatu perfektu batean, erosleek eta saltzaileek eskaintza eta eskari guztiak eta merkatuko gainerako baldintzak ezagutuko lituzkete (erabateko informazio-gardentasuna); agente guztiek askatasunez parte har lezaketek, eta prezioak eskaintzaren eta eskariaren arabera ezarriko lirateke, kanpoko esku-hartzerik gabe.

1.2. ESPAINIAKO FINANTZA-SISTEMAREN EGITURA GAUR EGUN

Espainiako finantza-sistema nabarmenki aldatu da, gure finantza- eta balio-merkatuak Europako Erkidegoko araudiaren beharretara egokitzeko prozesuaren ondorioz. Hala, 1988ko Balioen Merkatuaren Legeak eta Kreditu Erakundearen Araubidearen Legeak aldaketa ikusgarri bat eragin zuten finantza-sisteman zein balioen merkatuan. Eraldatutako finantza-sistema horren estruktura bi alderditan gorpuztu da: erakunde-marko berria, eta bitartekari bidezko eragiketa-marko berria. Egitura hori zuzendaritza-organo batzuen inguruan ardatzen da. Organo horiek bi motatakoak dira:

1.- Organo politiko-erabakitzaileak: gobernua dute buru, zeinak aginte gorena baitu finantza-politikaren arloan, eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioa dute ordezkari, finantza-erakundearen funtzionamenduaren arduradun nagusia den aldetik; autonomia-erkidegoek eskumenak dituzte arlo batzuetan.

2.- Organo exekutiboak: finantza-sistemaren organo exekutiboak hauek dira:

- Diruzaintzako eta Diru Politikako Zuzendaritza Orokorra, DDPZO (Dirección General del Tesoro y de Política Monetaria, DGTPM)
- Merkataritza Politikako eta Kanpo Inbertsioko Zuzendaritza Orokorra, MPKIZO (Dirección General de Política Comercial e Inversiones Exteriores, DGPCIE)
- Aseguruen Zuzendaritza Orokorra, AZO (Dirección General de Seguros, DGS)
- Balio Merkatuaren Batzorde Nazionala, BMBN (Comisión Nacional del Mercado de Valores, CNMV)
- Espainiako Bankua

1.2 taula. Espainiako Bankuaren funtzioak

<i>FUNTZIO NAGUSIAK</i>	<i>FUNTZIO ERATORRIAK</i>
<i>Zor publikoaren diruzaintza-zerbitzua eta finantza-agentearen zerbitzua</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Estatuaren diruzaintza-zerbitzua • Zor publikoaren finantza-zerbitzua • Konturako notazioen zentrala
<i>Espainiako finantza-sistemaren eta ordainketa-sistemaren funtzionamendu egokia eta oreka bultzatzea</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Bankuarteko merkatua erregulatzea • Dibisa-merkatua erregulatzea • Diru-merkatuaren zerbitzu telefonikoa • Konpentsazio-ganberak likidatzea • Konpentsazio elektronikoko zerbitzuak
<i>Finantza-erakundeak eta finantza-merkatuak ikuskatzea eta kontrolatzea</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Administrazio-baimenak eta erregistro ofizialak • Ikuskaritzak: ohikoak eta ezohikoak • Zigor-espedienteak • Krisiak
<i>Gobernuari aholkularitza ematea</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Estatistikak egitea eta argitaratzea • Ikerketak eta txostenak
<i>Beste batzuk</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Arriskuen informazioen zentrala • Balantzeen zentrala • Erreklamazio-zerbitzua • Datu pertsonalen fitxategia

Azken batean, zuzendaritza-organo horiek Espainiako finantza-sistema osatzen dute, eta sistema hori Europako Banku Zentralen Sistemari (EBZS) integratuta dago.

1.3. EUROPAKO BANKU ZENTRALEN SISTEMA: GOBERNU-ORGANOAK ETA HAREN FUNTZIOAK

1.3.1. Sarrera

Europako Banku Zentralak (EBZ) eta Europar Batasuneko herrialdeetako **banku zentral nazionalak** osatzen dute Europako Banku Zentralen Sistema (EBZS). *Eurosistema* hitza erabiltzen da EBZ eta euroa onartu duten herrialdeetako banku zentral nazionalak izendatzeko. Hala ere, euroa onartu ez duten herrialdeetako banku zentralak ere EBZSn parte hartzen dute; estatus berezi bat dutela, baina. Hala, herrialde horiei beren diru-politikak zuzentzea baimentzen zaie, baina ezin dute parte hartu Euroguneko diru-politikaren inguruko erabakietan eta erabaki horiek betearazteko zereginetan. Beraz, EBZSn sartuta daude EBren diru-politikaren arduradun diren erakunde guztiak. EBZ gobernuko erakunde zentral bat da, eta Frankfurtin kokatuta dago. EBko banku zentral nazional guztiek, jakina,

parte-hartze eta funtzio jakin batzuk dituzte EBZko gobernu-organoetan. EBZSren estatutueta 12. artikulua subsidiarotasunaren printzipioa biltzen du: “Posible eta egokia dela uste den neurrian, EBZk, EBZSren eginkizun diren eragiketak gauzatzeko, banku zentral nazional guztiak bilduko ditu”. Banku zentral bakoitzak sistemaren eragiketetan daukan parte-hartzea, bereziki, Europako Diru Batasunean (EDB) duten estatusaren arabera da (EDBn parte hartzen duten herrialdeak edo EDBtik botatakoak). Adibidez, Suediak, Erresuma Batuak eta Danimarkak, oraingoz, Diru Batasunean ez parte hartzeko erabakia jakinarazi dute. Herrialde horiek ez dute parte hartzen diru-politikarekin erlazionaturiko gaiak buruz Eurogunean hartzen dituzten erabakietan. Hori dela eta, euroa bereganatu ez duen estaturik baden artean, beharrezkoa izango da Eurosistemaren eta EBZSren arteko ezberdintasunari eustea.

1.3.2. Gobernu-organoak

EBZSko osagai guztien artean funtzioak nola banatzen diren behar bezala uler dezagun, baliagarri izango zaigu haren gobernu-organoen deskripzioetik abiatzea. Europar Batasuneko Itunean (EBI) definiturik daude, eta, bereziki, EBZSren eta EBZren estatutueta, itun horretako protokolo batean jasotakoak. Aipatu bezala, EBZko zuzendaritza-organoak dira EBZSren buru. Hiru zuzendaritza-organo daude: **Batzorde Exekutiboa**, **Gobernu Kontseilua** eta **Kontseilu Orokorra**. Azken horrek behin-behineko izaera du, eta hasiera batean EDBtik kanpo geratu ziren herrialdeek parte hartzen duten organo bakarra da.

Batzorde Exekutiboa EBZko lehendakariak eta lehendakariordeak osatzen dute, bai eta banku- edo diru-gaietan lan-erperientzia eta ospea izateagatik izendatutako lau kide ere. Estatu kideetako gobernuen arteko akordio baten bitartez aukeratzen dira, EBko Kontseiluaren gomendioan oinarriturik eta alde aurretik EBZko Gobernu Kontseiluari eta Europako Parlamentuari kontsulta bat egin ondoren. Batzorde Exekutiboaren erantzukizun nagusiak hauek dira:

- Diru-politika praktikan jartzea EBZko Gobernu Kontseiluaren orientabideen eta erabakien arabera. Zeregin horretan, banku zentral nazionaleri jarraibideak ematen dizkie, behar izanez gero.
- EBZko Gobernu Kontseiluak beraren esku utzitako botereak erabiltzea.

Gobernu Kontseiluari dagokio erabaki egokiak hartzea EBZSk bere funtzioak bete ditzan, bere estatutuarekin bat etorriz. Diru-politika diseinatzen eta formulatzen du, eta hura gauzatzeko beharrezkoak diren orientabideak ezartzen ditu. EBZko gobernu-organo goren da, beraz, eta haren erabakiek Batzorde Exekutiboak jarraitu beharreko urratsak zehazten dituzte. Gobernu Kontseiluan, batetik, Batzorde Exekutiboko kideak egoten dira (presidente eta presidenteorde berbera dute bi organoetan), eta, bestetik, EDBko herrialdeetako banku zentraletako gobernadoreak.

Azkenik, **Kontseilu Orokorra** osatzen dute EBZko presidentek eta presidenteordeak, eta baita EBko herrialde guztietako banku zentraletako agintariek ere. Kontseilu Orokorri esleitutako funtzioek behin-behineko izaera dute, behin-behinean EDBtik kanpo geratu diren herrialdeekin erlazionaturiko guztiaz arduratzen baita. Hasiera batean EDBtik kanpo geratu ziren herrialdeak EDBn sartzea egin beharreko lan guztiaz arduratzen da Kontseilu Orokorra (adibidez, truke-tasak ezartzea herrialde horiek Eurogunean sartzean). Bereziki, herrialde horietako diruak euroarekiko duen atzerazinezko baliokidetasuna (parekotasuna) finkatzeaz arduratzen da. Ondorioz, hasiera-hasieratik, organo honen funtzio garrantzitsu bat zera da: EDBko herrialdeen eta EDBtik kanpo dauden arteko etorkizuneko truke-erlazioei buruzko eztabaidagune izatea.

Era berean, honako zeregin hauetan laguntzen du:

EBZko kontsulta-funtzioak garatzea, informazio estatistikoa biltzea, EBZko urteroko txostenak prestatzea, EBZko langileak kontratatzeke baldintzak ezartzea...

Hona hemen EBZSren eta EBZren estatutuen bi alderdi garrantzitsu: beren funtzioak aurrera eramatean, gobernu-organoetako kideek erabateko independentzia dute beste edozein erakunde nazionalakiko edo EBko erakundeakiko; eta estatu kide bakoitzak bermatu behar du bere nazio-legediak —banku zentral nazionalen estatutuak barne— EBZskoekiko eta EBZkoekiko bateragarri izatea.

1.3.3. EBZren funtzioak

Itunak EBZSri ezartzen dion helburu nagusia da prezio-egonkortasuna mantentzea, eta, beraz, helburu horri kalterik egin gabe, "EBko ekonomia-politika orokorre lagunduko die". Helburu horretatik abiatuz, oinarritzko funtzio hauek betetzen ditu:

- Euroguneko diru-politika definitzea eta egikaritzea.
- Ezarritako diru-politikarekin zentzuzkoak diren dibisa-eragiketak egitea.
- Estatu kideen dibisa-erreserba ofizialak edukitzea eta kudeatzea.
- Eurogunean ordainketa-sistemen funtzionamendu egokia bultzatzea.

EBZSren funtzioen azaleko deskripzio horretan, bi gauza azpimarratu behar dira:

Truke-politikari dagokionez, azken subiranotasunak gobernuen eskuetan jarraitzen du, eta Europako Kontseiluari dagokio, beraz, truke-politikaren ildoak definitzea eta gai horren inguruan egin daitezkeen akordio espezifikoak formulatzea. Hala ere, arlo horietan, EBZ kontsultatu behar da, truke-kontrolako politika bateragarria izan dadin prezio-egonkortasunarekin, ezinbesteko helburu bat baita.

Kreditu-erakundeen ikuskaritzari dagokionez, EBZri esleitutako funtzioak, lehen ikusian, nahiko mugatuak dira, eta anbiguo samarrak; ikuskaritza nazio-agintarien eskuetan dago oraindik ere, nahiz Itunak, Europako Kontseiluak aurrez EBZri kontsulta egin ondoren, hari arlo horretan zeregin espezifikoak ezar diezazkiokeen.

1.3.4. Bankuak: gaur egungo egoera eta Europako aurreikuspenak

1993ko urtarrilaren 1az geroztik, barne-merkatua errealitate bat da banku-sisteman; hain zuzen, Banku Koordinazioaren Bigarren Zuzentaraua indarrean sartu zenetik. Zuzentarau horrek baimen bakarraren printzipioa ezarri zuen: bankuei eta beste kreditu-erakundeei sukurtsalak askatasunez irekitzeko eta erkidego guztian beren zerbitzuak eskaintzeko ahala eman zien. Estatu kide guztietan eskaini daitezkeen banku-jardueren zerrenda bat jasotzen du zuzentarauak; betiere, aipaturiko baimenak babestuak. 1993ko zuzentarauak kapital minimo bat izatera behartzen ditu bankuak, eta kautelazko arauak ezartzen ditu administrazio- eta kontabilitate-antolakuntza egokiari eta barne-kontrolako prozedurei dagokienez.

Bankuen sektoreko funtsezko hiru elementuak hauexek dira:

- Ezinbesteko harmonizazioa ezartzen du, estatu kide guztietan, banku-jardueraren alderdi hauetarako: sarbideari buruzko legedia eta praktika; kreditu- eta merkatu-arriskuei aurre egiteko nahitaezko funts propioak; hartzaile indibidual baten edo bezero lotetsien talde baten aurrean izan daitezkeen arrisku maximoen muga; eta bankuek publikatutako urteko kontuen eta kontu bateratuen forma, edukia eta ebaluazioa.

- Jatorrizko herrialdearen kontrola (*home country control*), ikuskaritza-agintari nazionalen arteko elkarlanaz indartua; beraz, beste estatu kide batzuetan jarduten duten bankuak jatorrizko estatuko agintari eskudunek kontrolatuko dituzte, hau da, baimen bakarra ematen duen eta egoitza soziala duen herrialdekoek.

- Nazio-agintariak elkar onartzea, haien lurretan diharduten bankuetan jatorrizko herrialdean indarrean dagoen araudia ikuskatzeari dagokionez.

1.3.5. EBZko diru-politika

Helburua: Euroguneko diru-egonkortasuna.

Europako diru-politikaren helburu nagusia zera da: Euroguneko diru-egonkortasuna lortzea, betiere jarraibide koherente eta arrazionalen arabera. Azken batean, inflazioaren inguruko aurreikuspenetarako informazioa lortzeko estrategia bat aukeratzen dute, publikoki, agente ekonomikoek.

Eurosistemak, bere helburuak lortzeko, diru-politika multzo bat du bere eskuetan; merkatu irekiko eragiketak egikaritzen ditu; erraztasun iraunkorrak eskaintzen ditu, eta kreditu-erakundeak erreserba minimoak mantentzera behartzen ditu.

EBZren diru-politikarako tresnak:

1.- Merkatu irekiko eragiketak. Helburua: sistemaren likidezia erregulatzea eta interes-tasak gidatzea. Eragiketak lau motatakoak izan daitezke:

- *Nagusiak:* tresna arrunt eta garrantzitsuenak dira, eta sistemari likidezia ematea dute helburu. Aktiboen aldizkako salerosketen eta bermatutako maileguen forma bereganatzen dute. Asteroko enkanteen bidez gauzatzen dira, eta bi asteko iraungitze-epea dute. Eragiketa horien interes-tasa sistemako erreferentziazko interes-tasa bilakatzea espero da.

- *Epe luzeagokoak:* eragiketa nagusien antzera bideratzen dira, hilerok, eta hiru hilabetera iraungitzen dira. Helburu nagusia da kontrakontu-bankuei epe luzeagoko gehigarri bat eskaintzea.

- *Egokitzeak (fine-tuning):* oso epe motzean merkatuen likidezia eta interes-tasak kudeatzea bilatzen dute; esaterako, merkatuko likidezari dagokionez, espero gabeko fluktuazioen efektua makaltzen saiatzen dira.

- *Estrukturalak:* EBZSren egoera estrukturala finantza-sistemarekin egokitzea bilatzen dute.

2.- Erraztasun iraunkorrak: finantza-erakundeei, egun bateko epean eta aurretik zehaztutako interes-tasak erabilita, EBZSn likidezia lortzeko edo ipintzeko aukera ematen diete. Egunero, bi interes-tasa izaten dira: gordailuena da baxuena, eta kredituena, aldiz, altuena.

3.- Kutxa-koefizientea: finantza-erakundeen kutxako aktiboen nahitaezko erreserba minimoak. Helburua da interes-tasak egonkortzea, merkatuaren likidezia-defizit estrukturala handitzeko edo txikitzeko. Finantza-erakundeen pasibo zenbakarrien % 1,5-2,5ean ezarrita dago. Eragiketa nagusietan epe motzerako lorturiko interesaren arabera ordaintzen da.

Erakunde lotuak deritze Euroguneko erakunde garrantzitsuekin lotura duten erakundeei, baita Eurogunean egoitza sozialik ez duten sukurtsalei ere. Kide diren herrialdeetan egoitzak dituzten erakundeek kide den estatuko egoitza bakoitzeko kontatzen dute.

1.3 taula. Pasibo zenbakarriak kutxa-koefizientean

Koefiziente positibodun aktiboak	Koefiziente nuludun aktiboak	Pasibo eskusiboak
<p>* Gordailuak: bi urte baino gutxiagoko epea; aurrez abisaturik, bi urtera arteko gordailuak erabilgarri.</p> <p>* Partaidetzaz eta akzioez beste balioak, bi urtetik beherako epemuga dutenak.</p> <p>* Igorritako beste aktibo likidoak.</p>	<p>* Gordailuak: bi urte baino gehiagoko epea; erabilgarri, bi urte baino lehenago abisaturik; aldi baterako lagapenak.</p> <p>* Partaidetzaz eta akzioez beste balioak, bi urtetik gorako epemuga dutenak.</p>	<p>* Beste entitate bateko pasiboak, EBZsko kutxa-koefizienteari lotuak.</p> <p>* EBZren edo banku zentral nazionalen aurrean pasiboak.</p>

Iturria: egileek prestatua (2009)

1.3.6. TARGET2 ORDAINKETA-SISTEMA:

TARGET2 (Trans-European Automated Real-Time Gross-Settlement Express Transfer System) zera da: eurotan egindako ordainketen likidazio-sistema bat. Banku zentral parte-hartzaile bakoitzeko banakako plataformak biltzen ditu plataforma partekatu bakar batean. TARGET sistema (denbora errealean likidazio gordina duten transferentzia azkarren Europako sistema automatizatu) berriztatzearen eta eguneratzearen ondorioz sortua da TARGET2, eta, besteak beste, diru-politikako eragiketen likidazioa egiteko aukera ematen du.

Diru-politika modu deszentralizatu batean hartzen denez, interkonexio- edo interlinking-sistema gisa definitu zen TARGETa. Haren bitartez, herrialde bakoitzeko ordainketa-sistemak elkarren artean lotzen zituzten. Espainiaren kasuan, sistema horri Espainiako Bankuaren Likidazio Zerbitzua (EBLZ) izena eman zitzaion, eta, gaur egun, TARGET2-BEk ordezkatu du.

TARGET2k denbora errealean likidazio gordina duten ordainketak —sistema nazionalaren baitakoak— (TARGET2-BE, gure herrialdearen kasuan) eta Europako Banku Zentraleko ordainketa-mekanismoak (TARGET2-ECB) bateratzen ditu. Gainera, plataforma partekatu bakar baten bitartez, mugaz bestaldeko ordainketen prozesamenduan elkarrekin konektatuta daude biok. Denbora errealean likidazio gordina duen sistema bat da. Ordainketa bakoitza banaka likidatzen da, konpentsatu gabe, eta berehalako tinkotasunaz. Finantza-erakunde bakoitzak ordainketa hasten du, eta banku zentralari igortzen zaio ordaintzeko eskaera. BZn dituzten kontuak bere horretan mantentzen dituzte. Behin saldo nahikoa edo bermeak badaudela egiaztatuta, sistemak helburu-herrialdeko banku zentralari igortzen dio eskaera-agindua. Ondoren, EBZk helburu-erakundeari abonatzen dio ordainketa. EBko edozein estatuk du sistemarako sarbidea, baina diru-politikako eragiketak Euroguneko estatuek egin ditzakete soilik.

1.4. BANKU-NEGOZIOA

Banku-negozioa sakonki aldatzen ari da eremu guztietan, baita jardueraren oinarrian ere. Hala, bankuek merkatu eta produktuak dibertsifikatu dituzte, aukerako banaketa-kanalak garatu dituzte, kudeaketa-sistema berriak eskuratu dituzte, eta beren estrategiak adierazi dituzte lehiakortasuna gero eta gogorragoa den ingurune batean.

Egoera horren aurrean, ingurunea gero eta nazioartekoagoa eta askeagoa da, eta, ondorioz, askotariko nazionalitateetako bankuen arteko lehia hazi egin da, baita banku horien eta gainerako finantza-bitartekarien artekoa ere, eta, era berean, eragile horiek guztiak beste sektore batzuetako enprekin lehiatzen dira. Prozesu horren onurak kontsumitzaileek jasotzen dituzte, ezbairik gabe, finantza-kostuak murriztu eta produktuen-eskaintza zabaldu egiten baita.

1.5. FINANTZA-BITARTEKARIAK

Kreditu-erakundeak zer diren azaltzen hasiko gara. Kreditu-erakundeak enpresak dira, ohiko jarduera publikotik gordailuak edo berriz itzultzeko bestelako funtsak jasotzen dituztenak eta kredituak ematen edo/eta beren kontura balioetan inbertsioak egiten dituztenak. Honako erakunde hauek hartzen dira kreditu-erakundetzat:

- Gordailu-erakundeak: bankuak, aurrezki-kutxak eta kreditu-kooperatibak
- Kredituko finantza-erakundeak
- Kreditu Ofizialeko Institutua (KOI)
- Diru elektronikoko erakundeak

Espainiako Bankuak kreditu-erakunde guztiak ikuskatzen ditu, eta baita elkarrekiko berme elkarreak ere.

1.5.1. Bankuak, aurrezki-kutxak eta KOI

Bankuaren definizioa: "Bankuen hitzarmenean jarduten duten pertsona natural edo juridikoek, ohituraz eta irabazi-asmoz, jendearengandik funtsak jasotzen dituzte, bestelako inbertsioak lortzen dituzte, eta kredituzko aktiboko eragiketa gisa aplikatzen dituzte beren kontura; betiere, merkataritza-legeak eta merkataritza-ohiturak errespetatuz. Gehienetan, beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen dizkiete beren bezeroei: igorpen-, transferentzia-, zaintza- eta bitartekaritza-zerbitzuak, zerbitzu horiekin loturiko beste zerbitzu batzuk, eta merkataritza-batzordearen beste zerbitzu batzuk" (Bankuen Antolamendurako Legea, 1946).

Definizio hori zaharkitu samar geratu da, baina baliagarri zaigu erakunde horien ezaugarri garrantzitsuenak ezagutzeko:

- Irabazi-asmoa duten erakundeak dira: mozkinak lortzea dute helburu.
- Hiru motatako eragiketak egiten dituzte, batez ere: pasiboko eragiketak edo baliabideak lortzeko eragiketak, aktiboko eragiketak edo lortutako baliabideak inbertitzeko eragiketak, eta beste finantza-zerbitzu batzuk eta diruzaintzako zerbitzuak (diru-trukea, enpresen aholkularitza, eta abar).
- Sozietate anonimoaren izaera juridikoa izan behar dute.

Askotariko sailkapen edo banku-ereduak daude, baina banku unibertsalaren eta banku espezializatuen artekoa da gaur egungo bereizkuntza erabilgarriena:

- Banku unibertsala: banku-negozioko arlo guztiak biltzen ditu, estrategia global bati jarraitzen dio, eta produktu eta merkatuak dibertsifikatzen ditu.
- Banku espezializatuak: erakunde kopuru handia duten banku-sistemen artean, gero eta zabalduago dago aukera hori. Bezero-segmentuen, eremu geografikoen, produktuen, zerbitzuen eta abarren arabera sailkatzen dira.

Aurrezki-kutxei dagokienez, Aurrezki Kutxei buruzko Euskal Legeak honela definitzen ditu: "Eraketa publiko edo pribatuko finantza-erakundeak, merkataritza-irabazi asmorik gabekoak, beste

inongo enpresaren menpe ez daudenak eta aurrezki administratzeko, lortzeko eta inbertitzeko zereginen jarduten dutenak".

Hona hemen kutxen ezaugarri nagusiak eta kutzak bankuetatik bereizten dituzten ezaugarriak:³

- Ikuspuntu operatibo batetik, bankuek egiten dituzten eragiketa berak egin ditzakete.

• Irabazi-asmorik gabea. Banku eta aurrezki-kutxen arteko ezberdintasun handienetariko bat da. Banku baten funtsezko helburua da ahalik eta mozkin gehien lortzea. Kutxek, ordea, gizarte-xede bat dute.⁴

- Badira beste desberdintasun batzuk ere, hala nola izaera juridikoa, gobernu-organoak, eta abar.

Espainiako Aurrezki Kutxen Konfederazioan (EAKK) (Confederación Española de Cajas de Ahorro, CECA⁵) taldekaturik daude. EAKK Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren kontsulta-organoa da aurrezki-kutxeri dagokienez, eta, gainera, beste kutxa bat gehiago balitz bezala jarduten du: higigarrien inbertsio-elkarteetan parte hartzen du, aholkularitza-zerbitzua ematen du, baita produktu deribatuekin eragiketak egiteko aukerak eman ere, eta abar.

Laburbilduz, banku-enpresak enpresak dira jatorriz, eta funtzio zehatz batzuk dituzte, enpresen ekonomian aztertu diren enpresa-ereduen ohiko jardueren ezberdinak direnak. Bestalde, erakunde horien historia luzea eta inguruarekiko etengabeko egokitzea dela eta, argi dago enpresa erabilgarri bat eta sozialki beharrezkoa dela.

Kreditu Ofizialeko Institutua (Instituto de Crédito Oficial, ICO⁶) ere aipagarria da, kreditu-erakunde bat baita, baina ezaugarri berezi batzuk dituena. KOI estatuko finantza-agentziatzat har daiteke. 1971n eratu zen, eta enpresa-erakunde publikoen izaera juridikoa du. Ekonomia Ministerioari atxikita dago, Energiaren, ETEen eta Estatuko Ekonomia Idazkaritzaren bidez. Gainera, Espainiako Bankuko administrazio-erregistro berezian erregistratuta dago.

KOIren helburua: nazioko aberastasunaren banaketa hobetzen eta hazten laguntzea eta, batez ere, gizarte-, kultura-, berrikuntza- edo ekologia-arloetan garrantzi handia duten eta lehentasunezko arreta merezi duten jarduerak sustatzea eta jarduera horiei eustea. Helburu hori aurrera eramateko, KOIk funtzio bikoitza betetzen du, hots, kreditu-erakunde espezializatu gisa nahiz estatuko finantza-agentzia gisa jarduten du.

Finantza-erakunde publiko bat den aldetik, KOIk gainerako finantza-erakundeekin lan egiten du, eta sistema pribatuak partzialki babesten dituen edo batere babesten ez dituen finantzazio-beharrez arduratzen da.

Kreditu Ofizialeko Institutuaren funtzioak hauek dira:

1.- Kreditu-erakunde espezializatu gisa: Espainian kokatuta dauden enpresen inbertsio emankorrak epe ertain edo luzera finantzatzea. Zentzu horretan, KOIren jarduerak hauek dira:

- *artekaritza-lerroak*
- *eragiketa zuzenak*

³ Espainiako finantza-sistema sakonki aldatzen ari da nazioarteko finantza-sistemaren erreforma-esparruan, eta horrek batik bat aurrezki-kutxetan du eragina. Erakunde horiek kontzentrazio-prozesuak jarri dituzte abian, bat eginez edo babeserako instituzio-sistemak (sistemas institucionales de protección, SIP) eratuz; horrek aurrezki-kutxen sektorea "banku bihurtzea" dakar nolabait.

⁴ Aurrezki-kutxek gizarte-ekintzara bideratu behar dute, nahitaez, irabazien % 50.

⁵ Ikus: <http://www.ceca.es>

⁶ Ikus: <http://www.ico.es>

2.- Estatuko finantza-agentzia gisa: krisi ekonomikoaren, hondamendi naturalen edo antzeko ezohiko gertaeren ondorioz kaltetu direnei finantzazioa eskuratzen laguntzea, baldin eta gobernuak hala eskatzen badu. Kasu horietan, KOIk bere funtzioa betetzen du, diru publikoa jasota edota interes-tasa diferentzialak konpentsatuz. Halaber, KOIk esportaziorako eta garapenerako finantza-baliabide ofizialak kudeatzen ditu.

1.5.2. Kreditu-kooperatibak

Kreditu-kooperatibak izaera bikoitza duten instituzioak dira: batetik, sozietate-kooperatibak dira (haien aplikazio-arauei loturik daude), eta, bestetik, gordailu-erakundeak dira (finantza-bitartekariei aplikatutako arauei loturik daude).

Haien helburua da bazkideen eta beste hirugarren batzuen finantza-beharrak asetzea, eta, horretarako, kreditu-erakundeen ohiko jarduerak egiten dituzte. Bazkideen kopurua mugagabea da, eta bezero horiek zor sozialekiko duten erantzukizuna bezeroek berek eginiko ekarpenen baliora mugatzen da soilik.

Kreditu-kooperatibak honela taldekatu daitezke:

- *Nekazaritzako kreditu-kooperatibak edo nekazaritza-kutxak*: haien helburua da nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-sektorea finantzatzea, nekazaritza-eremuetan bizitza-baldintzak hobetu daitezen.
- *Nekazaritza-arlokoak ez diren kreditu-kooperatibak*, industria- eta hiri-izaerakoak; profesionalak laguntzera bideratuta daude.

1.4 taula. Gordailu-erakundeen arteko ezberdintasunak

Kontzeptua	BANKUA	AURREZKI-KUTXA KREDITU-KOOPERATIBA	
Izaera juridikoa	Merkataritza-sozietatea	Fundazio-izaera duten erakundeak	Sozietate-kooperatibak
Oinarrizko joera	Kapitalista pribatua	Gizarteari begirakoa	Kooperatibaren bazkideak
Mozkinen kanpo-banaketa	Dibidenduak	Gizarte-ekintza	Hezkuntza- eta sustapen-funtsa
Kapital arruntaren zabalkuntzak	Bideragarriak	Ezinezkoak ⁷	Bideragarriak
Lurraldearekiko lotura	Murritza	Sakona (sortzailea)	Sortzailea
Organo erregulatzailerak	Estatua	Estatua Autonomia-erkidegoak	Estatua Autonomia-erkidegoak
Organo zuzendariak	Batzar orokorra Administrazio-kontseilua	Batzar orokorra Administrazio-kontseilua Kontrol-batzordea	Batzar orokorra Kontseilu zuzendaria
Oinarrizko ordezkari-taldeak	Akziodunak	Toki-korporazioak Ezarleak Erakunde fundatzaileak Langileak	Bazkideak

1.5.3. Kredituko finantza-erakundeak (Establecimientos Financieros de Crédito, EFC)

Kredituko finantza-erakundeen ezaugarri nagusia da gainerako kreditu-erakundeekin alderatuz aktiboko eta pasiboko eragiketetan duen muga. Haien oinarrizko arloak 3/1994 Legean, 12/1995 Errege Lege Dekretuan eta apirilaren 26ko 696/1996 Errege Dekretuan definiturik daude.

Haien aktiboko eragiketen mugari dagokionez, kredituko finantza-erakundeek maileguak edo kredituak presta ditzakete soilik (finantzazio-erakundeak eta hipoteka-kredituen sozietateak). Bestalde, honako eginkizun hauek ere betetzen dituzte: factoring-, leasing-, renting- eta confirming-eragiketak; kreditu-txartelak jaulkitzea eta kudeatzea, eta abal eta bermeak edo antzeko konpromisoak ematea.

Haien pasiboko eragiketen muga, berriz, honetan datza: jendearengandik funtsak lortzeko debekua dute, baldin eta gordailu-eran zein mailegu eta aktiboan behin-behineko lagapen-eran eta antzerako beste baliabideen bidez itzultzen bada funtsen dirua.

1.5.4. Diru elektronikoko erakundeak

2008ko martxoaren 4an, diru elektronikoko erakundeen araubide juridikoa indarrean sartu zen, Diru Elektronikoko Erakundeen Araubide Juridikoaren Errege Dekretuaren bitartez (2008ko martxoaren 3koa).

⁷ Badago partaidetza-kuotak igortzeko aukera. Ikus: 44/2002 Legearen 14.artikulua (44/2002 Legea, azaroaren 22koa, Finantza Sistema Erreformatzeko Neurriei buruzkoa) eta 302/2004 Errege Dekretua, otsailaren 22koa, Aurrezki Kutxen Partaidetza-Kuotei buruzkoa.

Definizioa: diru elektronikoko erakundeen jarduera nagusia da diru elektronikoz ordaintzeko bideak jaulkitzea.

Diru elektronikoa: jaulkitzaile baten kreditu galdagarria ordezkatzeko duen diru-balioa da.

- a) Euskarri elektronikoko batean bilduta dago.
- b) Jaulkitako diru-balioa baino balio txikiagoa ez duten funtsak jasotzen direnean jaulkitzen da.
- c) Jaulkitzaileaz aparteko enpresek onartzen duten ordainketa-bide bat da.

1.5.5. Elkarrekiko berme-elkarteak (Sociedades de Garantía Recíproca, SGR)

Elkarrekiko berme-elkarteen lege-irudia 1978ko uztailaren 26ko 1885 Errege Dekretuak jaso zuen Espainian; ondoren, 1/1994 Legeak berriztatu zuen araudia (1/1994 Legea, martxoaren 11koa, Elkarrekiko Berme Elkarteen Erregimen Juridikoari buruzkoa). Enpresaburuek sortutako merkataritza-elkarteak dira, kapital aldakorrek, eta haien helburua hau da: abalak edo adosturiko beste edozein bide erabiliz, beren bazkideen alde bermeak eskaintzea beren enpresetan egiten dituzten eragiketarako.

Elkarrekiko berme-elkarteek bi funtzio nagusi betetzen dituzte:

- Banku-finantzazioa lortzen laguntzeko abalak ematen dizkiete ETEei.
- Abala jaso duten enpresei finantzazio-lerro pribilegiatuetara jotzen laguntzen diete, eta, hala, beren kabuz merkatuan lortuko lituzketen baino baldintza hobekien lor ditzakete beren kredituetan.

1.5.6. Inbertsio-zerbitzuen enpresak (Empresas de Servicios de Inversión, ESI)

Izaera profesionaleko inbertsio-zerbitzuak beste hirugarren batzuei eskaintzea jarduera nagusizat duten finantza-erakundeak dira.⁸ Honako inbertsio-zerbitzu hauek ematen dituzte:

- a) Aginduak jasotzea, igortzea eta betearaztea, beste hirugarren baten kontura, finantza-tresna bati edo gehiagori dagokienez.
- b) Negoziazioa norberaren kontura izatea.
- c) Inbertitzaileen aginduen arabera, inbertsio-zorroak banaka eta aukeran kudeatzea.
- d) Finantza-tresnak ezartzea.
- e) Finantza-tresnak igorriko edo ezarriko direla ziurtatzea.
- f) Finantza-tresnen bitartez eragiketa bat edo gehiago ziurtatzea inbertsio-eremuan.
- g) Alderdi askoko kudeaketa-sistemak kudeatzea.

Espainian, gaur egun, inbertsio-zerbitzuak ematen dituzten hiru enpresa mota daude. Enpresa horiek hainbat jarduera eta zerbitzu eman ditzakete, baina zerbitzu batzuk inbertsio-zerbitzuen enpresa mota batzuek soilik eman ditzakete.⁹

⁸ Gaur egungo Balioen Merkatuaren Legeak eta 217/2008 Errege Dekretuak (217/2005 ED, otsailaren 15ekoa, inbertsio-zerbitzuen enpresen eta inbertsio-zerbitzuak ematen dituzten beste erakunde batzuen erregimen juridikoari buruzkoa) arautzen dituzte IZEak.

⁹ Azkenaldian, finantza-aholkularitzako enpresak ere sartu dira inbertsio-zerbitzuen enpresen kontzeptuaren barnean. Finantza-aholkularitzako enpresek inbertsio-kontuetan eta antzeko eragiketetan eman dezaketete aholkularitza-zerbitzua, eta baita txostenak egiteko orduan eta finantza-tresnekin eragiketei dagozkien analisiak egitean ere.

Lehenik, **balio-sozietateak** ditugu (Sociedad de Valores, SV). Balio-sozietateek mota guztietako inbertsio-zerbitzuak eskain ditzakete. Hain zuzen ere, enpresa horiek badute baimena bai bezeroen kontura eta baita beren kontura ere eragiketarako egiteko.

Balio-agentziak (Agencias de Valores, AV), berriz, ezin dute eragiketarik egin beren kontura; beren bezeroen kontura soilik egin dezakete balioak erosteko edo saltzeko. Debeku horrek enpresa horiek eskain ditzaketen jarduerak eta zerbitzuak mugatzen ditu. Beraz, esaterako, inbertitzaileei ezin diete kreditu edo mailegurik eman.

Beste inbertsio-zerbitzu mota bat da **balio-zorroen kudeaketa**. Jarduera hori, balio-sozietateek eta -agentziak ez ezik, inbertsio-zerbitzuen enpresek ere bete dezakete; **zorroak kudeatzeko sozietateen (Sociedades Gestoras de Carteras, SGC)** bitartez, hain zuzen ere. Enpresei zein inbertitzaileei aholkuak emateko eta inbertitzaileek adierazitako aginduen arabera inbertsio-zorroak kudeatzeko baimena dute soilik erakunde horiek.

1.5.7. Arrisku kapitaleko sozietateak (Sociedades de Capital Riesgo, SCR)

Haien xedea da ETE berriztatzaileen kapital sozialean parte hartzea, aldi baterako, gutxiengoa osaturik.

Arrisku kapitaleko sozietateak sozietate anonimoak dira, eta haien helburu sozial nagusia honako hau da: aldi baterako partaidetzak izatea enpresa ez-finantzarioen kapitallean (parte hartzeko unean, balio-burtsen lehenengo merkatuan kotizatzen ez duten enpresak izan behar dute). Arrisku kapitaleko funtsek sozietateek duten xede sozial bera dute, baina, funtsak direnez, sozietate kudeatzaile batek administratu behar ditu.

Hala, hasiera batean, arrisku kapitaleko erakundeek badute aukera zenbait enpresaren akzioak beren aktiboan mantentzeko, akzio horiek eskuratu zituztenean burtsan kotizatu ez arren. Geroago, ordea, burtsan kotizatzerara igarotzen dira.¹⁰

Badago aukera aktiboen % 50 ondasun immaterialetan inbertitua duten enpresek jaulkitako balioak eskuratzeko. Arautegi berrian, talde bereko enpresetan aktiboen % 25 inbertitzeko aukera ere biltzen da.

Sozietate horiek Balio Merkatuaren Batzorde Nazionalak (BMBN) ikuskatzen ditu.

1.5.8. Inbertsio kolektiboko erakundeak (Instituciones de Inversión Colectiva, IIC)

Titulu propioak jaulkiz hainbat pertsonaren kapitalak biltzen dituzten finantza-erakundeak dira inbertsio kolektiboko erakundeak. Bildutako kapitala balio-zorro bat eskuratzeko inbertitzen dute, arriskuen banaketaren eta murrizte-politikaren arabera. Banakako kudeaketaren eta inbertsioaren bidez lortuko genituzkeen baino baldintza onuragarriagoetan osatzen eta kudeatzen da balio-zorroatik.

Egindako inbertsioen ezaugarrien arabera sailka daitezke inbertsio kolektiboko erakundeak:

- Finantza-inbertsio kolektiboko erakundeak. Aurreztaileei higigarrietan inbertitzen laguntzen diete. Horretarako, aurreztaileen ekarpenak jaso, eta balioak eskuratzeko inbertitzen dituzte; hala, profesional espezializatuek kudeatzen dituzten zorroak osatzen dituzte.
- Finantza-izaerarik ez duten inbertsio kolektiboko erakundeak. Aurreztaileen ekarpenak finantza-izaerarik ez duten aktiboetan inbertitzen dituzte (higiezinak, metal preziatuak, materialak, eta abar.).

¹⁰ Burtsan nahitaez kotizatzearen baldintza bertan behera gelditu zen arrisku kapitaleko sozietateentzat (2008an) eta kapital aldakorreko inbertsio-elkarteentzat (2006an). Beren akzioak Burtsa Merkatu Alternatiboan (MAB) jaulkitzea aukeratu dezakete, edo baita inbertsio-funtzen sistema erabiltzea ere. Azken kasu horretan, kudeatzaileak erabakitzen du eguneroko likidazio-balioa.

- Inbertsio askea (2005etik)¹¹: inbertsio askeko elkarteak , inbertsio askeko funtsak , eta inbertsio askeko inbertsio kolektiboko erakundeen inbertsio kolektiboko erakundeak.
- BMBNk ikuskatzen ditu higigarrien eta higiezin inbertsio kolektiboko erakundeak.

1.5.9.- Aseguru-egileak

Azkenik, Aseguruen Zuzendaritza Orokorra du aseguru eta pentsio-plan eta pentsio-funtsen erakundeen funtzionamendua ikuskatzeko erantzukizuna. **Aseguru-egileen** helburu nagusia da arriskuen babesa eskaintzea: onuradunei kalte-ordaina eta zerbitzua ematea ezbeharren kasuan, adostutako muga batzuen barruan.

Ezbeharra zorizko gertakizunak dira, baina, zorizkotasun hori banaka begi-bistakoa den arren, arriskuaren aurrean zenbat eta pertsona gehiago egon, orduan eta txikiagoa da zorizkotasuna. Estatistikak erakusten du “zorizko fenomenoaren irregulartasuna txikitu egiten dela fenomeno horien gertakizunen kopurua gehitzen den neurrian”. Ondorioz, aseguruak babesa ematen dute zorizkotasun horren aurrean: aseguruak aseguru bidez babesten dituzte, eta aseguru-egilea, berriz, babestuta geratzen da aseguruaren kopuru handi batekin egiten dituen eragiketei esker.

Badaude zorizkotasuna murrizten duten zenbait tresna; besteak beste, *berraseguruak* (reaseguros) eta *asegurukideak* (coaseguros). Berraseguruak aseguru-egile baten arriskuaren zati bat beste aseguru-egile bati lagatzean oinarritzen da. Asegurukideen bitartez, berriz, arriskua hainbat aseguru-egileren artean banatzen da.

Aseguru-jarduerak ugariak dira, hainbat arrisku mota aseguru baitaiteke. Hona gehien erabiltzen den sailkapena:

- *Bizitza-aseguruak*:
 - Heriotza-kasuetarako bizitza-aseguruak. Aseguruduna hilez gero, kapital bat edo aldi baterako errenta bermatzen diote onuradunari.
 - Biziraupenerako bizitza-aseguruak. Data jakin batean aseguruak bizirik jarraitzen badu, kapitala edo aldi baterako errenta bermatzen diote onuradunari.
 - Aseguru mistoak. Aurreko bi babesak bermatzen ditu.
- *Bizitza-aseguruak ez direnak*: gainerako aseguruak biltzen ditu (autoa, etxea, suteak, lapurreak, istripuak, eraikinak, osasun zerbitzuak, eta abar)

Aseguru-egileek etorkizuneko ordainketa-betebeharrak babes ditzaten, behartuta daude aurretik hornidura edo erreserba teknikoak osatzera eta erreserba horiek aktiboetan inbertitzera, legeak zehazten dituen dibertsifikazio-, likidezia-, errentagarritasun- eta segurtasun-printzipioen arabera.

1.5.10.- Pentsio-funtsen erakunde kudeatzaileak

Pentsio-funtsen erakunde kudeatzaileak sozietate anonimo mota bat dira, eta haien helburu soziala eta jarduera eksklusiboa da **pentsio-funtsak** administratzea. **Pentsio-funtsa** izaera juridikorik gabeko ondareztat hartzen da; pentsio-plan bati lotuta dago, eta estatuak sustatzen, kontrolatzen, babesten eta baimentzen du. Haren xedea da langileen eta enpresaren beraren aldetik prestazio batzuk jasotzea, bizitzan izan daitezkeen gertakizunen aurrean laguntza ekonomikoak ematea bermatzeko.

¹¹ Hala, *Hedge Funds* direlakoek argi berdea dute. *Hedge Funds*ak kudeaketa alternatiboko produktuak dira, funts baten bitartez kudeatzen direnak. Helburua da edozein merkatu-ziklotan kapitala babestea eta errentagarritasun absolutu positiboak eskuratzea. Hori dela eta, tresna deribatuak erabiltzen dituzte, estaldura lortzea helburu.

1.6. KREDITU-ERAKUNDEEN ERREGULAZIOA

Europar Batasunean indarrean den legedia kontuan izanda (hots: Kreditu Erakundeen Jarduerarako Sarbideari buruzko Legea, Europar Batasuneko Parlamentuak emana 2006ko ekainaren 14an; 2006/48/EK, Europar Batasunak eta Europako Kontseiluak emana, Zuzendaritzaren eta Baliabide Propio Minimoen Zehaztapenari buruzkoa; eta 3/2008 Espainiako Bankuaren Zirkularra (EBZ), maiatzaren 22koa, Kontrolari buruzkoa), baldintza hauek ezarri dituzte:

- Kapital soziala bost milioi eurotik beherakoa denean ez da baimenik ematen. Hala ere, estatu kideetako nazioetako agintariek baimena eman dezakete kasu bereziren batean, baina, betiere, hasierako kapitala ezin da izan milioi bat euro baino gutxiagokoa.

- Kaudimen-koefizientearen gutxienekoa % 8n finkatu da. Funts propioen (zenbakitzailea) eta arriskuaren arabera haztatutako aktiboen (izendatzailea) arteko zatiketa da kaudimen-koefizientea. Zuzendaritzak berak zehazten du, 34.enetik 46.enerako artikuluetan, funts propioetan eta aktibo zenbakarrietan zer sartu behar den, eta baita aplikatu beharreko haztapenak zein diren ere.

Espainiako Ekonomiako Ministerioak % 10era igo du kaudimen-koefizientea honako erakunde hauentzat: oinarritzko kapitalaren (*core capital*) gutxieneko kopuru bat kotizatzen ez duten edo kapitalaren % 20 gutxienez inbertitzaile pribatuena ez den eta, gainera, handizkako finantzazioaren % 20 baino ehuneko handiagoa agertzen duten finantza-erakundeentzat. Bankuentzat, aldiz, % 8an ezarri du koefizientea.

Nolanahi ere, **Banku Berregituraketa Antolatuaren Funtsaren** (Fondo de Reestructuración Ordenada Bancaria, FROB) laguntza publikoak kapitalizat hartzea baimendu dute da (2/2011 ED, otsailaren 18koa, eta 2/2011 EBZ). BBAF erakundea 2009ko ekainaren amaieran sortu zen.

- Kreditu-erakunde batek bezero bati edo elkarren artean erlazionatutako bezero-talde bati dagokionez bereganatutako arriskuak "arrisku handi"tzat hartzen dira, haien balioa beren funts propioen % 10 edo handiagoa denean. Arrisku handiei dagokienez, honako muga hauek ezarri dituzte: kreditu-erakunde batek ezin ditu bere gain hartu bere funtsen % 25 gainditzen duen bezero bati edo elkarren artean erlazionatutako bezero batzuei dagozkien arriskuak; Bestalde, arrisku handien balio metatuak ezin du bezeroen funtsen % 800 gainditu.

Gainera, kreditu-erakundeek, ekitaldi bakoitza ixtean, beren gordailuen bi milako sartu behar dute **Gordailuen Berme Funtsan** (Fondo de Garantía de Depósitos, FGD) (1642/2008 Errege Lege Dekretua, urriaren 10ekoa); bestalde, Espainiako Bankuak pasiboen % 2ko kutxa-koefizientea eskatzen du gaur egun, hau da, kreditu-erakundeek Espainiako Bankuaren kontu-korrontean izan behar dute beren pasiboen % 2.

2/2011 EDk (2011ko otsailaren 18koa, Finantza Sistema Indartzeari buruzkoa) GBFra ekarpen gehigarriak egitera behartzen ditu gordailuei interes altuegiak aplikatzen dizkieten erakundeak. Pasiboen gerra bertan behera uztea da helburua.

GBFn partaidetza duten erakundeek 100.000 euroko saldoa bermatzen dute Espainian. Gordailuen Berme Funtsak oso paper garrantzitsua jokatzeko du BBAFren kudeaketan.

1.7. FINANTZA-SISTEMEN BILAKAERA-FAKTOREAK

Hona hemen kudeatze-jarduera baldintzatzeaz gainera egoera bera eta finantza-sisteman parte hartzen duten subjektuak ere baldintzatzen dituzten faktore nagusiak, garrantzia eta eragina baitute:

1.- Erregulaziorik eza

Erregulaziorik eza esaten dugunean, bankuen babes-hesiak suntsitzea esan nahi dugu; alegia, ez du adierazten legerik ez dagoenik. Finantza-erakundeek ekite mugen malgutasuna darama eta praktikan, erakunde mota jakin batentzat izan ezik (kredituko finantza-erakundeak), jarduera-mugarik gabeko eremu bat ezartzen du.

Egoeraren arabera sortzen diren askotariko alderdien ondorio da erregulaziorik eza: azken inbertitzaileak finantza-kultura handiagoa izatea, finantza-sistemen artean egiazko loturak egotea, denboraren eta espazioaren hesiak murrizten dituzten aurrerapen teknologikoak, eta abar. Erregulaziorik ezak arazoak ere ekartzen ditu, finantza-erakunde batzuen prestakuntza gabezia dela eta; izan ere, lehiatzeko gogo handiak bultzaturik, oso ondo ezagutzen ez dituzten negozio-guneetan sartzen dira, eta ziurgabetasun-egoerak sortzen dira.

Erregulaziorik eza biziki loturik dago bitartekaritzarik ezarekin.

2.- Bitartekaritzarik eza

Aurreztaileen eta inbertitzaileen arteko finantza-bitartekari klasikoek edo ohikoek nagusitasuna galtzeko prozesua da, eta beste erakunde batzuek —finantzarioak izan edo ez izan— nagusitasun horren zati bat beren gain hartzen dutenean gertatzen da. Hau da, agente berriak sartzen ari dira banku-negozioan: aseguru-egileak, balio-agentziak, enpresa ez-finantzarioak (estatua). Honako arrazoi hauek eragiten dute prozesu hori: nazioartekotasuna, aurrerapen teknologikoak, eta ohiko bankuek orain arte eman duten irudi txarra.

3.- Titulazioa edo titulu bihurtzea (“titulización” edo “securitización”)

Finantza-teknika bat da. Haren bitartez, likidezia gutxiko finantza-aktiboak tresna negoziagarri bihurtzen dira.

Prozesuaren oinarrian, egoera-balantzetik aktiboen zati bat ezabatzea dago, eta zati hori finantza-tresnen bidez edo kapital-merkatuetako finantza-aktiboak (bonuak) jaulkiz berfinantzatzen da. Jaulkipenaren titularrek aktibo horiek sortzen duten errentagarritasuna jasotzen dute, eta aktibo horiek, bestalde, rating batez adierazirik daude (inbertitzaile batek printzipala eta interesak berreskuratzeko bereganatzen duen arriskua; kategoriatan ezartzen dira, eta aktibo batek rating maximoa izateak esan nahi du kalitate handia duela itzultze-gaitasunari dagokionez).

Titulu bihurtutako jaulkipenetan, beharrezkoa da, esan dugun bezala, kredituaren arriskua ebaluatzea, eta baita lege- eta likidezia-kontuak eta eragiketako parte-hartzaileak ere.

Titulazioa zenbait alorretan abantailak lortzeko erabiltzen da: abantaila lehiakorra (eskala-ekonomiak, merkatu-kuotaren gehikuntza, prezioak murriztea), finantzazio-iturriak zabaltzea, arriskuaren kudeaketa dibertsifikatzea eta oreka lortzea, eta errentagarritasuna hobetzea.

4.- Finantza-berrikuntza

Erakunde-, jardute- eta finantza-merkatuak eraldatzeko eta zabaltzeko prozesua da. Zenbait alderdi biltzen ditu:

- Finantza-tresna, merkatu eta teknika berriak eratzea.
- Finantza-tresnen arteko konbinazioak.
- Ezin daiteke berrikuntza ulertu teknologiarik gabe eta hura aplikatu gabe, haiexei esker garatzen baitira banku-eredu berriak, finantza-produktu berriak eta abar.

5.- Merkatuak nazioetan gaindi

Zera esan nahi du: teknologiari esker, gaur egun badago aukera munduko edozein tokitan aktiboak denbora errealean erosteko eta saltzeko, eta, hala, gune geografiko batean ardaztutako bankuen ohiko kontzeptua zaharkituta geratzen ari da.

Adibidez, **Europako Ordainketa Eremu Bakarra** (Área Única de Pagos en Euros, SEPA) zera da: estatu baten mugen barneko zein mugez kanpoko eremu bat, herritarrei eta enpresei ordainketak eta kobrantzak euroaren bidez egikaritzeko aukera ematen diena. Ordainketak eta kobrantzak estatu baten barnean zein estatuen artean egin, baldintza beretan egiten dira (Ordainketen gaineko Zuzentaraua, 2007ko apirilaren 24an Europako Parlamentuan onartua).

Gaur egun, eremu horretan, euroko billete eta txanponekin ordaindu eta kobra daiteke, eta, horretaz gainera, diru-transferentziak zein agiriak egikaritu daitezke bestelako zailtasunik gabe. EOEBk honako ordainketa-tresna hauek arautzen ditu:

- banku-transferentziak (indarrean dira 2008ko urtarrilaren 28tik)
- helbideratutako agiriak
- txartelen bidezko ordainketak

Europako zuzentarau hori bulegoetan zein Interneten betetzen dela bermatzeko, gordailu-erakundeek beren profesionalak prestatu dituzte, eta prozesu guztiak egokitu.

6.- Garapen teknologikoa

Komunikabideetan, sistema informatikoetan eta kontratazio- eta likidazio-sistematan izandako aurrerapenaz ari gara. Adibidez, bankuak eta Internet, eta abar.

7.- Merkatuen globalizazioa

Merkatuak eta lehiakortasuna areagotzea dakar (kontsumitzaileen mesederako), baina baita finantza-bitartekariak arrisku handiagoa bereganatu beharra ere (tarteak murriztea, zorpetze handiagoa).

PROPOSATUTAKO ARIKETAK

1. Azaldu ezazu ea baieztapen hau egia edo gezurra den: “Europako Banku Zentralak eta Europako Diru Batasuneko estatu kideetako banku zentral nazionalak osatzen dute Europako Banku Zentralen Sistema”.
2. Azaldu ezazu zein diren finantza-sistema baten elementuak eta haietako bakoitzaren funtzio nagusiak.
3. 2007ko urtarrilaren 1etik, Errumania eta Bulgaria Europar Batasunaren barruan daude, nahiz eta beren diru nazionala izaten jarraitzen duten. Azaldu ezazu Europako Sistemako zein erakunderen barnean egongo diren beren banku zentralak eta zein diren erakunde horien funtzioak.
4. 2008an, Maltak eta Txiprek euroa onartu zuten diru gisa. EBZko zein erakunderi dagokio Maltako eta Txipreko diruen eta euroaren arteko truke-tasa zehaztea? Malta eta Txipre euroaren eremura barneratzearen ondorioz, herrialde horiek Europako sistemako erakundeetan duten parte hartzea aldatu al da?

5. Azaldu ezazu ea baieztapen hau egia edo gezurra den: “kredituko finantza-erakundeek leasing-, factoring- eta mailegu-eragiketak gauzatu ditzakete, eta, gainera, funts berreskuragarriak jaso ditzakete gordailu-eran”.

BIBLIOGRAFIA

- CASILDA BÉJAR, R.; LAMOTHE FERNÁNDEZ, P. eta MONJAS BARROSO, M.: *La banca y los mercados financieros*. Mc Graw-Hill, Madril, 1997.
- LÓPEZ PASCUAL, J. eta SEBASTIÁN GONZÁLEZ, A.: *Gestión Bancaria. Factores clave en un entorno competitivo*. Mc Graw-Hill, 3. argitalpena, Madril, 2007.
- PAREJO, J. A.; CUERVO, A.; CALVO, A. eta RODRIGUEZ SAÍZ, L.: *Manual del sistema Financiero*. Ariel Economía, 21. argitalpen eguneratua eta berrikusia, Bartzelona, 2008.

ESTEKA INTERESGARRIAK:

- ESPAINIAKO BANKUA (BANCO DE ESPAÑA): <http://www.bde.es>
- BALIO-MERKATUAREN BATZORDE NAZIONALA (COMISIÓN NACIONAL DEL MERCADO DE VALORES): <http://www.cnmv.es>
- EUROPAR BATASUNAREN WEBGUNEA (PORTAL DE LA UNIÓN EUROPEA) http://europa.eu/index_es.htm
- KREDITU OFIZIALEKO INSTITUTUA (INSTITUTO DE CRÉDITO OFICIAL): <http://www.ico.es>
- GORDAILUEN BERME-FUNTSA (FONDO DE GARANTÍA DE DEPÓSITOS): <http://www.fgd.es>
- AURREKI-KUTXEN FUNDAZIOA (FUNDACIÓN DE CAJAS DE AHORRO): <http://www.funcas.ceca.es/>
- KREDITU-KOOPERATIBEN ELKARTE NAZIONALA (UNIÓN NACIONAL DE COOPERATIVAS DE CRÉDITO): <http://www.unacc.com>
- ESPAINIAKO BANKUEN ELKARTEA (ASOCIACIÓN ESPAÑOLA DE BANCA): <http://www.aebanca.es>
 - http://www.aebanca.es/admin/ftpenlaces/Conferencia_ALCALA_15122008.pdf (Espainiako Bankuen Elkarteko presidentearen aurkezpena. 2009ko urtarrilaren 15a. Gaia: “Repercusiones de la crisis financiera en la banca española” [Finantza-krisiaren eragina Espainiako bankuetan])
 - http://www.aebanca.es/admin/ftpenlaces/090202_La_Crisis_Financiera_Internacional_De.pdf (Espainiako Bankuen Elkarteko presidentearen aurkezpena. 2009ko otsailaren 2a, parlamentuan. Gaia: : “La Crisis financiera internacional decíamos ayer –situación a finales de 2007– decimos hoy –situación actual– [Atzo (2007aren amaieran), nazioarteko finantza-krisia; gaur, gaur egungo egoera])
- LEOPOLDO ABADÍAREN WEB-ORRIA (finantza-krisiei, ekonomia-politikei eta beste hainbat gairi buruzko azalpen eta bideoak): <http://www.leopoldoabadia.com>
- LEOPOLDO ABADÍARI EGINDAKO ELKARRIZKETEN BIDEOAK: <http://www.youtube.com/watch?v=IU-j2mIwOpE>

- BANKU-BERREGITURAKETA ANTOLATUAREN FUNTSA (FONDO DE REESTRUCTURACIÓN ORDENADA BANCARIA, FROB): <http://www.frob.es>
- EUROPAKO BANKU-AUTORITATEA (AUTORIDAD BANCARIA EUROPEA, ABE; EUROPEAN BANKING-AUTHORITY, EBA): <http://www.eba.europa.eu/Home.aspx>
- EUROPEAN FINANCIAL SUPERVISION:
http://ec.europa.eu/internal_market/finances/committees/index_en.htm
- SUPERVISION FINANCIERA EUROPEA:
http://europa.eu/legislation_summaries/internal_market/single_market_services/financial_services_general_framework/mi0017_es.htm

II. ATALA: BANKU-ERAGIKETAK

2. GAIA: PASIBOKO ERAGIKETAK

Sarrera

Erakundeek jendearengandik funtsak edo finantza-baliabideak lortzeko erabiltzen dituzten eragiketak dira pasiboko eragiketak. Haien truke, finantza-produktu multzo bat eskaintzen diete bezeroei, eta inbertitzaileek interes-tasa bat jasotzen dute.

Hiru multzotan **sailkatuko** ditugu:

- 1.- Gordailu bidezkoak:** merkeena eta ohikoena; oro har, aurreztaile txiki eta ertainentzat.
- 2.- Balio higigarrien bidezkoak:** titulu-jaulkipen bidez edo aktibo propioko tituluen behin-behineko lagapen bidez lortzen dira baliabideak (esate baterako, kutxa-, banku- edo diruzaintza-bonuak; ez ditugu aztertuko).
- 3.- Bankuen arteko merkatuen bidezkoak:** bankuek epe laburrera edo ertainera elkarri uzten dizkioten funtsak dira. Handizkako finantzazio mota bat da (diru kopuru handiak).

Guk lehenengo biak aztertuko ditugu (gordailuak eta tituluak), eta hirugarrenari buruzko aipamen txiki bat baino ez dugu egingo.

2.1. GORDAILU BIDEZ EGINDAKO PASIBOKO ERAGIKETAK

Gordailuak hainbat modutara sailka daitezke, hala nola: diru motaren arabera (gordailuak nazioko diruan edo atzerriko diruan), gordailua eskaini duenaren motibazio ekonomikoen arabera (aurrezki-gordailuak, gastu-gordailuak edo enpresa-gordailuak), eta abar. Guk **muga-egunaren arabera sailkapena** egingo dugu. Hala, gordailu bidezko hiru eragiketa mota aztertuko ditugu: **ageriko kontu-korronteak, ageriko aurrezki-kontuak eta eperako gordailuak.**

Ageriko banku-kontuetan —alegia, kontu-korrante edo aurrezki-kontuetan—, dirua erabil dezakegu guk nahi dugun unean bertan edo aurretik abisu bat eman ez oso epe laburraz, eta kutxa-zerbitzua ere eskaintzen dute. Beste zerbitzu batzuk ere ematen dituzte: kontu horietara edozein diru-fluxu bideratzea, transferentzia-eragiketak egitea, kobrantzak eta ordainketak helbideratzea... Espainiako Bankuak 4/1991 EBZren bitartez adierazi duenez, kontu-korranteetako funtsak txeki bidez mobiliza daitezke, eta aurrezki-kontuen funtsak —alegia, libretak—, aldiz, ezin dira txeki bidez mobilizatu.

Finantza-erakundeen arteko lehia gero eta handiagoa denez, ahalik eta diru kopuru gehiena lortzen saiatzen dira. Hala, kontu batzuei izen deigarriak jartzen dizkiete (“superkontuak”...), eta beste eskaintza erakargarri batzuk ere gehitzen dizkiete, hala nola saldoen arabera etekin altuagoak ematen dituzten kontuak, interesak kitatzean maiztasun handiagoak eskaintzen dituzten kontuak, sariak eta aseguru-eskaintzak, eta abar.

2.1.1. Ageriko kontu-korronteak

Ageriko kontu-korronteak diru-gordailu irregularreko kontratuak dira. Dirua txeki bidez edo kontu-korronteko zor-agiri bidez erabil daiteke, eta kudeaketa-zerbitzu bat ere eskaintzen dute. Gordailugileek zuzenean edo behar bezala baimendutako beste hirugarren baten bitartez, funtsak kontutik atera edo funtsak kontuan sar ditzakete, aurretik inolako abisurik eman gabe eta itxaron behar izan gabe.

Une jakin batean bertan edo oso epe laburrean dirua erabilgarri izatea da haien ezaugarri nagusia. Gainera, badago aukera ageriko kontu-korronteen kontura transferentziak eta igorpen-eragiketak egiteko; alegia, ageriko kontu-korronteetatik edo ageriko kontu-korronteetara edozein diru-fluxu bideratzeko.

Banku-kontu bereziak¹²: finantza-kontuak

Finantza-kontuen kasuan, finantza-aktibo publikoetan edo likidezia handiko finantza-aktibo pribatuetan —merkatu antolatuetan negoziatzen direnak— ezartzen dira funtsak. Kontu horien helburua da 80ko hamarkadan sortutako finantza-erakundeek eta haien bezeroek eskuragarri dituzten inbertsio-aukeren eskaintza zabaltzea. Hala, haien baliabideen kopurua handitzea lortzen dute.

Ohiko kontuekin alderatuta, gordailu mota horiek honako abantaila hauek dituzte:

1. Errentagarritasuna handiagoa da.
2. Berehalako likidezia dute (balio-merkatuetan negoziatzen baitira, edo erakundeek tituluak berreroskete konpromisoa hartzen baitute).

Finantza-kontua kudeatzen duen entitateak oharrak argitaratu behar ditu egunero Erregistro Ofizialean: kontu guztien nominalaren zenbatekoa, titularren datuak eta haietako bakoitzaren zenbatekoak.

Finantza-kontuen kasu partikular bat: zor publikoan inbertitutako funtsak dituzten finantza-kontuak

Kontu horien bidez, finantza-erakundeek funtsak biltzen dituzte eta, segituan eta haien bezeroen kontura, Altxor Publikoko balioetan inbertitzen dituzte. Erakundeek, aldizka, balio horiek kontuaren titularrei erosi eta segituan birsaltzeko konpromisoa hartzen dute. Eragiketaren epemuga heltzean, titularrak kontratua deuseztatu ezean, kontua automatikoki berriztatzen da. Laburbilduz, berreroskete itun bat duten salerosketen (*repo*) segida bat baino ez dira kontu horiek, kontratu bakarraren babespean.

2.1.2. Ageriko aurrezki-kontuak

Ageriko aurrezki-kontuetan, finantza-erakundeak libreta bat ematen dio titularrari, haren eragiketa guztiak bilduko dituena. Ageriko kontuak izanda, berehalako erabilgarritasuna dute, ageriko kontu-korronteek bezala.

Lehen diru-ezarpena egitean, kreditu-erakundeak jabetzaren titulu izenduna eta transferiezina duen libreta bat ematen die kontuaren titularrari edo titularrei. Titularrek libreta erakutsi behar dute edozein eragiketa egin ahal izateko; bestalde, ordaindutako zein zordundutako zenbatekoen oharpenak jasotzen ditu libretak.

Ageriko kontu-korronteekiko desberdintasunak honako hauek dira:

- 1.- Funtsak erabilgarri izateko, beharrezkoa da libreta aurkeztea.
- 2.- Ezin dira txeke bidez mobilizatu.
- 3.- Erakundeak aurretik abisatzeko eska dezake, baina inoiz ez 30 egunetik gora.

Desberdintasun horiek teorikoak dira. Errealitatean, ordea, zaila da desberdintasunak nabarmentzea, kasu berezi batzuetan izan ezik (helburu finalista duten kontuetan, adibidez).

¹² Beste kontu korronte berezi mota batzuk ere badira; esate baterako, zorizko ordainsariak eskaintzen dituzten kontu-korronteetan, kirol-emaizten eta antzekoen arabera izaten da azken etekina.

Aurrezki-kontuen kasu berezi batzuk:

1.- Etxebizitza-kontuak

Etxebizitza-kontuek helburu zehatz batdute: titularren edo titularren ohiko etxebizitza erosteko, birgaitzeko edo eraikitzeko erabiliko da kontu horietan sartutako aurrezkiak. Hau da, titularrak, denboran zehar funtsak metatzea helburu harturik, kontu horietan dirua sartzen du etxebizitza bat eskuratzeko.¹³

Hona hemen etxebizitza-kontuek zer abantaila duten:

- 1.- Interes-tasa altuagoa.
- 2.- Tratamendu fiskal onuragarria (kenkari fiskalak).

Inbertitutako funtsen kenkari fiskalerako eskubidea galdu egin daiteke, honako arrazoi hauengatik:

- Titular batek etxebizitza-kontuan sartutako funtsak aurretik adostutako helburuak ez beste batzuetarako erabiltzen dituenean.
- Aurretik zehaztutako epean etxebizitza bat erosten ez denean.

Kasu horietan, desgrabatutako zenbatekoa eta zenbateko horri dagozkion interesak itzuli behar dira.

2.- Interes altua ematen duten aurrezki-kontuak: “superkontuak”

Kontu horietan ematen dituzten interesak bezeroak kontuan duen saldoaren arabera izaten dira, hau da, adostutako saldo-tarte batzuen arabera aldatzen dira interesak.

Beste abantaila batzuk ere eskaintzen dituzte: kreditu-txartela jaulkitzea dohainik izaten da, istripu-aseguruak, finantzazioa lortzeko erraztasunak, eta abar.

Hala ere, mantentze-komisio edo administrazio-komisio bidezko gastu handiagoak izaten dituzte.¹⁴

3.- Aurrezki-kontu konbinatuak (nomina-kontuak, konbi-kontuak, eta abar):

Bezero berak kontu-korrante bat eta aurrezki-kontu bat uztartzean sortzen dira. Bezeroaren nahien arabera, saldoa aurrezki-kontutik kontu-korrontera pasa daiteke, baldin eta txeke eta kargurik badago kontu-korrontearen kargura.

2.1.3. Eperako gordailuak edo eperako ezarpenak

Eperako ezarpenetan, titularrek gordailu-eran mantentzen dituzte funts batzuk, eragiketaren hasieran zehaztutako epean. Epe horretan ezin da funtsik erabili; tarte horretan sortutako interesen zati baten zigorra ordaintzen ez bada, behintzat. Edozein kasutan, zigorrak ezin du kapitala murriztea eragin.

Gordailuak diru-ezarpen libreetan gauzatu ohi dira, eta lehenengo ezarpena egitean ematen zaizkie titularrei.

Funtsak mugitzeko ezintasuna konpentsatzeko, ohiko gordailuek baino interes-tasa handiagoak eskaintzen dituzte. Interesak ez dira gordailuan abonatzen, baizik eta ageriko banku-kontu batean,

¹³ Titularrak ez du kontura diru-ekarpenik egiteko obligaziorik. Beharrian fiskalen arabera egiten da. Zergadun bakoitzak kontu bakar bat izan dezake. Baterako errenta-aitorpena eginez gero, bikote bakoitzak soilik kontu bat izan dezake. Hala ere, gehieneko epe baten barruan, nahi beste aldiz alda dezake kontua. Aurretik etxebizitza-kontu bat irekiz gero, finantza-erakunde askok baldintza bereziak eskaintzen dituzte mailegu bat eskatzeko orduan,.

¹⁴ Mota horretako kontuak telefono edo Internet bidez kontratatzen dira. Hala ere, kontuan izan behar da haietako batzuek zerbitzu mugatuak izaten dituztela ohiko kontuekin alderatuta.

horretara bideratua eta titularrak aukeratua. Interesen aldizkakotasuna urtekoa, sei hilekoa, hiru hilekoa, hilekoa eta baita laburragoa ere izan daiteke.

Eperako gordailuen modalitate berriak:

Gaur egun, gero eta gordailu mota gehiago daude. Horren ondorioz, familiak berriro bideratzen ari dira beren aurrezkiak inbertsio mota horietara. Gordailu horiek errentagarritasun-tasa altuagoak eskaintzen dituzte, baina arrisku-maila handiago baten truke:

- **Gordailu hazkorrak:** bezeroek ezartzen duten zenbatekoaren arabera da gordailu hazkorrek ordaintzen duten interes-tasa. Aurrezkiak mantentzea ere saritzen da, eta, zenbat eta denbora luzeagoa iraun, orduan eta interes-tasa handiagoa lortzen da.
- **Erreferentziadun gordailuak / indexatuak / egituratuak:** errentagarritasuna bermatzen dute; eta zati bat finkoa da eta beste bat aldakorra. Zati aldakorra erreferentziatzat hartutako indize baten arabera da.

Erreferentziadun gordailu baten adibidea:

Caixa Galicia

Kontratazio-epea: 2009ko martxoaren 4ra arte edo igorpenaren mugara iritsi arte (500.000 euro)

Epemuga: ezarpen zehatza: 2009/06/09

Erreferentziadun ezarpena: 2011/09/09

Gutxieneko kopurua: 4.000 euro

Interesak: bi ordainketa mota eskaintzen ditu; zehazki, ezarpen mota bakoitzerako bat.

Epe finkorako ezarpena (gordailuaren % 65): 2009/03/09tik 2009/06/09ra, % 8ko UTBa.

Erreferentziadun ezarpena (gordailuaren % 35): Ibex 35 indizeak hilean gehitutako batez besteko balioaren % 25 ematen du (2009/03/09tik 2011/09/09ra). Honela kalkulatu da:

Max [0; % 25 [(bukaerako balioa - hasierako balioa) / hasierako balioa]

Hasierako balioa: Ibex 35aren itxiera-prezioa 2009/03/09an.

Bukaerako balioa: epe guztiko Ibex 35aren itxiera-prezioen batezbesteko aritmetiko sinplea hilaren 9an (9a jai-eguna izanez gero, aurreko eguna hartuko litzateke kontuan).

Erabilgarritasuna: epe finkorako ezarpenaren epemuga baino lehenago bakarrik atera daiteke diru guztia edo haren zati bat, hau da, 2009/06/09a baino lehenago.

Berritzea: ezin da muga-egunean berritu.

Gordailu egituratu baten adibidea:

“Can Depósito Salmón”ek interes-tasa altuak eta segurtasuna uztartzen ditu. Inbertsioa bi zatitan banatzen da:

- Inbertsioaren % 70: epe finkoko ezarpen batean. Hiru hilerako, % 6ko interes-tasa (% 6,23ko UTBa), merkatuaren gainetik (; 2009ko urtarrilaren 5ean, 12 hileko Euriborra 3,025ean zegoen).

- Gainerako % 30a: hiru urterako gordailu batean sartzen da, eta balio-sehaska baten eboluzioaren arabera da haren errentagarritasuna (Telefónica, Santander, Repsol eta Iberdrola), 36 hilabetera. Epealdi horretan, egoera ekonomikoa hobetu egin daiteke. Epemugaren egunean (2012ko otsailaren 6a) lau akzioen kotizazioa hasierakoaren berdina edo altuagoa bada, inbertsiogileek % 18ko kupoia (% 5,67ko UTBa) jasotzen dute; bestela, errentagarritasun-gehigarrik gabe berreskuratzen dute hasierako inbertsioaren % 30eko kapital hori.

Produktuaren jaulkipena: 30 milioi euro.

Inbertsio minimoa 3.000 €-koa da.

- **Finantza-kontratuak**¹⁵: produktu horiek eskaintzen duten errentagarritasuna bi zatik osatzen dute: zati finko bat eta enpresa kotizatu batek burtsan duen portaeraren arabera zati aldakor bat. Kontratuaren epemugan, akzioek kontratuaren hasieran baino prezio baxuagoan kotizatzen badute, titularrek, interesak jaso beharrean, aipatutako elkartearen akzioetan jasotzen dute hasierako inbertsioaren kontrabalia.

Gordailu konbinatuak eperako ezarpen bat eta beste finantza-produktu bat uztartzen dituzte merkataritza-eskaintza bakar batean.

Orain dela gutxi, Espainiako Bankuak **gordailu bikoitzak** onartu zituen. Gordailu bikoitzek askotariko arrisku eta epemugak dituzten produktuak uztartzen dituzte (epe laburreko gordailu bat eta epe luzeko beste finantza-produktu bat).

Gordailu konbinatu baten adibidea:

Banco Popular-ek gordailu konbinatu bat eskaintzen du. Diruaren % 50 sei hileko epemuga duen gordailu batean ezartzen da, eta beste % 50a, berriz, inbertsio-funts bermatu batean, epemuga 2011ko abuztuan duena.

Gordailuaren errentagarritasuna % 6,25eko UTBa da. Normalizazio-data 2008ko maiatzaren 29a da, eta epemuga, berriz, 2009ko ekainaren 29a. 500 €-tik gora kontrata daiteke, eta ez du ezeztatze-komisiorik. Likidazioa epemugan egiten da.

Inbertsio-funtsak kapitalaren % 100 ziurtatzen du, eta, errentagarritasuna kalkulatzeko, funts horietan gehitutako balioaren batez besteko aritmetikoa atera behar da: **Ev. Particulares Volumen F.I.** (diru-funtsa), **Ev. Bolsa Española F.I.** (Espainiako errenta aldakorreko funtsa) eta **Ev. Dividendo F.I.** (Europako errenta aldakorreko funtsa). Horretarako, 9 hilez behin portaera onena duen funtsa hautatzen da, baina aukeratutakoa ez da hurrengo epealdietarako kontuan hartzen.

Komisioak:

- **Kudeaketa-komisioa:** % 1,25 urteko.
- **Harpidetza-komisioa:** % 4 berme-epaaldian.
- **Itzultze-komisioa:** % 4 berme-epaaldian.

¹⁵ Ikus adibide bat esteka honetan:

<http://www.conveniosbbva.es/bancaprivada/archivos/pdf/79.pdf>

Horretaz gainera, espezie bidezko ordainketak dituzten gordailuak ere eskaintzen dituzte zenbait finantza-erakundek. Haien desberdintasuna da diruzko ordainketarik ez izatea. Kasu horietan, espeziearen balioespenari dagokion UTBa kalkulatu da.

Espainiako Bankuak argitaratzen ditu entitateek pasiboko produktuei ezartzen dizkieten batez besteko interes-tasak.

2.2. TITULU-JAULKIPEN BIDEZKO PASIBOKO ERAGIKETAK

Funtsak lortzeko beste bide bat da, gordailuak baino garrantzi gutxiagokoa. Erakundeek zenbait epetan lortzen dituzten baliabideetan datza, eta zorra islatzen dute jaulkitako tituluetan.

Merkatura duten sarbidearen arabera, honako sailkapen hau egin daiteke:

- Balio negoziagarriak: negoziazio-merkatu baterako sarbidea dutenak dira, publikoa edo pribatua izan. Merkatuko parte-hartzaile guztiek ezagutzen dute balio horien prezioa eta, nahi den unean, posible da antzeko ezaugarriak dituen beste baten truke aldatzea edo saltzea. Balio horien adibide dira: bonuak, zedulak, obligazioak, zor-agirien programak, eta abar.
- Balio ez-negoziagarriak: titulu bereziak dira, zehatzak, neurrira egindakoak.

Titulu horiek, lehen fisikoak ziren arren, kontu-oharpenak baino ez dira gaur egun. Horren ondorioz, kostuak murriztu eta epeak arindu egin dira.

Hipoteka-tituluak ikusiko ditugu, bankuen jardueran espezifikokoak baitira.

2.2.1. Hipoteka-tituluak: zedulak, bonuak eta hipoteka-partaidetzak

Erakunde jaulkitzaileak emandako hipoteka-kredituek bermatzen dituzte hipoteka-tituluak, eta higigarriak dira.

Tituluen jabeek badute erakunde jaulkitzailearekiko eskubide bat, erakunde horrek emandako hipoteka-kredituei loturiko hipoteka-maileguen zordunarekin harremanik ez duena.

Zenbait finantza-erakundek jaulkitzen dituzten zedula, bonu eta partaidetzen bitartez birfinantzatzea lortzen dute. Bide horretatik lortzen dituzten funtsekin, beste hipoteka-kreditu batzuk eman ditzakete.

2.1. irudian, hipoteka-tituluen ezaugarriak laburbiltzen dira.

2.1 irudia. **Hipoteka-tituluak**

Hipoteka-zedulak:

- Bermea: erakundeak zirkulazioan dituen **hipoteka guztiak**, erakundearen gainerako ondarea, estaldurarako ordezeko aktiboak (halakorik izatekotan) eta haiei loturiko tresna deribatuak.
- Jaulkipen-erari dagokionez, askatasun osoa dago.
- Berme gisa aurkeztutako mailegu eta kredituen kontabilitate-erregistro berezia.
- Zedulen jabea lehentasunezko hartzekoduna da.
- Jaulkitako zedulen zenbatekoak ezin du amortizatu gabeko hipoteka-kredituen % 80 gainditu (hipoteka-bonu eta -partaidetzei loturikoak kenduta).
- Ordezko aktibo zehatz batzuen bidez bermatuta egon daitezke, jaulkitako printzipalaren % 15eko mugaraino.

Hipoteka-bonuak:

- Bermea: **hipoteka-kreditu zehatz batzuk**, gainerako ondarea, estaldurarako ordezeko aktiboak (halakorik izatekotan) eta haiei loturiko tresna deribatuak.
- Haiei loturiko kredituen epemugaren berdina edo txikiagoa izango da bonuen epemuga.
- Berme gisa aurkeztutako mailegu eta kredituen kontabilitate-erregistro berezia.
- Bonuen jabea lehentasunezko hartzekoduna da, eta zedulen jabeen aurretik kokatzen da.
- Balio eguneratua, gutxienez, haiei loturiko mailegu eta kredituen balio eguneratuaren % 2 baino txikiagoa da.
- Ordezko aktibo zehatz batzuen bidez bermatuta egon daitezke jaulkitako printzipalaren % 10eko mugaraino.

Hipoteka-partaidetzak:

- Hipoteka-kreditu bakar baten bermea.
- Titulu izendunak.
- Kredituaren aurretik dirua itzultzea posible da, baina horrek partaidetzaren dirua itzultzea dakar.
- Ez dira negoziagarriak.
- Jabea ez da lehentasunezko hartzekoduna.
- Erakunde jaulkitzaileak ez ditu arrisku gisa kontuan hartzen.
- Erakunde jaulkitzailearen balantzetik desagertzen dira.

Iturria: egileek prestatua (2009)

2.2.2. Lurralde-zedulak

Lurralde-zedulak hipoteka-zedulen antzekoak dira. 2002ko azaroko Finantza Legearen arabera, lurralde-zedulak eman ahal izateko, honako kreditu mota hauek eduki behar dira: “estatuaren aurrean, autonomia-erkidegoen, udalerrien, erakunde autonomoen eta haien menpe dauden enpresa publikoak edo Europako Erkidegoko antzeko erakundeen kargura eginak”. Kreditu horiek dira zedularen printzipalaren eta interesen berme nagusia.

Kreditu-erakundeek soilik igor ditzakete zedula mota horiek. Ez dira merkataritza-erregistroan inskribatu behar, eta haien zenbatekoa ezin da izan entitateak amortizatu gabe dituen kreditu eta mailegu guztien % 70 baino handiagoa. Kontu-idazpen bidez adierazten dira, eta balio-merkatuan negoziatzeko onar daitezke.

2.3. TITULUEN BEHIN-BEHINEKO LAGAPENAK

Likidezia handiagoa lortzeko asmoz erakundeek aktibo propioetatik mugitzen dituzten tituluak dira. Hasierako unean beste hirugarren bati finkatutako prezioan saldutako balioen bidez gauzatzen dira, eta konpromiso bat hartzea dakarte: hasierako unean bertan finkaturiko beste prezio batean berrerostea gerora. Berreroste-prezioak salmentarenak baino handiagoa izan behar du, eta bi prezioen arteko diferentzia, berriz, lortutako finantzazioaren truke ordaindutako interesa edo kostua izango da (eragiketa bikoitzak edo *repo* eragiketak).

Eragiketa horiek zor publikoaren bidez egiten dira nagusiki, zor publikoak duen likideziagatik eta negoziagarritasun errazagatik, eta beste finantza-erakunde batzuei funtsak eskatzeko erabiltzen dira.

Balioen bidez bermatutako mailegutzat har daitezke, edo etorkizunean berrerosi beharreko balioen salmentatzat.

2.4. BANKUARTEKO FINANTZAZIOA

Beste kreditu-erakunde batzuetatik finantza-baliabideak lortzean datza finantzazio mota horren funtsa. Merkatu handizkari mota bat da, honako ezaugarri hauek dituen:

1. eragiketa anizkoitzak
2. handia
3. epe laburrekoa
4. likidezia handikoa
5. arrisku gutxikoa

Bankuen ohiko finantzazio-iturrietako bat da. Erakunde mailegu-emaile gisa, batez ere aurrezki-kutxak aritu izan dira, pasiboko soberakin ugari izaten baitute, eta bankuak, aldiz, batez ere funts-hartzaile gisa aritu dira, oro har gordailu bidez lortutakoa gainditzen baitute haien kreditu-inbertsioek.

Finantza-baliabideak lortzeko iturriak:

- Espainiako Bankua:
 - Espainiako Bankuaren maileguak
 - Espainiako Bankuaren ziurtagiriak saltzea edo behin-behinean lagatzea
- Bankuarteko merkatu nazionala zein nazioartekoa:

Beste banku batzuen gordailuak, bankuarteko merkatuan hartuak, epe laburrekoak (egun bat, aste bat, hamarkada bat, hilabete bat, hiruhileko bat, sei hileko bat, urte bat).

Finantza-kostu altua eta administrazio-kostu baxua duen finantzazio bat da (telefonoz egiten baitira diru-mugimendu asko). Aktiboko eragiketen erreferentziazko kostu gisa edo gehieneko muga gisa erabiltzen dira finantzazio mota horrek dakartzan kostuak.

Atzerriko sukurtsal eta erakunde batzuek, hasiera bateko muga operatiboak zirela-eta edota geroagoko bulegoen garapen txikia zela eta, ia finantzazio-iturri hori bakarrik erabili izan dute beren aktiboko eragiketetan.

2.2. taula. Bankuarteko merkatua

Bankuarteko merkatuaren funtzioak:

Merkatu horretan parte hartzen duten erakundeei laguntzen die honako arlo hauetan:

1. Diruzaintza-soberakinak hobeto kudeatzea.
2. Kutxa-koefizientea babesteko betebeharra dela-eta sor daitezkeen gorabeheretatik babestea.
3. Aktiboko eragiketak finantzatzea (hau da, finantzetako palanka-efektua).
4. Espainiako Bankuaren kontrol-tresna bat da (adibidez, Espainiako Bankuaren ziurtagiriak).
5. Beste merkatu batzuetan, prezioak osatzeko erreferentzia gisa erabiltzen da.
6. Herrialde baten diru- eta finantza-egoeraren adierazlea da.

Bankuarteko merkatu motak:

1. Gordailuen bankuarteko merkatu tradizionala.
2. Espainiako Bankuaren ziurtagirien merkatua.
3. FRA bankuarteko merkatuak (etorkizuneko interes-tasen gaineko akordioak).

Bankuarteko merkatuko eragiketak: (batez ere, gordailuen bankuarteko merkatuan):

1. Gordailu-eragiketak.
2. Eragiketa bikoitzak: berrerosteko edo birsaltzeko ituna duen aktibo bat erostea edo saltzea (*repo* eragiketak).

Repo eragiketak egiten jarraitzeko arrazoiak honako hauek dira:

1. Kreditu-eskaera ahula den egoeretan, finantza-erakundeei laguntza ematen die behin-behineko likidezia lortzeko, sektore pribatuan aktiboen behin-behineko lagapenak salerosiz.
2. Bankuarteko merkatuan parte hartzen duten erakunde batzuentzat —batez ere, kreditu-erakunde txikientzat— *repo* eragiketak dira finantzazioa lortzeko modu bakarra.

Iturria: egileek prestatua (2009)

Europako Banku Zentralak (EBZ) **Europako bankuarteko merkatua** arautzen du, eta merkatu horretan biltzen ditu Europako banku-erakunde guztiak, aurretik aipatutako helburuak lortzeko asmoz. Merkatu horren bidez, EBZk likidezia-injekzioko eragiketak egiten ditu (azken bolada honetan, sarritan ikusi ditugu halakoak), gainerako erakundeak eragiketak egiteko prest ez daudenean.

Europako merkatuan, egun baterako bankuarteko interes-tasak EONIA du izena. Oro har, ez da oso ezaguna, eta ez da merkatu-analisietan erabiltzen; izan ere, horretarako, gehiago erabiltzen da Euriborra, nahiz eta epe luzeagorako tasa bat izan.

Laburbilduz, Europako bankuarteko merkatuak Europako banku guztiak biltzen ditu, maileguak emateko eta jasotzeko. Likidezia-krisialdian, EBZk merkatu horretan parte hartzen du, dirua injektatuz, bankuen unean-uneko beharrak asetzeko eta bankuek porrot egitea ekiditeko. Bestalde, EBZk likidezia atera dezake sistematik, baldin eta likidezia sobera badago. Erregulazio-mekanismo horien bidez, balbula moduan jokatzen du, bankuek dirua elkarrekin trukatzeko duten interes-tasen igoera eta jaitsierak kontrolatze aldera.

PROPOSATUTAKO ARIKETAK

1.- Aurrezki-kutxa batek honako baldintza hauek dituen gordailu bat eskaintzen du:

Epemuga: 3 urte.

Gutxiengo errentagarritasuna: urteko % 3.

Errentagarritasun gehigarria: Ibex 35 indizearen araberakoa.

Azaldu ezazu zer gordailu mota den.

2.- Kreditu-erakunde batek honako baldintza hauek dituen gordailu bat eskaintzen du:

Epemuga: urte bat.

Inbertsioaren % 50eko errentagarritasuna (epe finkorako ezarpena): urteko % 5.

Gainerako inbertsioaren % 50 inbertsioen funts-zorro batean inbertitzen da, eta funts-zorroek ematen dutenaz bestekoa izango da haren errentagarritasuna.

a) Zer gordailu mota da? Zergatik?

b) Gordailua, urte batera izan beharrean, bi urte eta egun batera izango balitz, zer eragin izango luke inbertitzaileen errentagarritasunean?

3.- Finantza-erakunde batek honako baldintza hauek dituen gordailu bat eskaintzen du:

- Gutxieneko zenbatekoa: 500 €. Epea: 15 hilabete eta 14 egun.

- Kapitalaren % 100 bermatuta.

- Likidezia: epemugan.

- Errentagarritasuna: lehenengo hilean, urteko % 10 nominala. Epemugan, Ibex 35 edo Eurostoxx 50 indizeetatik abiatuta, muga-egunean portaera onena izan duen indizearen hileko etekinen baturaren % 100. Ibex edo Eurostoxx indizeen hileko igoeraren muga: % 1,50.

- Noizbait hileko etekinen batura % 4ra edo 4ko multiploetara iristen bada, etekin hori finkatuko da bezeroarentzat, merkatuko balizko jaitsiera baten aurrean babestuta gera dadin.

- Epemugan, % 1eko kupoia, bezeroek nomina edo pentsioa helbideratzen badute.

- Kapital eta interesen ordainketa: epemugan.

Gutxieneko UTB globala % 0,64koa dela eta gehieneko UTB globala % 18,10ra irits daitekeela aurreikusi du erakundeak.

- Zer gordailu mota da? Zein dira haren abantailak, kontu-korronte batekin alderatuz?

- Zer inbertitzaile-profilentzat dago pentsatuta?

ESTEKA INTERESGARRIAK

- **BANKU-ERABILTZAILEEN ELKARTEA (ASOCIACIÓN DE USUARIOS DE BANCA):**
<http://www.ausbanc.com>
- **BANKU- ETA FINANTZA- AHOLKULARIAK (ASESORES BANCARIOS Y FINANCIEROS) :**
<http://www.abanfin.com>

- <http://www.abanfin.com/modules.php?tit=depositos-bancarios-a-plazo-fijo&name=Manuales&fid=gb0adaa> (ABANFINen webgunerako lotura. Gordailuen funtzionamendua, sailkapena eta halako gaiak azaltzen ditu)
- ESPAINIAKO BANKUA: BANKUKO BEZEROEN ATARIA, BANKU-PRODUKTUAK, AGERIKO GORDAILUAK, EPERAKO GORDAILUAK ETA AURREZKI-GORDAILUAK (BANCO DE ESPAÑA: PORTAL DEL CLIENTE BANCARIO, PRODUCTOS BANCARIOS, DEPÓSITOS A LA VISTA, A PLAZO Y DE AHORRO):
<http://www.bde.es/clientebanca/productos/depositos.htm>
- ALTXOR-BALIOAK (VALORES DEL TESORO): <http://www.tesoro.es>
- AURREZKI- ETA INBERTSIO-PRODUKTUAK (PRODUCTOS DE AHORRO E INVERSIÓN):
<http://elcorreodigital.finanzas.com/ahorro>
- UTB-ARI BURUZKO ARTIKULUA (ARTÍCULO SOBRE TASA ANUAL EQUIVALENTE):
<http://www.rankia.com/articulos/210051-tasa-anual-equivalente-tae-que-tae-que-incluye-tae>
- BANKIMIA:
<http://www.bankimia.com/depositos>

3. GAIA: AKTIBOKO ERAGIKETAK

SARRERA

Funtsen unitate defizitarioen diru- edo baliabide-beharrak asetzeko finantza-tresnak dira aktiboko eragiketak. Egokiena litzateke pasiboko eragiketei esker ahalik eta gutxien ordaintzea eta aktiboko eragiketei esker ahalik eta errentagarritasunik handiena lortzea. Baina, aktiboko zein pasiboko eragiketetan dagoen lehiakortasuna dela eta, “finantza-tartea estutzen” ari da kreditu-erakundeetan.

Aktiboko eragiketek bi ezaugarri nagusi dituzte:

- 1.- Errentagarritasuna sortzen duten eragiketak dira, etekina lortzen baita diru-inbertsioetatik.
- 2.- Arriskua dakarten eragiketak dira erakundeen aldetik.

Hala, bi ezaugarri horien arabera, **hiru eragiketa mota** bereiz daitezke:

1.- Arriskua eta inbertsioa dakarten eragiketak: ohikoena da. Erakundeek funtsak ezartzen dituzte, eta badago aukera galerak izateko. Horregatik, aktiboko eragiketa mota horren kostua handiagoa da. Hartutako arriskua konpentsatu egin behar da (adibidez, kredituak).

2.- Arriskua dakarten eta inbertsiorik ez dakarten eragiketak: finantza-erakundeek bezeroen betebeharren ordainketa bermatzen badute eta bezeroek beren konpromisoak ordaintzen badituzte, erakundeak ez du euro bat ere ordaindu behar (adibidez, abalak).

3.- Arriskurik ez dakarten eta inbertsioa dakarten eragiketak: erakundeek egiten dituzten ordainketak babestuta daude, bankuak egingo duen inbertsioa galduko ez dela bermatzen duten funtsak baliatzen baitira (adibidez, kreditu bat ematea beste erakunde batek bermatzen duen beste hirugarren bati).

3.1.- MAILEGU ETA KREDITUAK KONTU-KORRONTEAN

Biak beste hirugarren bati denboraldi batez funtsak mailegatzean oinarritzen dira, baina badituzte desberdintasunak ere:

- **Mailegua:** finantza-erakundeek bezeroei zenbateko bat ematen diete, eta kontratu bat sinatzen dute. Ordainketen egutegi bat zehazten dute, eta bezeroek kopuru hori gehi adostutako interesak itzuli behar dituzte.

- **Kreditua:** finantza-erakundeek, baldintza batzuen menpe eta denboraldi batean zehar, zenbateko zehatz bat jartzen dute bezeroen esku, eta kontratu bat sinatzen dute. Kredituaren sinatzaileek erabili duten zenbatekoaren arabera ordaintzen dira interesak.

Bezeroek kreditua erabiltzen ez badute ere, klausula batzuk adosten dira: erabili ez den saldoaren gain aplikatutako erabilgarritasun-komisioa, muga-egun batzuen arabera; aldizka gutxitzen den kredituaren zenbatekoa; edo epe zehatz batzuetan gutxieneko erabilera bat izatea. Izan ere, bankua bezero jakin batentzako funts batzuk atxikitzen ari da, inolako etekinik atera gabe.

Maileguak nahiz kredituak eskritura publiko bidez edo poliza bidez gauzatu daitezke (poliza bidez, errazagoa eta erosoagoa da). Hipoteka-maileguentzat, berriz, eskritura publiko bat egitea eskatzen da, baita zenbateko handiko eragiketetan eta nolabaiteko konplexutasuna duten eragiketetan ere.

3.2. INTERES-TASA, KOSTU EFEKTIBOA ETA UTB-A

3.2.1.-Interes-tasak

Interes-tasa da finantza-eragiketa baten kostu nagusia. Mailegu-kontratuetan, hainbat eratarata definitu ohi da.

Bi era bereiziko ditugu:

1.- Interes-tasa finkoa: ehuneko konstantea lehenengo unetik hasita; eragiketak irauten duen epe osoan aplikatzen da.


2.- Interes-tasa aldakorra: tarte zehatz bat gehitzen edo kentzen zaion adierazle edo indize baten arabera da. Kontratuan zehaztutako data jakin batzuetan hartzen du balioa indize horrek.

Hipoteka-maileguetan, erreferentzia baten arabera interes-tasa bat kobra daiteke. Hori dela eta, komenigarria da ezagutzea nolako izan daitekeen berrikuspen-indizeen bilakaera eta kontzeptua; hartara, erabakitzeko garaian, ez da soilik indize baxuena kontuan hartuko:¹⁶

1.- EURIBOR (Euroland interbank offered rate): Eurogunean diharduten zenbait bankuk beren arteko eragiketetan erabiltzen duten batez besteko interes-tasa da. Euroguneko banku garrantzitsuenek elkarri eskaintzen dioten interes-tasa da, eurotan egiten dituzten bankuarteko gordailuetarako.

Euriborra da normalean erabiltzen den indizea, eta, azken urteetan, gorabehera nahiko izan ditu. 3.1 eta 3.2 irudietan, bi epealditan Euriborrak izan duen bilakaera adierazi dugu.


3.1 irudia. Euriborraren bilakaera (2008ko ekaina - 2009ko urtarrila)



Iturria: <http://www.finanzas.com/hipotecas/indices-referencia-detalle/euribor> (2009)

¹⁶ **MIBOR (Madrid Interbank Offered Rate):** Madrilgo bankuarteko merkatuko interes-tasen eskaintza (kutxek eta bankuek zer preziotan uzten dioten dirua elkarri denboraldi mugatu batean). Oso aldakorra da: berehala egokitzen da interes-tasen aldaketetara. 2000ko urtarrilaren 1az geroztik ez da erreferentzia-tasa ofiziala, baina Espainiako Bankuak bere kalkulua egiten jarraitzen du, Miborra erreferentziazat duten kontratuek erreferentzia-tasa bat izan dezaten.

3.2 irudia. Euriborraren bilakaera (2010eko iraila - 2011ko ekaina)



Iturria: <http://www.finanzas.com/hipotecas/indices-referencia-detalle/euribor> (2011)

2.- **Zor publikoaren etekina:** bigarren mailako merkatuan bi eta sei urte bitarteko hondar-bizitza duen zor publikoaren barne-etekin tasa. Oso aldakorra da etekin hori ere.

3.- **EAKKren aktiboko indizea** (Espainiako Aurrezki Kutxen Konfederazioa; CECA, Confederación Española de Cajas de Ahorro): EAKK-k sortutako indize bat da. Urte bat eta hiru urte bitarteko mailegu pertsonalei eta hiru urtetik gorako epemuga duten hipoteka-kredituei aplikatzen zaizkien tasen batez besteko tasa da. Astiro egokitzen da tasen bilakaerara. Egonkorragoa eta altuagoa da.

4.- **HMEI**, Hipoteka Maileguren Erreferentzia Indizea (IRPH, Índice de Referencia de Préstamos Hipotecarios): hiru urtetik gorako epemuga duten hipoteka-kredituen zenbatekoaren arabera haztatutako tasen batezbestekoa da. Kreditu-erakundeen multzoarentzat (HMEIEM), aurrezki-kutxentzat (HMEIAK) edota bankuentzat (HMEIB) ere kalkulatu daiteke HMEI.

Gaur egun, kreditu-erakundeek Euriborra eta HMEI (kutxei, bankuei edo erakunde multzoei dagokiena) erabiltzen dute gehien. Interes-tasa horiei, normalean, diferentzial bat gehitzen zaie. Oro har, HMEIri gehitzen zaion diferentziala txikiagoa izaten da (interes-tasa hori altuagoa izaten baita Euriborra baino). Euriborrari, aldiz, diferentzial altuagoa aplikatzen zaio¹⁷.

Erreferentzia-tasak Espainiako Bankuak argitaratzen ditu. Hona hemen erreferentzia-tasen bilakaera taula batean bilduta:

¹⁷ 2011ko azaroan 8/1990 zirkularra oraindik kontsulta-prozesuan dago. Espainiko Bankuak honako hau proposatu du: aurrezki kutxen HMEI eta bankuen HMEI desagertzea, eta erreferentzia-tasa berri bat kontuan hartzea, hain zuzen ere, 5 urterako interesen swap tasa (IRS: 5-year interest rate swap).

3.1 taula. Erreferentzia ofizialeko interes-tasak

		ERREFERENTZIA OFIZIALEKO TASAK						
Epea	Bankuak	Kutzak	Entitateen multzoa	EAKK (CECA)	Zorra	Bankuarteko erreferentzia		
						Miborra	Euriborra	
2005	3,181	3,373	3,283	4,479	2,681	2,335	2,334	
2006	4,117	4,222	4,173	5,021	3,349	3,432	3,436	
2007	5,203	5,276	5,242	5,771	4,081	4,445	4,450	
2008	5,780	5,921	5,857	6,521	4,059	4,807	4,813	
2009	3,151	3,653	3,439	5,052	2,827	1,618	1,618	
2010	Otsaila	2,425	3,089	2,813	4,875	2,371	1,253	1,225
	Martxoa	2,476	3,009	2,780	4,375	2,366	1,199	1,215
	Apirila	2,499	2,996	2,786	4,750	2,368	1,222	1,225
	Maiatza	2,324	2,920	2,674	4,750	2,457	1,249	1,249
	Ekaina	2,443	2,921	2,709	4,500	2,650	1,281	1,281
	Uztaila	2,432	2,924	2,705	4,125	2,739	1,373	1,373
	Abuztua	2,543	2,938	2,766	5,000	2,758	1,421	1,421
	Iraila	2,652	2,927	2,799	5,125	2,850	1,418	1,420
	Urria	2,600	2,963	2,795	4,875	2,885	1,491	1,495
	Azaroa	2,627	3,002	2,825	4,750	3,005	1,541	1,541
	Abendua	2,593	2,945	2,774	4,750	3,122	1,525	1,526
	2011	Urtarrila	2,679	3,144	2,918	5,000	3,304	1,550
Otsaila		2,786	3,132	2,962	4,875	3,510	1,714	1,714
Martxoa		2,935	3,294	3,120	5,000	3,676	1,924	1,924
Apirila		3,115	3,327	3,226	4,875	3,896	2,085	2,086
Maiatza		3,238	3,471	3,355	5,250	4,020	2,154	2,147
Ekaina		---	---	---	---	4,055	2,144	2,144

Iturria: Espainiako Bankua eta Espainiako Hipoteka Kredituen Elkarte (2011)

Tasa aldakorra aplikatzen denean, ez dugu ezagutzen zer tasa izango dugun eragiketa guztian zehar, soilik lehenengo epealdikoa ezagutzen baitugu. Ondorioz, amortizazio-taula desberdina izango

da interes-tasa finkoaren edo aldakorren kasuetan. Gainera, tasa aldakorra duten maileguetan, amortizatzeko bi aukera daude:

- a) Maileguaren urte kopurua mantentzea eta amortizazio-kuota interes-tasen aldaketen arabera egokitzea (adibidez, kuota konstanteko amortizazio-sistema eta sistema frantsesa).
- b) Amortizazio-kuota konstante mantentzea maileguak irauten duen bitartean eta, interes-tasaren arabera, maileguaren epemuga aldatzea (aplikagarria da sistema frantsesean ere).

Bestalde, maileguaren interes-tasa ezin da **kostu efektiboaren** berdina izan. Izan ere, kostu efektiboan, gastuak, komisioak eta abar sartzen dira.

OHARRA: Hipoteka-maileguak biribiltzea.

Finantza-lege berriak arautzen du bankuek interes-tasa aldakorreko maileguak biribiltzea. Espainiako Bankuak argitaratzen dituen erreferentzia-tasek hiru hamartar izaten dituzte, eta bankuek 0,1en edo 0,25en anizkoitzak diren bi hamartarrekin (arruntena) ezarri ohi dituzte. Lege horri esker, bankuek biribiltzeari buruzko klausula ezar dezakete, baina gehienez ere % 0,125ekoa izan daiteke. Biribiltzea hurbilen dagoen kuotari aplikatzen zaio, eta gorantz edo beherantz egin daiteke, finantza-erakundearen kalterako edo mesederako.

3.2.2.- Eragiketen kostu efektiboa, UTBa eta errentagarritasuna

Mailegu baten kostua baldintzatzen duten faktoreak honako hauek dira mailegu-hartzaileentzat:

- Interesen aldizkakotasuna: aldizkakotasuna zenbat eta handiagoa izan, kostu efektiboa ere orduan eta handiagoa izango da.
- Komisioak.
- Interesen tiratze-efektua: erakundeek hasieratik interesak kobratzen badizkigute, mailegua garestiagoa izango da.
- Banku-konpentsazioak: banku-konpentsaziorik baldin badago (kontu-korrontean diru kopuru bat utzi beharra eta halakoak, zorraren epemugara arte), mailegua garestiagoa izango da.

Interesak aurretik ordaindu beharrak eta banku-konpentsazioek maileguak asko garestitzen dituzte eta, horregatik, negoziazioetan kontuan hartzeko aldagai garrantzitsuak dira.

Finantza-eragiketa baten kostu efektiboa kapitalizazio konposatuaren legearen tasa efektiboa da. Hain zuzen, eragiketa baten ondorioz sortutako diru-sarrerak eta diru-irteerak berdindu egiten ditu lege horrek. Eragiketa hori kapitalizazio konposatuaren legeak definitzen duenean, eta ordaindu beharreko interesa urtekoa eta konstantea direnean, interes hori kostuaren berdina izango da, baina, eragiketak beste merkataritza-ezaugarri batzuk baldin baditu, kostua ez da interesarekin bat etorriko.

Finantza-iturri baten kostu efektiboa honela kalkula daiteke:

$$\sum_{t=1}^n \frac{E_t}{(1+k)^t} = \sum_{j=1}^m \frac{S_j}{(1+k)^j}$$

Azalpena:

E_t = t unean jasotako diru-sarrerak.

S_j = t unean ordaindutako diru-irteerak.

k = Eragiketaren urteko kostu efektiboa.

Bestalde, Espainiako Bankuak eragiketen tasa efektibo ofiziala —alegia, UTB (Urteko Tasa Baliokidea)— kalkulatzera behartzen ditu kreditu-erakundeak, bezeroei beren eragiketen ondoriozko

etekinei buruz informazioa emateko, nahiz eta erakundeek eragiketen interes-tasa nominalak adieraz ditzaketen. UTBa 8/90 EBZren arabera arautzen da (8/90 EBZ, irailaren 7koa, Eragiketen Gardentasunari eta Bezeroen Babesari buruzkoa. UTBa kalkulatzeko, **bezeroek bankuari ordaintzen diotena eta bankuak bezeroei kobratzen diena sartu behar da, besterik ez.** Kapitalizazio konposatua erabiltzen da.

UTBaren abantaila nagusia: erakundeek (batek baino gehiagok) bezeroei dakarkieten kostua edo eskaintzen dieten etekina modu homogeneo batean alderatzeko aukera ematen du, ordaintzen aldizkakotasuna edozein izanda ere.

Hala ere, baditu zenbait eragozpen:

1.- Kalkulatzeko zailtasuna; horregatik, eragiketaz eragiketa zehazten da.

2.- Eragiketaren kostu efektiboa ez dator beti bat UTBarekin; izan ere, UTBa kalkulatzeko, Espainiako Bankuak onartutako gastuak barneratu daitezke, edo ez. Esate baterako, honako gastu gehigarri hauek barneratu gabe gera daitezke:

- notaritzako formalizazio-gastuak
- mailegua ematen duen erakundeaz aparteko erakundeek emandako abalen gastuak
- erakundearen alde beste hirugarren batekin hitzartutako aseguruaren primak

Laburbilduz, eragiketetan, hiru motatako kostuak dauzkagu: kostu efektiboa, interes-tasa eta UTBa. Bestalde, kreditu-erakundeen ikuspegitik, errentagarritasuna sortzen duen eragiketa bat da.

3.3. MAILEGUEN ETA KREDITUEN SAILKAPENA

Enpresa txiki edo ertain batek eska ditzakeen mailegu eta kreditu moten ezaugarriak:

1.-Hipoteka-maileguak: izaera errealeko berme baten bitartez bermatutako maileguak dira (higiezin baten hipoteka-bahia bezala).

Ezaugarriak:

- 1.- Oro har, ustiapen ekonomikora zuzendutako ondasun higiezinak eraikitze edo erosketa finantzatzeko erabiltzen dira.
- 2.- Titularrak pertsona fisikoak edo juridikoak izan daitezke (ustiapen ekonomiko jakin bat helburu duen higiezin bat eraikitzen edo erosten dutenak).
- 3.- Interes-tasa finkoa edo aldakorra izan daiteke (hau da, kontratuan ezarritako indize baten arabera izan daiteke, eta haren balioa aldizka hartzen da).
- 4.- Gehieneko epea 15 urtekoa izan ohi da etxebizitzetarako, apartamentuetarako edo aparkalekuetarako (erakunde batzuek bermeek 35-40 urtera artekoak eskaintzen dituzten arren). Gainerako higiezinetarako, berriz, 10 urteko epea izaten da gehienez.
- 5.- Eskritura publiko bidez notaritzapean izapidetu eta erregistratu behar dira (jabego-erregistroan inskribatu behar da, kontua altan emateko).

2.- Poliza-maileguak: poliza izeneko merkataritza-dokumentuen bidez izapidetzen dira.

Ezaugarriak:

- 1.- Kopuruari dagokionez, ez dago mugarik. Muga bakarra hau da: normalean, inbertsioaren % 70eraino soilik finantzatu ohi da.
- 2.- Era askotako gaiak finantzatzeko erabiltzen da: ekipo edo instalazio teknikoak, garraio-elementuak eskuratzea, produktuak jaulkitzeko kanpainetan eginiko inbertsioak, likidezia-desfaseak, Ogasun

Publikoan edo Gizarte Segurantzaren egin beharreko ordainketak, eta abar.

3.- Interesak igarotako aldien arabera ordaintzen dira (normalean, hiru hilabetetik behin), eta kuota finkoak edo aldakorrak izan daitezke.

4.- Epemugari dagokionez, ezberdina izan daiteke maileguaren helburuaren edota bezeroen ezaugarrien arabera (amortizaziorako zer aukera duten, esate baterako).

3.- Poliza-kredituak: poliza izeneko merkataritza-dokumentuen bidez izapidetzen du fedemaile publiko batek edo notario batek.

4.- Esportaziorako kredituak: esportazioa finantzatzeko ematen dira, funtsen zuzkiduren edo interes-tasen diru-laguntzen bidez. Erakundeek ematen dituzten kredituak dira, baina laguntza ofiziala dute: finantza-erakundeak eta KOIk interesak egokitzen dituzte. Kreditu-erakundeak merkaturakoa baino interes-tasa baxuagoan ematen du mailegua, eta KOIk ordaintzen dio diferentzia. Interesak elkarri egokitzeko kontratua (CARI, Contrato de Ajuste Reciproco de Intereses) deritzo sistema horri; esportazioak bultzatzeko mekanismo bat da, banku eta aurrezki-kutxek esportazioak finantzatzeko kredituak ematea errazten baitu ELGak ezarritako epemugetan eta interes-tasetan.

5.- Partaidetza-maileguak eta partaidetza-kredituak: erakunde mailegu-emaileak mozkin likidoetan esku hartzen du (interes finko txikiago bat dute). Funts propiotzat hartzen dira, eta ezin dira aurrez amortizatu.

6.- Kreditu sindikatua edo partzuergo-kredituak: kreditu-erakundeen talde baten partaidetza bateratzen duten kredituak dira; zenbateko altuak edo beste ezaugarri batzuk direla eta, hainbat finantza-erakunderen elkarlana behar izaten dute.

7.- Berme errealeko kredituak: polizan agertuko diren berme errealekin ezartzen diren kontukorronteko kredituak dira. Bermeak (bahiak) bi motatakoak izan daitezke: bahian utziak (“pignoraticias”), merkantziatan edo balioetan, eta hipoteka-bermeak, higiezinetan.

8.- Interesik gabeko kredituak: finantza-kosturik gabeko kredituak dira.

9.- Kreditu pribilegiatuak: interes-tasa baxua dute.

10.- Menpeko kredituak: hartzekodunak menpeko hartzekodunak dira.

11.- Kreditu subsidiarioak: diruz partzialki lagundutako interes-tasa dute.

3.4. AKTIBOAK LORTZEKO BESTE ERA BATZUK

Azken urteotan, finantza-erakundeek aktiboak lortzeko beste modu batzuk azaldu dira; garrantzitsuenak hiru dira:

- 1.- Finantza-errentak lortzeko eragiketak edo leasing-ak; eta alokairuzkoak edo renting-ak.
- 2.- Factoring- eta confirming-eragiketak.
- 3.- Forfaiting-eragiketak.

3.4.1. Leasing- eta renting-eragiketak

Bi eragiketok finantzazioa lortzeko iturri dira enpresentzat, eta errentagarritasun-iturri kreditu-erakundeentzat, kobratzen dituzten interes eta komisioak direla eta. Leasing-a ondasun baten erosketa finantzatzeko modu bat da. Renting-ak, ordea, ondasun baten erabilera finantzatzeko du soilik.

1.- Leasing-eragiketak

Aldizkako kuota bat ordaintzearen truke erabiltzeko helburuz eskuratutako ondasun higiezinak eta higigarriak uztea da leasing-eragiketen xedea. Muga-egunean erosteko aukera dute erabiltzaileek.

Ezaugarriak:

1. Oro har, gehieneko epea bi urtekoa izaten da ondasun higigarrien kasuan, eta 10 urtekoa ondasun higiezinetan.
2. Eragiketa horien kostuak:
 - a. Komisioak: finantzatutako balioaren gainean aplikatuta.
 - b. Ikasketa-komisioa.
 - c. Aplikatutako interes-tasa.
3. Tasa finkoko edo aldakorreko kontratuak dira, aurrez ordaintzeko kuota bat dutenak. Kuota horiei BEZa gehitu behar zaie.
4. Zerga-kenkariak direla eta (finantza-gastuak, kapitalaren amortizazioa eta inbertsioa aintzat hartzeagatik), aukera interesgarri bilakatzen da.

Sailkapena:

1.- Finantza-leasing-a: errentan ematea, erosteko aukera izanik. Ondasun jakin bat behar duten enpresek hornitzailearekin jarduten dute, eta, behin zer eskuratu nahi duten erabakitzen dutenean, leasing-erakunde batera jotzen dute. Erakunde horrek hornitzailearentzako ondasuna eskuratzen du, eta enpresari alokatzen dio, eta erosteko aukera ituntzen dute. Epe ertainerako eta luzerako eragiketa bat da (3-5 urte) ondasun higigarrietarako, eta epe luzeagokoa, berriz, higiezinetarako.

Leasing mota ohikoena da, eta haren bereizgarri nagusia da ondasunak errentan hartzen dituztenen gain geratzen direla konpontze- eta mantentze-gastuak (arrisku teknikoa eta zahartzeko arriskua). Leasing mota hori ezeztazina da.

2.- Leasing operatiboa: finantza-leasing-arekin alderatuz, leasing operatiboaren kasuan, ondasuna errentan hartu duenak eragiketa atzeratu egin dezake, aurrez alokatzaileari abisua ematen badio, klausula penalik gabe. Ondasunaren ekoizlea edo banatzailea izan ohi da alokatzearen arduraduna, eta ondasunaren jabetza mantentzen du, baina, ondasuna errentan hartu duenak edozein unetan alokatzeari utz diezaiokenez, finantza-leasing-ean baino kuota altuagoak izan ohi dituzte.

3.- Lease-back-a: finantzazio mota horretan, kontratuek bi zati izaten dituzte:

1. Finantzazioa behar duen enpresak ondasun zehatz bat saltzen dio leasing-sozietateari; normalean, ondasun higiezin bat izan ohi da. Beraz, ondasuna errentan hartu duena da, era berean, jatorrizko ondasunaren hornitzailea.

2. Enpresa saltzaileak ondasunari dagozkion finantza-errentako kuotak leasing-sozietateari ordaintzeko konpromisoa hartzen du.

Enpresa saltzaileak, kontratuaren amaieran, aurrez saldutako ondasuna erosteko aukera izango du.

Likidezia-arazo handiak eta, era berean, higiezinaren ondare handia zuten enpresek erabili ohi zuten leasing mota hori.

2.- Renting-eragiketak

Renting-a merkataritza-kontratu bat da. Haren bidez, ondasun bat denbora jakin batean erabiltzeko eskubidea ematen dio alderdi batek beste bati, aldizkako kuota baten truke. Ondasuna mantentzea errentatzailearen kontura izango da.

Renting-aren eragiketa gehienak autoen sektorean izaten dira, baina gero eta ohikoagoak dira

beste arlo batzuetan ere (informatika-ekipoak, eta abar).

Eragiketa horren abantaila nagusiak dira mantentze-lanez ez arduratzea eta hasieratik eragiketaren kostua ezagutzea, kuotak aurrez ezagutzen baititugu. Gainera, hasieran ordainketa handirik egin gabe erabil dezakegu ondasun hori.

Merkatu hori nahiko kontzentratuta dago, oso erakunde gutxien esku baitago eragiketa guztien erdia baino gehiago.

Leasing-aren eta renting-aren arteko desberdintasun nagusiak:

- 1.-** Renting-enpresek espezializazio-maila handiagoa izan ohi dute.
- 2.-** Renting-ean alokatutako ondasunak, oro har, aurretik erabiliak dira (beste erabiltzaile batzuek izan dituzte eskuartean). Leasing-ean, normalean, berriak izaten dira.
- 3.-** Renting-ean, kontratua alde bakar batek deusezta dezake epea bukatu aurretik (leasing-ean ez da halakorik gertatzen).
- 4.-** Kontratua amaitzean, renting-sozietateak ondasuna berreskuratzen du (leasing-ean: erosi, itzuli edo berriztatu).
- 5.-** Leasing-ean, erosteko aukera egon behar du kontratua amaitzean; renting-ean ez da beharrezkoa.
- 6.-** Leasing-a enpresaren aktiboan islatzen da. Renting-a, aldiz, ez da azaltzen ez aktiboan ezta pasiboan ere.
- 7.-** Leasing-ean, errentariak bere gain hartzen ditu mantentze-gastuak. Renting-ean, alokatzaileak hartzen ditu bere gain gastu horiek, eta baita zahartzeko arriskua ere.

Renting-aren adibide bat:

Seat Ibiza berria, 1.9 Tdi ,105cv 5p Diesela C02 igorpena: 119 g/km



Soilik 256 €/hileko + BEZa* (*297 €, BEZa barne). Hasierako ekarpena: 3.000 € (BEZa barne)
Eskaintzaren epemuga: 2009ko otsailaren 28a. 48 kuota eta 15.000 km/urteko.

3.4.2.- Factoring- eta confirming-eragiketak

Bi eragiketak elkarrekin erlazionatuta daude: factoring-a bezeroak kudeatzeaz arduratzen da, eta confirming-a, berriz, hornitzaileei egiten zaizkien ordainketak kudeatzeaz. Confirming-a geroago sortua da, baina merkatuan indartzen ari da.

Eragiketa horiek errentagarritasun-iturriak dira kreditu-erakundeentzat ere; batez ere, factoring-a. Confirming-ak ez du hain errentagarritasun alturik ematen, baina bezeroen leialtasuna lortzea du helburu.

1.-Factoring-eragiketak


Merkataritza-kredituen bidez gauzatzen diren administrazio- eta finantza-zerbitzuen multzo bat ematea da factoring-a; merkataritza-kredituak, oro har, epe laburrera lagatzen dira, eta, jatorria zerbitzuak ematea edota ondasunak emateaenez, edozein eratarik bil daiteke informazioa (ordainagiriak, fakturak...).

Factoring-aren prozesua honako hau da: ekoizle edo banatzaile batek (**lagatzailea**) factoring-konpainia bati (**faktorea**) lagatzen dizkio beste hirugarren batekin (**zordunak**) dituen kredituak, eragiketa ezeztatzeko baten bidez, eta konpainia horrek, jabe berria den aldetik, kreditu horiek kudeatzen eta kobratzen ditu.

Faktoreak kreditu horiekiko **zerbitzuak** presta diezazkioke lagatzaileari, prezio baten ordainetan:

- 1.- Erosleen kaudimen-mailaren analisia, kaudimen horren arabera bezeroen sailkapena eta haietako bakoitzari arrisku-lerro bat esleitzea.
- 2.- Factoring-bezeroak uzten dituen fakturak kobratzeko kudeaketa egitea.
- 3.- Bezeroak uzten dituen fakturak administratzea eta kontrolatzea, erosle bakoitzeko.
- 4.- Erosleen kaudimen gabeziaren arriskua babestea, factoring motaren arabera.
- 5.- Erosleekin dituen kredituei dagozkien funtsak aurreratzea (merkataritza-deskontua).

3.2 taula. Factoring-aren fluxu operatiboa



Iturria: SANTANDER Factoring eta Confirming (2004)

Sailkapen-irizpidearen arabera, factoring mota ugari azaldu daitezke, baina honako hauek dira garrantzitsuenak:

Arriskua ematen den edo ez:

1.- Helegiterik gabeko factoring-a: faktoreak kaudimen gabeziaren arrisku eta guzti eskuratzen du kreditua, eta, zordunak ordaintzen ez badu, lagatzaileak ez du erantzukizunik.

2.- Helegitedun factoring-a: zordunak ordaintzen ez badu, faktoreak lagatzailearengandik berreskuratzen du bere kreditua.

Faktorearen ordainsaria bi elementuz osatuta dago:

1.- Faktore-komisioa: fakturaren zenbateko osoaren gaineko ehuneko bat da (BEZa barne), eta lagatze-unean ordaintzen da. Zenbait parametroren arabera kalkulatzen da: negozioen kopurua, batez besteko kobrantza-epea, urteko faktura kopurua, fakturen batez besteko zenbatekoa, zordunen kopurua eta kalitatea, zordunen banaketa geografikoa...


2.- Interes-tasa (finantza-zatia): banku-kostuaren eta finantzazio-epearen arabera, epe horretarako Euriborra gehi adostutako diferentziala zehazten da.

Factoring-aren helburu izan daitezke salgaiak, hornidurak edo zerbitzuak salerostearen ondoriozko kredituak dira, baldintza hauek betetzen badituzte:

- Egia izatea.
- Epea amaitu gabe izatea.
- Maiz errepikatzea.
- Epe laburrean ordaintzeko baldintzak: 180 eguneraino.
- Normalean, adostutako fakturen gain lan egitea.

Kostua alde batera utzirik, factoring-ak baditu **abantaila** esanguratsuak beste arlo batzuetan: kobrantzetan eraginkortasuna gehitzea, diruzaintza-fluxua gehitzea eta bulego- eta komunikazio-gastuak gutxiagotzea. Oso garrantzitsua da “balantzearen makillaje” efektua, zordunak murriztu egiten baitira enpresa lagatzailearen balantzean, eta diruzaintzako saldoa igo egiten da, aurreratutako eta babestutako kontuei esker. Hala, zorpetze-ratioak hobetzen dira, eta enpresak irudi sendoago bat erakusten du beste hirugarren baten aurrean, eta palanka-efekturako aukera gehiago ematen ditu.

3.3 taula. Factoring-aren ondorioak balantzean




Iturria: SANTANDER Factoring eta Confirming (2004).

2.-Confirming-eragiketak

Enpresaren eta haren hornitzaileen arteko eragiketak finantza-bitartekari baten bidez izapidetzeko modu bat da. Bitartekariak eragiketa horren arriskuak bere gain hartzen ditu, eta jarduera administratiboen ardura hartzen du (fakturak jaso eta abar).

Confirming-erakundeak ordainketa-eskutitz bat bidali behar dio hornitzaileari, ordainketa egiteaz arduratuko dela adierazteko, eta hornitzaileak onartu egin dezake, edo ez. Onartuz gero, confirming-erakundearekin adostu beharko ditu ordainketa-baldintzak.

3.4 taula. Confirming-aren fluxu operatiboa




Iturria: SANTANDER Factoring eta Confirming (2004).

Confirming-erakundearen bezeroek hiru confirming mota egin ditzakete:

- Confirming sinplea: erakundeari hitzartutako datan ordaintzen zaio, eta, gero, erakundeak hornitzaileari ordaintzen dio.
- Inbertsiorako confirming-a: enpresa bezeroak ordainketaren aurrerakin bat eman diezaioke confirming-erakundeari, une horretan likidezia-soberakina duelako edo funts erabilgarriak dituelako.
- Finantzaziorako confirming-a: enpresak ordainketa atzeratzea hitzartzen du confirming-erakundearekin; kasu horretan, interesak ordaindu beharko dizkio.

3.5 taula. Confirming-aren diru-fluxua



Iturria: SANTANDER Factoring eta Confirming (2004).

Confirming-ak balantzean duen eragina ez da factoring-ak duena bezalakoa; izan ere, kasu horretan, hartzekodunen kontua murriztu egiten du, eta baita diruzaintza ere, enpresak faktoreari “aldez aurretik” ordaintzen dionean.

Confirming-a enpresa handientzat eta bezero garrantzitsuentzat prestatuta dago, bezeroek oso kostu baxua hartzen baitute beren gain. Finantza-erakundeek errentagarritasun altua lortu ez arren, bezeroak leial bihurtzeko, bezeroarekiko negozio kopurua handitzeko eta bezero potentzialak (hornitzaileak) lortzeko erabiltzen dute zerbitzu hori.

3.4.3.- Forfaiting-eragiketak

Forfaiting-a kanpo-merkataritzako eragiketetan erabiltzen da. Esportatzailearen ikuspegitik, finantza-agiri batzuen salmentan datza forfaiting-a edo helegiterik gabeko deskontua; epe ertaineko epemuga du, esportatzen diren ondasun edo zerbitzuei dagokiena, eta ezin da helegiterik aurkeztu esportatzailearen aurka.

Etorkizuneko ordainketek gaur egun izango luketen prezioan egiten da eragiketa, hots, prezio eguneratu batean.

Eragiketa horren ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- Bereiztea: edozein dokumentazio erabilita ere, bereizi egiten dira, alde batetik, finantza-tresna horiek erosteak dakartzan eskubideak, eta, bestetik, tresna horiek igortzea ekarri duen eragiketa komertziala. Horrek esan nahi du ez zordunak eta ezta berme-emaile den bankuak ere ezingo dutela aitzakirik ezarri zorra ordaintzeko orduan.
- Negoziagarria: eragiketa baten ondorioz sortutako kredituak libreki transferi daitezke.
- Komertziala: forfaiting-eragiketa batean, kreditua salerosketa-kontratu baten ondorioz sortzen da; beraz, merkataritzakreditutzat hartzen da.
- Helegiterik gabea: eragiketaren ondoren, saltzaileak ez du zertan arduratu ez kreditu horrek dakartzan ondorioez beste ezertaz ere. Nolanahi ere, ordaintzen ez duen kasuetan, erosleak ez du inolako aukerarik saltzaileari kreditua itzultzeko. Salbuespen dira iruzur-kasuak.

Zer tresna erabiltzen den:

Betiko salmenta bat denez, ordainketarako erabiltzen diren tresnek nahitaez etorkizunean ordainketa egin egingo dela ziurtatu behar dute. Gehien erabiltzen diren tresnak honako hauek dira:

- zor-agiriak
- truke-letrak
- epeka ordainduko diren kreditu-gutunak (ahal bada, onarpena dutela)

Hala ere, merkataritza-fakturak eta abar ere erabil daitezke; betiere, etorkizunean ordainketa hori egin egingo dela ziurtatzen badute, eta ordainketarik egiten ez den kasuetan epemuga jakin batean ordainketa erreklamatzeko aukera ematen duten dokumentuak badira.

Bermeak:

Kasu gehienetan, deskontatutako forfaiting-eragiketetan, berme- edo abal-lana egiten duen kreditu-erakunde bat egoten da. Erakunde horrek, alde batetik, kredituaren arriskua gutxitzea eta forfaiting-eragiketa horrek dakartzan arriskuen analisia erraztea dakar, eta, bestetik, bigarren mailako merkatuetan aktiboaren likidezia-maila handitzea.

Halere, gero eta enpresa gehiagok — korporazio handiek, batik bat —, nazioarteko merkatuetan oso ezagunak direnak, ez dute inolako abalen beharrik horrelako eragiketak egiteko.

Forfaiting-eragiketetan, abala da berme gisa gehien erabiltzen den tresna.

Abalaren alternatiba gisa, banku-bermea erabiltzen da, letra edo zor-agiriez aparteko dokumentu batean igortzen dena.

Kostua:

Forfaiting-eragiketa baten kostuan, nagusiki honako elementu hauek parte hartzen dute:

- Deskontu-tasa: Libor tasari tarte bat gehituz lortzen den zenbatekoa da. Epearen araberakoa izaten da: 6 hilabete, urtebete, 18 hilabete, eta abar.
- Grazia-egunak (*days of grace, días de gracia*): alegia, forfaiting-a egiten dutenek epemuga luzatzea deskontua kalkulatzeko orduan.
- Konpromiso-komisioa (*commitment free*): herrialde-arrisku eta kreditu-lerro nahikoak erreserbatzearen ondorioz forfaiterrak eragiketa zehatz bat baldintza zehatz batzuetan betetzeko eskatzen duen prezioa da. Ez dago arau zehatzik, baina, oro har, tartearen % 50en inguruan kokatzen da komisio hori.

Forfaiting-a erabiltzeko arrazoiak:

Esportatzailea den enpresa baten ikuspegitik, forfaiting-ak honako helburu hauek lortzen lagundu diezaioke:

- Likidezia
- Kreditu-arriskua eta truke- eta interes-tasaren ondoriozko arriskuak gutxitzea
- Bankuekiko kreditu-lerroei eustea
- Kontabilitate-ratioen emaitzak hobetzea

Garrantzitsua da, forfaiting-eragiketa bat beste batekin alderatzeko orduan, ezaugarri horiek guztiak kontuan izatea. Izan ere, forfaiting-eko ohiko letren deskontuarekin (helegiteduna) alderatuz, kostu handiagoa du, abantaila handiagoak dakartzan arren. Aukera garestia da, enpresa txiki eta ertaintzat, batez ere.

3.5. **ABALAK**

Abalak kreditu-eragiketak dira. Hala, **abalatuak** (bezeroak), beren betebeharren edo konpromisoen arrakasta ziurtatzeko asmoz, mota guztietako bermeak jasotzen dituzte **erakunde abal-emaile** batengandik, **beste hirugarren baten** aurrean (beraz, etekinak sortzen ditu, eta badu arriskua). Abalekin eginiko eragiketak "sinadura-arriskua" deritzonaren barnean daude.

Beste kredituekiko desberdintasun esanguratsuen zera da: abalekin eginiko eragiketetan, hasiera batean, erakunde abal-emaileek ez dute inongo ordainketarik egiten; konpromiso formal bat hartzen dute abalatuaren balizko hutsegite baten aurrean, besterik ez.

Eragiketa horietan, honako prozesu hau bideratzen da: abala epe mugagabe batean zehar uzten da, normalean. Abalatuak bere konpromisoak bete dituela erakusten duenean, abala baliogabetuta geratzen da. Beste hirugarren batzuen aurrean hartutako konpromisoei aurre egiten ez badie, hirugarren horiek badute eskubidea erreklamazio bat egiteko erakunde abal-emaileari; une horretantxe, erakundeak ordaindutako kopurua mailegu iraungi bihurtzen da abalatuarentzat, eta erakundeak erreklamazio bat egin diezaioke abalatuari, judizialki zein estrajudizialki. Erakunde abal-emaile batzuek konpromiso-data bat ezartzen dute kasu jakin batzuetan ere, eta, data horretatik aurrera, abala baliogabetuta geratzen da.

Zer betebeharrak bermatzen den kontuan hartuta, abalak zenbait motatan **sailka** ditzakegu:

1.- Behin-behineko abala: erakunde abal-emaileak ez du konpromiso tinkorik hartzen; behar den unean eta tokian behin betiko abal bat emateko prest dagoela adierazten duen eragiketa da. Ez dago gasturik abalatuarentzat.

2.- Abal teknikoa: erakunde abal-emailearentzat ordaintzeko betebeharrak zuzenik ez duen abala da, baina, abalatuak obra-lehiaketa edo enkante bidez erakunde publikoen aurrean bereganatu dituen konpromisoak betetzen ez dituen kasuetan, abal teknikoa lagungarri da.

3.- Abal ekonomikoa: kasu horretan, kopuru zehatz bat ordaintzen da, abalatuak ordainketa behar bezala egiten ez badu. Bi motatakoa izan daiteke:

- **Merkataritzakoa:** merkataritza-eragiketei dagokie, eta bermea ematen du mota guztietako ondasunen salerosketetan, zatikako ordainketetan, ordainketa aurreratuetan eta abar.

- **Finantzarikoa:** finantza-eragiketei dagokie, eta bermea ematen du bezero abalatuak beste erakunde batetik lortutako kreditu edo maileguetan. Abala finantza-letra bat edo kreditu-poliza edo -mailegu bat izan ohi da.

4.- Abal-lerroa: eragiketa bakoitzerako abal bat izapidetu beharra ekiditen du, baina badu gehieneko muga bat lerro horretara kargatutako abalen erabilgarritasunari dagokionez (adibidea: era jarraitu batean hainbat kontrataziotarako eskaintza publikoetan lehiatzen diren enpresak).

Elkarrekiko berme-elkarteek ematen dituzten abalak:

Kasu horretan, elkarte horiek abalak ematen dizkiete beren bazkideei, banku-finantzazioa lor dezaten. Elkarte horien abala lortzeko, bazkideak ordainketak egin behar ditu nahitaez.

PROPOSATUTAKO ARIKETAK

1. Finantza-erakunde batek 50.000 €-ko maileguak ematen ditu. Ezaugarriak: hiru urteko epemuga eta % 3ko interes-tasa sei hilean behin. Amortizazioa epemugan egingo da.
 - a) Kalkula ezazu zein den maileguaren kostu efektiboa mailegu-hartzailearentzat.
 - b) Maileguaren interesak hasieran ordaintzeko aukera izango bagenu, zein izango litzateke kasu horretan urteko kostu efektiboa? a) atalekoa baino handiagoa ala txikiagoa al da?
 - c) Demagun maileguaren zenbatekoaren % 1 bankuan uzten dugula hiru urtez epe luzeko gordailu batean, eta % 1eko interes-tasa jaso nahi dugula. Azaldu ezazu nola kalkulatu litzatekeen kostu efektiboa.

2. Finantza-erakunde batek 100.000 €-ko maileguak ematen ditu. Ezaugarriak: bost urteko epemuga eta % 2ko interes-tasa sei hilean behin. Amortizazioa epemugan egingo da.
 - a) Kalkula ezazu zein den maileguaren kostu efektiboa mailegu-hartzailearentzat.
 - b) % 1eko irekitze-komisioa ezarriko baligute, zein izango litzateke urteko kostu efektiboa?
 - c) Demagun, aurreko irekitze-komisioaz gainera, maileguaren zenbatekoaren % 5 epe luzeko gordailu batean uzten dugula bost urtez, eta % 3ko interesak jaso nahi ditugula. Azaldu ezazu nola kalkulatu litzatekeen urteko kostu efektiboa.

ESTEKA INTERESGARRIAK

- HIPOTEKA-KREDITUEN ERREFERENTZIAZKO INDIZEEN BILAKAERA (EVOLUCIÓN DE LOS ÍNDICES DE REFERENCIA DE CRÉDITOS HIPOTECARIOS):
<http://www.finanzas.com/hipotecas/indices-referencia-detalle/euribor>
- BANKU- ETA FINANTZA-AHOLKULARITZA (ASESORES BANCARIOS Y FINANCIEROS):
<http://www.abanfin.com/modules.php?tit=financiacion-a-largo-y-corto-plazo-leasing-prestamo-credito&name=Abanfin&fid=fa0adaa> (ABANFINen finantza-tresnei buruzko gida: leasing-a, renting-a, epe laburrerako maileguak, epe luzerako hipotekak, eta abar)
- FINANTZA-PRODUKTUEI BURUZKO INFORMAZIOA (INFORMACIÓN SOBRE PRODUCTOS FINANCIEROS): <http://elcorreodigital.finanzas.com/finanzas-personales>
- KREDITU ETA MAILEGU PERTSONALAK (PRÉSTAMOS Y CRÉDITOS PERSONALES):
<http://www.quiero credito.com>
- ESPAINIAKO LEASING-ELKARTEA (ASOCIACIÓN ESPAÑOLA DE LEASING):
<http://www.ael.es>
- ESPAINIAKO BANKUAREN HIPOTEKA-MAILEGUEI BURUZKO INFORMAZIOA (INFORMACIÓN SOBRE PRESTAMOS HIPOTECARIOS DEL BANCO DE ESPAÑA):
<http://www.bde.es/clientebanca/productos/hipotecas.htm>
- ESPAINIAKO BANKUAREN MAILEGU PERTSONALAK ETA KONTSUMO-MAILEGUAK (INFORMACIÓN SOBRE PRÉSTAMOS PERSONALES Y AL CONSUMO DEL BANCO DE ESPAÑA): <http://www.bde.es/clientebanca/productos/creditos.htm>
- BANKU-ABALAK (AVALES BANCARIOS): <http://www.avalesbancarios.es/>
- ESPAINIAKO HIPOTEKA-ELKARTEA (ASOCIACIÓN HIPOTECARIA DE ESPAÑA):
<http://www.ahe.es>

- ESPAINIAKO FACTORING-ELKARTEA (ASOCIACIÓN ESPAÑOLA DE FACTORING): <http://www.factoringasociacion.com>
- ESPAINIAKO RENTING-ELKARTEA (ASOCIACIÓN ESPAÑOLA DE RENTING): <http://www.ae-renting.es>
- INTERNATIONAL FORFAITING ASSOCIATION: <http://www.forfaiters.org>

4. GAIA: KREDITU-ERAKUNDEEN EZOHIKO ERAGIKETAK

4.1.- PRODUKTU DERIBATUAK

4.1.1.- Sarrera

Produktu deribatuek izugarritzko garapena izan dute 70eko hamarkadaren erdialdetik aurrera. Errentagarritasun handiko produktuak dira, baina, aldi berean, oso arrisku handia dakarte.

Kontratu mota horien ezaugarri nagusiak hauek dira:

- Kontratuaren helburua ez da ondasun bat, baizik eta etorkizuneko une batean aktibo jakin bat eskuratzeko eskubidea edo obligazioa. Etorkizunean trukagarria den aktibo hori azpiko aktiboa da. Azpiko aktiboak oso ezberdinak izan daitezke: lehengaietatik eta nekazaritzako produktuetatik hasi eta dibisetara edo finantza-aktiboetara.
- Negoziatutako kontratuen prezioa azpiko aktiboaren arabera da. Hau da, azpiko aktiboaren prezioa igo egingo dela aurreikusten badugu, etorkizuneko balioa ere igo egingo da.

Deribatuen funtzio nagusia da etorkizuneko prezioari buruzko ziurgabetasuna gutxitzea, hala mozkin bat edo galera txikiago bat lortzeko. Espekulatzeko helburuz edo babes gisa erabiltzen dira, bereziki. Espekulazioaren kasuan, azpiko aktiboaren prezioaren bilakaera baten aldeko apustua egiten da. Bilakaera horretan aurreikusitako eboluzioaren arabera, posizio batzuk hartzen dira, eta, nahi den mailara iristean, posizioa itxi egiten da. Babes gisa, berriz, babes ematen du nahi ez diren prezioen edo interes-tasen aldaketen aurrean.

Deribatu mota asko daude; adibidez: finantza-etorkizunak, FRAk, aukerak, etorkizun-aukerak, interes-tasen trukeak edo swapak, eta abar. Deribaturik sinpleenak ikusiko ditugu, eta ez dugu deribatuen deribatuei buruzko ezer ikusiko (azpiko aktibo gisa beste deribatu bat hartzen duten kontratuak dira). Finantza-erakundeek interes-tasaren arriskua kudeatzeko erabiltzen dituzte deribatuak, aurrerago ikusiko dugun moduan.

4.1.2.- FRAk

FRA (Forward Rate Agreement) bat kontratu bat da. Hala, bi aldeek interes-tasa bat ezartzen dute adostasunez, epe bat iragan ondoren, zenbateko teoriko baten gain eta aurretik zehaztutako epe batean ordainduko dena. Hau da, etorkizunean interes-tasa jakin bat ziurtatzeko eta interes-tasen aldaketen aurrean babesteko aukera ematen digun tresna bat da.

FRAn hasiera eta FRA indarrean dagoen denbora bi azpi-indizeren bidez adierazten da. $FRA_{2/5}$: kasu horretan, kontratua bi hilabete barru sartuko da indarrean, muga-eguna bost hilabete barru duen gordailu baten gain, hau da, hiru hilabetez egongo da indarrean.

FRAn, beti zehaztu behar da:

- Kontratuan adostasunez ezarritako eperako interes-tasa.
- Zenbateko teorikoa eta kontratua zer epetan dagoen indarrean.
- Kontratazio-data, hasiera-data eta muga-eguna. Hala, hasieraren eta kontratazio-dataren arteko diferentzia epea izango da, eta muga-egunaren eta hasierako dataren artekoa, berriz, kontratuaren epea.

Nola erabil dezakegu FRA bat? Bi kasu ikusiko ditugu:

1.- Demagun T_C izeneko epe batera utzi dizkiguten funtsak T_L deituriko epe batera inbertitu ditugula ($T_C < T_L$). Hau da, hasiera batean T_C unean hartutako funtsak itzuli egin behar ditugu, baina oraindik ez dugu inbertsioa berreskuratu. Beraz, berriro ere funtsak eskatu beharko ditugu. Gerta daitekeen okerrenera zera da: une horretan interes-tasak altuak izatea. Arrisku horren aurrean, T_C -tik T_L -ra arteko epean babestuko gaituen FRA bat (T_C / T_L FRA) kontrata dezakegu. Hala, hasierako unetik jakin ahal izango dugu zer kostu izango dugun.

2.- Orain, oster, demagun T_L epe batera funtsak eskatu eta T_C -ra arteko epean inbertitzen ditugula ($T_C < T_L$). Hau da, T_C unean, funtsak berriz inbertitu beharko ditugu. T_C unean hasieran baino interes-tasa baxuagoa izatean dago arriskua. Beraz, T_C / T_L FRA bat sal dezakegu, eta zer sarrera izango dugun jakin dezakegu hasieratik.

Oharra: FRA erosten duenak interesak ordaintzen ditu, eta FRA saltzen duenak interesak jasotzen ditu.

FRA bat zertarako erabil daitekeen ikusi ondoren, kontratu mota horiek nola likidatzen diren azalduko dugu. FRA baten likidazioan, funtsezko bi alderdi hauek daude:

- Kontratazio-datan adostutako tasaren eta hasiera-datan aplikatzen den tasaren arteko diferentziaz likidatzen dira, hau da, aldeetako batek besteari ordaintzen dio.
- Likidazioa hasiera-datan egiten da.

Likidatu behar den kopurua formula honen bidez lortuko dugu:

$$L = \frac{N(r_f - r^*)(T_L - T_C)}{360 + r^*(T_L - T_C)}$$

Azalpena:

N: nominal teorikoa

rf: FRAn adostasunez ezarritako tasa

r*: erabilitako likidazio-tasa

T_L : epe luzea

T_C : epe laburra

Nork nori ordainduko dion jakiteko, $(r_f - r^*)$ ren zeinuari erreparatu behar diogu:

Positiboa bada, adostasunez ezarritako tasa likidazio-tasa baino handiagoa izango da; ondorioz, FRAn saltzaileak irabaziko du eta jasoko ditu interesak. Beraz, erosleak saltzaileari ordaindu beharko dio.

Negatiboa bada, likidazio-tasa adostasunez ezarritako-tasa baino handiagoa da. FRAn erosleak irabaziko du, eta ordaindu behar lituzkeen baino interes gutxiago ordainduko ditu. Saltzaileak erosleari ordaindu beharko dio.

FRA-kontratu baten likidazioaren adibidea:

Azaldu ezazu nola egingo litzatekeen honako ezaugarri hauek dituen FRA baten likidazioa 100.000 euroko nominal teoriko baten gain: FRA kontratuan adostasunez ezarritako interes-tasa: % 5; erreferentziako interes-tasa: Euriborra, 90 egunerako (% 4, likidazio-datan); FRA-kontratuaren iraupena: 3 hilabete.

$$L = \frac{100.000(\% 5 - \% 4)(90)}{360 + \% 4 * (90)} = 247,52$$

Interpretazioa: FRAREN erosleak likidazioaren zenbatekoa ordainduko du. Erosleak “galdu” egin du FRA-kontratuaren bidez; izan ere, % 5eko interesak ordainduko ditu eta, merkatuan jokatu izan balu, % 4 ordainduko zukeen. FRAREN saltzaileak, berriz, % 5 jasoko du, eta, merkatuan jokatu izan balu, % 4 besterik ez zukeen jasoko. Ikusten duzuen bezala, interes-arriskua desagertu egin da epealdi horretan, baina, horren truke, beti badago “galdu” egiten duen alde bat.

4.1.3.- Swapak

Swap bat zera da: finantza-eragiketa batean sortzen diren fluxuen izaera aldatzen duen kontratu bat. Bi motatakoak izan daitezke: dibisa-swapak eta interes-tasen swapak. Atal honetan, finantza-eragiketetan zentzu gehien duten interes-tasak soilik azalduko ditugu, hots, arriskuarekin erlazio zuzena dutenak; bankuen jardueraren barnean elementu garrantzitsuenetariko bat hartzen da.

Interes-tasen swapak (IRS, Interest Rate Swap):

IRS-kontratuak honela definitzen dira: alde batek beste alde baten aurrean interes-tasa finko bat ordaintzeko hartzen duen konpromisoa. Interes-tasa finko hori alde aurretik finkatzen dute, adostasunez, erreferentziako zenbateko baten gain aplikaturik, eta epealdi jakin batean eta data jakin batzuetan ordaintzen da. Horren truke, zenbateko beraren gain aplikatutako interes-tasa aldakorra jasotzen du ordaindu duenak beste aldearengandik. Garrantzitsua: ez dago zenbateko printzipalen arteko trukerik, interesak besterik ez baitira trukutzen.

Adibidea:

Demagun bi banku ditugula: A eta B. Haien zorrak hauek dira:

- A bankuak 1.000 milioi euroko pasiboa du, % 10ean, hiru urtera.
- B bankuak 1.000 milioi euroko pasiboa du, hiru urtera, baina hiru hileko Euriborra + % 0,15ean.

Bi bankuek truke bat hitzartu dute. Hala, A bankuak B bankuaren interesak ordainduko ditu Euriborra + % 0,10ean, eta B bankuak A bankuaren interesak ordainduko ditu % 10,10ean.

Beraz, azkenean, emaitza hau izango da:

Aren kostua: % 10 + hiru hilabeteko Euriborra + % 0,10 - % 10,10 = hiru hilabeteko Euriborra.

Bren kostua: hiru hilabeteko Euriborra + % 0,15 + % 10,10 - hiru hilabeteko Euriborra - % 0,10 = % 10,15.

Hortaz, A bankua izaera finkoko zor aldakor bat izatera igaroko da, eta B, aldiz, finkoa izatera.

Edozein IRS swap kontratutan, alderdi hauek zehaztu behar dira:

- indarrean sartzeko data
- muga-eguna
- likidazio-data
- ebazpen edo muga-egun aurreratuaren data
- kontratuaren epea
- printzipal teorikoa
- printzipalaren amortizazioa
- ordaintzaile finkoa
- ordaintzaile aldakorra
- tasa finkoa
- aldakorraren erreferentzia gisa erabilitako tasa
- aldakorraren likidaziorako erabilitako tasa

Likidatzeko kasuetan, hau jakin behar dugu:

- Swapak diferentzien arabera likidatzen dira, hots, gehiago ordaindu behar duen alderdiak besteari ordaindu beharko dio diferentzia.
- Ordaintzak likidazioaren epearen bukaeran ordaintzen dira.
- Hartzen den tasa aldakorra likidazio-tasa bat da, eta tasa finkoa, berriz, urtekoa izango da.

Erreferentzia gisa urteko 360 egunak hartzen baditugu, likidazioa hau izango da:

$$L = N (rf-rv)t / 360$$

Azalpena:

N: nominal teorikoa

rf: tasa finkoa

rv: tasa aldakorra

t: denbora (egunetan)

Diferentzien arabera likidatzen denez, nori ordaindu behar dion aztertu behar da. Honako bi kasu hauek gerta daitezke:

- $(rf-rv) > 0$: kasu horretan, tasa aldakorra ordaindu behar duenak baino gehiago ordaindu beharko du tasa finkoa ordaindu behar duenak. Beraz, ordaintzaile finkoak ordaindu beharko du L diferentzia.
- $(rf-rv) < 0$: kasu horretan, tasa aldakorra ordaintzen duenak gehiago ordaindu beharko du. Beraz, ordaintzaile aldakorrak ordaindu beharko du L diferentzia.

4.1.4.- Finantza-etorkizunak

Finantza-etorkizun bat honela definitzen da: merkatu antolatu batean negoziatzen den kontratu bat da. Eroslea eta saltzailea behartuta daude etorkizuneko data finko batean aktibo baten kopuru jakin bat jasotzera/ematera. Bai kopurua bai data estandarizatuta daude.

Definizio horretan, etorkizunen kontratu baten ezaugarri nagusiak bereiziko ditugu:

- Eragiketak merkatu antolatuen bidez gauzatzen dira.
- Kontratuak estandarizatuta daude.
- Onartutako obligazioak bete behar dituzte bi aldeek.

Merkatu antolatuaz hitz egitean, etorkizunen merkatuan Konpentsazio Ganbera bat dagoela esan nahi dugu. Egiten diren eragiketa guztien kontrakontu gisa aritzen da Konpentsazio Ganbera. Hau da, eragiketak ez dira zuzenean eroslearen eta saltzailearen artean likidatzen; saltzaileak Ganberarekin adosten du kontratua, eta, ondoren, Ganberak kontratu bat egiten du eroslearekin.

Hala, nabarmenki jaisten da kontratua ez betetzeko arriskua. Gainera, merkatu nahiko likidoa da, eta aurretiaz ezeza daitezke kontratuak. Estandarizazio horren desabantaila hau da: oso zaila da babes perfektuak lortzea.

4.1. taula. Eskurako posizioen babesa etorkizunen bidez

Posizioa	Babestu beharreko arriskua	Babes-eragiketa
Honako zorro hau du: - errenta aldakorra - errenta finkoa - dibisak	Kotizazioek behera egitea	Babestu beharreko aktiboaren gaineko etorkizunak saldu
Epe laburrera honako zorro hau erosteko aurreikuspena: - errenta aldakorra - errenta finkoa - dibisak	Kotizazioek gora egitea	Babestu beharreko aktiboaren gaineko etorkizunak erosi

Iturria: Espainiako Finantza Etorkizunen Merkatua (MEFF) (2009)

Nola jakin dezakegu zein posizio hartu behar dugun; alegia, etorkizunen eroslearena edo saltzailearena? Ikus dezagun zer gertatuko litzatekeen interes-tasarekin etorkizunen kasuan (azpiko aktiboa ez da interes-tasa, baizik eta errenta finkoko finantza-aktibo bat):

1.- Demagun inbertitzaile bat naizela eta tasek etorkizunean izan dezaketen jaitsiera baten aurrean babestu nahi dudala. Etorkizunean tasak jaitsi egingo direla uste badut, gaur egungo errenta finkoko tituluen prezioa igo egingo da (prezioa/interes-tasa alderantzizko erlazioa). Etorkizunak erosiko ditut; hala, geroago, kontratu horiek prezio altuago batean saldu ahal izango ditut. Babesa hartuko dut, beraz; izan ere, alde batetik, nire inbertsioek etekin txikiagoa izango dute, tasak jaitsi egin baitira, baina, bestetik, galera hori konpentsatzeko, gainbalio bat lortuko dut etorkizunen eragiketaren bidez.

2.- Alderantziz, funts-hartzaile bat banaiz, tasen igoera baten aurrean babestu nahi izango dut. Tasak igo egingo direla uste badut, errenta finkoko aktiboen prezioak jaitsi egingo dira. Beraz, etorkizunak salduko ditut gainbalioa lortzearren, eta gainbalio horrek finantzazio-kostu handiago hori konpentsatuko du.

Etorkizun-kontratuen likidazioa bi eratarata egin daiteke: aurkako zeinuko beste posizio batean sartuz, bertan behera utziz, edo muga-egunera arte itxaronez.

4.1.5.- Finantza-aukerak

Aukera-kontratuen definizioa hau da: erosle/saltzaile batek prima bat ordaintzen/jasotzen du eta, horren truke, erosleak/saltzaileak eskubide/obligazio bat eskuratzen du ekintza jakin bat gauzatzeko alde aurretik ezarritako denbora-une jakin batean eta prezio jakin batean.

Definizio horretatik abiatuta, aukera batean beharrezkoak diren elementuak azalduko ditugu:

- Eroslea: prima ordaintzen duena eta erosteko edo saltzeko eskubidea duena, eragiketa motaren arabera.
- Saltzailea: prima jasotzen duena eta, aukeraren erosleak aukera hori erabiliz gero, erosteko edo saltzeko obligazioa duena.
- Prima: erosleak eskubide horren jabe izatearen truke ordaintzen duen prezioa.
- Azpiko aktiboa: kontratuaren helburu diren ondasunak edo tituluak.
- Eragiketa-prezioa: etorkizunean azpiko aktiboa erosteko edo saltzeko eskubidea erabiltzeko prezioa.
- Amaiera-data: eskubidea erabil daitekeen epemuga.

Bi aukera mota ditugu: erosteko eskubidea ematen dutenak (CALL) eta saltzeko eskubidea ematen dutenak (PUT). Era berean, haietako bakoitzean, erosteko edo saltzeko eskubidea eta erosteko edo saltzeko obligazioa nork duen desberdindu behar da:

CALL:

Eroslea: prima bat ordaintzen du erosteko eskubidea izatearen truke.

Saltzailea: prima bat jasotzen du saltzeko betebeharra izatearen truke, baldin eta CALLaren erosleak bere eskubidea erabiltzen badu.

PUT:

Eroslea: prima bat ordaintzen du saltzeko eskubidea izatearen truke.

Saltzailea: prima bat jasotzen du erosteko betebeharra izatearen truke, baldin eta PUTaren erosleak bere eskubidea erabiltzen badu.

Adibidez, azpiko aktiboaren prezioa igo egingo dela uste badugu, zer egin dezakegu? Call bat eros dezakegu, edo, bestela, put bat saldu; put-a saltzea aukera okerragoa da, obligazio bat ematen baitigu, ez eskubide bat, baina, nolana ere, ziurra da primaren sarrera.

Azpiko aktiboaren prezioa jaitsi egingo dela uste badugu, put bat eros dezakegu (saltzeko eskubidea), edo call bat saldu (saltzeko obligazioa).

Gordailu egituratu bat sortzea: adibide bat

Kreditu-erakundeek produktu egituratuak sortzen dituztenean, oso ohikoa izaten da aukerak erabiltzea, inbertitzaileei irabaziak lortzeko posibilitatea bermatzen baitie finantza-merkatuen gorakaden zein beherakaden aurrean.

Kasu honetan, honako berme hau eskaintzen duen gordailu bat diseinatzen saiatuko gara: inbertitutako kapitalaren % 100 gehi errentagarritasun jakin bat, Ibexak gorantz zein beherantz eginda ere, 9 hilabeteko epealdi batean. Gaur egun, honako datu hauetatik abiatuko gara:

Hasierako kapitala	1.000.000
Kudeaketa-gastuak	0,015
Arriskurik gabeko interesa	0,025
Ibex 35	8.200
9 hilabeterako zero-kupoi bonuen interesa	0,02
Ibex 35 indizearen gaineko call aukeraren saria (eragiketaren prezioa: 8.200)	528
Ibex 35 indizearen gaineko put aukeraren saria (eragiketaren prezioa: 8.200)	449
Ondarearen zati bat zero-kupoi bonutan inbertitzen da:	
980.392,1569	$= 1.000.000 / (1 + 0,02)$
Sobera dagoen kapitala:	
19.608	$= 1.000.000 - 980.392$
Kudeaketa-gastuak ordaintzeko, honako zenbateko hau behar da:	
15.000	$= 1.000.000 * 0,015$
Beraz, honako kopuru hau geratuko da soilik sobera:	
4.608	$= 19.608 - 15.000$

Azaldu ezazu, erakundeak call eta put aukeren kopuru bera erosiko duela eta aukeren eragiketa-prezioa gaurkoa dela jakinda, zer pauso eman behar den gordailu hori sortu ahal izateko eta nolako errentagarritasuna emango duen hilabetearen bukaeran (demagun hilabetearen amaierako S&P indizearen balioa % 10 gehitu dela).

Kopuru horrekin, call- eta put-aukerak erosiko ditugu, honako baldintza hauetan:
1.- Aukera mota bakoitzaren kopuru bera.
2.- Asiako aukerak dira (batez besteko balioaren arabera likidatzen dira).
3.- Eragiketa-prezioa gaurko eskurakoa da.

Zenbat erosiko ditugu?	Proporzioa	Zenbatekoa	Aukera kopurua
Call (prezioa: 528 euro)	0,540429887	2.490,21615	4,716318462
Put (prezioa: 449 euro)	0,459570113	2.117,62699	4,716318462
Beraz, 5 call eta 5 put erosiko ditugu			

Hala, gordailu horrek zenbait egoeratan duen baliotasuna egiazta dezakegu. Demagun merkatuak goranzko joera izango duela eta 9 hilabeteko epean Ibex indizearen balioa % 15 gehituko dela.

Egiaztapena:	
a) Goranzko merkatua: Ibex 35 indizearen balioa gehitzea	% 15
Epemugako Ibex 35	9.430
Balioa gehitzearen ondoriozko puntuak	1.230
Call-aukeren bidezko mozkina (5 aukera x 1.230)	6.150
Hasierako kapitalean gehitutako balioa Ibex 35 indizearen balioaren berdina bada (1.000.000 x 1,15)	1.150.000
Hasierako kapitalaren aldean lortutako diferentzia (1.150.000 - 1.000.000)	150.000
Inbertitzaileak irabazitako balioen ehunekoa (6.150 / 150.000)	4,1

Merkatuak beheranzko joera izango duela eta Ibex indizeak % 10eko jaitsiera izango duela kontuan hartuz:

b) Beheranzko merkatua: Ibex 35 indizearen jaitsiera	% 10
Epemugako Ibex 35	7.380
Beherakadaren ondoriozko puntuak	820
Put-aukeren bidezko mozkina (5 x 820)	4.100
Hasierako kapitalean gehitutako balioa S&P indizearen balioaren berdina bada (1.000.000 x 0,09)	900.000
Hasierako kapitalaren aldean lortutako diferentzia (900.000 - 1.000.000)	100.000
Inbertitzaileak irabazitako eboluzio negatiboaren ehunekoa (4.100 / 100.000)	4,1

Beraz, inbertitutako kapitala gehi Ibex 35 indizeak izango duen eboluzioaren % 4,1, indizea gorantz zein beherantz joanda ere, bermea ematen duen gordailu bat eskain dezakegu.

4.2.- KAPITALEN MERKATUAN EGINDAKO ERAGIKETAK

4.2.1.- Sarrera

Nazioarteko kapital-merkatuetan, balioak jaulkitzea sarrera-iturri da finantza-erakundeentzat, zuzendaritza-, aseguru- eta ezarpen-komisioak kobratzen baitituzte.

Bankuek era askotara joka dezakete:

- Lead-manager gisa: jaulkipenaren zuzendaria.
- Underwriter gisa: jaulkipenaren aseguratailea.
- Seller gisa: jaulkipenaren saltzailea (tituluak merkatuan ezartzen ditu).

Adibide gisa, taula honetan ikus dezakegun bezala, Itínere-k aurreikusitako Salmenta Eskaintza Publikoan (SEP), zuzendaritza-komisioek, aseguru-komisioek eta akzioak ezartzearen ondoriozko komisioek gastu guztien % 53,58 eta eskaintzaren hasierako zenbatekoaren % 1,79 osatzen zuten.¹⁸

4.2 taula. Itínere azpiegituren gastuak SEPrend ondorioz:

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA (€)
Espainiako burtsen tarifa eta kanonak	44.378,00
BMBNren tasak (jaulkitzea)	67.683,22
BMBNren tasak (onartzea)	12.224,52
IBERCLEARen tasak	30.000,00
Publizitate legala eta komertziala	8.800.000,00
Zuzendaritza-, aseguru- eta ezarpen-komisioak	19.726.176,00
Bestelako gastuak (agentzien komisioa, lege-aholkularitza, finantza-aholkularitza, inprimategia...)	4.200.000,00
ITP (ondasunak eskualdatzearen ondoriozko zerga) eta AJD (ekintza juridiko dokumentatua), elkarte-eragiketen modalitatean	4.074.840,00
GUZTIRA	36.955.301,74

Iturria: SEPri emandako informazio-liburuxka, Itínerek prestatua

Euromerkatuko (ez du esan nahi Europako merkatu bat denik) jaulkipenak eta nazioarteko bonuen edo bonu atzerritarren jaulkipenak elkarrengandik bereizi behar dira. Euromerkatuaren bereizgarria da jaulkipen izendunaren dibisaren jatorrizko herrialdea ez den beste herrialde batean aritzea (adibidez, dolarretan emandako titulu izendunak AEBtik kanpo saltzea). Herrialde batean baino gehiagotan kokatuta dago, eta dibisa sendoak erabiltzen ditu; dolarra, esate baterako (adibidez: eurodolarren merkatua Londresen).

¹⁸ Itínerearen SEPa atzeratu egin zen 2008ko apirilean, merkatuaren egoerak ez zuelako horrelako eragiketa bat egiteko baldintza egokirik ematen, BMBNk esan zuenaren arabera.

4.2.2.- Salmenta Eskaintza Publikoak (SEP)

SEPa sarrera-iturri garrantzitsuak dira haietan parte hartzen duten bankuentzat, kobratzen dituzten komisioak direla eta.

SEP bat balio-eskaintza bat da: balio horien titularra den pertsona fisiko edo juridiko batek balioak salmentan jartzen ditu (guztiak edo haietako batzuk) inbertitzaile jendearentzat, oro har. Interesatuta dauden inbertitzaileek SEPa onartzen dutela adierazten dute, eta, kopuru nahikoa bada, salmenta aurrera eramango da.

SEPa bi egoeratan gauzatu daitezke nagusiki:

- 1.- Kotizatzen ez duten akzioen SEPa: kotizazioaren aurreko urratsa izan ohi da, hala gutxiengo bazkide kopuru bat lor baitaiteke, eta inbertitzaileen artean ezagutzera emateko modua ere bada. Enpresa publikoen pribatizazio-eragiketetan ere azaldu ohi da.
- 2.- Kotizatzen duten akzioen SEPa: gehiengoa duen akziodunak bere akzio guztiak edo batzuk saltzen ditu aldi bakar batean, hainbat salmenta jarraitutara jo ordez, azken kasu horretan akzioen prezioa jaitsi egingo bailitzateke.

NORK SALTZEN DITU SEPAk?

Normalki, gehiengoa duten akziodunek saltzen dituzte; sozietatea bera ere izan daiteke saltzailea, akzio propioak baditu; akziodun guztiak edo haietariko batzuk ere izan daitezke.

NOLA TRAMITATZEN DA SEP BAT?

Prozesu administratibo luzea da. Lehenengo eta behin, Balio Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinarazten zaio eragiketaren prozesua, eragiketaren agiriak ematen zaizkio, eta agiri horiek Balio Merkatuaren Batzorde Nazionalan erregistratzen dira. Ondoren, Balio Merkatuaren Batzorde Nazionalak balioen jaulkitzailearen ikuskaritza-txostenak egiaztatzen ditu, eta, azkenik, informazio-eskuliburua erregistratzen du, funtsezko dokumentua baita.

Interesatuek doan eskuratzen dute informazio-eskuliburua, eta ezinbestekoa da SEP batean, hainbat arrazoiengatik:

- Eragiketaren baldintzak jasotzen ditu. Inbertitzaileak onar ditzake edo ez, baina ezingo ditu aldatu.
- Inbertitzaileentzako informazio-tresna bat da.
- Jaulkitzailearen edo eskaintzailearen erantzukizun posibleen oinarria da, inbertitzaileen erabakietarako esanguratsuak izan zitezkeen eta eskuliburuan barneratu ez diren datuengatik edo barneratu diren datu faltsu edo okerengatik.

Behin SEPa hasia denean, interesatuta dauden inbertitzaileek erosteko agindu bat aurkezten dute finantza-bitartekari baten bidez.

SEParen harpidetza-eparearen amaieran, bi egoera gerta daitezke:

- Eskaintako balio guztietarako onarpen nahikoa ez egotea. Kasu horretan, SEPa aseguraturata badago, aseguraturata erosiak dituzten inbertitzaileek eskuratu ez dituzten balioak. Aseguratuta ez badago, SEPa aurrera egingo du, edo ez: informazio-eskuliburuan zehaztutakoaren arabera izango da.
- Eskaintako balio adina onarpen edo gehiago egotea. Kasu horretan, balioak banatu egin behar dira onarpenen artean.

SEP baten egitura guztia kontuan izanda, zein da finantza-erakundearen betebeharra? Eskaintzaileak finantza-erakunde bat edo batzuk kontratatzen ditu (batez ere, bankuak eta aurrezki-kutxak) jaulkipena zuzentzeko, ezartzeko eta ziurtatzeko (asegururako).

Eragiketa horretan, kreditu-erakundeek koordinatzaile global eta aseguratzaile gisa parte hartzen dute; balio-sozietateak eta -agentziak tituluak merkatuan kokatzeaz arduratzen dira. Erakunde horiek komisioak kobratzen dituzte eragiketa horietan parte hartzeagatik, hau da, SEPAk sarrera-iturri bat dira SEPn parte hartzen duten erakundeentzat.

Inbertitzailearen ikuspuntutik, azken urteotan, SEPei arazoak sortu zaizkie, gehienek errentagarritasun negatiboa eskaintzen baitute. Hala ere, zenbait kasu azpimarragarriak dira; adibidez, Grifols. Burtsan sartu zenetik (2006ko maiatzean), haren balioek % 237,84 egin dute gora (2011/07/19).

4.3 taula. Azken SEPen errentagarritasuna

Enpresa	Data	Jaulkipen-prezioa	Azken prezioa	Balioa gehitzea
LUMAR	2011/07/06	4,60	4,65	% 1,09
DIA	2011/07/05	3,50	3,39	% -3,11
CATENON	2011/06/06	3,64	3,55	% -2,47
EUROESPES	2011/02/16	2,80	2,65	% -5,36
COMMCENTER	2010/12/30	2,80	3,18	% 13,57
EURONA TELECOM	2010/12/15	1,10	1,40	% 27,27
ALTIA	2010/12/01	2,72	2,68	% -1,47
NOSTRUM	2010/11/10	4,66	4,60	% -1,29
ENEL GREEN POWER	2010/11/04	1,60	1,74	% 8,56
AB-BIOTICS	2010/07/20	2,53	2,94	% 16,21

Iturria: <http://www.invertia.com/empresas/OPVs/portada.asp> (2011)

4.3.- INBERTSIO-FUNTSETATIK ERATORRITAKO ERAGIKETAK

4.3.1.- Inbertsio kolektiboko erakundeak

Inbertsio kolektiboko erakundeen (Instituciones de Inversión Colectiva, IIC) helburua da “funtsak, ondasunak edo eskubide publikoak biltzea, haiek kudeatu eta finantzarioak diren edo ez diren ondasunetan, eskubideetan, balioetan edo beste tresna batzuetan inbertitu ahal izateko, betiere inbertitzailearen errentagarritasuna emaitza kolektiboen¹⁹ arabera ezartzen bada”.

Inbertsio kolektiboko erakundeek inbertsio-elkarteen edo inbertsio-funtsen izaera juridikoa izan dezakete, eta finantza-izaerakoak edo finantza-izaerarik gabeak izan daitezke.

4.4 taula. Inbertsio kolektiboko erakundeen sailkapena beren ondarearen eta erakunde horiek hartzen duten forma juridikoaren arabera

	Finantza-izaera	Finantza-izaerarik gabeak	Inbertsio askeko inbertsio kolektiboko erakundeak	Inbertsio askeko inbertsio kolektiboko erakundeen inbertsio kolektiboko erakundeak	Inbertsio kolektiboko beste erakunde batzuk
Sozietate-izaera	Kapital aldakorreko inbertsio kolektiboko elkarteak	Higiezin inbertsio-elkarteak	Inbertsio askeko elkarteak	Inbertsio askeko inbertsio kolektiboko erakundeen inbertsio-elkartea	
Sozietate-izaerarik gabea	Inbertsio-funtsak	Higiezin inbertsio-funtsak Sailkatu gabeak	Inbertsio askeko funtsak	Inbertsio askeko inbertsio kolektiboko erakundeen inbertsio-funtsak	Inbertsio- funts kotizatuak

Iturria: egileek prestatua (2009)

4.3.2.- Inbertsio kolektiboko elkarteak

Finantza-izaerako inbertsio-elkarteak sozietate anonimo gisa jarduten duten inbertsio kolektiboko erakundeak dira; hau da, haien kapitala titulu higigarriez osaturik dago, eta haien jarduera sozial gisa sortu duten zorroa administratzen dute.

¹⁹ 2003ko azaroaren 4ko Legearen 1. artikulua (azaroaren 5eko BOE).

Inbertitzaile indibidualei eskaintzen dieten abantaila nagusia da beren sozietate-izaera. Elkarre bat denez, inbertitzaileek badute eskubidea botoa emateko eta ondarearen kudeaketa-politikan parte hartzeko. Desabantaila nagusia, berriz, elkarre horien akzioak negoziatzean sor daitekeen likidezia-falta da.

Espainiako legediak konpartimenduen arabera inbertsio-elkarreak sortzeko aukera biltzen du.

Kapitalak guztiz harpidetuta eta ordainduta egon behar du eratzen den unetik, eta akzioek ordezkatzeko dute. Askotariko akzio-segidak igor daitezke, eta aplikatzen zaizkien komisioen bitartez ezberdintzen dira elkarrengandik.

Higiezin inbertsio-elkarreak (Sociedades de Inversión Inmobiliaria, SII) partikularren aurrezkoa bereganatzen dute, aktibo higiezinetan inbertitzeko. Alokairu-erregimenpean dauden higiezinak ustiatuz eta balioa handituz eratorritako errenten bidezko errentagarritasuna lortzea dute helburu.

Higiezin inbertsio-elkarreak finantza-izaerarik gabeko erakundeak dira, eta beren helburu bakarra da ondasun higiezin gainerako inbertsioak egitea eta ustiatzea. Kapital finkoaren forma soilik har dezakete.

4.3.3.- Inbertsio-funtsak

Higigarrien inbertsio-funtsen definizioa: “izaera juridikorik gabeko ondare banatuak dira. Inbertitzaile multzo bat da ondarearen jabea. Inbertitzaile horietatik asko inbertsio kolektiboko beste erakunde batzuk izan daitezke. Elkarre kudeatzaile bat arduratzen da funtsa kudeatzeaz. Elkarre hori menderatzaile gisa aritzen da funtsaren jabe izan gabe. Elkarre gordailuzain bat ere badago. Helburua da funtsak, ondasunak eta publikoaren eskubideak biltzea; ondoren, ondasunetan, eskubideetan, balioetan edota beste tresna batzuetan (finantzarioak ala ez) inbertitzen dituzte, betiere inbertitzailearen errentagarritasuna emaitza kolektiboen arabera ezartzen bada”²⁰.

Finantza-izaerako inbertsio-funtsak

Azaroaren 4ko Legearen arabera, finantza-aktiboetan inbertitzen diren funtsak dira inbertsio-funtsak (Fondos de inversión, FI). Higiezin inbertsio-funtsak, aldiz, finantza-izaerarik ez duten aktiboetan inbertitzen diren funtsak dira.²¹

Konpartimenduen arabera inbertsio-funtsak sor daitezke, eta bi konpartimendu edo gehiago bildu²² kontratu osagarri eta araudi bakarraren barruan.

Partaidetza bat zera da: funts baten ondarea banatzen den zati alikuotetako bakoitza. Partaidetek ez dute balio nominalik; balio negoziagarriak dira, eta agiri izendunen bidez edo kontuan eginiko idazpenen bidez adierazten dira. Funts baten barruan edota, hala dagokion kasuan, konpartimendu baten barruan, partaidetza mota ugari egon daitezke, eta aplikatzen zaizkien komisioen arabera ezberdintzen dira elkarrengandik. Partaidetza mota bakoitzak izendapen berezi bat jasotzen du, eta, izendapen horren aurretik, funtsaren izendapena eta, hala dagokion kasuan, konpartimenduarena ezartzen da.

Kreditu-erakundeek diru-sarrera handiak lortzen dituzte inbertsio-funtsetatik, komisioen bidez; izan ere, inbertsio-funtsen erakunde kudeatzaileak, gordailu-erakundeak eta komertzializazio-erakundeak finantza-erakundeak lotuta daude.

²⁰ 2003ko azaroaren 4ko Legeko 3.1 artikulua.

²¹ Inbertsio higikorrek funtsen eta diru-merkatuko aktiboetako inbertsio-funtsen arteko aurreko sailkapena desagertu egin da, inbertsio-funtsak izendapen orokorra ezartzen baita soilik, zer inbertsio egiten den kontuan hartu gabe.

²² 2003ko azaroaren 4ko Legeko 3.2. artikulua.

Inbertsio-funts batean, lau komisio mota aplika daitezke: harpidetza, diru-itzultzea, kudeaketa eta gordailuzaintza (*depositaria*). Komisio maximoak honela daude araututa:

4.5 taula. Finantza-izaerako inbertsio-funtsen komisioak (%)

	Ondarearen arabera	Etekinaren arabera	Ondarearen eta etekinaren arabera
Izen-ematea	5		
Kudeaketa	2,25		
Kudeaketa		18	
Kudeaketa			% 1,35 + % 9
Gordailua	0,20		
Diru-itzultzea*	5		

*Harpidetza-komisioek eta diru-itzultzeen ondoriozko komisioek ezin dute partaidetzen likidazio-balioaren % 5 gainditu.

Iturria: egileek prestatua (2009)

Likidezia eta malgutasuna eskaintzen dute; horra abantaila nagusia, nahiz eta parte-hartzaileek boto-eskubiderik eta funtsaren kudeaketa-politikan eraginik ez izan.

Inbertsio-politikari dagokionez, ezaugarri hauek kontuan hartu behar dira:

- Likidezia: inbertsio kolektiboko erakundeek erakunde motaren eta inbertitutako aktiboaren arabera likidezia nahikoa izan behar dute.²³
- Arriskuaren dibertsifikazioa: inbertsio kolektiboko erakundeek arrisku-maila murriztu behar dute dibertsifikazio-maila egoki bat bermatzeko.
- Gardentasuna: inbertsio kolektiboko erakundeek funtsaren inbertsio-profila argi eta garbi definitu behar dute, eta informazio-agirietan idatzi.

Inbertsio kolektiboko erakundeek honako aktibo hauetan inberti dezakete: kotizatze onartutako balio negoziagarrietan, negoziatorako onartutako balioetan, inbertsio kolektiboko beste erakunde batzuetan, kreditu-erakundeetan, gordailuetan, tresna deribatuetan, diru-merkatuko tresnetan, eta abar.²⁴

Finantza-izaerarik gabeko inbertsio-funtsak: higiezin inbertsio-funtsak

Higiezin inbertsio-funtsak (Fondo de inversión inmobiliaria, FII) finantza-izaerarik gabeko inbertsio kolektiboko erakundeak dira. Haien helburu bakarra da ondasun higiezinetan inbertitzea eta ondasun higiezin horiek ustiatzea. Inbertsio- eta likidezia-koefiziente jakin batzuk errespetatu behar dituzte.²⁵

²³ Oro har, aktibo eta igorle beraren finantza-eragiketa batean inbertitutako dirua ezin da izan inbertsio kolektiboko erakundearen aktiboaren % 5 baino handiagoa.

²⁴ 35/2003 Legeko 30. artikulua (2003ko azaroaren 4a).


²⁵ Inbertsio kolektiboko erakundeen aktiboa osatzen duten higiezinak ezin dira besterendu erosten diren unetik hiru urte igaro arte. Bestalde, inbertsiorako higiezin inbertsio-funtsek gutxienez hilean behin aurkeztu behar dute partaidetzen likidazio-balioa, eta partaidetzen izen-emateak eta diru-itzultzeak urtean behin mugatu ditzakete.

Higiezinaren inbertsio-funtsen eragozpenik nagusienetako bat honako hau da: gerta daiteke une zehatz batean dirua itzultzeko eskari handiagoa izatea ondare likidoaren bidez aurre egin daitekeen baino. Egoera horrek diru-itzultzeak denboran gelditzea eragingo luke. Bestalde, inbertsio kolektiboko erakundeek likidezia-koefizienteak altu mantenduz gero, beren errentagarritasuna murriztu egin daiteke.

Oro har, 2008. urtean, askoz kapital gutxiago inbertitu zen inbertsio-funtsetan, eta inbertsio gehiago erakarri zituzten, adibidez, ohiko banku-gordailuek. Dena batera aztertuz, honako kapital hau bideratu zen inbertsio-funtsetara:

4.1 grafikoa. Inbertsio-funtsen ondare guztia

Inbertsio-funtsen ondarea (milioi euro)



Iturria: INVERCOtik jasotako datuetatik abiatuta egindako grafikoa (2011)

Inbertsio-elkarteen eta inbertsio-funtsen arteko desberdintasunak

Taula honetan, inbertsio kolektiboko bi erakunde mota horien arteko desberdintasunak ikusiko ditugu:

4.6 taula. Inbertsio-elkarteen eta inbertsio-funtsen arteko desberdintasunak

	Inbertsio-elkartek	Inbertsio-funtsak
Kapitalaren banaketa	Akziotan	Partaidetzatan
Likidezia	Burtsan	Zuzena eta berehalakoa
Erosteke modua	Burtsan	Zuzenean
Akzioaren edo partaidetzaren prezioa	Merkatukoa	Prezio garbi erreala
Ondarearen jabetza	Elkartearena	Partaideena
Kudeaketaren kostua	Aldakorra, eragindako gastuen arabera	Aurretik zehaztutako ehunekoa (kudeaketaren komisioa)
Inbertitzaileentzako onurak	Kontseiluak banatzea erabakitzen dituenak	Jasotako guztiak

Iturria: egileek prestatua

Inbertsio askeko inbertsio kolektiboko erakundeak:

Erakunde horiek ia inolako inbertsio-arauen menpe ez dauden eta soilik adituak diren inbertitzaileentzat merkaturatu daitezkeen inbertsio kolektiboko erakunde arruntak baino ez dira. Beraz, Espainian helbideratutako *hedge funds* ezartzeko tresna egokiak dira.²⁶ Hauek dira haien ezaugarri nagusiak:

- Hasierako 50.000 €-ko ordainketa minimoa eginez soilik harpidetu daitezke.
- Adituak diren inbertitzaileentzat soilik merkaturatu daitezke, kotizaziorako onarpenei buruzko araudian (azaroaren 4an onartua) definitzen den bezala. Inbertitzaile adituen kategoria berri bat da. Kategoria horretan sartzen dira, halaber, inbertitzaile instituzionalak (finantza-erakundeak), elkarte handiak, ETEak (baldin eta kategoria horretan egoteko eskaera egiten badute) eta zenbait inbertitzaile partikular.
- Edozein aktibo edo finantza-tresnatan eta finantza-tresna deribatuetan inberti dezakete, eta, haien azpiko aktiboa edozein izanda ere (baita lehengaiak eta komoditiek ere), soilik likidezia-, dibertsifikazio- eta gardentasun-printzipio orokorretara daude loturik, baina ez finantza-izaera duten inbertsio kolektiboko erakundeetan aplikatzen diren arau orokorretara.
- Haien zor maximoa aurretiaz ezarri behar dute, eta, gehienez, haien ondarea halako bost izan daiteke.
- Gutxienez 25 akziodun izan behar dituzte.
- Badute likidezia, eta likidezia-balioa hiru hilez behin argitaratu dezakete. Harpidetza eta diru-itzultze gauzak egin daitezke.
- Ez dute komisio maximoen menpe jardun beharrik.

²⁶Espainiako halako erakunde gehienek inbertsio-funtsen izaera hartu dute. Hala ere, 2009ko urtarrilean, Nordinvest Espainiar merkatuetan jarduten hasi zen. Lehen inbertsio askeko elkarteak izan zen egunero likidezia lortzen. Ikus <http://www.cotizalia.com>.

Bestalde, halako erakundeek arau zorrotzak dituzte. Interes-eragiketen eta eragiketa lotuen kasuan, arriskuaren kontrola aldiro simulatzeko ariketak egin behar dituzte. Gainera, behartuta daude inbertitzaileei produktuak dituzten arriskuei buruzko informazioa ematera.

4.4.- PENTSIO-PLANAK²⁷

Definizioa

Aseguru-produktu bat da, eta haren helburua da erretiro-unean kapital bat edo errenta batzuk izateko bermea ematea. Beraz, oso epe luzerako eragiketa batez hitz egiten ari gara.

Pentsio-planak aurreikuspeneko borondatezko sistemak dira, eta Gizarte Segurantzaren pentsioen osagarriak dira. Hori dela eta, estatuak ikuskatzen eta kontrolatzen ditu²⁸.

Hiru motatako pentsio-planak daude:

- Bakarkakoak: edozein biztanlek eskuratu dezakeen pentsio-funtsa. Kasu horretan, edozein finantza-erakunde izan daiteke kudeatzailea, eta edozein pertsona fisiko, berriz, parte-hartzaile.
- Elkartuak: edozein elkarte, elkargo, sindikatu edo talde izaten da kudeatzaile, eta bertako kideak dira funtsen parte-hartzaileak.
- Enpleguarekin lotuak: enpresa izaten da kudeatzailea, eta parte-hartzaileak, berriz, enpresa horretako langileak. Kasu horretan, ekarpenak enpresak egiten ditu, baita langileekin batera ere.

Ezaugarriak

Aurrezki-aseguruen antz handia izan arren, haiekin alderatuta baditu ezaugarri ezberdin batzuk:

- a) Ez du errentagarritasun minimo bat bermatzen, hau da, gerta daiteke errentagarritasunik ez izatea edo errentagarritasun negatiboak izatea.²⁹
- b) Aseguru horietan, aseguru-enpresa eta pentsio-funtsen enpresa kudeatzailea bereizten dira. Aseguru-enpresak produktuak diseinatzen eta merkaturatzen ditu. Enpresa kudeatzailea, aldiz, ekarpenei etekina ateratzen saiatzen da.

Pentsio-funts motak

Pentsio-funtsek, inbertsio-funtsek bezala, mota askotako finantza-aktiboetan inbertitzen dute errentagarritasun nahikoa lortzeko eta, modu horretan, aseguratuen etorkizuneko pentsioak bermatzeko. Hala, honako pentsio-funts hauek bereizten dira, zer merkaturatzen duten kontuan hartuta:

- a) Errenta finkoa: soilik errenta finkoan inbertitzen dute.
- b) Errenta finko mistoa I: gehienez ere ondarearen % 15 inbertitzen dute errenta aldakorrean, eta gainerakoa, berriz, errenta finkoan.

²⁷ Araudia:

- 1/2002 Errege Dekretu Legea, azaroaren 29koa, Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Testu Berritua onartzen duena.
- 304/2004 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, Pentsio Planen eta Funtsen Araudia onartzen duena.
- 35/2006 Legea, azaroaren 28koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa.

²⁸ Zenbait faktorek pentsio-planak kontratatzeko interesa bultzatu du: erretiro-adinean dagoen biztanleria etengabe haztea, bizi-itxaropena gero eta handiagoa izatea eta jaiotze-tasa jaistea, gizarteak ziurgabetasuna sentitzea ekarri dutenak. Izan ere, pentsio-sistema publikoek beren konpromiso publikoak betetzeko duten gaitasunari buruzko zalantzak zabaldu dira.

²⁹ Pentsio-plan bermatuak ere badaude.

- c) Errenta finko mistoa II: % 15 eta % 30 artean inbertitzen dute errenta aldakorrean, eta gainerakoa, berriz, errenta finkoan.
- d) Errenta aldakor mistoa: % 30 eta % 75 artean inbertitzen dute errenta aldakorrean, eta gainerakoa, berriz, errenta finkoan.
- e) Errenta aldakorra: gutxienez % 75 inbertitzen dute errenta aldakorrean, eta gainerakoa, berriz, errenta finkoan.

Hala, aseguruak bere arrisku eta errentagarritasun-mailarako egokiena den pentsio-funtsa bilatzen du.

Funtzionamendua polizak irauten duen bitartean

- Ekarpunen aldizkakotasunari dagokionez, gure beharren arabera egokitzen da, hau da, hilean behin, hiru hilean behin, sei hilean behin, edo urtean behin egin daitezke ekarpenak. Hileroko aldizkakotasuna aukeratzen badugu, 30,05 eurokoa izaten da gutxieneko ekarpena enpresa gehienetan.
 - Oso epe luzerako eragiketak direnez, ohikoa izaten da kontratazio-epean ekarpenen urteroko hazkunde-tasa zehaztea, inflazioak eraginik izan ez dezan. Horrelako sistemaren bat ezarriz gero, progresio aritmetikoko sistema bat ezartzea gomendatzen da.
 - Likideziarik gabeko produktu bat da, hots, erretiratu arte ezin dugu inbertitutako edo metatutako dirua erabili.
 - Hala ere, beharrik izanez gero, diruaren zati bat erabil daiteke erretiratu aurretik.
- a) Metatu dugun kapitala pentsio-funts batetik beste batera pasa daiteke. Hala, gure kapitala funtsik egokienera eramán dezakegu edozein unetan.
 - b) Aurrezki-aseguruetan bezala, nahi dugunean utz diezaiokegu ekarpenak egiteari; ondorioz, ordura arte metatutako kapitalak errentagarritasunak lortzen jarraituko du gure erretiroa arte.
 - c) Pentsio-plan batzuek langabezia-babesa eskaintzen dute. Hala, langabezian gaudenean, hileroko errenta bat eskuratu dezakegu funts horretatik. Hala ere, etorkizunean, erabilitako guztia itzuli beharko dugu.
 - d) Metatutako kapital horretatik mailegu bat lor dezakegu, merkatukoak baino baldintza hobeean.
 - e) Titularra hiltzen bada, haren oinordekoentzat edo berak adierazitako onuradunarentzat izango da kapitalaren zenbatekoa.
 - f) 65 urte bete ondoren ekarpenak egiten badira, titularraren oinordekoentzat izango da kapitalaren zenbatekoa.

Funtzionamendua polizaren muga-egunean

Aurrezkien aseguruetan bezala, pentsio-funtsek zenbait aukera eskaintzen dituzte polizaren muga-egunean. Honako hauek dira aipagarrienak:

- a) Kapital osoa eskuratzea.
- b) Kapitalaren zati bat eta errenta bat eskuratzea.
- c) Epe baterako edo bizitza osorako izango den errenta bat eskuratzea.

Pentsio-funtsei esker lortzen diren errentagarritasunei dagokienez, laburpen bat ikusiko dugu taula honetan:

4.7 taula. Pentsio-planen errentagarritasunen batezbestekoak (2011/03/30)

	21 URTE	20 URTE	15 URTE	10 URTE	5 URTE	3 URTE	1 URTE
SISTEMA INDIB.- E. FINKO LABURRA	4,88	4,60	2,82	1,56	1,42	1,16	-0,15
SISTEMA INDIB.- E. FINKO ALDAKOR.							
SISTEMA INDIB.- E. FINKO MISTOA	5,14	4,81	3,58	1,74	1,55	1,62	-1,19
SISTEMA INDIB.- E. ALDAKOR. MISTOA							
SISTEMA INDIB.- E. ALDAKORRA							
BERMETUAK	5,15	4,83	3,08	1,08	0,11	0,02	-1,08
ENPLEGU-SISTEMA	6,48	6,13	4,47	2,45	1,31	1,63	1,56
GUZTIRA PLANAK	5,16	5,17	3,76	1,67	0,70	0,72	0,06

Iturria: INVERCO (2011)

Gastu eta komisioak

Pentsio-plan batek dauzkan gastu eta komisioek ez dakarte gastu gehigarririk onuradunarentzat. Pentsio-planak arautzen dituzten erregelamenduek muga bat ezartzen dute erakunde kudeatzaileek eta gordailuzainek komisioak ezartzeko orduan. Komisio horiek ordaintzeak ez du eragin handirik Parte-hartzaileengan, funtsean duten gordailu osoaren gain kargatzen baitira. Erakunde kudeatzaileek gordailu osoaren % 0,5 kobra dezakete gehienez. Erakunde kudeatzaileek kobratzen dituzten komisioak funtzionamendu-arauetan zehaztuta daude, eta ezin dira izan berek kudeatzen duten ondarearen % 2 baino altuagoak.

BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENERAKO ERAKUNDEAK

Euskadiko eremuan borondatezko gizarte-aurreikuspeneko ekintzak gauzatzen dituzten erakundeak dira. Haien helburua da beren bazkideak babestea.

Izaera juridikoa dutenez, ez dute beste erakundeen laguntzarik behar.

Bazkideak pertsona fisikoak edo juridikoak izan daitezke; aldi berean, honako bazkide mota hauek bereizi behar dira: bazkide sustatzaileak, erakundearen sorrera eta jarraipena bultzatzen dutenak; bazkide arruntak, erakundearen parte hartu nahi duten pertsona fisikoak; onuradunak, zerbitzua jasotzeko eskubidea duten pertsona fisikoak; eta behin-behineko onuradunak, ezohiko lan-arrazoien ondorioz pentsio ofizialik jaso gabe aurretiko erretiroa jasotzera igaro diren bazkideak.

Erakunde horien bidez, abantaila fiskalak dituzten aurrezki-produktuak kontratatzen dituzte bazkideek; gainera, erretiroa hartzean, Gizarte Segurantzaren erretiro-pentsioaren osagarri bat lortzeko eskubidea lortzen dute.

Kontingentzia bat gertatu aurretik, erakundetik atera gaitzke, baldin eta gutxienez 10 urtez egon bagara. Gainera, erakundeak ezkutatutako kontingentziaren bat gertatzen bada, kapital moduan, errenta moduan edo bien arteko konbinazio baten bidez lor dezakegu aurrezkiak:

- Erretiroa edo antzeko egoera bat, hau da, 52 urtetik gorako bazkide bat langabezia dagoenean.
- Erabateko elbarritasuna eta elbarritasun partziala.

- Heriotza.

Salbuespen gisa, kasu hauetan eskuratu daiteke kapital osoa:

- Bazkideak, haren ezkontideak, haren aurrekoek, lehen mailako ondorengoek edo haren menpe dagoen pertsonaren batek gaixotasun larriren bat duenean.
- Epe luzerako langabezia: bazkidea 12 hilabetetik gora langabezian dagoenean eta inongo pentsiorik jasotzen ez duenean.

4.5.- INBERTSIO-ZERBITZUEN MIFID ARAUDIA

Finantza Tresnen Merkatuen Zuzendaritzak (ezagunagoak dira ingelesezko siglak: MIFID, Markets in Financial Instruments Directive), alde batetik, merkatu bakar bat ezartzen du, eta, bestetik, finantza-zerbitzuetarako erregimen arautzaile komun bat Europar Batasuneko 27 estatu kideetan eta Europako eremu ekonomikoko beste hiru herrialdetan (Islandia, Norvegia eta Liechtenstein).

Zuzendaritzaren bidez, honako helburu hauek lortu nahi dituzte:

- a) EBn finantza-zerbitzuen merkatu bakarra osatzea.
- b) Merkatuen segurtasunarekin erlazionaturiko aldaketa eta berrikuntzei erantzutea.
- c) Inbertitzaileak babestea. Zuzendaritza horrek beste bat ordezkaturiko du; hain zuzen ere, Zerbitzu eta Inbertsioen Zuzendaritza (93/22/EEC zuzendaritza; ingelesez, ISD, Investment Services Directive).

MIFID finantza-zerbitzuen 1999ko ekintza-planaren euskarrietako bat da (FSAP edo Financial Services Action Plan). MIFIDen 42 neurriak aldaketa nabarmenak eragiten ari dira EBko finantza-merkatuen erregulazioan. Halaber, Lamfalussy izeneko prozedurak barneratzen dituen tresna legegile nagusietako bat da MIFID, eta Europako merkatuen integrazioa bizkortzeko diseinatuta dago.

Finantza-merkatuen zuzendaritza berria (MIFID) 2007ko azaroan sartu zen indarrean. Hala, inbertitzaileen eskaerak betetzen ditu berrikuntzaren, segurtasunaren eta babesaren arloan.

1. Zer da MIFID?

Europako finantza-merkatuen legegintzan inoiz izan den aldaketarik handiena ekarri du finantza-merkatuen zuzendaritzak. MIFIDek merkatu bakarra eta Europar Batasun osoko inbertsio-zerbitzuetarako erregimen arautzailea biltzen ditu, eta, horretaz gainera, merkatuek eskatzen dituzten aldaketa eta berrikuntzak betetzen ditu inbertitzaileen segurtasunari eta babesari dagokienez.

Erregulazioa ikuspuntu liberalizatzaile batetik osatu da, eta askotariko negoziazio-sistemen arteko lehia bultzatzen du. Horrek balioen kontratazio multzoan eraginkortasun-maila handiagoa lortzea ahalbidetu behar luke.

Helmen handiko baliabideei eta baliabide antolatzaile, pertsonal eta teknologikoei dagokienez, oso aldaketa erregulatzailerik zorrotzetarako egokitzapen sakon baten aurrean gaude. Lehenik eta behin, finantza-informazioaren nazioarteko arauen kontabilitate-eremu berri bat onartu zuten. Ondoren, Basilea II akordioak bultzatutako kaudimen-araudiaren erreforma garrantzitsua prestatzen hasi ziren. Gaur egun, ia aldi berean, MIFIDen eskakizunak praktikara ekarri dituzte.

Zuzendaritza, azken finean, komunitate-eremu bateko erreforma arautzaile handi zenbaiten azken proiektua da. Finantza-sektorean azken bost urteetan oihartzun handiena izan duen legeetako bat izatea aurreikusten da.

Gehiengoen zuzendaritza bati buruz ari gara. Hala, zuzendaritzak inbertitzaileak babesteko ezarritako arauak gainera, ez da posible izango estatu kideek arau gehigarriak mantentzea. Erreforma hain da sakona, non balio-merkatuaren lege berri bat prestatzea bultzatu duen.

MIFID transposizioaren berritasun-maila eskasa da. Zuzendaritza berriak ezarritako helburuek BMBNren strategiaren garapeneko printzipioak indartu baino ez ditu egiten.

Zuzendaritza horren hasierako planteamenduen aurka egitea zaila da: inbertitzaileak babestea, gardentasuna, exekuzio hobearen printzipioa, merkatuetan monopolioak deuseztatzea, Europako merkatu bat sortzea... Erakundeen antolaketa-aldaketak ez ezik, aldaketa kultural bat ere eragin du, eta bezeroei arreta handiagoa eskaintzen die.

2. Nori eragiten dio araudi berriak?

Oro har, beste hirugarren batzuen konturako aginduak, norberaren konturako negoziazioak, kudeaketa-zorroa eta inbertsio-arloko aholkularitza hartzeak badu eragina transmisioaz eta exekuzioaz arduratzen diren erakundeetan: kreditu-erakundeak, balio-elkarte eta -agentziak, inbertsio kolektiboko erakundeen kudeatzaileak, inbertsio-bankuak, merkatuko datuekin lan egiten duten enpresak, merkataritza-plataformak, burtsak, eta abar.

3. Zer abantaila ekarriko ditu epe ertainera?

Abantaila nagusien artean, zera dago: inbertitzaileen interesen babesa areagotzea, bai bezeroekiko jokabide-arauak hobetzen direlako, baita antolaketaren baldintzak indartzen direlako ere. Gainera, inbertitzaileek finantza-merkatuetan duten konfiantza areagotzen da: gardentasun gehiago, informazio homogeenagoa eta sinplifikazio gehiago. Arriskuaren kudeaketa eraginkorra ere bultzatzen dute, eta hori onuragarria da inbertitzailearentzat zein aholkulariarentzat. Halaber, merkatuaren batasuna (alegia, EBko estatuetak inbertsio-enpresa gehiagok libreki jokatzeko zenbait herrialdeetan), inbertitzailearen babesa, lehia areagotzea eta dibertsifikaziorako aukera gehiago izatea ere sustatzen dute. Burtsen monopolioa desagertu egingo da; Espainia, Frantzia, Italia eta halako herrialdeetan, izugarritzko iraultza ekarriko du eragiketarako plataforma alternatiboetan aurrera eraman ahal izateak (orain arte debekatuta baitzegoen). Bestalde, prestakuntza areagotu egingo da honako alderdi hauetan: merkatuen eragiketarako, bezeroen arreta, finantza-produktuei buruzko informazioa eskuratzeko irizpideak, jarrera-arauak...

4. Finantza-aholkularitza

Hau da MIFIDen alderdi berritzaileenetako bat: inbertsio-zerbitzuen zerrendan “finantza-aholkularitza pertsonalizatua” kontuan hartzea.

Zer da finantza-aholkularitza pertsonalizatua?

Bezeroari gomendio pertsonalizatuen zerbitzua ematea, hark hala eskatuta edota inbertsio-enpresaren inizatibaz, finantza-erakundeei buruzko eragiketa bati edo gehiagori dagokienez.

Zer aldaketa dakar?

Orain inbertsio-zerbitzu bat izateak zera dakar: baimen, miaketa eta exekuzioek baldintza eta kontrol handiagoa izatea. Puntu eztabaidatuenetako bat da EBren barnean.

Zer dira gomendio pertsonalizatuak?

Hartzailearen egoera pertsonala kontuan hartzen dutenak (inbertsio-helburuak, finantza-espereientzia eta finantza-ahalmena). Normalean, bezeroak eskatzen ditu.

Zein dira beste gomendio motak?

Inbertitzailearen ezaugarri pertsonalak kontuan hartu gabe ematen diren gomendio ez-pertsonalizatuak. “Finantza-analisisa” ere, zerbitzu osagarritzat hartzen dena, pertsonalizatu gabea da; beraz, exekuzio librea izango du. Honako hau da finantza-analisisen itxura duten gomendio ez-pertsonalizatuekin lotuta dagoen punturik garrantzitsuenetako bat: objektiboki eta inpartzialki aurkeztutako txosten, argitalpen eta beste era bateko gomendio eta txostenak elkarrengandik bereizten dira nahitaez merkataritza-komunikazioen eremuan.

Merkaturatzea vs aholkularitza

Kontsumitzaileen eta inbertitzaileen elkarteei eta finantza-bitartekarien elkarteei aholkua eskatu ondoren, eztabaida interesgarriak sortu dira. Esaterako, produktu bat merkaturatzeko prozesua noraino iristen den eta aholkularitza noiz hasten den planteatzen duena. Gai hori garrantzitsua da beren produktu propioak ematen dituzten erakundeentzat.

Aholkularitza pertsonalizatua eta finantza-produktuak merkaturatzea ez daude jokabide-arau eta -irizpide beren menpe, eta saltzaile baten helburuak, baldintzak, betebeharrak eta ardurak ez dira nahasi behar inbertsio-aholkulari batenekin, bezeroarekiko duten leialtasunaren betebeharren helmena ez baita berdina. Iragarkiek argi eta garbi adierazi behar dute publizitate-materiala direla. Ez nahasi bezero potentzialak, ez iruzurrik egin. Mezuak libreak diren arren, ezin dituzte soilik produktuaren abantailak aipatu. “Bezeroen beharretara egokitzen ez diren kanpaina-produktuen salmenta amaitzea” ekarriko du.

Lehen aldiz, merkataritza-komunikazioen eta publizitatearen edukia sakonki arautu da, komunikazioak eta publizitatea inpartzialak, argiak, ez-engainagarriak direla bermatzeko, eta horrek, aldi berean, bezero “potentzial”ari babes-balio bat eransten dio.

5. Bezeroaren ezagutza

Inbertitzaile txikiek gero eta protagonismo handiagoa dutenez balio-merkatuetan eta gero eta produktu sorta zabalagoak eskaintzen zaizkienez, finantza-aholkulariek legez eta halabeharrez gomendatu behar dituzte bezeroen beharren arabera finantza-aktiborik onenak (bezeroak erakundeari produktu zehatz bat eskatzen ez badio behintzat), bezeroen inbertsio-perfilari egokiturik.

Finantza-erakundeen erantzukizuna areagotu egin da, orain arte ez bezala. Edozein bezerok, galerak izanez gero, erakundea salatu dezake, eta horrek erreklamazio kopurua igotzea ekar dezake eta, ondorioz, eragina izan dezake produktu arriskutsuen kontratazioan; adibidez, *hedge fundetan*. Produktuak merkaturatzeaz ari bagara soilik, “test partziala” aplikatu daiteke; test mota horrek bezeroen esperientzia-maila eta ezagutza hartu behar ditu kontuan, eta, zenbait kasutan, arriskuei buruz ohartarazi behar du, produktuaren salmentak aholkularitza barne hartzen ez badu ere. Horixe da, hain zuzen, MIFIDek lortu duen eragin nagusietako bat, eta, inbertitzailearen babesari eragiten dionez, BMBNk merkaturatutako finantza-balioak eta -tresnak ikuskatzeko plan bat jarri du abian, xehekarien zerbitzura.

6. Bezeroen segmentazioa

2007ko azaroaren 1etik aurrera, finantza-enpresen eta beren bazkideen arteko harremana guztiz aldatu zen: horrek ahalegin handi bat egin behar izatea ekarri zien enpresei, beren bezeroak ezagutzeko eta bezeroak arrisku-perfilaren arabera segmentatzeko. Bestalde, merkataritza-sareari buruz sakoneko prestakuntza bat izatea ere eskatu zien, eskaintzen dituzten produktu eta zerbitzuak bezeroen ezaugarri jakin batzuetara egokitzeko.

Gure legedian lehen aldiz, zenbait babes-maila ezarri dituzte bezeroen kategorien arabera, inbertsio-zerbitzuak ematean zenbait baldintzaren eskakizunak mailakatzea helburu (zenbait bezerok beste batzuek baino maila handiagoko babesa eta informazioa behar dutelako ustekizuna dela eta).

Zerbitzu horiek eman behar dituzten erakundeak gehiegi ez kargatzeko, zerbitzuak modu gradual batean ematen dituzte, zerbitzuak jasotzen dituzten bezero moten arabera. Hala, inbertitzaile-kategoria bakoitzari ahalik eta hobetoen egokitzea bilatzen da.

Nori?

Bezero berriei nahiz lehendik zeudenei.

Betebeharrak?

Inbertsio-enpresek jakinarazi behar dute kategorizazio berri bat finkatu dela, eta bezeroek sailkapen desberdin bat exijitzeko duten eskubideaz eta babesari dagokionez bezeroek izan ditzaketen muga guztiez informatu.

Nola sailkatzen dituzte bezeroak?

Bezeroen inbertsio-esperientziaren, ezagueraren, finantza-ahalmenaren eta erakundeak bezeroen erakunde erregulatu gisa duen estatusaren arabera, bezeroak honela bereizten dituzte: bezero partikularrek babes maximoa dute; bezero profesionalak, babes mugatua, eta aurkako alderdi aukeragarriek, babes nulua.

Bezero profesionalen ezaugarriak honako hauek dira: beren ezagutza, esperientzia eta finantza-ahalmena kontuan hartuz, baldintzak negoziatzeko, eragiketek dituzten arriskuak ulertzeko eta, beharrezkoa izanez gero, aholkularitza eta babes espezifikoak bilatzeko ahalmen handiagoa dute.

Hasiera batean, badago automatikoki bezero profesionaltzat sailkatzen dituzten bezero multzo bat: finantza-erakunde erregulatuak; inbertitzaile instituzionalak, nagusiki finantza-tresnetan inbertitzen dutenak; gobernu-erakundeak eta nazioarteko erakundeak; eta baldintza jakin batzuk betetzen dituzten enpresa handiak. Hala ere, “bezero profesional” izendapena negoziagarria da, eta izendapen horri uko egin dakioke. Era berean, borondatez ere esleai daiteke hala eskatuz gero eta aurrez ezarritako baldintza batzuk betez gero, gehiegikeriak ekidite aldera.

7. Interesen gatazka?

“Bezeroen interesen alde, zintzotasunez, inpartzialtasunez eta profesionaltasunez” jokatzeko bilatzen du MIFIDek. Zuzendaritzak ohartarazten du zer ondorio duten pizgarriek zerbitzuak prestatzen dituzten enplegatuen gain eta zer eragin duten beren jokabidean.

Edozein inbertsio-produktu kontratatu aurretik, aholkulariaren komisio guztiak ezagutu behar ditu bezeroak. Interesdun pertsonak gomendioak jasotzen baditu, honako hau jakin behar du: aholkulariak ordainsari bat ala komisio finko bat jasoko ote duen gomendatu dituen funtsetatik, emandako aholkularitza-zerbitzuaren truke. Aurreikusitako aldaketa horiek guztiek eragina izan dezakete, batetik, erakundeek beren produktu propioak ezarri ohi dituzten merkatuan eta, bestetik, produktu horiek salduz sare komertzialek soldata-pizgarriak lortzen dituzten merkatuan. Izan ere, batzuek nahiago dute aholkulariek zerbitzuen komisioak jasotzea eskusiboki.

8. Bezeroei eman beharreko informazioa

Reporting-a da bezeroek gehien balioesten duten zerbitzuetako bat. Araudi berriak hobetu egin du erakundeek inbertitzaile txikizkariari eman beharreko informazioaren kalitatea, bai kontratuaren aurretik, bai kontratuan bertan, bai eta kontratuaren ondoren ere. Alderdi nabarmengarri eta berritzaile gisa, erakundeek nahitaez ohartarazi behar dute produktu nahiz zerbitzuen arrisku erlatibo zehatzei buruz. Zuzendaritzak, bestalde, bezero txikientzako informazioak bete beharreko baldintzak zehazten ditu. Esaterako, ez irabazirik eskaintzea arriskuak kontuan hartu gabe, bezero normal batentzat

ulergarria izatea, ohartarazpenak ez minimizatzea, gaizki justifikatutako konparaziorik ez eskaintzea, emaitza historikoak ez gehiegi nabarmentzea, dibisak eta haien arriskuak zehaztea, funtsgabeko etekinik ez simulatzea, fiskalitatea neurri batean bezero bakoitzaren arabera dela argitzea... Babesa “bezero potentzial”enganaino zabaltzen da, zerbitzua eman aurretik bezeroei ematen zaien informazioa erregulatzeko asmoz.

9. Zorraren reporting-a bezeroei

Azarotik aurrera, inbertsio-enpresei honako hau eskatzen diete: gutxienez urtean behin txosten bat bidaltzea bezero bakoitzari, bezeroen kontura inbertsio-enpresak dituen finantza-tresna guztiei edo funtsei buruzko datuen berri emateko.

Eskakizun horren azken helburua da inbertitzaileek beren inbertsio-erabaki propioak har ditzatela bermatzea eta beren eragiketen eta zorroaren egoeraren berri izatea, arriskurik ezkutatu gabe eta nahasgarri izan gabe.

PROPOSATUTAKO ARIKETAK

1.- 2006ko abenduaren 1ean, Vueling enpresak burtsara atera zuen bere kapitalaren % 42, salmenta osoaren bermearekin. Erakunde koordinatzaileak honako hauek izan ziren: Goldman Sachs, JPMorgan eta Morgan Stanley. Azaldu ezazu zer eragiketa mota den eta zer funtzio hartzen dituzten erakunde koordinatzaileek beren gain.

2.- Azaldu itzazu inbertsio-funtsaren eta kapital aldakorreko inbertsio-elkartearen arteko ezberdintasunak.

3.- Bi finantza-erakundek honako ezaugarri hauek dituen FRA bat kontratatu dute:

- Erreferentziazko interes-tasa: Euriborra.

- FRA-kontratuaren likidazioaren interes-tasa: % 3.

- 18.000 euroko zenbateko teoriko baten gain, hasierako data hiru hilabeteetan, eta ondorengo sei hilabeteetan egongo da indarrean.

Kalkula ezazu FRAREN likidazioa honako bi kasu hauetan:

- Hiru hilabeteetan, Euriborra % 2,5ekoa da.
- Hiru hilabeteetan, Euriborra % 4koa da.

4.- Finantza-erakunde batek Euriborra + % 0,5en arabera zor bat jaulki du. Era berean, lortutako funts horiekin, % 4ko interes-tasako maileguak eman ditu. Finantza-erakundea swap-kontratu batean sartzen bada:

- Interes-tasa finkoko ordaintzaile moduan ala kobratzaile moduan sartu behar luke?
- Eman ezazu swap-kontratu baten adibidea, erakundeak bere helburuak bete behar dituela kontuan hartuta.

5.- Finantza-erakunde batek hilabete baterako gordailu egituratu bat (zati bat finkoa eta beste zati bat S&P indizearen bilakaeraren arabera) sortu nahi du, gaur egun, honako datu hauek kontuan hartuz:

Hasierako kapitala	1.000.000
Kudeaketa-gastuak	0,001
Arriskurik gabeko interesa	0,025
S&P Telekomunikazioak	1.164,85
Hilabeterako zero-kupoi bonuen interesa	0,0029
S&P indizearen gaineko call-aukeraren saria	61
S&P indizearen gaineko put-aukeraren saria	63

Call- eta put-aukeren kopuru bera erosiko duela eta beren eragiketa-prezioa gaurkoa dela kontuan hartuz, adieraz ezazu zer pauso eman behar den gordailu hori sortzeko eta zer errentagarritasun eskainiko lukeen hilabetearen bukaeran (demagun hilabete batean % 10 gehitu dela S&P indizearen balioa).

ESTEKA INTERESGARRIAK

- LACAIXA YOU TUBE-N: FINANTZA-PRESTAKUNTZA (FORMACIÓN FINANCIERA) (gordailu, mailegu, aseguru eta txartelen bideoak): http://www.youtube.com/view_play_list?p=D4B512E9E6CDCCFA
- INBERTSIO KOLEKTIBOKO ERAKUNDEEN ELKARTEA (ASOCIACIÓN DE INSTITUCIONES DE INVERSIÓN COLECTIVA, INVERCO): <http://www.inverco.es>
- BALIO-MERKATUAREN BATZORDE NAZIONALA)COMISIÓN NACIONAL DEL MERCADO DE VALORES): <http://www.cnmv.es>
- BANKU- ETA FINANTZA-AHOLKULARIAK (ASESORES BANCARIOS Y FINANCIEROS): <http://www.abanfin.com> (Finantza-zuzendaritza, banku-produktuak, finantza-deribatuak)
- BORONDATEZKO GIZARTE-AURREISKUSPENERAKO ERAKUNDEAK: www.epsv.org
- INDUSTRIAKO, MERKATARITZAKO ETA TURISMOKO MINISTERIOA: ENPRESA ERTAIN ETA TXIKIEN POLITIKARAKO ZUZENDARITZA OROKORRA, FINANTZA-TRESNAK (MINISTERIO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO: DIRECCIÓN GENERAL DE POLÍTICA DE LA MEDIANA Y PEQUEÑA EMPRESA, INSTRUMENTOS FINANCIEROS): <http://www.ipyme.org/IPYME/es-ES/EmprendedoresCreacionEmpresas/Financiacion/Instrumentos>
- ESPAINIAKO FINANTZA- ETORKIZUNEN ETA -AUKEREN MERKATUA (MERCADO ESPAÑOL DE FUTUROS Y OPCIONES FINANCIEROS): <http://www.meff.es>

III. ATALA: BANKU-NEGOZIOAREN ERRENTAGARRITASUNA ETA ARRISKUA

5. GAIA: KUTXEN ETA BANKUEN FINANTZA-EGOERAREN ANALISIA

Sarrera

Finantza-erakundeen balantzearen eta emaitzen kontuaren analisiak erakunde horien kudeaketaren alderdirik garrantzitsuenak azaltzen ditu. Bankuen, aurrezki-kutxen eta kreditu-kooperatiben finantza-egoerak aztertuko ditugu; finantza-sistemako talde zentrala, gure kasuan.

Hala, honako elementu hauek aztertu eta ikusiko ditugu:

- aktiboko politikak
- erabiltzen dituzten finantzazio-iturriak
- merkatu-kuotak
- kaudimen-maila
- eraginkortasun- eta errentagarritasun-mailak
- tarteen bilakaera
- ustiapen-gastuen bilakaera

... eta abar.

Azkeneko puntuan aztertuko ditugun ratioekin osatuko dugu hori guztia.

Beraz, ezinbesteko elementuak izango dira erakunde baten gaur egungo egoeraren bilakaera aztertzeko etorkizuneko plan estrategiko bati dagokionez eta baita lehiakideekin konparatzeko ere.

Abenduaren 22ko 4/2004 EBZk arautzen du kreditu-erakundeen finantza-kontuen eta finantza-egoeren aurkezpena. 2005eko abenduan hasi ziren zirkular hori aplikatzen.

EBZ horrek Espainiako kreditu-erakundeen kontabilitate-erregimena aldatzea du helburu, eta Europar Batasunak Finantza Informazioaren Nazioarteko Arauak (FINA) hartu izanaren ondorioz sortu zen, kontabilitate-egoera berrira egokitze aldera.

Espainiako Bankuak merkatu bakarraren aldeko garapen gisa ikusten du Europar Batasunak FINA arauak hartzeko prozesua. Hain zuzen ere, finantza-informazioa alderagarri bihurtuz, finantza-merkatua indartu egingo da, eta baita merkatu horren eraginkortasuna ere.

Zirkularrak bideratzen dituen aldaketen artean (zuzenean FINAetatik eratorriak), kontabilitate-politika bat ezartzeko kudeaketaren protagonismoa (kudeatzaileen erantzukizun handiagoa, malgutasun handiago baten truke) eta informazioaren gardentasunaren garrantzia nabarmendu daitezke.

Kreditu-erakunde nazional guztiek, Espainian jarduten duten kreditu-erakundeen sukurtsalek, kreditu-erakundeen taldeek eta kreditu-erakundeen talde bateratuek aplikatu behar dute zirkularra.

Kreditu-erakundeek Espainiako Bankura igortzen dituzte balantzeak, galdu-irabazien kontuak, memoria, ondare garbiko aldaketen egoera eta esku-diruko fluxuen egoera, Espainiako Bankuak argitaratutako ereduaren arabera (4/2004 EBZ, lehen eranskina).

KOIk, bankuek, aurrezki-kutxek (EAKK barne) eta atzerriko kreditu-erakundeen sukurtsalek balantze bat aurkeztu behar dute hilero, eta galdu-irabazien orria, ondare aldaketen fluxuen taula eta diruzaintza-fluxuen taula, urtero. Kooperatibek, aldiz, agiri guztiak hiru hiletik behin aurkeztu behar

dituzte, diruzaintza-fluxuen taula izan ezik, urtero aurkeztu behar baitute. Kredituko finantza-erakundeek urtero aurkeztu behar dituzte dokumentu guztiak.

Urteroko kontuek eta bestelako finantza-informazioek informazio argia, garrantzitsua, fidagarria eta konparagarria eman behar dute.

Urteroko kontuen elementuak:

Urteroko kontuen elementuei dagokienez, aktiboak, pasiboak eta ondare garbia zuzenean erlazionatuta daude balantzearekin; sarrerak eta gastuak, berriz, galdu-irabazien kontuarekin eta ondare garbiaren aldaketa-egoerarekin daude zuzenean erlazionatuta.

Aktiboak dira erakundeek ekonomikoki kontrolatzen dituzten ondasunak, eskubideak eta bestelako baliabideak; litekeena da erakundeek aktibo horietatik mozkin ekonomikoak lortzea etorkizunean.³⁰

Pasiboak, berriz, erakundeen gaur egungo betebeharrak dira, eta ondare garbia honela kalkulatzen da, EBZ betetze aldera: erakunde baten aktiboen hondar-zatia izango da, bere pasibo guztiak kendu ondoren. Ondare garbiak honako elementu hauek biltzen ditu: bazkide edo jabeek erakundeei egindako ekarpenak, metatutako emaitzak, eragina izan dezaketen balioespen-egokitzeak, eta, halakorik baldin bada, gutxiengoa dutenen interesak.

Sarrerak, berriz, finantza-egoeren ekitaldi bati dagozkion mozkin ekonomikoak gehitzean sortzen dira, aktiboen balioa gehituz edo pasiboak murriztuz, eta bazkideen edo ondarearen jabeen ekarpenen bidezko ondareaz bestelakoa den ondare garbia gehitzea dakar.

Gastuak, azkenik, finantza-egoeren ekitaldi bati dagozkion mozkin ekonomikoak murriztean sortzen dira, aktiboen balioa murriztuz edo pasiboak gehituz, eta bazkideen edo ondarearen jabeen ekarpenen bidezko ondareaz bestelakoa den ondare garbia murriztea dakar.

Balioztatzearekin erlazionatutako beste gai batzuk: arrazoizko balioa

Arrazoizko balioa zera da: zentzuz eta oinarri gisa saltzaile batek lortuko lukeen eta eroslearentzako onuragarrien den prezioa. Beraz, kanpoan geratzen dira egoera berezien ondorioz ematen diren balioztatze goratuak eta gutxituak. Egoera bereziak dira, beste batzuen artean, erakundearen likidazioa, finantzazio-baldintza bereziak eta abar.

Finantza-tresnei dagokienez, honako hau da arrazoizko balioa:

- Merkatuak eskaintza- eta eskari-prezioak argitaratzen dituzenean, erosketa-prezioa da eskuratutako aktiboen edo jaulkitzeko dauden pasiboen merkatu-prezioa, eta salmenta-prezioa, aldiz, erosteko dauden aktiboena edo jaulkitako pasiboena.
- Merkatu gabeko finantza-tresnen kasuan edo negozio gutxiko merkatuen kasuan, arrazoizko balioztat har daiteke berriki gertatutako azkeneko salerosketaren balioaren antzekoa dena.

5.1.- Finantza-erakundeen balantzea

Banku-erakundeen talde bakoitzaren **merkatu-kuota** xehetasun handiagoz ezagutzeko eta produktibitate-ratioak ulertzeko, beharrezkoa da kreditu-erakundeen balantzeko kontu-sail nagusiak aztertzea.

³⁰ "Pro memoria" gisa agertzen diren aktiboak zenbateko balioztatuak dira, Europar Batasunak ezarritako irizpideen arabera.

1.- AKTIBOA

Erakundeen aktiboan, erakundeek lortzen dituzten funtsen inbertsio-eragiketak azaltzen dira. Oro har, bezeroei eta beste banku batzuei emandako kredituek osatzen dute aktiboa.

Balantzearen aktiboan, lehenik eta behin, finantza-aktiboak jasotzen dira, zenbait kategoriatan multzokatuta (negoiazio-zorroa; beste finantza-aktibo batzuk, arrazoizko balioan aldaketak dituztenak galera eta irabaziei dagokienez; salgai dauden finantza-aktiboak, kreditu-inbertsioak eta epemugarako inbertsio-zorroa), eta era honetan bereizita: saltzeko aktibo ez-arruntak, kutxak eta banku zentralak, estaldura-deribatuak, finantza-aktiboen egokitzeak (makroestalduren ondoriozkoak) eta partaidetzak.

Finantza-aktiboen sailkapena honako elementu hauek osatzen dute:

1.- FINANTZA-AKTIBOAK:

a) Finantza-aktiboak, arrazoizko balioan aldaketak dituztenak galera eta irabaziei dagokienez:

Bi taldetan banatuta daude:

- Negoiazio-zorroa: kategoria horretan sartzen dira epe laburrerako sortzen edo erosten diren finantza-aktiboak, berriki epe laburrean mozkinak lortzeko mugimenduak izan dituen zorroaren zati bat osatzen duten finantza-aktiboak, eta kontabilitate-estalduratzat hartzen ez diren tresna deribatuak.³¹

- Beste finantza-aktibo batzuk, arrazoizko balioan aldaketak dituztenak galera eta irabaziei dagokienez: finantza-aktibo hibridoak eta aurreko atalean sartzen ez direnak.

b) Epemugarako inbertsio-zorroa: kategoria horretan, balio negoziagarrietan adierazitako epemuga finkoko zordunketak sar daitezke, eta baita erakundeak epemuga jakin batera arte mantendu asmo dituen eta zenbateko zehatza edo zehazgarria duten kutxa-fluxuak ere.

c) Kreditu-inbertsioak: kategoria horretan sartzen dira, batetik, zenbateko zehatzeko edo zehazgarriko kutxa-fluxuak dituzten finantza-aktiboak eta, bestetik, kutxa-fluxu horien bitartez erakundeek egindako ordainketak berreskuratzen dituzten finantza-aktiboak. Ohiko kreditu-jarduerak, beste erakunde batzuei emandako maileguak eta kotizatzen ez duten balio negoziagarrietan adierazitako zordunketak ere biltzen ditu.

d) Salgai dauden finantza-aktiboak: epemugan inbertsio moduan edo arrazoizko balioan galera edo irabazietan aldaketak izan dituzten finantza-aktiboak dira. Kalifikatuta ez dauden balio negoziagarrietan adierazitako zordunketak ere sartzen dira, eta baita mendekoak ez diren erakundeen kapital-tresnak ere.

Finantza-aktiboak, era berean, honako kontu-sail hauetan banakatzen dira:

a) Kutxak eta banku zentralak: erakundeen jabetzapean dauden txanpon eta billeteak sartzen dira, eta baita Espainiako Bankuarekiko eta gainerako banku zentralekiko saldo zordunak ere.

b) Gordailuak edo kredituak: erakundeek ematen dituzten kreditu eta mailegu guztien saldo zordunak jasotzen dituzte, salbu balio negoziagarritzat hartzen direnak eta kontrakontu zentralen bitartez diru-merkatuan egiten diren eragiketak.³² Kredituak, zorduna zer sektoretakoa den, kreditu-erakundeetako gordailuetan eta bezeroentzako kredituetan zehazten dira.

³¹ EBZn, honako baldintza hauek betetzea soilik hartzen da kontabilitate-estalduratzat: hasierako agirian izendatzen da estaldura-erlazioa, eta, une berean, erlazio horren helburua eta estrategia zehaztu behar da; bestalde, estaldurak erabat efikaza izan behar du aurreikusitako epean zehar.

³² Kontrakontu zentralako erakunde bat kontratu baten bi aldean artean jartzen da, alde bakoitzaren betebeharrak eta eskubideak bere gain hartzen ditu, eta haietako bakoitzaren kontrakontu bihurtzen da.

- c) Diru-merkatuko eragiketak, kontrakontu-erakundeen bitartez eginak: kontrakontu zentraleko erakundeen bitartez diru-merkatuan egindako eragiketen zenbatekoa jasotzen dute.
- d) Zorra ordezkatzan duten balioak: jaulkitzaileentzat zorra dakarten obligazioak eta beste balio batzuk biltzen dituzte, interesak sortzen dituztenak; kontratu bidez ezartzen da interesen tasa, titulu edo kontu-izendapen bidez antolatuta daude, eta edonork jaulki ditzake.
- e) Negoziazio-deribatuak: kontabilitate-estalduretan sartzen ez diren deribatuen arrazoizko balioa biltzen dute, erakundearen alde betiere.
- f) Estaldura-deribatuak: kontabilitate-estalduretan sartzen diren deribatuen arrazoizko balioa biltzen dute, erakundearen alde betiere.
- g) Taldeko erakundeetako partaidetzak.
- h) “Talde anitzeko” erakundeetako partaidetzak.³³
- i) Elkartekideen erakundeetako partaidetzak.
- j) Beste kapital-tresna batzuk: beste erakunde batzuek jaulkitako finantza-tresnak jasotzen dituzte, hala nola h), g), eta i) kontu-sailetan sartzen ez diren akzio- eta partaidetza-kuotak, eta baita inbertsio-funtsetako partaidetzak ere.
- k) Beste finantza-aktibo batzuk: erakundeen aldeko saldoak biltzen dituzte, era honetako eragiketen bitartez: txeke bidezko eragiketak, likidazio-erakunde eta -ganbaren aldetik kobratzeke dauden saldoak, dirutan emandako bermeak, eskatutako dibidendu pasiboak, kobratzeke dauden finantza-bermeen ondoriozko komisioak, eta banku-eragiketak ez diren kobrantza-eragiketen saldo zordunak, hala nola alokairuak eta antzeko kontzeptuak.
- l) Finantza-aktiboen egokitzeak (makroestalduren ondoriozkoak): finantza-aktibo jakin batzuen (interes-tasaren arrisku-estalduretan sartzen direnen) zenbateko estaliaren arrazoizko balioan izandako aldakuntzen saldo garbia jasotzen dute. Aldaketak interes-tasaren arriskuari bakarrik egozten zaizkio.

2.- GAINERAKO AKTIBOAK:

Hona hemen gainerako aktiboen sailkapena, aktiboen izaeraren arabera:

- a) Pentsioei atxikitako aseguru-kontratuak: aseguru-polizen arrazoizko balioa jasotzen dute, pentsioen konpromisoak betetze aldera.
- b) Berraseguruen ondoriozko aktiboak: balantze bateratuan agertzen dira soilik.
- c) Aktibo materiala: higiezinak, lurrik, altzarien, informatika-ekipoen eta beste instalazio batzuen zenbatekoak biltzen ditu. Era honetan sailkatzen dira:
 - Norberak erabiltzen dituenak.
 - Ondasun higiezinetan egindako inbertsioak: lurrik eta errentan emandako eraikinak.
 - Errenta operatibo gisa lagatako beste aktibo batzuk.
 - Gizarte-ekintzari lotuak.

³³ **Talde anitzeko** erakundeak ezin dira hartu talde zehatz baten menpeko erakundetzat, baina taldeko erakunde batek edo batzuek eta taldetik kanpoko beste erakunde batzuek kudeatzen dituzte batera.

- d) Aktibo immateriala: itxura fisikorik ez duten eta diruzkoak ez diren aktiboen zenbatekoa jasotzen du:
- merkataritza-funtsa
 - bestelako aktibo immateriala
- e) Zerga-aktiboak: zerga-aktiboak bi multzotan banatzen dira:
- Arruntak: hurrengo hamabi hilabeteetan zergen bidez berreskuratuko diren zenbatekoak biltzen ditu.
 - Geroratuak: aurreragoko ekitaldietan zergen bidez berreskuratuko diren zenbatekoak biltzen ditu.
- f) Salgai dauden aktibo ez-arruntak: hasiera batean urtebete baino gehiagoko egikaritze-epea duten aktiboen zenbatekoa biltzen dute, aktiboen izaera edozein dela ere, baina ahalik eta denbora laburrenean berreskuratzen dira (urtebete baino lehenago).
- g) Aldizkakotzeak: aktiboen aldizkakotze-kontu guztien saldoa jasotzen dute.
- h) Beste aktibo batzuk: beste kontu-sail batzuetan sartzen ez diren aktiboen zenbatekoa biltzen dute.
- Espainiako Bankuak honako balantze-eredu hau proposatu du:

AKTIBOA

1 Kutxak eta banku zentralen gordailuak

2 Negoziazio-zorroa

2.1 Kreditu-erakundeen gordailuak

2.2 Kontrakontu-erakundeen bitartez diru-merkatuan egindako eragiketak

2.3 Bezeroentzako kreditua

2.4 Zorra ordezkatzeko duten balioak

2.5 Beste kapital-tresna batzuk

2.6 Negoziazio-deribatuak

3 Beste finantza-aktibo batzuk, arrazoizko balioan aldaketak izan dituztenak galera eta irabaziei dagokienez

3.1 Kreditu-erakundeen gordailuak

3.2 Kontrakontu-erakundeen bitartez diru-merkatuan egindako eragiketak

3.3 Bezeroentzako kreditua

3.4 Zorra ordezkatzeko duten balioak

3.5 Beste kapital-tresna batzuk

4 Salgai dauden finantza-aktiboak

4.1 Zorra ordezkatzeko duten balioak

4.2 Beste kapital-tresna batzuk

5 Kreditu-inbertsioak

5.1 Kreditu-erakundeen gordailuak

- 5.2 Kontrakontu-erakundeen bitartez diru-merkatuan egindako eragiketak
 - 5.3 Bezeroentzako kreditua
 - 5.4 Zorra ordezkatzeko duten balioak
 - 5.5 Beste finantza-aktibo batzuk
 - 6 Epemugarako inbertsio-zorroa
 - 9 Finantza-aktiboaren egokitzeak (makroestalduren ondoriozkoak)
 - 10 Estaldura-deribatutako
 - 11 Salgai dauden aktibo ez-arruntak
 - 11.1 Kreditu-erakundearen gordailuak
 - 11.2 Bezeroentzako kredituak
 - 11.3 Zorra ordezkatzeko duten balioak
 - 11.4 Kapital-tresnak
 - 11.5 Aktibo materiala
 - 11.6 Gainerako aktiboak
 - 12 Partaidetzak
 - 12.1 Erakunde elkarkideak
 - 12.2 Talde anitzeko erakundeak
 - 12.3 Taldeko erakundeak
 - 13 Pentsioei atxikitako aseguru-kontratuak
 - 15 Aktibo materiala
 - 15.1 Norberak erabiltzen dituenak
 - 15.2 Ondasun higiezinetan egindako inbertsioak
 - 15.3 Errenta operatibo gisa lagatutako beste aktibo batzuk
 - 15.4 Gizarte-ekintzari lotuak
 - 16 Aktibo immateriala
 - 16.1 Merkataritza-funtsa
 - 16.2 Beste aktibo immaterial batzuk
 - 17 Zerga-aktiboak (aktibo fiskalak)
 - 17.1 Arruntak
 - 17.2 Geroratuak
 - 18 Aldizkakotzeak
 - 19 Beste aktibo batzuk
- AKTIBOAK, GUZTIRA

2.- PASIBOA

Pasiboan, finantzazio-iturriak jasotzen dira, hau da, finantza-erakundeek lortutako funtsen jatorria. Nagusiki, bezeroengandik eta beste kreditu-erakunde batzuetatik jasoak izan ohi dira.

Balantzearen pasiboan, lehenik eta behin, finantza-pasiboak jasotzen dira, zenbait kategoriatan multzokatuta (negoziazio-zorroa; beste finantza-pasibo batzuk, arrazoizko balioan aldaketak izan dituztenak galera eta irabaziei dagokienez; finantza-pasiboak, arrazoizko balioan aldaketak izan dituztenak ondare garbiari dagokionez, eta kostu amortizatuko finantza-pasiboak) eta bereizita: salgai dauden aktibo ez-aruntekin elkartutako pasiboak, estaldura-deribatuak, pasiboen egokitzeak (makroestalduren ondoriozkoak), eta finantza-pasibo izaera duen kapitala.

Finantza-pasiboen sailkapena:

1.- FINANTZA-PASIBOAK:

- a) Finantza-pasiboak, arrazoizko balioan aldaketak dituztenak galera eta irabaziei dagokienez:
 - Negoziazio-zorroa: etorkizun hurbilean berriz ere erosteko asmoz jaulki diren finantza-pasibo guztiak biltzen ditu. balioetan posizio laburrak dira (saltzaileak). Epe laburrera, nabarmenki irabaziak lortuko dituen zorro baten zati bat osatzen dute; eta tresna deribatuak, betiere, estaldura-tresnak ez badira.
- b) Beste finantza-pasibo batzuk, arrazoizko balioan aldaketak dituztenak galera eta irabaziei dagokienez: finantza-pasibo hibridoak.
- c) Finantza-pasiboak, arrazoizko balioan aldaketak dituztenak ondare garbiari dagokionez: salgai dauden finantza-aktiboekin elkartutako finantza-pasiboak jasotzen dituzte.
- d) Kostu amortizatuko finantza-pasiboak: aurreko kategorietan sailkatzen ez diren finantza-pasiboak biltzen dituzte.

Finantza-pasiboak, era berean, honako kontu-sail hauetan banakatzen dira:

- a) Gordailuak: erakundeek eskudirutan jasotzen dituzten saldo berreskuragarrien zenbatekoa biltzen dute, salbu balio negoziagarri gisa hartutakoak, kontrakontu-zentralen bitartez diru-merkatuan egindako eragiketak eta mendeko pasiboen izaera duten eragiketak. Gordailuei dagokienez, dagokien sektorearen arabera zehazten dira:
 - Banku zentralen gordailuak: Espainiako Bankutik edo beste banku zentraletatik jasotako gordailuak biltzen ditu.
 - Kreditu-erakundeen gordailuak: kreditu-erakundeen izenean dauden gordailuak jasotzen ditu.
 - Bezeroen gordailuak: gainerako gordailuak biltzen ditu.
- b) Kontrakontu-erakundeen bitartez diru-merkatuan egindako eragiketak.
- c) Balio negoziagarrietan adierazitako zordunketak: obligazioetan eta balio negoziagarrietan adierazitako gainerako zordunketen zenbatekoa jasotzen dute, hala nola kutxa- eta diruzaintza-bonuak, zedulak, obligazioak, zor-agiriak eta abar; betiere, mendeko pasiboez bestelakoak.
- d) Mendeko pasiboak: kredituen lehentasunari dagokionez, jasotako finantzazioaren zenbatekoa biltzen dute, hartzekodun arrunten atzetik egon ohi dena.
- e) Negoziatio-deribatuak: kontabilitate-estalduretan sartzen ez diren deribatuen arrazoizko balioa biltzen dute, erakundearen kontra betiere.
- f) Estaldura-deribatuak: kontabilitate-estalduretan sartzen diren deribatuen arrazoizko biltzen dute, erakundearen kontra betiere.

- g) Finantza-pasiboen izaera duen kapitala.
- h) Posizio laburrak balioetan: aldi baterako edo maileguz hartutako finantza-aktiboen salmenta irmoaren ondoriozko finantza-pasiboen zenbatekoa biltzen dute.
- i) Beste finantza-pasibo batzuk: beste kontu-sail batzuetan sartzen ez diren ordaintze-betebeharren zenbatekoa biltzen dute. Ordaintze-betebehar horiek finantza-pasiboen izaera dute.
- j) Finantza-pasiboen egokitzeak (makroestalduren ondoriozkoak): finantza-pasibo jakin batzuen (interes-tasaren arrisku-estalduretan sartzen direnen) zenbateko babestuaren arrazoizko balioan izandako aldakuntzen saldo garbia jasotzen dute. Aldaketak interes-tasaren arriskuari bakarrik egozten zaizkio.

2.- GAINERAKO PASIBOAK:

- a) Aseguru-kontratuen ondoriozko pasiboak: balantze bateratuan agertzen dira soilik.
- b) Hornidurak: erakundeen unean uneko betebeharrak asetzeko eratzen den zenbatekoa biltzen dute. Betebehar horien izaera argi eta garbi identifikatuta dago, baina zehaztugabea da beren zenbatekoa edo kitapen-data. Lau hornidura multzo bereizten dira:
 - Pentsioetarako eta antzeko obligazioetarako funtsak: enplegu ondoko ordainketak babesteko sortutako hornidura guztien zenbatekoa.
 - Zergetarako hornidurak.
 - Arrisku eta konpromisoetarako (arrisku eta konpromiso gertagarriak) hornidurak, halakorik izanez gero: erakundeek beste hirugarren baten betebeharrak bermatzeko eragiketen kasuan sortutako horniduren zenbatekoa biltzen dute.
 - Beste hornidura batzuk: berregituraketen, auzien eta ingurumenaren inguruko jokaeren ondoriozko hornidurak biltzen dituzte.
- c) Zerga-pasiboak: izaera fiskaleko pasibo guztien zenbatekoa. Bi multzotan banatzen dira: “arruntak (hurrengo hamabi hilabeteetan ordaindu behar diren zergak) eta “geroratuak (epe luzeago batean ordaintzen diren zergak).
- d) Aldizkakotzeak: pasiboen aldizkakotze-kontu guztiak.
- e) Salgai dauden aktibo ez-arruntekin elkartutako pasiboak: salgai dauden aktibo ez-arrunt gisa sailkatutako aktiboekin zuzenki elkartutako pasiboen zenbatekoa.
- f) Beste pasibo batzuk: beste kontu-sail batzuetan sartzen ez diren aktiboen zenbatekoa biltzen dute, eta bi taldetan bereizten dira:
 - Gizarte-ekintzaren funtsa: kutxek eta kreditu-kooperatibek gizarte-ekintzara bideratutako diru kopuruen zenbatekoa.
 - Gainerakoak.

3.- ONDARE GARBIA

Ondare garbiaren kontu-sailak balantzean aurkezten dira, honako kategoria hauetan multzokatuta:

- a) Funts propioak:

Akziodunen, bazkideen edo fundatzaileen ekarpenak, emaitza metatuak, eta ondare garbi iraunkorraren izaera duten finantza-tresnen osagaiak sartzen dira kategoria horretan.

- b) Balioespenen ondoriozko egokitzeak:

Ondare garbian aldi baterako (iraungi edo gauzatu arte) erregistratutako aktibo eta pasiboetan egindako egokitzeen zenbatekoak (zergei begira zenbateko garbiak direnak) biltzen dituzte.

c) Gutxiengoan interesak:

Kategoria hori balantze bateratuan agertzen da soilik. Mendeko erakundeen ondare garbiaren zenbateko garbia biltzen dute, erakundeek ez diren kapital-tresnei dagozkienak.

Espainiako Bankuak pasiboen eredu hau argitaratu du:

PASIBOA ETA ONDARE GARBIA

PASIBOA

1 Negoziazio-zorroa

- 1.1 Kreditu-erakundeen gordailuak
- 1.2 Kontrakontu-erakundeen bitartez diru-merkatuan egindako eragiketak
- 1.3 Bezeroen gordailuak
- 1.4 Balio negoziagarrietan adierazitako zordunketak
- 1.5 Negoziazio-deribatuak
- 1.6 Balioen posizio laburrak

2 Beste finantza-pasibo batzuk, arazoizko balioan aldaketak izan dituztenak galera eta irabaziei dagokienez

- 2.1 Kreditu-erakundeen gordailuak
- 2.2 Bezeroen gordailuak
- 2.3 Balio negoziagarrietan adierazitako zordunketak

3 Finantza-pasiboak, arazoizko balioan aldaketak izan dituztenak ondare garbiari dagokionez

- 3.1 Kreditu-erakundeen gordailuak
- 3.2 Bezeroen gordailuak
- 3.3 Balio negoziagarrietan adierazitako zordunketak

4 Kostu amortizatuko finantza-pasiboak

- 4.1 Banku zentralen gordailuak
- 4.2 Kreditu-erakundeen gordailuak
- 4.3 Kontrakontu-erakundeen bitartez diru-merkatuan egindako eragiketak
- 4.4 Bezeroen gordailuak
- 4.5 Balio negoziagarrietan adierazitako zordunketak
- 4.6 Mendeko pasiboak
- 4.7 Beste finantza-pasibo batzuk

10 Finantza-pasiboen egokitzeak (makroestalduren ondoriozkoak)

11 Estaldura-deribatuak

12 Salgai dauden aktibo ez arruntekin elkartutako pasiboak

12.1 Bezeroen gordailuak

12.2 Gainerako pasiboak

14 Hornidurak

14.1 Pentsioetarako eta antzeko betebeharretarako (obligazioetarako) funtsak

14.2 Zergetarako hornidurak

14.3 Arrisku eta konpromiso gertagarrietarako hornidurak

14.4 Beste hornidura batzuk

15 Zerga-pasiboak (pasibo fiskalak)

15.1 Arruntak

15.2 Geroratuak

16 Aldizkakotzeak

17 Beste pasibo batzuk

17.1 Gizarte-ekintzaren funtsa

17.2 Gainerakoak

18 Finantza-pasibo izaera duen kapitala

PASIBOAK, GUZTIRA

ONDARE GARBIA

2 Balioespenen ondoriozko egokitzeak

2.1 Salgai dauden finantza-aktiboak

2.2 Finantza-pasiboak, arrazoizko balioan aldaketak dituztenak ondare garbiari dagokionez

2.3 Diruzaintza-fluxuen estaldurak

2.4 Atzerriko negozioetako inbertsio garbien estaldurak

2.5 Truke-diferentziak

2.6 Salgai dauden aktibo ez-arruntak

3 Funts propioak

3.1 Zuzkidura-kapitala edo funtsa

3.1.1 Jaulkitakoa

3.1.2 Nahitaezkoak ez diren ordainketen zain (–)

3.2 Jaulkipen-saria

3.3 Erreserbak

3.3.1 Erreserba metatuak (galerak)

3.3.2 Soberakina

3.4 Beste kapital-tresna batzuk

3.4.1 Finantza-tresna konposatuak

3.4.2 Gainerakoak

3.5 Ken: Balio propioak

3.6 Partaidetza-kuotak eta funts elkartuak (aurrezki-kutxak)

3.6.1 Partaidetza-kuotak

3.6.2 Partaideen kuoten erreserba-funtsak

3.6.3 Egonkortze-funtsak

3.7 Ekitaldiaren emaitza

3.8 Ken: Dibidenduak eta ordainketak

ONDARE GARBIA ETA PASIBOAK, GUZTIRA

5.2.- Finantza-erakundeen emaitzen kontua

Emaitzen kontuaren **azken helburua** zera da: erakunde batek mozkin garbia lortzea banku-jardueraren zenbait arlotako ekarpena islatzen duten tarte partzial batzuen bidez.

Espainiako Bankuak, tradizionalki, “**emaitzen ur-jauzia**”ren bitartez aurkezten ditu finantza-erakundeen mozkinen kontuak. Beste aurkezpen mota batzuk ere badaude, hala nola eredu anglosaxoiak. Eredu horietan, produktuen arabera edo kostu-adarren funtziopean aurkezten da emaitzen kontua; produktuen arabera eginez gero, erakundeek produktuei lotutako sarrerak eta kostuak aurkezten dituzte; modu horretan, produktukako errentagarritasuna lortzen dute, eta baita produktukako garapen estrategikoetarako gakoak ere. Guk erakundeen ohiko negoziotik abiatzen den ereduari jarraituko diogu; alegia, kontu-sailak ur-jauzi eran zatikatzen duena hartuko dugu kontuan:

- **Bitartekaritza-tartea:** ohiko jardueraren benetako barometroa da, finantza-produktuen sarrerei finantza-kostuak kentzetik lortzen baita. Beren pasiboaren kostu-gehikuntzari dagokionez, erakundeek aktiboko eragiketetara eramateko duten aukeraren arabera zehazten da.

Bitartekaritza-tartea honako kontzeptu hauetatik dator:

- a) Interesak eta antzeko etekinak: finantza-aktibo guztiek ekitaldi batean sortzen dituzten interes guztiak biltzen ditu. Zenbateko gordinean erregistratzen dira, atxikipenak kendu gabe.
- b) Interesak eta antzeko zamak: finantza-pasibo guztiek ekitaldi batean sortzen dituzten interes guztiak biltzen ditu, pentsio-funtsei egozten zaizkien interesen kostuak barne.
- c) Kapital-tresnen etekina: ekitaldi batean iragarritako edo kobratutako kapital-tresnen dibidendu eta ordainketak. Honako multzo hauek bereizten dira: erakunde elkartekideetako partaidetzak, talde anitzeko erakundeetako partaidetzak, taldeko erakundeetako partaidetzak, eta beste kapital-tresna batzuk.

- **Tarte arrunta:**

Bitartekaritza-tartea honako kontzeptu hauen bitartez zuzentzen da:

- d) Hartutako komisioak: erakundeen aldeko komisio guztien zenbatekoa.
- e) Ordaindutako komisioak: erakundeek ordaindutako komisioen zenbatekoa.
- f) Finantza-eragiketen emaitzak (garbia): aktiboen ballioespenaren ondoriozko egokitzeen zenbatekoa biltzen du (balantzean erregistratutakoak izan ezik; alegia, interes-arriskuari dagozkionak), eta baita aktibo horien salerosketaren ondorioz lortutako emaitzak ere. Finantza-tresnak sailkatzen dituzten kategorien arabera banatzen dira.
- g) Truke-diferentziak (garbia): dibisen salerosketan lortutako emaitzak jasotzen ditu. Atzerriko diruan dauden diruzko kontu-sailak diru funtzional bihurtzean sortzen diren diferentziak ere biltzen ditu.

Era horretan lortzen dugu tarte arrunta, erakundeen finantza-jardueraren emaitza adierazten duena.

Tarte hori zuzenduz jarraituko dugu, honako kontzeptu hauen bidez:

- h) Beste ustiapen-ekoizkin batzuk: beste ustiapen-jarduera batzuetako sarrerak biltzen dituzte, hala nola errentei eta higiezin inbertsioen ustiapenari dagozkien sarrerak.
- i) Langileen gastuak: nominako langile finko zein aldi baterako ordainketa guztiak biltzen ditu (ordainketa-kontzeptua edozein izanik ere).
- j) Administrazioko beste gastu batzuk.
- k) Amortizazioa: ekitaldi batean lortutako amortizazioa jasotzen du, eta aktibo materiala eta aktibo immateriala bereiz daitezke.
- l) Beste ustiapen-zama batzuk: gordailuen berme-funtsetan egindako ekarpenak, higiezin inbertsioen ustiapenerako gastuak eta halakoak biltzen ditu.

Ustiapen-tartera iritsi gara. Hain zuzen, erakundeen finantza-ustiapenen zein beste ustiapen mota batzuen ondoriozko emaitza garbia erakusten du.

- m) Aktiboak hondatzearen ondoriozko galerak: aurreko ekitaldietan berreskuratutakoaren galera garbien zenbatekoa jasotzen dute.
- n) Horniduretarako zuzkidurak (garbia): ekitaldi bateko zuzkiduren zenbatekoak, salbu pentsio-funtsetarako ekarpenak, ekitaldi horretako langileen gastua baitira.
- o) Beste irabazi batzuk: erakundeen ezohiko jardueretan sortutako sarrerak jasotzen dituzte, hala nola aktibo materiala saltzearen ondoriozko irabaziak, partaidetzak saltzearen ondoriozko irabaziak eta beste kontzeptu batzuk.
- p) Beste galerak batzuk: erakundeen ezohiko jardueren ondorioz sortutako galerak jasotzen dituzte, hala nola aktibo materiala saltzearen ondoriozko galerak, partaidetzak saltzearen ondoriozko galerak eta beste kontzeptu batzuk.

Hala, azkenik, ZERGA AURREKO MOZKINA lortzen da. Emaitza horri sozietate-zerga eta aurrezki-kutxen gizarte-ekintzarako eta gizarte-funtserako zuzkidurak kendu behar zaizkio, eta geldiarazitako eragiketen emaitza garbia gehitu, EKITALDIKO EMAITZA lortzeko.

2008ko azarotik aurrera, Espainiako Bankuak banku-tarteak kontabilizatzeko modua aldatu du. Aldaketa horiek ez dute eraginik zergen aurretiko emaitzan, ezta emaitza garbian ere, hau da, aurreko definizioak baliagarriak dira, baina bitartekaritza-tartea, tarte arrunta eta ustiapen-tartea honako hauek ordezkatu dituzte:

1. **Interesen tartea:** bitartekaritza-tartearen antzekoa da, baina dibidenduak ez dira kontuan hartzen eta, aldiz, aseguru-negozioaren finantza-sarrerak eta gastuak aintzatesten dira.
2. **Tarte gordina:** tarte arruntaren antzekoa da, baina badira ezberdintasunak:
 - Lehen tarte arruntaren azpitik zeuden kontzeptu batzuk biltzen ditu, hala nola finantza-izaerarik ez duten zerbitzuen salmenta garbiak, gordailuak bermatzeko funtsean egindako ekarpenak eta beste kontu-sail batzuk.
 - Partaidetza estrategikoen salmentatik eratorritako gainbalioak ez dira tarte gordinen sartzen.
3. **Tarte garbia:** tarte gordina ken administrazio-gastuak eta amortizazioak. Ustiapen-tartearen antzekoa da.

5.3.- Finantza-erakundeen ratio nagusiak

Dakigunez, ratioek ematen duten informazioa zalantzan jartzen da; bereziki, dinamismo ezagatik. Baina, praktikan, finantza-erakundeek askotan erabiltzen dituzte ratio horiek. Ratioek arintasunez eta oso kostu baxuaz ematen dute informazioa. Hori kontuan izan behar da.

Gure analisisan, informazio mota horrek garrantzi eta interes berezia hartzen du erakundearen egoera zehatzaren diagnostikoa egin eta sektore barnean kokatzeko.

Hala, **ratioen finantza-interpretazioa** trataera edo **dimentsio bikoitz batetik** egin behar da balantzearen eta emaitzen kontuan:

1.- Denboraren bilakaera: denbora-epe zehatz baterako datuak lortu behar dira, desbideratze koiunturalek kudeaketan duten eraginkortasun eza eta egiturazko arazoek sortutako desbideratzeak saiheste aldera.

2.- Beste erakunde batzuekiko konparazioa: informazioa beste erakunde edo instituzio batzuekin konparatzeko moduan jartzea. Adierazle jakin batzuk sektoreko beste batzuekin edo beste erreferentzia-talde batekoekin alderatu ahal izatea eta potentzialitateak egotea, arazo posibleak eta haien eragileak detektatzeko beharra adierazi ahal izatea.

Analisi mota hori erabilgarria da banku-negozioan lan egiten dutenentzat zein inbertitzaile potentzialentzat, finantza-analistentzat, ikertzaileentzat, eta ikuskaritzako autoritateentzat, besteak beste.

Ratio horien azterketari esker, aurreko atalean aztertutako informazioa osatzen dugu, eta, hala, sektoreko egoera ekonomiko-finantzarioari buruzko ideia orokor bat izan dezakegu. Horretarako, aurreko ataletan aipaturiko erakundeen balantzea eta emaitzen kontua erabiliko ditugu.

Honako eskeman honetan, ratioak aztertuko ditugu:

FINANTZA-ERAKUNDEEN RATIOAK

- likidezia-ratioak
- kreditu-ratioak
- kaudimen-ratioa
- errentagarritasun-ratioak
- efizientzia-ratioa (eraginkortasun-ratioa)

5.3.1.- Likidezia-ratioak

Erakundeek, oro har, funtsak izan behar dituzte beren betebeharrei aurre egin ahal izateko:

- 1.- Gordailuak jasotzeko.
- 2.- Maileguen eskaria finantzatzeko.
- 3.- Espainiako Bankuak ezarritako erreserba minimoak mantentzeko.

Ratio erabilienak:

LIKIDEZIA-RATIOAK
1.- Kutzak eta banku zentralen gordailuak / aktiboa, guztira
2.- Finantza-aktiboak, arazoizko balioan aldaketak izan dituztenak galera eta irabaziei dagokienez / aktiboa, guztira
3.- Maileguak / aktiboa, guztira
4.- Maileguak / gordailuak

1. Erabat likidoak diren aktiboak.
2. Aktibo osoaren ehunekoa kalkulatzeko digu.
3. Ratio hori txikiagoa den neurrian, likidezia handiagoa egiten da; izan ere, maileguak dira likidezia gutxien duten aktiboak. Ratio hori bitan zatitu daiteke: kreditu-erakundeei emandako maileguak kontuan hartuta, edo beste bezero batzuei (kreditu-erakundeak ez beste batzuk) banatutako maileguak kontuan hartuta.
4. Aurrekoa bezala, txikiagoa den heinean, handiagoa izango da likidezia. Kasu horretan, gordailuen bidezko (likidezia txikiko pasiboa) aktibo baten finantzazioaren proportzioa adierazten du. Ratio hori zenbait ratiotan zatitu daiteke: bankuarteko merkatuan emandako maileguak kontuan hartuta, bezeroentzako maileguak kontuan hartuta, eta baita bezeroengandik edo kreditu-erakundeetatik jasotako gordailuak kontuan hartuta ere.

Honako ratio hauek lor ditzakegu:

Bezeroentzako maileguak

Bezeroen gordailuak

Kreditu - erakundeentzako maileguak

Kreditu - erakundeen gordailuak

Bezeroentzako maileguak

Bezeroen gordailuak eta kreditu - erakundeen gordailuak

Kreditu - erakundeentzako maileguak

Bezeroen gordailuak eta kreditu - erakundeen gordailuak

5.3.2.- Kreditu-ratioak

Finantza-tartea estutzearen eta sektorearen azken urteotako errentagarritasunaren galeraren aurrean, “berankortasuna”k indarra hartu du, eta, normala denez, berankortasun hori desagerrarazi egin nahi dute, banku-jarduera kaltetzen duen arrisku nagusietako bat baita historikoki.

Hala, ratio horiek berankortasuna neurtzen dute. Baina ratio horien planteamendua egitean, ez da kontuan hartu behar ea finantza-erakunde batek berankorrek izan ote ditzakeen edo ez, baizik eta ea finantza-erakunde hori gai ote den ez-ordaintzeen arriskuari aurre egiteko.

KREDITU-RATIOAK
1.- Kaudimen gabeziarako hornidura-funtsa / aktiboa, guztira
2.- Estaldura-ratioa = kaudimen gabeziarako hornidura-funtsa / zalantzazko kredituak
3.- Berankortasun-ratioa = zalantzazko kredituak / kreditu-inbertsioak, guztira

1. Ratio hori zenbat eta handiagoa izan, bankuak orduan eta ez-ordaintze gehiagori egin diezaioke aurre. Ratioa handiagoa den neurrian, aktiboaren ehuneko handiagoa hartzen du kobrazintzat, emaitzan eragin gabe.

2. Estaldura-ratioa: erakunde baten zalantzazko kredituen eta kreditu horiek ordaintzeko hornidura-zuzkiduren multzoaren arteko erlazioa da. Oro har, eraturako funtsak zalantzazko kredituez zatituz kalkulatu da ratio hori.

3. Erakunde baten zalantzazko kredituek adierazten duten ehunekoa, kreditu-zorro osoarekin alderatuta (egoiliar nahiz ez-egoiliar). Diruzko kredituez, abalez eta enpresa-arriskuz osatuta dago. Espainiako legedian, zalantzazko kredituek honako saldo hauek biltzen dituzte: muga-eguna aurreko hiru hilabete baino lehenago jarria duten ordaindu gabeko saldoak, eta zalantzazko saldoak (diru guztia itzultzeko epeari eta formari buruzko zalantzak sor daitezke, aurretik kontratuan ezarrita ere).

5.3.3.- Kaudimen-ratioa

BIS RATIOA (Bank for International Settlements) = % 8 minimoa
--

Baliabide propioak (Tier 1 + Tier 2) / guztizko aktibo haztatua

Aktiboen murrizketa dela-eta erakunde batek galera potentzialesi edo ezusteko galerei aurre egiteko zer gaitasun duen adierazten du. Kaudimen-ratioa jaisten bada, galera potentzialesi aurre egiteko gaitasuna gutxitu egiten da.

Beraz, finantza-krisialdietan, eraturako kapitalaz aparte, galera potentzialak gutxitzeko gaitasuna zabaltzen duten beste baliabide batzuk ere badaudela hartzen da oinarritzat.

Europar Batasunak, Basileako Akordioaren arabera, tipifikazio bikoitza proposatu du baliabide propioentzat, eta haztatze-faktore finko batzuen funtziopean kalkulatu du guztizko aktiboaren kontzeptua:

- **Baliabide propioak:** lehen mailako kapitalak eta bigarren mailako kapitalak osatuak. Baliabide propioak **“kapital erregulatzaile”** izenez dira ezagunak:

a) 1. mailako kapitala (TIER 1: funtzionamendu-kapitala, going-concern capital). Erakunde bat bideragarria denean, galerak gutxitzea ahalbidetzen du. Oinarritzko baliabide propioek iraunkortasun handia dute egonkortasunean eta denboran:

a. Lehen mailako kapital arrunta (oinarritzko kapitala, common equity Tier 1; lehen, core capital izenez zen ezaguna). Akzio arruntak + erreserbak + egokitzeak.

b. Lehen mailako kapital gehigarria. Lehen mailako kapital arrunta osatzen ez duten beste kapital-tresna batzuk + egokitzeak.³⁴

b) 2. mailako kapitala (TIER 2). Erakunde bat bideragarria ez denean, galerak gutxitzea ahalbidetzen du (batez ere, mendeko zorra). Baliabide propioen bigarren multzoaren bereizgarria da oinarritzko baliabide propioek baino iraunkortasun txikiagoa izatea egonkortasunean eta denboran.

- **Guztizko aktibo haztatua:** Basileako Batzordeak guztizko aktiboa kreditu-arriskuaren arabera haztatua erabiltzen du. Hala, aktibo higieziinei balio handiagoa ematen zaie, ez baitute kreditu-arriskurik. Kreditu-arrisku altuagoa duten aktiboak (kredituak, finantza-inbertsioak, eta abar) askoz ere pisu txikiagoa ematen zaie.

³⁴ Espainian 2011ko otsailean kaudimenari buruz onartutako dekretuaren arabera, kapital nagusiaren ratio berriak ez ditu lehentasunezko partaidetzak aintzatesten. Hori dela eta, lehentasunezko partaidetzak ez daude Espainiako kapital nagusiaren barnean, ezta TIER 1 ere, Basilea III arauaren arabera. Sektorea lehentasunezko partaidetzak kalitate handiagoko kapitalaren truke aldatzen hasi da, hala nola bonu bihurgarriak.

Kaudimen-koefizienteak, beraz, zera esaten digu: erakunde batek zenbat baliabide propio dituen kaudimen gabezien kasuan galerei aurre egiteko. Ustez, erakundeek badituzte baliabide propio nahikoak, honako balio honen baliokideak badira:

Baliabide propioak (1. mailako kapitala + 2. mailako kapitala) = 0,08 x guztizko aktibo haztatua

Beste kaudimen-ratio batzuk:

a) TIER 1:

BIS ratioa **TIER 1 ratioan** ere deskonposatu ohi da:

TIER 1 / guztizko aktibo haztatua

Arriskuaren arabera haztatutako guztizko aktiboaren proportzioa ematen digu baliabide propio “tradizional”en bidez finantzatuta, hau da, kapitalaren eta erreserben bidez, nagusiki.

b) Core Capital ratioa:

Erakunde baten baliabide propio oinarrikoenen (kapitala, erreserbak, gutxiengoaren interesak eta atxikitako irabaziak, balantzeak bateratu ez dituzten finantza-erakundeetan egindako inbertsioak, eta aktibo-fiskal geroratuak ken merkataritza-funtsa eta beste aktibo immaterial batzuk) eta BIS ratioaren irizpideen arabera arriskuaren arabera haztatutako guztizko aktiboaren arteko erlazioa da. Lehenetsuneko partaidetzak Core Capital ratioetik kanpo geratzen dira.

5.3.4.- Errentagarritasun-ratioak

Oinarriko bi errentagarritasun-ratio ditugu:³⁵

ERRENTAGARRITASUN-RATIOAK
ROA: Aktiboen gaineko errentagarritasuna: mozkin gordina / guztizko aktiboaren batezbestekoa
ROE: Baliabide propioen gaineko errentagarritasuna: mozkin garbia / baliabide propioen batezbestekoa

Aktiboen gaineko errentagarritasuna (ROA) (Return on Assets)

Erakundeek errentagarritasun ekonomikoa lortzen dute. ROA honela kalkulatzen da: interesen eta zergen aurretiko mozkinak (EBIT; mozkin gordina) zati guztizko aktiboaren batezbestekoa. Guztizko aktiboaren batezbestekoa kalkulatzeko, irabazi horiek sortu diren denboran aktiboek zein batezbesteko izan duten hartzen da kontuan.

$$ROA = EBIT / \text{batez besteko aktiboa, guztira}$$

ROAk erakundeen aktibo guztien ustiapenaren edo erabileraren efizientzia neurtzen du. Ratioaren balioa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa izango da errentagarritasuna.

Baliabide propioen gaineko errentagarritasuna (ROE) (Return on Equity)

³⁵ Bi kasuetan, mozkin garbiarekiko kalkulatu dugu, nahiz eta, oro har, ROA mozkin gordinarekiko kalkulatu den (aktibo osoak sortutakoa); ROE, berriz, interesen eta zergen ondorengo mozkinarekiko kalkulatu da, hots, akziodunentzat geratzen den mozkinarekiko.

Erakundeen finantza-errentagarritasuna da. Funts propioen errentagarritasuna edo ROE honela kalkulatzen da: mozkin garbia (BDIT; interesen eta zergen ondorengo mozkina) zati funts propioen edo ondare garbiaren batezbestekoa. Batez besteko ondare garbia kalkulatzeko, irabazi horiek sortu diren denboran ondare garbiak zer batezbesteko izan duen hartzen da kontuan. Erakundeen ondare garbia kapitalak eta erreserbek osatzen dute.

$$\text{ROE} = \text{mozkin garbia} / \text{baliabide propioen batezbestekoa}$$

ROAk erakundeen jardueraren errentagarritasuna neurtzen du, eta ROEk, aldiz, akziodunen errentagarritasuna. Akziodunek lortzen duten errentagarritasunaren eta enpresaren errentagarritasunaren arteko diferentzia hori hartzekodunek irabazten duten zatia izango da, hau da, zorraren kostua. Aldagai horien arteko erlazioa nola adieraz daitekeen aztertuko dugu ondoren.

$$\text{ROE} = \text{ROA} + (\text{ROA} - i_z) \times \frac{\text{pasiboa}}{\text{batez besteko ondare garbia}}$$

Beraz,

- ROA zorraren kostua baino handiagoa baldin bada, palanka-efektu finantzario positiboa dugula adierazten du. Hau da, akziodunentzako egokia izango da kanpoko baliabideak erabiltzea finantzatzeko, enpresak baino errentagarritasun altuagoa lortuko baitute horrela. Gainera, zorpetzea zenbat eta handiago izan, orduan eta errentagarritasun handiagoa lortzen dute.
- Zorraren kostua ROA baino handiagoa bada, palanka-efektu finantzario negatiboa izango dugu, eta, beraz, akziodunen kalterako izango da, zorra zenbat eta handiago izan, orduan eta errentagarritasun txikiagoa lortuko baitute. Palanka-efektuaren ratio hori zenbat eta handiago izan, orduan eta efektu negatibo handiagoa izango du akziodunen gain, finantza-errentagarritasuna gutxitu egiten baita.

5.3.5.- Eraginkortasun- edo efizientzia-ratioa

Erakunde askok, beren emaitzen kontuan oinarrituz, efizientzia-ratioa kalkulatzen dute. % 50 inguruko maila egokitzen hartzen da. Ratio horrek ustiapen-gastuek tarte arruntaren (tarte gordina) gain dakarten proportzioa neurtzen du, hau da, erakunde batek dituen diru-sarreraren eta sarrera horiek izateko egin behar izan dituen diru-irteeren arteko proportzioa da. Beraz, ratioa zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta efizienteagoa izango da erakundea.

$$\text{Efizientzia-ratioa} = \text{ustiapen-gastuak} / \text{tarte gordina}$$

PROPOSATUTAKO ARIKETAK

1. “Maileguak / aktiboa, guztira” ratioa handitu egiten baldin bada urte batetik bestera, eta, bestelako informaziorik ez baldin badugu, zer adierazten digu horrek finantza-erakunde baten likideziari buruz?
2. *Actualidad* aldizkari ekonomikoan, albiste hau argitaratu zuten apirilean (2002ko 22tik 28ra bitartean): Argentinako krisiak kalte egin die Santander-en eta BBVAren emaitzei, eta, ekonomiaren azelerazioa gelditu eta merkatua ezegonkortu egin denez, haien galdu-irabazien kontuetako kontu-sail garrantzitsu batzuk gutxitu egin dira. Horrek alarma gorria piztea eragin du. Edozein entitateren helburu da negozio bolumena handitzea, baina, urte horretan, inoiz baino gehiago, handitze hori lortzen laguntzeko, kostuak izugarri kontrolatu behar izan zituzten. Azaldu ezazu galdu-irabazien kontuko zein kontu-saili eragiten dieten negozio bolumena handitzeko eta kostuak kontrolatzeko neurri horiek. Zein ratio izan beharko da kontuan, batez ere, helburu horiek lortzea bermatzeko?
3. Finantza-erakunde batek balantze hau aurkeztu du 2011ko abenduaren 31n:

AKTIBOA		ONDARE GARBIA eta PASIBOA	
Kutxak eta banku zentralak	4.000	Espainiako Bankua eta kreditu-erakundeak	67.000
Estatuaren zorrak	28.000		
Kreditu-erakundeak	40.000	Bezeroen gordailuak	1.200.000
Bezeroen kredituak	1.400.000	Balio negoziagarriak + negozioazio-deribatuak	67.000
Balio-zorria (negoziatio-zorria + epemugarako inbertsio-zorria + estaldura-deribatuak)	6.000	Estaldura-deribatuak	0
		Beste finantza-pasibo batzuk	3.000
		Aldizkakotzeak	2.200
Partaidetzak	17.000	Arrisku eta konpromiso gertagarrietarako hornidurak	1.100
	34.000	Pentsio-funtsak	1.000
Aktibo materialak	34.000	Beste hornidura batzuk	1.500
Aktibo immaterialak	6.000		
		Mendeko pasiboak	2.200
		Beste pasibo batzuk	15.000
Beste finantza-aktibo batzuk + pentsioekin lotutako aseguru-kontratuak + beste aktibo batzuk	17.000	Kapitala	12.000
Aldizkakotzeak	11.000	Jaulkipen-saria	0
Zerga-aktiboak	15.000	Erreserbak	200.000
		Balioa gehitzearen ondoriozko egokitzeak	12.000
		Zerga-pasiboak	28.000
Guztira	1.612.000	Guztira	1.612.000

Ariketak:

- Kalkula ezazu likidezia-ratioa, eta azaldu ezazu emaitza.
- Galdu-irabazien kontuan, honako datu hauek ditugu:

	2011/12/31	2010/12/31
Tarte gordina	4.000	4.200
Ustiapen-gastuak	2.000	1.900

Kalkula ezazu bi urteetako efizientzia- edo eraginkortasun-ratioa, eta azaldu ezazu zer bilakaera izan duen. Sektoreko ratioa % 47koa baldin bada bi urteetan, nola dago finantza-erakundea?

4. Finantza-erakunde batek balantze hau aurkeztu du 2011ko abenduaren 31n:

AKTIBOA		ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	
Kutxak eta banku Zentralak	35.000	Espainiako Bankua eta kreditu-erakundeak	600.000
Estatuaren zorrak	250.000		
Kreditu-erakundeak	350.000	Bezeroen gordailuak	11.250.000
Bezeroekiko kredituak	13.000.000	Balio negoziagarriak + negoziazio-deribatuak	600.000
Balio-zorria (negoziatio-zorria + epemugarako inbertsio-zorria + estaldura-deribatuak):	55.000	Estaldura-deribatuak	0
		Beste finantza-pasibo batzuk	50.000
		Aldizkakotzeak	20.000
Partaidetzak	150.000	Arrisku eta konpromiso gertagarrietarako hornidurak	10.000
		Pentsioetarako funtsak	100.000
Aktibo materialak	300.000	Beste hornidura batzuk	13.000
Aktibo immaterialak	50.000		
		Mendeko pasiboak	20.000
		Beste pasibo batzuk	150.000
Beste finantza-aktibo batzuk + pentsioekin lotutako aseguru-kontratuak + beste aktibo batzuk	150.000	Kapitala	100.000
Aldizkakotzeak	10.000	Jaulkipen-saria	
Zerga-aktiboak	135.000	Erreserbak	1.000.000
		Balioa gehitzearen ondoriozko egokitzeak	322.000
		Zerga-pasiboak	250.000
Guztira	14.485.000	Guztira	14.485.000

Kalkula itzazu honako ratio hauek:

Kutxak eta bankuak / AG	
Bezeroen gordailuak / AG	
Bankuarteko maileguak / AG	
Maileguak / AG	
Bezeroei emandako maileguak / bezeroen gordailuak	
Bankuarteko maileguak / bankuarteko gordailuak	
Maileguak / gordailuak	

Komenta ezazu nolakoa den erakundearen egoera, sektoreko ratioak honako hauek badira:

Kutxak eta bankuak / AG	% 0,3
Bezeroen gordailuak / AG	% 70
Bankuarteko maileguak / AG	% 1
Maileguak / AG	% 71
Bezeroei emandako maileguak / bezeroen gordailuak	% 98
Bankuarteko maileguak / bankuarteko gordailuak	% 58
Maileguak / gordailuak	% 111

5. Finantza-erakunde batek honako datu hauek aurkeztu ditu ekainaren 30ean eta martxoaren 31n:

Kapitalaren oinarria (BIS II arautegia)		
(Milioi eurotan)		
	11-06-30	11-03-31
Funts propioak (kontabilitatekoak)	25.850	25.571
Egokitzeak	(9.072)	(9.055)
CORE CAPITAL	16.777	16.516
Lehentasunezko partaidetzak	4.420	4.419
Egokitzeak	(484)	(475)
Oinarrizko baliabide propioak (TIER I)	20.713	20.460
Mendeko finantzazioa eta beste batzuk	13.355	14.036
Kenkariak	(490)	(476)
BESTE BALIABIDE ZENBAKARRI BATZUK (TIER II)	12.865	13.560

KAPITAL-OINARRIA (Tier I + Tier II)	33.578	34.021
Baliabide propio minimoak (BIS II arautegia)	21.469	21.045
BALIABIDEEN SOBERAKINAK	12.109	12.976
ARRISKUAREN ARABERA HAZTATUTAKO AKTIBOAK	268.357	263.062
BIS RATIOA (%)	12,5	12,9
CORE CAPITAL (%)	6,3	6,3
TIER I (%)	7,7	7,8
TIER II (%)	4,8	5,2

Ariketak:

- Azaldu itzazu aurreko ratioak banan-banan, eta azter ezazu haietako bakoitzaren bilakaera.
- Galdu-irabazien kontuan, honako datu hauek azaltzen dira:

GALDU-IRABAZIAK		
(Milioi eurotan)		
	1. seih. (2011)	1. seih. (2010)
INTERESEN TARTEA	2.295	2.037
Baliokidetu ondoko emaitzak	1	0
Komisio garbiak	827	836
Aseguruen jarduera	251	224
OINARRIZKO TARTEA	3.375	3.097
Finantza-eragiketen emaitzak	138	128
TARTE GORDINA	3.512	3.225
Zerbitzu ez-finantzarioen salmenta garbia	32	29
Langileen gastuak eta administrazioko beste gastu batzuk	(1.234)	(1.217)
Amortizazioa	(58)	(54)
Beste produktu eta ustiapen-zama batzuk	4	13
USTIAPEN-TARTEA	2.255	1.996
Aktiboak hondatzearen ondoriozko galerak	(353)	(287)
. Kreditu-saneamenduak	(353)	(285)
. Beste saneamendu batzuk	(0)	(2)
Horniduretarako zuzkidurak	4	(0)
Beste galera eta irabazi batzuk	(2)	6
ZERGA AURREKO EMAITZA	1.905	1.714
Mozkinen gaineko zerga	(569)	(557)
ZERGA ONDORENGO EMAITZA	1.336	1.157
Gutxiengoan emaitzak	(0)	(0)
TALDEARI ATXIKITAKO EMAITZA	1.336	1.157

Kalkula ezazu efizientzia-ratioa (ustiapen-gastu garbi guztiak eta amortizazioa kontuan hartuz), eta azaldu ezazu efizientzia-ratioaren esanahia eta bilakaera.

ESTEKA INTERESGARRIAK:

- KREDITU-ERAKUNDEEN DATU-BASEAK (BASES DE DATOS DE ENTIDADES DE CREDITO):
 - INTERTELL: <http://www.intertell.es>
 - BANKSCOPE: <http://www.bvdep.com/en/bankscope.html>
- ARRISKU-TXOSTENEN ADIBIDEAK (EJEMPLOS DE INFORMES DE RIESGO):
<http://www.axesor.es>
- BANK FOR INTERNATIONAL SETTLEMENTS (BIS): BASILEA II APLIKATZEARI BURUZKO TXOSTENA (INFORME SOBRE LA APLICACIÓN DE BASILEA II):
<http://www.bis.org/publ/bcbs109esp.pdf>
- BBVA: BASILEA II-RI BURUZKO AURKEZPENAK, DOKUMENTUAK ETA TXOSTENAK (PRESENTACIONES, DOCUMENTACIÓN E INFORMES SOBRE BASILEA II):
<http://www.bbva.com/TLBB/tlbb/jsp/esp/conozca/riesgos/basilea/index.jsp>
- **ESTABILIDAD FINANCIERA, ESPAINIAKO BANKUAREN ALDIZKARIA (REVISTA ESTABILIDAD FINANCIERA DEL BANCO DE ESPAÑA):**
<http://www.bde.es/informes/be/estfin/restfin.htm>

6. GAIA: ARRISKUA FINANTZA-ERAKUNDEETAN

6.1.- FINANTZA-ERAKUNDEEN ARRISKUAREN ITURRIAK

Lehen, bankuek arrisku txikiagoei egin behar izaten zieten aurre, jarduera tradizionalagoetan aritzen baitziren. Gaur egun, aldiz, beste jarduera batzuk lantzen hasi direnez eta balio-zorroaren pisua handitu eta tarte txikiagoak ezarri dituztenez, kudeatzen zailagoak diren arriskuak azaldu dira. Hori dela eta, orain, kapitala eta arriskua egokitu ahal izateko moduan kudeatu behar dira banku eta kutxak.

6.1.1.- Arrisku motak

Finantza-erakundeen zenbait arrisku mota ikusiko ditugu. Garrantzitsuenak hauek dira: kreditu-arriskua, interes-tasen arriskua eta arrisku operatiboa.

a) Kreditu-arriskua:

Honela defini dezakegu: hartzaile batek bere maileguaren edo kredituaren zenbatekoa ez itzultzeko edota kontratuan jartzen duenaren arabera interesik ez ordaintzeko probabilitatea.

Kreditu-jarduera da bankuen diru-sarreraren iturri nagusia, baina, aldi berean, faktore erabakigarria izan daiteke banku-porrotean ere. Horren arrazoia honako hau da: mailegu batek sarrerak ekar ditzake emaitzen kontura, baina likidezia-arazoak ere sor daitezke, printzipala edota interesak ordaintzen ez badira.

Beraz, erakundeek kudeaketa on bat egin dezaten, oso garrantzitsua da kredituen analisisa egiteko sistema egoki bat izatea.

Sistema horretan, bezero bakoitzaren banakako ebaluazioak zorroaren ikuspegi orokorrarekin bat egin behar du, erakundeak talde ekonomiko batekiko edota ziklo ekonomikoek baldintzatutako sektore batekiko (energia-sektorea, higiezin-sektorea...) zenbateko esposizioa duen ebaluatu ahal izateko. Hau da, arriskua dibertsifikatu beharra dago, bai bezeroka, bai sektoreka.

Espainiako Bankuak honako hau adierazi du 4/2004 EBZn: erakundeek erabakiko dute zer politika, metodo eta prozedura aplikatuko duten beren zorpetze eta eragiketa gertagarrien tresnak lagatzeko, aztertze eta dokumentatzeko, eta baita estaldurarako beharrezkoak dituzten zenbatekoak kalkulatzeko ere, dela bezeroen kaudimen gabeziagatik, dela herrialde-arriskuagatik.

Erakundeek irizpide hauek aplikatu behar dituzte kasu guztietan:

- Kreditu-arriskua zehazki eta banaka, arduraz eta kontu handiz aztertzea.
- Eragiketa guztiak modu egoki batean dokumentatzea.
- Metodoek iraganeko esperientzia, gune geografikoak, arrisku-mailak eta eskuragarri dagoen informazioa kontuan hartzea.

b) Herrialde-arriskua:

Espainiako Bankuak emandako definizioa (4/1991 EBZ): “Ohiko merkataritza-arriskuarekiko desberdinak diren baldintza jakin batzuen ondorioz herrialde bateko zorretan (orokortzat hartzen direnak) eragiten duen arriskua da herrialde-arriskua”. Arrisku subiranoa eta transferentzia-arriskua hartzen ditu bere baitan:

- *Subiranotasun-arriskua*: estatuen hartzekodunek dituzten arriskuak biltzen ditu. Hala, lurralde-subiranotasunarekin zerikusia duten arrazoiak direla eta, gerta daiteke mailegu-hartzailearen kontra hartutako lege-neurriak eraginkorrak ez izatea.

- *Transferentzia-arriskua*, berriz, herrialde batean bizi diren atzerritar hartzekodunek beren gain hartzen duten arriskua da. Hala, hartzekodun horiek beren zorrei dagokien dibisaren edo dibisen falta dutela eta, gerta daiteke zor horiei aurre egiteko ezintasun orokorra nagusitzea.

9/1999³⁶ Espainiako Bankuaren Zirkularraren bitartez, nazioarteko finantza-jardueratik eratorritako gainerako arriskuak ere herrialde-arriskuaren barnean sartu dituzte.

Geroago azalduko dugunez, beste herrialde batzuetan bizi diren pertsonekin egindako kreditu-eragiketak 1etik 6ra bitarteko taldeetan sailkatzen dira, herrialde-arriskuaren arabera, eta, horretarako, herrialde horiei dagozkien adierazle hauek hartzen dira kontuan:

- 1) zer esperientzia duten ordainketetan
- 2) kanpoko finantza-egoera
- 3) egoera ekonomikoa
- 4) merkatuko adierazleak

Ordaintzeko betebeharrak duten azken obligaziodunak bizi diren herrialdeak honako talde hauetan sailkatuko ditugu:

- a) **1. taldea:** Europar Batasuna, Suitza, Islandia, AEB, Kanada, Japonia, Australia eta Zeelanda Berria.
- b) **2. taldea:** arrisku-maila baxua duten arren lehen taldean ez dauden herrialdeak.
- c) **3. taldea:** hondamen ekonomiko adierazgarria bizi duten herrialdeak, baldin eta egoera horrek herrialdeek ordaintzeko duten ahalmenean eragina izan dezakeela uste bada.
- d) **4. taldea:** hondamen makroekonomiko sakona bizi duten herrialdeak, baldin eta egoera horrek eragin nabarmena badu herrialdeek ordaintzeko duten ahalmenean.
- e) **5. taldea:** beren zorrei aurre egiteko luzaroan zailtasunak dituzten herrialdeak; izan ere, kobratzeko posibilitateak oso zalantzarazkoak dira.
- f) **6. taldea:** berreskuratzeko aukera oso urria duten eragiketak, herrialdeei egotz dakizkiekeen egoerak direla eta.

3. eta 6. taldeen artean sailkatzen diren eragiketak honela bereizten dira, aldi berean, herrialde-arriskuaren ondoriozko hondamenaren arabera:

- a) Herrialde-arriskuaren ondoriozko arrisku azpiestandarra: 3. eta 4. taldeetako herrialdeekin egindako eragiketak.
- b) Herrialde-arriskuaren ondoriozko arrisku zalantzarazkoa: 5. taldea.
- c) Herrialde-arriskuaren ondorioz huts egindako arriskua: 6. taldea.

c) Likidezia-arriskua:

Une bakoitzean gordailuak itzultzeko eta maileguen eskariari aurre egin ahal izateko adina funts izateko banku batek duen gaitasuna da likidezia.

³⁶ EBZ hori 1999ko uztailaren 1ean sartu zen indarrean, eta araua erabat aplikatzen hasi ziren urte horretako bigarren sei hilabeteetan. Herrialde-arriskuaren berrikuntza horretaz gainera, arau berriak kreditu-arriskuaren estaldura hartu zuen kontuan; esate baterako, estaldura estatistikorako funts bat eratzea kaudimenik ez dagoen kasuetarako, erakundeen modelizazio estatistikoan oinarrituta, eta, betiere, esperientzia historikoaren arabera. Ikus: "Regulación financiera: cuarto trimestre de 1999", *Espainiako Bankuaren Buletin Ekonomikoa*, 2000ko urtarrila, 63-78. or.

Ildo horretatik, likidezia-arriskuak galera posible bat adierazten du: funtsak itzultzeko edo eskaerari aurre egin ahal izateko baldintza txarretan egonik, erakunde batek aktiboak saltzeko edo pasiboak hartzeko beharra izatean datza.

Arrisku horrek gero eta garrantzia handiagoa du, batez ere eragin handia izan dezakeelako erakundeen itxura publikoan eta elkarren segidako efektuak sor ditzakeelako.

d) Merkatu-arriskuak:

Bankuek denbora-epe mugatu batean galerak izateko duten posibilitatea da, eta truke-tasen, interes-tasen edo lehengaien prezioen aurkako eta ezusteko mugimenduen ondorioz gerta daiteke (interes-arriskua da garrantzitsuena).

Merkatuaren arabera, honako arrisku hauek ager daitezke:

- *Errenta aldakorreko merkatu-arriskua:* norberaren posizioaren balioa aldatzea, akzioen prezioak aldatzen direnean.
- *Truke-arriskua:* norberaren zorraren balioa aldatzea, dibisaren balioa aldatzen denean. Inbertsioak etxeko diruarekin egiten ez direnean azaltzen da arrisku hori. Banku batek dibisa batean dituen aktiboko posizioak dibisa bereko eta muga-egun bereko pasiboko posizioekin konpentsatzen ez diren bitartean, bankuak truke-arriskua izango du. Merkatuak nazioartekotzen ari direla eta, arrisku hori gero eta garrantzitsuagoa da.
- *Interes-tasen arriskua:* norberaren posizioaren balioa aldatzea, interes-tasak aldatzen direnean. Merkatuko interes-tasen aldaketak direla eta, galerak izan daitezke, aldaketa horiek bankuaren finantza-tarteari nahiz haren ondare-balioari eragiten badiote ere (zorroan errenta finkoko tituluak baldin baditu, interes-tasen arrisku horren eragina izango du).

ITABEk (Interes Tasen Aldi Baterako Egitura) irabaziak lortzeko aukera eskaintzen die bankuei, honako baldintza hauek betetzen badira:

- Kurba gorakorra bada, bankuak mailegatu egin beharko du epe luzera, eta mailegu bat eskatu beharko du epe laburrera (praktikan, horixe gertatzen da).
- Kurba behekorra bada, bankuak mailegatu egin beharko du epe laburrera, eta mailegu bat eskatu epe luzera.

Arrisku hori sakonago aztertuko dugu hurrengo gaian, baita haren neurriak ere: GAP eta iraupena.

e) Arrisku teknologikoa:

Bankuek gero eta menpekotasun handiagoa dute teknologiarekiko, eta badago arriskua sistemaren akatsen ondorioz galera handiak izateko.

f) Arrisku operatiboa (eragiketa-arriskua):

Aginduak ematean edo transakzioak likidatzean egiten diren akatsekin lotuta dago. Hartutako posizioak kontrolatzeko prozesuaren akatsak dira, eguneroko kudeaketan eginiko akatsak. Kontratazio-, likidazio- eta konpentsazio-sistemen akatsen ondorioz edota sistema horiekin lan egiten duten pertsonen akatsen ondorioz sortzen da arriskua. Eragiketa-arriskuek honako arrisku hauek hartzen dituzte beren baitan:

- giza arriskuak
- arrisku teknologikoak
- informazio-arriskuak

- sistema-arriskuak
- erlazionatutako arriskuak
- ospe-arriskuak
- hondamendiak
- ...

g) Lege-arriskua:

Aurretik marko legalik ezarri ez delako edo kontratuaren idazketan akatsak daudelako (alderdi formaleko akatsak), gerta daiteke aldeetako batek bere konpromisoak bete ezin izatea eta, ondorioz, galerak sortzea.

h) Produktu deribatuen arriskua:

Azken urteetan, bankuaren parte-hartzea areagotu egin da produktu deribatuen merkatuan; batez ere, interes-tasei buruzko kontratu deribatuetan. Finantza-erakundeak bitartekari gisa aritzen dira beren bezeroen kontura (batez ere, kobratzen dituzten transakzio-komisioengatik lortzen dituzte sarrerak), edo baita erakundeen beren kontura ere, estaldura-, espekulazio- eta arbitraje-eragiketetan.

Deribatuen arriskua ebaluatzea erronka bat da bankuentzat. Kontratua sinatzen denean, deribatuek ez dute balio bat bere horretan; balio hori aldatu egiten da kontratuak irauten duen epean zehar, eta horregatik da konplexua deribatuak kudeatzea. Esaterako, swap-ak edota etorkizunak negoziatzeko unean, ez dago transakziorik (dirua ez da eskualdatzen); etorkizunean aktiboak elkarrekin trukatzeko konpromiso bat besterik ez dago. Denbora igaro ahala, aldiz, finantza-merkatuak aldatzen diren heinean, kontratuaren balioa aldatu egiten da. Beraz, irabazirik nahiz galerarik sortuz gero, merkatuaren menpeko prezioaren eboluzioaren arabera izango dira.

Horretaz gainera, deribatuek likidazio- edota kontraparte-arriskupean jartzen dituzte bi alderdiak (etorkizunetan, kontraparte-arriskua baino askoz ere arrisku txikiago bat hartzen du konpentsazio-ganbarak bere gain).

Azken batean, deribatuen arriskua kudeatzea oso konplexua da.

Laburbilduz,

- Kreditu-arriskua dibertsifikagarriagoa da: geografikoki, jarduera moten arabera, sektoreka, mailegatzailen kalitatearen arabera... Onartutako arriskua aurreikusi egin daiteke.
- Arrisku operatiboa aurreikusi egin daiteke: kontu-ikuskaritza, barne-kontrola...
- Interes-tasen arriskua, truke-arriskua eta deribatuen arriskua aurreikustea zailagoa izan ohi da, finantza-merkatuak gero eta konplexuagoak baitira. Gainera, gero eta zailagoa da dibertsifikatzea, finantza-merkatuak gero eta erlazionatuago baitaude elkarren artean.

6.1.2.- Arriskuari egokitutako errentagarritasun-neurriak

Lehen: arriskuaren kudeaketa kreditu-arriskuaren kudeaketara mugatzen zen, eta bezero txarrenei interes handiagoak eskaintzen zizkieten.

Gaur egun: bankuek egindako eragiketen dibertsitatea handitzearekin batera, kudeaketa-eredu berriak eskatzen dituzten arrisku mota berriak agertu dira. Gainera, bankuen emaitzak jada ez dira lehen bezala hazten, eta tarteak gutxitzen ari dira. Hori dela eta, agerian geratu da kudeaketa-sistema berrien beharra.

a) VaR-aren (RovaR) gaineko errentagarritasuna

Sistemarik erabiliena VaR-a da. Posizio zehatz batean eta epe batean, konfiantza-maila batekin, prezioen (edo i / t) aurkako aldaketak direla eta, aurre egin daitekeen galerarik handiena neurtzen du (esaterako, i / t 0,05 puntu jaisten bada, izan daitekeen gehieneko galera 23 milioikoa izango da, % 95eko konfiantza-maila izanik). VaR-etik abiatuz, beste neurri batzuk sortzen dira, hala nola:

ROVAR (Return on VaR) = epe bateko errentagarritasuna / epe horretako batez besteko VaR-a

b) Kapital ekonomikoa

Arrisku orokorrak kontuan hartzen baditugu, finantza-erakundeak KAPITAL EKONOMIKOA edota ARRISKUPEAN DAGOEN KAPITALA (ADK) ezartzen du. Gure kapitala neurtzen duen kontabilitatearekin alderatuta, *izan behar genukeen kapitala* neurtzen du kapital ekonomikoak.

Finantza-munduan —finantza-zerbitzuetan diharduten enpresa handientzat, nagusiki—, “arriskupean dagoen kapital”aren zenbatekoa da kapital ekonomikoa, eta oinarri errealista baten gainean zehazten da, finantza-enpresa horiek hala eskatuta, beren gain hartzen dituzten arriskuetatik babestu ahal izateko.

Erakundeek beren gain hartzen dituzten arriskuekin bat datorren kapital-mailari deritzogu kapital ekonomikoa (aktiboak badira edo ez badira ere). Etorkizuneko galera potentzialen zenbatekoaren kuantifikazio probabilista da. Kapital ekonomikoaren eredu on bat erabiliz gero, goi-mailako zuzendaritzek arazo potentzialak aurreikus ditzakete.

Zenbateko kapital ekonomikoa behar den kalkulatzeko, eredu estatistiko batzuk erabili ohi dira. Eredu bakoitzak arrisku mota bat edota zenbait jokabide mota adierazten dituzten zorroak hartu behar ditu bere baitan.

Eredu horiek definitzeko erabiltzen den metodologia funtsezkoa da eredu zehatza izan dadin. Oro har, metodologia-aditu baten laguntza behar izaten da.

Etorkizunean izan daitezkeen ustekabeko galerekiko babesa da kapital ekonomikoa, konfiantza-maila baten barnean adierazia:

- Kapitalaren zenbatekoa kalkulatzeko orduan, arlo hauek kontuan hartu behar dira: erakundeek zenbateko esposizioa duten arrisku horietako bakoitzaren aurrean erakundeek zenbateko kaudimena nahi luketen epe zehatz baterako eta zer probabilitate duten horretarako. Normalean, urtebeteko denbora-tartea hartzen da erreferentzia gisa, eta probabilitatea, berriz, erakundeen helburu-rating-aren arabera zehazten da (esate baterako, AA rating batek % 99,97 eskatuko luke; Basilea IIren arabera, kapital erregulatuak % 99,9 erabiltzen du, eta abar).

Gainera, kapital ekonomikoaren kalkuluaren barnean sartzen dira arriskuak pilatzearen ondoriozko zigorrak eta arriskuak dibertsifikatzearen ondoriozko sariak ere. Kontrakontuak berak hainbat eragiketa biltzen edo pilatzen dituenean, arriskuak pilatu egiten dira. Ostera, eragiketak aurkako jokabidea duten arriskueta egiten direnean, arriskuak dibertsifikatu egiten dira.

Kapitalaren helburuak erakundeek edota finantza-zerbitzuen erregulatzaileek finka ditzakete. Lehen kasuan, “kapital ekonomikoa”z hitz egin genezake, eta bigarrenean, aldiz, “kapital erregulatzailea”z.

Esan beharra dago kapitalak nahikoa izan behar duela ustekabeko galera guztiak estaltzeko, emaitzen kontuan adierazi behar baita zer galera espero dugun.

Finantza-erakundeek hainbat helburu lortzeko neurtzen dute kapital ekonomikoa:

- Une jakin batean nahiz etorkizunerako plangintza egitean izan behar luketen kapital-maila zehazteko.
- Kapitala negozio-unitate bati baino gehiagori egozteko.
- Eragiketak onartzeko edota ukatzeko bete behar diren errentagarritasun- eta arrisku-irizpideak finkatzeko.
- Akziodunentzako balioa sortzen duten goi-mailako zuzendaritzen jarduna ebaluatzeko.

Kapital ekonomikoa vs kapital erregulatzailea

Honako hauek dira kapital ekonomikoaren eta kapital erregulatzailearen arteko desberdintasun nagusiak: kapital erregulatzaileari dagokionez, erregulatzaileek mantentzeko eskatzen duten derrigorrezko kapitala da. Kapital ekonomikoa, aldiz, finantza-erakundeek eskatzen dute, eta beren arriskua kudeatzeko eta kapital erregulatzailea erakundeko unitateetan mantentzeak dakarren kostua esleitzeko kapitalaren estimazio optimoa da.

Kapital erregulatzailearen eta ekonomikoaren artean badira beste desberdintasun batzuk: batetik, kalkulu-metodo eta prozedura desberdinak erabiltzen dituzte kapital ekonomikoa kalkulatzeko, dibertsifikazioaren efektu onuragarria kuantifikatzen da, eta kapital erregulatzailean, aldiz, nahita baztertzen da, kontserbatzaileagoa izateko.

Basilea II kapital erregulatzaileari buruzko araudia progresiboki ezartzen ari dira, eta, horri esker, metodoak eta irizpideak bateratzea lortzen ari dira.

c) Kapital ekonomikoaren errentagarritasuna (RoRaC)

RoRaC ratioa da kapital ekonomikoak erabiltzen duen ratio ezagunenetako bat; alegia: Return on Risk-adjusted Capital: irabazi garbia / kapital ekonomikoa (ROEren antzekoa da, baina RoRaCek arriskuari egokitutako kapitala hartzen du kontuan).

6.1.3.- Banku-produktuen arriskua

Arriskua zera da: bankuek galtzeko duten posibilitatea. Atal honetan, produktu bakoitzaren arriskuak identifikatzen saiatuko gara, produktu gehienei eragiten dieten alderdi generikoak alde batera utziz.

ERAGIKETEN AZTERKETA

Honako fase hauek osatzen dute:

1. Bezeroen beharrak identifikatzea.
2. Bezeroek ordaintzeko duten ahalmena aztertzea:

Iturriak:

- a) Eskatzailea: akzioduna, produktua/prozesua, zer posizio duen merkatuan, hornitzaileen menpekotasuna, bezeroen eta finantza-erakundeen kontzentrazioa, kudeaketa-ahalmena, egoera ekonomiko-finantzarioa, kontabilitate-informazioaren kalitatea, egoera fiskala, zer aurreikuspen duen epe laburrera/ertainera.
 - b) Barnekoak: datu-base propioak, CIR, sektoreen arteko alderaketa, ingurune ekonomikoa, banku-txostenak, hornitzaileen eta bezeroen txostenak.
 - c) Kanpokoak: merkataritza-txostena, merkataritza-erregistroa, prentsa eta aldizkari espezializatuak, Ez Ordaintze Berankorren Erregistroa (Kredituko Finantza Erakundeen Elkarte Nazionala edo ASNEF, EAKK, eta abar)
3. Produktua bere finantza-beharrera egokitzea (kreditua, mailegua...).
 4. Eragiketen beste arrisku batzuk identifikatzea: herrialde-arriskua, merkatu-arriskua (interes-tasa, truke-tasa, likidezia), eragiketa-arriskua.
 5. Bermeak (pertsonalak, errealak) edota eragiketetan beharrezkoak edota komenigarriak diren estaldurak identifikatzea.

ERAGIKETEN ANTOLAKETA

Mailegatzaileak eta, hala dagokion kasuan, bermatzaileak bere bete-beharrak modurik eraginkorrenean (antolaketa egokia) bete eta eragiketak aztertzeko beharrezkoak izan diren berme eta estaldurak bildu behar ditu nahitaez.

ERAGIKETEN JARRAIPEN EGOKIA

Eragiketa baten arriskua bertan behera gelditzeko, eragiketa hori baliogabetu egin behar da.

Bezeroen eta eragiketen berme eta estalduren bilakaera aztertu behar da.

TAULA: FINANTZA-PRODUKTUEN ARRISKUAK

	Kreditua eta mailegua	Leasing-a	Renting-a	Factoring-a	Confirming-a	Abalak
Kreditu-arriskua	Oso esanguratsua	Gerta daiteke kuotak ez ordaintzea	Gerta daiteke kuotak ez ordaintzea	Gerta daiteke zordunak kaudimenik ez izatea ordainketari aurre egiteko	Gerta daiteke, hornitzaileari ordainketa aurreratuz gero, bezeroak ez ordaintzea	Gerta daiteke bankuak abala egikaritu behar izatea, abalatuak betetzen ez duelako
Herrialde-arriskua	Titularraren arabera (adibidez, beste herrialde batzuetako banku zentralak izanda)	Ez oso esanguratsua	Ez oso esanguratsua	Ez oso esanguratsua	Ez oso esanguratsua	Ez oso esanguratsua
Interes-arriskua	i / t aldakorra izanez gero	Bai; bereziki, eragiketaren epeagatik (luzea)	Ez oso esanguratsua	Ez oso esanguratsua	Ez oso esanguratsua	Ez oso esanguratsua
Truke-arriskua	Dibisetan egonez gero	Ez oso esanguratsua	Ez oso esanguratsua	Ez oso esanguratsua	Ez oso esanguratsua	Abala dibisetan emanez gero
Prezio-arriskua	Berme gisa tituluak eskainiz gero	Ez-esanguratsua	Ez-esanguratsua	Ez-esanguratsua	Ez-esanguratsua	Ez-esanguratsua
Arrisku operatiboa	Kreditua gaudituz gero, komisioak kobratzean akatsik izanez gero...	Kontratua gaizki idatzita egonez gero	Produktu berria denez, prozesuak kudeatzeko arrisku gehiago dago	Dokumentuak aurkeztean akatsik egonez gero, informazioa bidaltzean akatsik izanez gero, eta abar	Dokumentuak aurkeztean akatsik egonez gero, informazioa bidaltzean akatsik izanez gero, eta abar	Abalen baldintzak interpretatzeko zailtasunak; bereziki, abal teknikoetan

6.2.- KAPITALAREN ARRISKU ETA BEHARRAK: kaudimen-koefizientea

Kontuan hartu beharreko legeak:

❖ 3/2008 EBZ, maiatzaren 22koa, kreditu-erakundeentzat emana, Baliabide Propio Minimoak Zehazteari eta Kontrolatzeari buruzkoa (ekainaren 10eko BOE) (akats eta errakuntzen zuzenketa uztailaren 26an).


❖ 216/2008 Errege Dekretua, otsailaren 15koa, Finantza Erakundeen Baliabide Propioei buruzkoa.

Arautegi horrek Basilea II akordioan kreditu-arriskuari buruz ageri diren arauak garatzen ditu, beste batzuen artean (truke-arriskua, kontraparte-arriskua, arrisku operatiboa, baliabide propioen neurketari buruzko arauak, kontabilitateari buruzko informazioa, eta abar. Oso zabala da):

Hala, baliabide propioen eskakizunak erakundearen arrisku guztien % 8 izango dira, arriskuaren arabera haztatuak eta aipatutako araudiak ezarritakoaren arabera kalkulatuak.

Erregulatzailerik eta ikuskatzaileek finantza-egonkortasuna bultzatzeko duten konpromisoa biltzen du Basileako akordio berriak. Basilea I akordioaren muga nagusia zen arriskuaren aldaketekiko sentiberatasunik eza eta funtsezko dimentsio bat aintzakotzat ez hartzea: kreditu-kalitatea eta, ondorioz, mailegatzailerik hitza ez betetzeko probabilitate zabala. Hau da, ez betetzeko probabilitate bera zuten kreditu guztiek. Egoera hori gainditzeko, 2004an, Basileako Batzordeak beste gomendio multzo bat proposatu zuen.

ESTRUCTURA BASICA BASILEA II



Basilea II akordioa honako hiru oinarri hauetan funtsatzen da:

I. oinarria: kapitalaren gutxieneko eskakizunak kalkulatzeko

Akordioaren muina eratzen du, eta, aurrekoarekin alderatuta, honako berritasun hauek dakartza: mailegatzailen kreditu-kalitatea kontuan hartzen du (kanpoko eta barneko rating-ak erabiliz) eta, arrisku operatiboa dela eta, kapital-baldintzak gehitzen ditu.

Basilea II arauak honako hau exijitzen dute:

Funts propioak > aktibo arriskudunen % 8; kontuan hartuz: (kreditu-arriskua + negoziazio-arriskua + truke-tasaren arriskua + arrisku operatiboa)

Kreditu-arriskua oinarrizko hiru osagaien bidez kalkulatu da:

- PD edota kreditua ez betetzeko probabilitatea
- LGD edota kreditua betetzen ez den unean dagoen galera (“zorrotasun” izenez ere ezagutzen da)
- EAD edota kreditua betetzen ez den unean dagoen esposizioa

Banku guztiek sofistikazio-maila bera ez dutenez, kreditu-arriskuak kalkulatzeko metodo bat baino gehiago proposatzen du akordioak.

Arriskuaren arabera haztatutako esposizioak kalkulatzeko, kreditu-erakundeek metodo estandarra edota, Espainiako Bankuak hala baimentzen badu, barne-kalifikazioetan oinarritutako metodoa erabiltzen dute. 3/2008 zirkularrean, metodo estandarra nola kalkulatu zehazten da, eta barne-kalifikazioetan oinarritutako metodoa (IRB), aldiz, laugarren kapituluko (“Kreditu-arriskuaren ondoriozko baliabide propioen eskakizuna”) lehenengo eta bigarren ataletan.

Espero den galera (Expected Loss) honako hau izango da: $EL = PD \times LGD \times EAD$. Kreditua betetzen ez denerako hornidura-maila zehazten du galera horrek. Bankuak, bestalde, ustekabeko galerak ere kuantifikatu behar ditu (Unexpected Loss edo UL). Basilearen abiapuntua honako hau da: bankuaren kapitalak nahikoa izan behar du kreditu-arriskuaren ondorioz sortutako galerei aurre egiteko, konfiantza-maila jakin bat izanda.

Legeak dioenez, kreditu-arriskuak eskatzen dituen baliabide propioak, erakundearen arriskuaren arabera haztatutako esposizioen gutzitzaoren % 8 (minimoa) izan behar du.

Nola kalkulatu da arriskuaren arabera haztatutako esposizioa? Espainiako Bankuak hau adierazi du:

arriskuaren arabera haztatutako esposizioa = arriskuaren arabera haztatzea * esposizioaren balioa

arriskuarekiko esposizioa kalkulatzeko bi metodo ditugu:

a) *Metodo estandarra*

Metodo estandarrean, kreditu-arriskuaren arabeko kalifikazioen bidez kalkulatu da arriskuaren arabeko haztatzea, inplizituki, eta, horretarako, zenbait baremo erabiltzen dira. Kalifikazio horiek enpresa espezializatuek (rating-agentziak) argitaratzen dituzte. Aktiboen kategoriaren arabera, ehuneko bat edo beste bat aplikatzen da. Hain zuzen, 3/2008 zirkularrak kategoria horiek garatzen ditu; administrazio nagusitik eta banku zentraletatik hasi, eta bermatutako bonuen edo inbertsio kolektiboko erakundeen arrisku handiko esposizioetara.

Esposizioaren balioari dagokionez, Espainiako Bankuak dio aktiboek eta ordena-kontuek liburuetan duten balioaren arabera zenbatu edo neurtu behar direla, 4/2004 EBZn azaltzen denaren arabera.

Baliabide propio higiegiak irizpide honen arabera finkatzen dira:

$$RPM = 0,08 \cdot RW \cdot EAD$$

EADk (Exposure At Default) esposizioaren balioa adierazten du, eta RWk (Risk Weighted), berriz, esleitzen den arrisku haztatua (batekotan).

b) Arriskuak barnetik neurtzeko metodoa (IRB), oinarritzko modalitatean eta modalitate aurreratuan

Banku-erakundeek beren kreditu-arriskua neurtzeko eredu propioak garatu dituzte. Eredu horiei esker, erakunde bakoitzak duen kreditu-arriskua neurtu, eta galera potentzialen probabilitatearen banaketa eskuratu daiteke. Bestalde, baliagarriak dira kaudimen gabeziaren ondorioz sortutako galeretatik babesteko eta, horren harira, kapital-egitura egoki bat zehazteko.

Baliabide propio minimoak, arrisku-kategoria bakoitzaren barnean, honako adierazpen honen arabera kalkulatu dira:

$$RPM = 0,08 \cdot RW_i \cdot EAD$$

RW_i -k arriskuaren arabera haztatzea adierazten du, eta, IRB ikuspegiaren barnean, kategoria bakoitzaren arabera modu batera edo bestera kalkulatu da. Espainiako Bankuak kategoria hauek bereizten ditu:

- a) administrazio nagusiak eta banku zentralak
- b) erakundeak
- c) enpresak
- d) txikizkariak
- e) errenta aldakorra
- f) titulazio-posizioa edo -esposizioa
- g) finantza-aktiboak ez diren beste aktibo batzuk

EAD edo arriskuarekiko esposizioa arriskuaren kontabilitate-balioaren arabera kalkulatu da.

Kreditu-arriskuaren barnean, **titulazioei** tratamendu berezi bat ematen zaie. Kasu horietan, arretaz aztertu behar da, batetik, ea badagoen arriskuaren transferentzia eraginkor eta esanguratsu bat, eta, bestetik, ea entitateek sortutako eragiketak diren edo beste batzuek sortuak diren.

Merkatu-arriskua (truke-arriskua eta negoziazio-arriskua) Basilea I akordioaren arabera kalkulatu da oraindik ere.

Arrisku operatiboa, berriz, diru-sarrerak ehuneko batez (% 12tik % 18ra bitartekoa) biderkatuz lortzen da. Banku-erakundeen sofistikazio-mailaren arabera, hiru metodo daude arrisku hori kalkulatzeko.

Arriskuaren kalkulu horretan badago eragozpen bat: ez dira kontuan hartzen arriskuak pilatzearen edo dibertsifikatzearen ondorioak, larriak izan edo aringarriak izan (korrelazio probabilitatekoaren egitura zenbait esposizioen aurrean).

II. oinarria: funts propioen kudeaketa ikuskatzeko prozesua

Erakunde ikuskatzaile nazionalak badute ahalmena beren agindupeko bankuei exijitzeko zuhurtzia-maila **areagotzeko**. Horretaz gainera, batetik, lehenengo oinarriko parametroak kalkulatzeko erabiltzen diren metodo estatistikoak eta, bestetik, krisi ekonomiko bati aurre egiteko funts propioen mailak nahikoak diren edo ez **baliozkotu** egin behar dute, eta, emaitzen arabera, bankuak maila horiek igotzera behartu ditzake.

Gainera, bankuko goi-zuzendaritzaren arriskuak kontrolatzeko eta etorkizuneko kapital-beharren plangintzan parte hartzeko eskatzen zaie. Kapital-beharren autoebaluazioa elkarrekin eztabaidatu behar dute goi-zuzendaritzak eta banku-ikuskatzaileak. Bankua bere autoebaluazio-metodologia aukeratzeko aske denez, kalkulu erregulatuazailan ikusi ezin daitezkeen beste arrisku batzuk ere kontuan har daitezke, hala nola pilatze- edota dibertsifikatze-maila, likidezia-arriskua, ospe-arriskua, pentsio-arriskua eta abar.

Finantza-talde multinazionalentzako ikuskatzaile-elkargoak sortu dira: erakunde matrizearen ikuskatzailearen koordinaziopean, finantza-taldearen ikuskatzaileak nazioartean koordinatzeaz arduratzen dira.

III. oinarria: merkatuaren diziplina

Akordioak gardentasun-arauak finkatu ditu, eta erakundeek askotariko arriskuen aurrean duten esposizioari eta beren funts propioen nahikotasunari buruzko informazioa argitaratzen du aldizka. Helburuak honako hauek dira:

- 1) Banku-ohitura onak orokortzea eta nazioartean homogeneousatzea.
- 2) Erakundeek pilatutako informazioan oinarrituz, finantza-ikuspuntua, kontabilitate-ikuspuntua eta arrisku-kudeaketaren ikuspuntua elkarrekin uztartzea.
- 3) Bankuek arriskuari buruz argitaratzen dituzten txostenak gardenak izatea finantza-ikuspegitik, homogeneousazioaren bidez.

Hasiera batean behintzat, informazio horrek honako arlo hauek aintzatetsi behar ditu:

- Arrisku-kudeaketaren deskripzioa: helburuak, politikak, egitura, antolakuntza, helmena, estaldura-politikak eta arriskuak arintzeko modua.
- Kapitala kalkulatzeko alderdi teknikoak: finantza-sendotzearen eta araudiak sendotzearen arteko desberdintasunak.
- Kapital-kudeaketaren deskripzioa.
- Kapital erregulatuazailaren elementu erabilgarrien osaera zehatza.
- Arrisku mota bakoitzaren kapital-eskakizunak, kalkulatzeko erabilitako metodoa bultzatuz.

Hasiera batean, baldintza nagusia da gutxienez urtean behin argitaratzea, nahiz eta, aurreikuspenen arabera, maiztasun handiagoz ere argitaratu daitezkeen (laburbilduta, behintzat). Hala, gutxieneko eduki bat izan behar du, eta eduki horri merkatuak une bakoitzean eskatzen duen informazioa gehitu behar zaio.

❖ BASILEA III

2010ean, Basileako Batzordeak erreforma batzuk diseinatu zituen nazioarteko kapital- eta likidezia-arauak berrindartzeko. Batzordeak banku-sektore sendago bat sustatu nahi du. Erreforma horien helburua hau da: banku-sektoreak edozein finantza- edo ekonomia-larrialditatik datozen arazoei aurre egiteko duen gaitasuna hobetzea eta, ondorioz, finantza-sektoreak ekonomia errealak kutsatzeko duen arriskua murriztea. Bestalde, baldintza berriak pixkanaka-pixkanaka ezarriko dituzte egutegi luze batean. Epealdi horrek 2013ko urtarrilaren 1etik 2019ko urtarrilaren 1era iraungo du. Epemuga hori iristerako, marko erregulatuazail berria erabat finkatuta egongo da. Bi motatako erreformak aurreikusi dituzte:

A. Kapital globalaren markoa indartzea

Banku-sektorearen erresistentzia sendotzeko, Basileako Batzordeak kapital erregulatzaileraren markoa indartu egin du, Basilea IIren hiru oinarrietatik abiatuz. Erreforma horiei esker, **kapital erregulatzaileraren oinarriaren kantitatea eta kalitatea handitu** egin da, eta kapital-markoaren arrisku-estaldura hobetu. Bestalde, **palanka-koefiziente minimo** bat eskatzen dute, arriskuan oinarritutako kapital-neurriak indartzeko. Hain zuzen, banku-sisteman sor daitekeen gehiegizko palanka-efektua aurreikusteko diseinatu dute koefiziente hori. Azkenik, Batzordeak makrozentzuzko hainbat elementu sartu ditu kapital-markoan, finantza-erakundeen arteko konexiotik eta egoera proziklikoetatik eratorritako arrisku sistemikoei eusteko.

Kaudimen-baldintzei dagokienez, kapital-eskakizunak handitu egin dira; askoz gehiago kalitatean, kantitatean baino. Lehenengo eta behin, kaudimen-koefiziente tradizionala arriskuen arabera haztatutako aktiboen % 8koa da oraindik ere, baina haren osaera aldatu egin da, eta baliabide propio minimoek kalitate handiagoa izatea eskatzen dute, honako taula honetan ikus daitekeen moduan:

Kapital-markoaren neurriak			
Kapital-eskakizunak eta babeserako koltxoiak (%)			
	Kapital arrunta/oinarrizkoa (1) (kenkariak aplikatu ondoren)	1. mailako kapitala	Kapitala, guztira
Gutxienekoa	4,5	6	8
Babeserako koltxoa	2,5		
Gutxienekoa gehi babeserako koltxoa	7	8,5	10,5
Koltxoi antiziklikoaren balio-tartea	0-2,5		
(1) Galerak gutxitzeko kalitate gehienekoa da (gaur egun, ofizialki Common Equity deritzo; lehen, Core Capital).			

Iturria: Basileako bankuen batzorde ikuskatzailea

Kapitala babesteko koltxoiaren helburua hau da: ekonomia- eta finantza-larrialdiko egoeretan bankuek kapitalaren kontu-sail espezifiko bat izatea galerak gutxitzeko. Koltxoi hori betetzen ez bada, bankuek murrizketak izango dituzte mozkinen banaketan edo zuzendarien bonus/ordainketa aldakorrean.

Koltxoi antiziklikoaren helburua da banku-sistemari babesa ematea gehiegizko hazkunde-epeetan eta maila sistemikoan arrisku asko ez metatzeko.

Kapital-eskakizun horietaz gainera, palanka-efektuaren koefizientea ezarri dute, arriskuarekiko independentea dena. Koefiziente horrek aurreko arriskuan oinarritutako neurriak osatuko ditu 2018ko urtarriletik aurrera (proba moduan, adostasunez ezarri dute palanka-efektuaren gutxieneko koefizientea 1. mailako kapitalaren % 3 izatea).

$$\text{Palanka - koefizientea} = \frac{1. \text{ mailako kapitala}}{\text{Arriskuen arabera haztatu gabeko aktiboa} + \text{Balantzetik kanpoko esposizioak} + \text{Eratorkiak}} \leq \% 3$$

B. Nazioarteko likidezia-estandar bat sartzea

Orain arte, arlo horretan, nazioartean ez da estandar harmonizaturik izan. Hori dela eta, Basileako Batzordeak likidezia-estandar global batzuk sartu ditu, nazioartean harmonizatuak.

2008an, Batzordeak honako araudi hau argitaratu zuen: Likidezia Arriskua Egoki Kudeatzeko eta Ikuskatzeko Printzipioak. Araudi horretan, Batzordeak likidezia-arriskua kudeatzeko eta ikuskatzeko jarraibideak eman zituen, arlo kritiko horretan arriskuen kudeaketa hobe bat sustatzea helburu. Batzordeak baldintza gisa ezarri zuen bankuek eta ikuskatzaileek gomendio horiek erabat aintzat hartzea. Jarraibide horien osagarriak honako koefiziente hauek dira:

1. Likidezia-estaldurarako koefizientea (LCR)

LCR indizea honako helburu hau aintzat hartuta diseinatu dute: 30 eguneko epealdian sor daitezkeen likidezia-aldaketei aurre egiteko erresistentzia sustatzea. Neurri horrek banku globalak laguntzen ditu, aktibo erabilgarri eta likido nahikoak eta kalitate handikoak izan ditzaten epe laburrera suerta daitezkeen larrialdi handietan diru-irteera garbiak konpentsatzeko.

$$LCR = \frac{\text{Kalitate handiko aktibo likidoak}}{30\text{eguneko epealdian izandako diru - irteera garbiak}} \geq \% 100$$

2. Finantzazio iraunkor garbiaren koefizientea (NSFR)

NSFR indizeak bankuak behartzen ditu gutxieneko finantzazio-iturriak urtebeteko epealdirako mantentzera, aktiboen likidezia-profilaren eta balantzetik kanpoko konpromisoei aurre egiteko likidezia-beharren arabera.

Koefiziente horren helburua da merkatuetan epe laburrerako handizkako finantzaziora gehiegi ez jotzea likidezia handiko denboraldietan, eta likidezia-arriskuaren ebaluazio zuzenago bat sustatzea balantzetik kanpoko zein barneko kontu-sail guztietarako.

$$NSFR = \frac{\text{Finantzaketa iraunkor erabilgarriak (iturriak)}}{\text{Beharrezko finantzaketa iraunkorra (erabilerak)}} > \% 100$$

❖ **2/2011 Errege Dekretua, otsailaren 15koa, Finantza Sistema Sendotzeari buruzkoa.** Dekretu horren bidez, Espainiako Gobernuak kreditu-erakunde guztien kaudimen-maila sendotu nahi du. Horretarako, Espainiako Gobernuak kalitate handieneko kapitalaren eskakizuna jaso du, Espainiako bankuen kaudimenari buruzko edozein zalantza desagerrarazteko asmoz. Basilea IIIk ezarritako arauak modu aurreratuago eta zorrotzago batean aplikatzea dakar. Hala, arriskuen arabera haztatutako aktiboei dagokienez, kapital printzipalaren minimo bat berehala ezartzea eskatzen du, Basilea IIIk 2013rako betetzea eskatzen duen araudiari jarraituz. Kapital printzipalaren ratio minimoa hau izango da:

- Oro har, % 8.
- % 10, kapitalaren titulu adierazgarriak beste hirugarren baten artean gutxienez % 20an ezarri ez duten eta, gainera, % 20tik gorako handizkako finantzazio-ratioa duten erakundeentzat.

Hori dela eta, erakundeek, sendotasun handia bermatzeko, kalitate goreneko kapital nahikoa izan behar dute. Oinarrizko kapitala erakartzeko arintasun gutxiago duten erakundeentzat, eskakizun hori zorrotzagoa izango da, hala behar izanez gero.

Errege-dekretu horrek, Basilea IIIk 2013rako eskatutakoarekin batera, **kapital printzipala** osatzen duten elementuak definitzen ditu:

Kapitala

+ erreserbak

+ jaulkipen-sariak

+ balioztatze-egokitze positiboak

+ gutxiengoan interesak

+ FROB funtsak harpidetutako tresnak

+ galerak gutxitzeko ahalmen handia bermatzeko zenbait baldintza betetzen dituzten eta 2014 baino lehen akzio bihurtu behar diren tresnak (behin-behinean)

- emaitza negatiboak eta galerak
- balioztatze-egokitze negatiboak
- aktibo immaterialak

Europako bankuen autoritateak Europako banku handien kalitate goreneko kapital-eskakizunak handitu egin ditu, hain zuzen ere, % 9raino 2012ko ekainerako.

6.3.- BANKU-ARRISKUA NEURTZEKO EREDUAK

6.3.1.- Kreditu-arriskua neurtzea

4/2004 EBZren arabera, erakundeek kreditu-arriskuaren arabera sailkatu behar dituzte eragiketak, eta, alde batetik, kaudimen gabeziaren arriskua, bezeroei egozten zaiena, eta, bestetik, herrialde-arriskua analizatu behar dute. Eragiketa bakoitza dagokion kategorian sailkatu behar da, bezeroei egozten zaizkien arriskuen arabera, herrialde-arriskua dela-eta beste kategoria okerrago bat ez badagokie, behintzat.

Bezeroen kaudimen gabeziaren arriskua:

Zor eta arrisku gertagarrien tresnak, bezeroen kaudimen gabeziaren arriskuaren arabera, honako kategoria hauetan sailkatzen dira:

- a) Arrisku arrunta: beste kategorietan sailkatzeko bete beharreko baldintzak betetzen ez dituzten zor eta arrisku gertagarrien tresnak biltzen ditu. Aldi berean, multzo txikiagotan banatzen da:
 - a.1) Arrisku hautemangarririk gabe: EBko herrialdeetako administrazio publikoekin egiten diren eragiketak.
 - a.2) Arrisku baxua.
 - a.3) Arrisku ertain-baxua.

- a.4) Arrisku ertaina.
- a.5) Arrisku ertain-altua.
- a.6) Arrisku altua.
- b) Arrisku azpiestandarra: zenbaitetan, erakundeek segimendu berezia egin behar dute arrisku-estaldura batzuen gainean. Halako galerak baino galera handiagoak onartu behar izateak ahultasunak dakartza, eta ahultasun horiek azaltzen dituzten eragiketak arrisku azpiestandartzat hartzen dira. Kategoria horretan sartzen dira, besteak beste, zailtasunak dituzten kolektiboetan parte hartzen duten bezeroekin egiten diren eragiketak.
- c) Bezero berankorren zalantzazko arriskua: hiru hilabetetik gorako antzintasuna duten eta zenbatekoren bat (printzipala, interesak edo komisioak) muga-eguneratua duten kredituen batura biltzen du. Bezeroen eragiketa guztien zenbatekoak ere biltzen ditu, baldin eta ordaintzeke dauden zenbatekoen % 25etik gorakoak badira berankortasuna dela-eta zalantzazkotzat jotzen diren saldoak.
- d) Bezeroen berankortasuna ez beste arrazoren baten ondoriozko zalantzazko arriskua: zalantzazko kobrantzen eragiketak biltzen ditu, baina bezeroen berankortasunarekin zerikusirik izan gabe.
- e) Arrisku kobraezina: berreskuratzeko probabilitate oso txikia duten eragiketen zenbatekoak. Horrenbestez, aktibotik kanpo gelditzen dira. Esaterako, honako eragiketa hauek aipa daitezke: hartzekodunen konkurtsoan dauden eragiketak, kaudimen-hondamen nabarmena eta berreskurazina izan duten eragiketak, eta berankortasun-arrazoia direla-eta lau urtez zalantzazko saldoak izan dituzten bezeroekin egindako eragiketak.

Praktikan, finantza-erakundeek gehienbat honako hiru eredu hauek erabiltzen dituzte bezeroak aztertzeko:

1. Credit Scoring-a
2. Erlazio-eredua
3. Eredu ekonomiko-finantzarioa

Oro har, bezeroen kaudimen gabeziaren arriskua kudeatzeko, ingelesezko "**5 C-en EREDUA**" aplikatu daitezke:

- **Izakera (Character)**: hartzaileen zintzotasuna, pertsona juridikoa izan (zuzendaritza-taldearen zintzotasuna) nahiz pertsona fisikoa izan. Kuantitatiboki ebaluatzen zailena den aldagaia da.
- **Gaitasuna (Capacity)**: funtsak sortzeko gaitasunari egiten dio erreferentzia. Pertsona fisikoa bada, PFGZ, nomina eta abar begiratzen da. Pertsona juridikoa bada, finantza-egoera historikoak eta aurrekontuak begiratzen dira.
- **Kapitala (Capital)**: hartzaileen ondarea.
- **Bermea (Collateral)**.
- **Baldintzak (Conditions)**: hartzaileen ingurunea.

Credit Scoring-a

Hartzaile bati kreditu bat eman behar zaion edo ez adierazteko, Credit Scoring-ak hartzailearen balioztatze automatiko bat egiten du puntuazio-metodo baten bidez.

Zenbateko txikiak dituzten eta epe laburrean amortizagarriak diren kreditu pertsonalak ebaluatzeko balio du.

Adibidea:

Credit Scoring bateko aldagai eta pisuen adibide bat	
Lanbidea	0,097
Egoera zibila	0,048
Lan-maila	0,157
Maileguaren aplikazioa	0,187
Erakundearen bezero diren familiartekoak	0,083
Adina	0,154
Laneko antzintasuna	0,197
Eskatutako maileguaren zenbatekoa	0,035
Erakundearen duen batez besteko saldoa	0,232

Lanbidekako scoring baten adibidea	
Merkatariak eta lanbide liberalak	20
Militarrak eta langile kualifikatuak	40
Etxekoandreak	30
Langileak	20
Bajan dauden langileak eta kualifikazio-maila ertainekoak	20
Erdi-mailako eta goi-mailako teknikariak	30

6.2 taula. Credit Scoring bateko aldagaien eta pisuen adibide bat

Aldagaiak	Aldagai haztatua	Bezeroen balioa	Bezeroaren emaitza haztatua
1.- Adina	1,4	37	0,52
2. - Ezkondua (bai = 1; ez = 2)	20,0	1	0,20
3.- Lanbidea (mailaren arabera)	28,0	5	1,40
4.- Laneko antzintasuna	3,5	14	0,49
5.- Urteko irabazia (milako eurotan)	26,3	35	9,21
6.- Egoitza (eremuka)	4,6	4	0,18
7.- Jabearen urteko kopurua	1,2	4	0,05
8.- Bezero zaharra (bai = 1; ez = 0)	15,0	1	0,15
	100,0		
	Credit Scoring-a		12,20
Credit Scoring-a:	Ekintza	Sailkapena	
6 puntutik behera	Ezeztatu	Berankorra	
6,1 eta 8 puntu bitartean	Gainerako informazioa eskatu	Zalantzazkoa	
8,1 puntutik gora	Eman	Kaudimenduna	

Iturria: egileek prestatua (2009)

Abantailak:

- Sistema objektiboa da, bezeroen datuetan oinarritzen baita.
- Azkarra da, eta dedikazio gutxi eskatzen du langileen aldetik (kostu txikiagoak).

Credit Scoring bat ezartzeko faseak:

- Dokumentazioa aztertzea: finantza-erakundeetan zer datu dagoen ikustea.
- Oinarritzko aldagaiak definitzea: ereduaren mailegutan aplikatuko den zehaztu behar da, kantitateari, epeari eta amortizazioari dagokienez.
- Lagina hartzea eta datuak jasotzea: mailegatzailen datu ekonomikoak hartu behar dira hautatutako mailegetatik: lanbidea, egoera zibila, soldata...
- Kalkulu-prozesua: aldagaiak taldekatu, eta puntuazio bat eta haztatze bat esleitu (aurreko tauletan ikusi dugun bezala).
- Kreditua onartzeko puntuazioa finkatzea: puntu kopuru minimo bat zehaztu, eta, maila horretatik aurrera, proposatutako mailegua onartu beharko du sistemak.
- Eredua egiaztatzeko testa: kontrol-prozesuaren antzekoa.

Altmanen Testa da pertsona juridikoentzako Credit Scoring-aren kasu partikular bat, Estatu Batuetan oso erabilia:

$$Z = 0,012 MF / A + 0,014 AM / A + 0,033 ZAM / A + 0,6 FP / Zo + S / A$$

Azalpena:

MF / A: maniobra-funtsa / aktiboa

AM / A: atxikitako mozkina / aktiboa; autofinantzazio ratioa

ZAM / A: zerga aurreko mozkina / aktiboa

FP / Zo: funts propioak / zorra

S / A: salmentak / aktiboa

Erantzuna hau da:

$Z < 1,8$: enpresa-porrota

$1,8 < Z < 2,67$: enpresak finantza-arazoak ditu

Bi kasu horietan, bezeroak ez du krediturik jasoko.

$3 > Z > 2,67$: arazorik gabeko enpresa

$Z > 3$: egoera ezin hobean dagoen enpresa

Kasu horietan, bai, bezeroak kreditua jasoko du.

Erlazio-eredua

Bezeroek erakundearekin iraganean izan dituzten eta orainaldian dituzten erlazioetatik abiatuta, informazioa aztertzen da. Beraz, orainaldian erakundeko bezero direnekin erabiltzen da; ez du bezero berrientzat balio.

Ratioak eta BEG (Bezeroaren Errentagarritasun Globala) erabiltzen dira.

Ikus ditzagun, lehenik, zein diren gehien erabiltzen diren ratioak:

a) $(\text{epealdiko mugimendu hartzekodunak} / \text{aurreko epealdiko mugimendu hartzekodunak}) \times 100$

Ratioaren balio txikiak zera esan nahi dute: erlazioa iraungia dela edo kontua ez dela erabiltzen. Balio altuek, berriz, bankuek bezeroekin duten erlazioa egonkorra dela edo haziz doala (% 100etik gorako balioa) adierazten dute.

b) $(\text{ez-ordaintzeak, guztira} / \text{efektu deskontatuak, guztira}) \times 100$

Ratio hori 0tik zenbat eta gertuago egon, orduan eta hobeto.

c) $(\text{zenbaki zordunak} / \text{aurreko epealdiko zenbaki zordunak}) \times 100$

Balio baxuek esan nahi dute bezeroaren likidezia hobetu egingo dela, eta % 100etik gertuko balioek, aldiz, aurreko urteko arazo bera duela oraindik ere.

d) $(\text{erakundearekiko zorrak} / \text{ondare garbia}) \times 100$

Balio hori % 100 baino handiagoa bada, finantza-erakundeak erne egon behar du.

Bezeroei kobratutako komisioez eta interesez gainera, beste zenbait gauza ere aztertzen dituen neurri bat da BEG. Honako hauek ere aztertzen ditu: bezeroek kreditu-txartelak, aseguruak, dirua aldatzeko zerbitzuak eta halakoak erabiltzen ote dituzten.

Eredu ekonomiko-finantzarioa

Eredurik konplexuena da, eta zenbateko handiko kredituei aplikatzen zaie; enpresei ematen zaizkien kredituei, alegia. Enpresaren finantza-egoeraren eta enpresak funtsak sortzeko duen gaitasunaren azterketa sakona egiten du eredu horrek, eta, ondoren, txostenak kontu-ikuskaritzako zerbitzu batekin egiaztatzen dira.

Bankuek ratio hauek aztertzen dituzte nagusiki:

a) Finantza-menpekotasuna:

$(\text{epe laburrerako eta epe luzerako zorrak} / \text{baliabide propioak}) \times 100$

Zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta hobeto bankuarentzat.

b) Bermea:

$(\text{ibilgetu materiala} / \text{zorrak}) \times 100$

Ratio horri esker, ibilgetuen bidez zenbateko zorra bermatzen den ikus daiteke. Zenbat eta altuagoa izan, orduan eta hobeto.

c) Likidezia:

$(\text{aktibo korrontea} / \text{pasibo korrontea}) \times 100$

Aktibo korronteez babesten dituzten pasibo zirkulatuzaileen ehunekoa neurtzen du. Zenbat eta handiagoa izan, orduan eta hobeto.

d) Amortizazio-maila:

$(\text{amortizazio metatua} / (\text{ibilgetu materiala, lurra})) \times 100$

Balio altu batek esan nahi du enpresak ez duela bere ekipoa berrituko; amortizazio azeleratu bat egiten ez badu, behintzat.

e) Baliabide propioen errentagarritasuna:

$(\text{mozkina} / \text{BP}) \times 100$

% 10etik beherako balioak baxuak dira.

f) Salmentekiko errentagarritasuna:

$(\text{mozkina} / \text{salmentak}) \times 100$

Ratio horren balioa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta hobeto.

g) Stocken errotazioa:

$(\text{erosketak} + \text{izakinak aldatzea}) / \text{batez besteko izakinak}$

Izakinak urtean zenbat aldiz berritzen diren adierazten du. Oro har, zenbat eta handiagoa izan, orduan eta hobeto kudeatuko dituzte izakinak.

Askoz ere ratio gehiago ere badago, baina arestiko horiek dira garrantzitsuenak. Ratioez gainera, beste hirugarren baten aldetik bermerik (abalak) eta berme errealik (ondasun higigarriak eta higiezinak) ba ote dagoen ere begiratu behar du arriskuen kudeatzaileak.

Informazio-iturriak³⁷

Erabiltzen den informazioaren kalitatearen arabera izango da arrisku-kudeaketaren efizientzia. Informazio hori, García eta Marín egileen arabera (1992), zuzeneko edo zeharkako izan daiteke, taula honetan adierazten den moduan:

³⁷ Ikus Blázquez, J.A. eta Bruno, N.: “El credit scoring y el riesgo de credito” (2001): *Alta Dirección*, 217. zk., 51-60. or.
Finantza-erakundearen kudeaketa

ZUZENEKO INFORMAZIO-ITURRIAK	<i>Bezeroari informazioa eskatzea</i>	a. Bezeroaren identifikazio-datuak	<ul style="list-style-type: none"> Identifikazio-datuak Kapitalaren banaketa Enpresa-taldeen partaide izana Jarduera ekonomikoa Enpresaren urte kopurua Egiturazko kapitala eta ondare garbia
		b. Datu ekonomiko-finantzarioak (merkataritza-jarduera)	<ul style="list-style-type: none"> Urteko kontuak Langileak Merkatu-kuota nazionala zein nazioartekoa Merkataritza-efektu nazionalak eta nazioartekoak (epe ertaina) Produkzioaren deskripzioa Produkzioaren ahalmena eta aurreikuspenak Zer sozietatetan parte hartzen duen Aitorpen fiskalak
		c. Eskaintako bermeak	<ul style="list-style-type: none"> Kreditu-erakundeetako gordailuak Ondasun higiezinak (erregistroko izen-ematearen datuak, kargak, balioa) Adostutako aseguru motak, kapital aseguratua, babestutako arriskuak Finantza-inbertsioak Beste ondasun higigarri batzuk
		d. Beste datu interesgarri batzuk	<ul style="list-style-type: none"> Zuzendaritza-ekipoaren osaera Erakundearekiko banku-aurrekariak Beste kreditu-erakundeekiko erlazioak Etxeak abalaturako eragiketak Kreditua eskatzen den eragiketaren deskripzioa Aurreko eragiketen errentagarritasuna
		e. Enpresaren kokapen fisikoa bisitatzea	<ul style="list-style-type: none"> Bezeroak zuzenean emandako datuak egiaztatzeko elementua Bezeroaren gaineko ezagutza handiagoa (trebetasunak, esperientzia...)
ZEHARKAKO INFORMAZIO-ITURRIAK	<i>Ez Ordaintze Onartuen Erregistroa (EEOE) (RAI, Registro de Aceptaciones Impagadas)</i>	Bezeroaren kaudimenaren eta aurretik hartutako ordainketa-betebeharren berri ematen du	<ul style="list-style-type: none"> Ez-ordaintze onartuen alta (adierazi zein diren igorria, igorlea, epemuga eta zenbatekoa) Ez-ordaintze onartuak deuseztatzea
	<i>Arriskuen Informazioaren Zentrala (AIZ) (CIR, Central de Información de Riesgos)</i>	Espainiako Bankuaren zerbitzu bat da. Kreditu-erakundeek hartutako arriskuak zentralizatzen ditu, eta baita haien titulartasuna ere	<ul style="list-style-type: none"> <i>Zuzeneko arriskuak:</i> erakundeak bere bezeroei emandako diru-, enpresa- edo leasing-mailegu eta -kredituetatik eratorriak, hala nola bezeroak dituen errenta finkoko tituluen, salbu estatuak zein beste administrazio-erakunde batek igorritakoak <i>Zeharkako arriskuak:</i> erakundeak zuzeneko arrisku-eragiketak bermatzen edo abalatzten dituztenekin hartutakoak
	<i>Auzi-eskeak</i>	Bezeroaren ondareak jaso ditzakeen gertakizunen berri ematen dute, prozesuren baten sartuta badago	
	<i>Jabetza-erregistroa eta merkataritza-erregistroa</i>	Bezeroak emandako datuak egiaztatzeko	<ul style="list-style-type: none"> Jabetza-erregistroa, ondasun higiezinaren gainekoa Merkataritza-erregistroa, eratzeko datari, kapital sozialari, bazkide akziodunei eta zabalkuntzei buruzkoa
	<i>Berri-agentziak</i>	Bezeroari buruzko merkataritza-txostenak lantzen dituzte, osagarri gisa balio dutenak	
	<i>Bezero eta hornitzaileak</i>	Eskatzailearenak	<ul style="list-style-type: none"> Bezeroa: produktuen edota zerbitzuen kalitatea, entregatzeko puntualtasuna, igorpenen eguna Hornitzaileak: eskaerak antolatzea eta egituratzea, ordainketak betetzea, ordainketen epea luzatzea

Iturria: Blázquez eta Bruno (2009)

Testuinguru horretan, zuzeneko iturrien bidez lortutako informazioa kontrastatzeko balio digute zeharkako informazio-iturriek. Oro har, arrisku eta berankorrei³⁸ buruzko datu-baseak dira.

KFEEN-EQUIFAX (ASNEF-EQUIFAX). Kredituko Finantza Erakundeen Elkarte Nazionalaren erregistroak ordaintzen ez dituztenen datuak jasotzen ditu. KFEENen, bezeroek finantza-erakundeekin onartuta eta onartu gabe dauzkaten zorrak agertzen dira. Gizarte Segurantzarekin, Ogasunarekin eta kreditu-txartelen erakundeekin dituztenen zorrak ere hor agertuko dira. Telefono-konpainiek ere hor jartzen dituzte beren berankorrak. Erregistro bat ezabatzeko, ordainketaren ziurtagiria bidali behar da, NANaren kopia batekin batera.

AIZ (CIR). Espainiako Bankuaren Arriskuen Informazioaren Zentrala. AIZn, indarrean dauden kreditu-erakundeen aktiboko eragiketak azaltzen dira, baldin eta 6.000 eurotik gorakoak badira. Ez da berankorren datu-base bat, baizik eta indarrean dauden arriskuei buruzkoa. Erakunde deklaratale batek, pertsona fisikoen gaineko arriskuen datuak AIZn aitortzeko, ez du pertsona horien baimenaren beharrik, baina erakunde aitortzaileek, berriz, AIZn nahitaez zer datu aitortu behar dituzten eta datu horien³⁹ helmenaren jakinaren gainean jarri behar dituzte beren akreditatuak (pertsona fisikoak). Entitate aitortzaileek – Espainiako Bankua, Espainiako kreditu-erakundeak, kreditu-erakunde atzerritarrek Espainian dituzten sukurtsalak, EBE eta sendotze-sozietateak, eta abar– badute eskubidea AIZn erregistraturik dauden pertsona fisikoen arriskuei buruzko txostenak eskuratzeko, baldin eta pertsona horiek honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Erakundearekin arrisku motaren bat izatea.
- b) Erakundeari mailegu bat edota arriskuren bat duen beste eragiketaren bat eskatu izana.
- c) Erakundeari eskatutako kreditu-eragiketetan, ordaintzeko edota ordainketa bermatzeko behartuta egotea.

Espainiako Bankuak badu **BALANTZEEN ZENTRAL** bat. Zentral horretan, enpresa ez-finantzarioen balantzeak jasotzen dituzte, modu honetan taldekatuta:

- A) Fluxuen egoera (emaitzen kontua)
- B) Ondarearen egoera (balantzeak)
- C) Kontziliazio-egoerak (hasierako eta bukaerako balantzearen arteko erlazioa)
- D) Finantzen palanka-efektuaren analisisa (ratioak)

Balantzeen zentralak, 1984tik, Espainiako enpresa ez-finantzarioen informazio ekonomiko-finantzarioa jasotzen du. Informazio hori borondatez ematen dute, inprimaki estandar bat beteta. Hala, bankuek hainbat enpresari buruzko informazio homogeneoa lortzen dute.

Europar, Balantzeen Zentralen Europako Batzordea (BZEB) daukagu, eta bertan parte hartzen du Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralak.

Behin kredituak ematea erabakitzeko ereduak ikusita, finantza-erakundeek arriskua nola estali behar duten ikusiko dugu, hau da, nolako hornidurak izan behar dituzten kaudimen gabeziei aurre egiteko, halakorik sortuz gero.

³⁸ Konpetentziaren Defentsa Auzitegiak legez kanpokotzat jo zuen EZOE (Ez Ordaintze Onartuen Erregistroa) 2005eko otsailean.

³⁹ Ikus: 44/2002 Legea, azaroaren 22koa, Finantza Sistema Erreformatzeko Neurriei buruzkoa, VI. kapitulua, 60. artikulua.
Finantza-erakundeen kudeaketa

KREDITU-ARRISKUAREN ESTALDURA

Finantza-erakundeak berak arduratzen dira kreditu-arriskua kudeatzeaz. Hala eta guztiz ere, Espainiako Bankuak exijitzen dizkien baldintza minimoak kontuan izan behar dituzte beti. Ehuneko minimo horretaz gainera, finantza-taldeek zenbait ratio aztertzen dituzte; esate baterako, “zorrotasun” ratioa eta “loan to value” (LTV) ratioa.

Zorroztasuna: konpromisoa betetzen ez den kasuetan, berreskuratzea espero ez den arriskuaren gainean ezartzen den ehunekoa da. “Loss given default” (LGD) izenez ere ezagutzen da. Funtsezko faktoreetariko bat da arriskuaren analisi kuantitatiboa egiteko orduan.

LTV: maileguaren zenbatekoaren eta ondasunaren balioaren arteko erlazioa da. Hipoteka-maileguen ezaugarri bereizgarriena da.

1) Bezeroen kaudimen gabeziaren arriskuaren estaldura⁴⁰

1.1) Estaldura espezifiko

Kreditu jakin bat berankortzen denean edo berankor bihurtzeko zorian dagoenean egiten diren zuzkidurak dira.

1.1.a) Bezeroen berankortasunaren ondoriozko zalantzazko aktiboen kasuan, ondoren azalduko ditugun ehunekoak aplikatuz estaltzen dira aktibo horiek, ordaindu gabeko lehenengo kuotaren muga-egunetik igaro den denboraren arabera.

Trataera orokorra:

	%
6 hilabeteraino	25
6 hilabetetik gora, eta 9 hilabetetik behera	50
9 hilabetetik gora, eta 12 hilabetetik behera	75
12 hilabetetik gora	100

Higiezinen bermea duten eragiketak:

Estaldura finkatzeko ehuneko horiek bermearen baliotik gora ordaindu gabeko arriskuaren gainean aplikatzen dira: (Ordaindu gabeko arriskua - bermearen balioa) x %. Bermearen balioa honela kalkulatzen da:

⁴⁰ Kreditu-arriskuen estaldura honako arautegi honen arabera aldatu da: 3/2010 EBZ, ekainaren 29koa.

Higiezinaren berme mota	Bermearen balio maximoa
Mailegu-hartzailearen ohiko etxebizitza bukatuak	% 80ren arabera haztatuz, bi balio hauetatik txikiena: <ul style="list-style-type: none"> - Kostua/prezioa - Gaur egungo tasazio-balioa
Nekazaritza-lursailak, eta bulegoak, lokalak eta erabilera anitzeko nabeak	% 70en arabera haztatuz, bi balio hauetatik txikiena: <ul style="list-style-type: none"> - Kostua/prezioa - Gaur egungo tasazio-balioa
Gainerako etxebizitza bukatuak	% 60ren arabera haztatuz, bi balio hauetatik txikiena: <ul style="list-style-type: none"> - Kostu-prezioa - Gaur egungo tasazio-balioa
Lursailak eta gainerako aktibo higiezinak	% 50en arabera haztatuz, bi balio hauetatik txikiena: <ul style="list-style-type: none"> - Kostu-prezioa - Gaur egungo tasazio-balioa

1.1.b) Bezeroen berankortasuna ez beste arrazoiren baten ondoriozko zalantzazko aktiboen kasuan, lehendabizi, aktiboaren zenbateko erregistratuaren eta kobratzea espero den esku-diruen fluxuen gaur egungo balioaren arteko aldea kalkulatu da, eta zenbateko horrekin babesten dira aktibo horiek.

1.1.c) Aktibo azpiestandarrak: ohiko arriskuen kasuetan baino estaldura handiagoa izaten da, eta eragiketa bakoitza banaka balioesten da.

1.1.d) Arrisku eta konpromiso kontingenteak: batetik, zenbat diru ordaintzea espero den kalkulatu da, eta, bestetik, zenbat diru ez berreskuratzea; ondoren, zenbateko horren arabera zuzkidurak eraten dira.

1.2) Estaldura generikoa

Estaldura generikoaren arabera zuzkiduren bitartez, beharbada etorkizunean berreskuratuko ez diren kredituak babesten dira (baina, zuzkidura eraten den unean, inork ez daki zehazki zer kreditu).

Kredituen arriskua babesteko, honako zuzkidura generiko hau kalkulatu behar da:

Estaldura generikoa =

arrisku mota bakoitzaren balioaren aldakuntzen batura * α

+ arrisku mota bakoitzaren balioaren batura epe amaieran * β

- epe espezifikoaren horniduren zenbatekoa

Alfa eta beta parametroak honako hauek dira:

	Alfa	Beta
Arrisku hautemangarririk gabe	0	0
Arrisku baxua	0,6	0,11
Arrisku ertain-baxua	1,5	0,44
Arrisku ertaina	1,8	0,65
Arrisku ertain-altua	2,0	1,10
Arrisku altua	2,5	1,64

2) Gainera, edozein kasutan, herrialde-arriskua ere babestu behar da.

Herrialde-arriskuari dagokionez, ehuneko hauen arabera babesten dira 3-6 arteko taldeetan sailkatutako zor-tresnen eta arrisku gertagarrien zenbatekoak, oro har, honako ehuneko hauetan:

	%
3. taldea	10,1
4. taldea	22,8
5. taldea	83,5
6. taldea	100

Azkenik, **zorrak kitatzeko eskuratzen diren aktiboen kasuan**, aktiboak eskuratu eta berehala, % 10eko gutxieneko hondamena hartzen da kontuan, eta, balantzean zenbat denbora irauten duen, gutxieneko hondamen hori honako ehuneko hauetaraino altxatzen da:


Aktiboak eskuratzen direnetik igarotako epea	Estalduraren ehunekoa
12 hilabetetik gora	20
24 hilabetetik gora	30

6.3.2.- Likidezia-arriskua neurtzea

(Begiratu, halaber, Basilea III, 6.2. atalean)

Sarrera

Finantza-erakundeek likidezia-profila deritzon tresna erabiltzen dute. Finantza-erakundeen aktiboak eta pasiboak era honetan aztertzean oinarritzen da:



Aktibo likidoak:

- Lehen mailako erreserba: Espainiako Bankuan gordetzen diren saldoen zatia.
- Bigarren mailako erreserba: diru erraz bihurtzen diren aktiboen zorroa. Alegia, honako aktibo hauek: altxor-letrak, zor publikoko repoak, etekinen zentroak (CEBEak), AAA eta AA rating-ak dituzten enpresen zor-agiriak eta bankuarteko merkatuan egindako aktibo-eragiketak (beste banku batzuei maileguak ematea). Bigarren mailako erreserbak aukera-kostu altua dakar; izan ere, epe laburrerako tituluak dira, eta epe laburrerako tasak oso baxuak izan ohi dira.

Pasibo aldakorrak edo ahulak:

Interes-tasen aurrean oso elastikoak izatea da haien bereizgarri nagusia. Hona pasibo aldakorren ezaugarriak:

- Ordainsari altua.
- Batez besteko saldo altua.
- Mugimendu gutxi kontuan.
- Aurrezkiak errentagarritasunez inbertitzea da bezeroen helburua.

Adibidez: supergordailuak, superkontuak, eta abar.

Pasibo egonkorrak:

Beste guztiak dira, hau da, interes-tasen aurrean hain elastikoak ez direnak: kontu-korronteak, aurrezki-kontuak, eta abar.

Finantza-erakundeek aktibo likidoen eta pasibo aldakorren arteko oreka mantendu behar dute, eta erlazio hau bete:

aktibo likidoak / pasibo aldakorrek ≥ 1 (1 baino handiagoa edo berdina)

Ratio horren emaitza letik beherakoa bada, likidezia-zuloa agertuko da.

Likidezia-profilak muga-egun jakin bat duten aktiboen eta pasiboen arteko diferentzia azaltzen du. Epe bakoitzeko funts erabilgarrien edo beharrezkoak diren funts gehigarrien zenbatekoa adierazten du diferentzia horrek.

Legezko kutxa-koefizientea

Finantza-erakundeak beharturik daude gordailuen ehuneko bat erabat likidoak diren aktiboetan (kutxa, kontu-korronteak, eta abar) Espainiako Bankuan gordetzera. Kutxa-koefiziente minimo horren helburuak bi dira:

- I. Diru-politikarako tresna baliagarri izatea.
- II. Erakunde guztietarako likidezia minimo bat bermatzea.

Gaur egun, kutxa-koefizientearen maila % 2koa da.

Azken batean, Espainian diharduen edozein banku-erakunde beti kontuan izan behar du Espainiako Bankuan gorde behar duela lortutako pasiboaren % 2ko saldoa; gainera, ordainsaririk gabe. Hori dela eta, pasiboaren kostu efektiboa garestitu egiten da.

Hortaz, bankuek koefiziente hori kontuan izan behar dute beren likidezia-maila minimoak planifikatzeko garaian. Ondoren, banku baten likidezia-beharrak finkatzeko eredu batzuen adibideak ikusiko ditugu.

Banku-erakundearen zenbateko likidezia behar den kalkulatzeko erdua: R. O. Edmister-en erdua, likidezia-erreserben kopurua kalkulatzeko

Eredu hori aplikatzeko, honako pauso hauek eman behar dira:

1. Lehenik, etorkizunean sor ditzaketen likidezia-aldaketen arabera sailkatzen dira aktiboa eta pasiboa.
2. Lehen eta bigarren mailako erreserbetan eskatutako inbertsio-koefiziente batzuk esleitzen zaizkio aktibo eta pasibo mota bakoitzari.
3. Likideziari dagokionez, lehen eta bigarren mailako erreserben zenbatekoak kalkulatu dira, eta bankuaren gaur egungo egoerarekin alderatzen da, desorekak zuzentzeko asmoz.

Eredu horren desabantailak: gehiegizko sinpletasuna eta dinamismo-falta.

Adibidea:

X bankuak balantze hau aurkeztu du abenduaren 31n:

Aktiboa		Ondare garbia eta pasiboa	
Diruzaintza	3.000	Ageriko gordailuak	15.000
Balio-zorria (demagun likidoak direla)	3.000	Bankuarteko finantzazioa	5.000
Kredituak	29.000 (20.000 aldakor eta 9.000 egonkor)	Eperako gordailuak	15.000
Beste aktibo batzuk	5.000	Funts propioak	5.000
Guztira	40.000	Guztira	40.000

Hurrengo hiru hilabeteetarako, berriz, datu hauek ditugu:

- Mailegu-funtsetarako beharrezkoa den zenbatekoa: 5.000 (3.000 kreditu aldakor eta 2.000 egonkor); gordailuak berdin mantentzen dira.
- Bankuarteko merkatuan zorpetzeko gehieneko muga: 7.000.

Gordailuen sailkapena eta likideziarekin loturiko beharrak hauek dira:

	Zenbatekoa	Lehen mailakoa	Bigarren mailakoa
Ageriko gordailuak			
Aldakorrak	5.000	% 10	% 40
Sentiberak*	2.000	% 7	% 20
Egonkorak	8.000	% 4	% 0
Eperako gordailuak			
Aldakorrak	2.000	% 10	% 30
Sentiberak*	3.000	% 7	% 10
Egonkorak	10.000	% 4	% 0
Kredituak			
Aldakorrak	23.000 (20.000 + 3.000)	-	% 75
Egonkorak	11.000 (9.000 + 2.000)	-	% 20

*Gordailu sentiberak dira merkatuko egoera larrietan aldakorrak izan daitezkeen gordailuak.

(Ikus Casilda Béjar, Lamothe Fernández eta Monjas Barroso, 1997, 146. or.)

Erreserbak kalkulatzeko era:

	Lehen mailakoa	Bigarren mailakoa
Eskatutako ageriko gordailuak		
Aldakorrak	500	2.000
Sentiberak	140	400
Egonkorrak	320	
Eskatutako eperako gordailuak		
Aldakorrak	200	600
Sentiberak	210	300
Egonkorrak	400	
Eskatutako kredituak		
Aldakorrak	-	17.250
Egonkorrak	-	2.200
Guztira	1.770	22.750
Likidezia-erreserbak, guztira	24.520	

Gaur egungo egoerarekin alderatuta:

	Lehen mailakoa	Bigarren mailakoa
Gaur egun	3.000	3.000 (*)
Beharrezkoa	1.770	22.750
Diferentzia	1.230	19.750

(*) Honako aktibo hauen batura: balio likidoen zorroa (altxorreko zor-agiriak, enpresek bigarren mailako merkatu aktiboan dituzten zor-agiriak, kredituen partaidetza negoziagarriak, banku-onarpenak eta abar).

Horretaz gainera, badago bankuarteko merkatuan eskuragarria den finantzazio zati bat: (zorpetze-muga - gaur egun erabiltzen den finantzazio-muga) = 7.000 - 5.000 = 2.000.

Hau da, banku horrek likidezia-arazo potentzialak ditu datozen hiru hilabeteetarako. Bere erreserbak berregituratu egin behar ditu, balio-zorroan inbertituz eta lehen mailako erreserba murriztuz. Lehen mailako erreserban, 700 soilik manten dezake (beste hirugarren baten aldetik jasotako baliabideen % 2, hau da, 35.000; ageriko gordailuak -15.000-, eperako gordailuak -15.000- eta bankuarteko finantzazioa -5.000- barne); bigarren mailako erreserbetan, berriz, zenbateko handiagoa beharko du, hau da, epe laburrerako titulu gehiago eskuratu behar lituzke, eta bankuarteko merkatuan kreditu gehiago eman (likidoagoak), epe luzerako kredituak eman beharrean.

Eredu dinamikoak

Eredu dinamikoak aurreko ereduak planteatzen dituen arazoak konpontzen saiatzen dira, eta lau urrats bereizten dira:

1. Gordailuen aurreikuspena, epe laburrera: hilabetero.
2. Kredituen bilakaeraren aurreikuspena, epe laburrera: hilabetero.
3. Aldakortasunaren arabera gordailuekiko mantendu beharreko ehuneko minimoak finkatzea.
4. Likidezia-defizit edo gehiegizko likidezia posibleak kalkulatzeko.

Adibidea:

Honako eboluzio hau kalkulatu dute X bankuaren gordailu eta kredituen etorkizunari begira (milaka milioitan):

	G. aldakorrak	G. egonkorrak	Kredituak
Urtarrila	100	400	410
Otsaila	120	420	440
Martxoa	150	430	460
Apirila	160	430	460
Maiatza	170	430	480
Ekaina	180	440	510

Banku horrek % 10eko likidezia-koefizientea du gordailu egonkorretan, eta % 20koa, berriz, gordailu aldakorretan. Abenduaren 31n, datu hauek aurkeztu zituen:


Altxortegia: 116

Kredituak: 400

Gordailu aldakorrak: 120

Gordailu egonkorrak: 400

Zer erreserba behar den kalkulatzea	A	B	C = -(% 10 x B) - (% 20 x A)	D	A + B + C - D
	Gordailu aldakorretako aldaketak	Gordailu egonkorretako aldaketak	Erreserbetako aldaketak	Kredituetako aldaketak	Gehiegizko likidezia edo likidezia eza
Urtarrila	-20	-	+4	10	-26 = (-20 + 4 - 10)
Otsaila	20	20	-6	30	+4
Martxoa	30	10	-7	20	+13
Apirila	10	-	-2	-	+8
Maiatza	10	-	-2	20	-12
Ekaina	10	10	-3	30	-13 = (10 + 10 - 3 - 30)

**Zenbat** daukadan

Zenbat behar dudan

Kontuan hartu behar da gordailuen murrizketak likidezia-erreserbak aske uzten dituela, eta alderantziz; bestalde, kredituak gehitzeak defizita dakar, eta alderantziz.

Sistema horrekin, likidezia-beharrak modu sinple eta eraginkor batean planifikatu eta konpon daitezke. Edonola ere, oso garrantzitsua da finantza-erakundeek kredituen eta gordailuen hazkundearen joera aurreikustea, likidezia-beharrak modu egoki batean aurreikus ditzaten.

6.3.3.- Herrialde-arriskua neurtzea

Herrialdeak taldeka sailkatzeko, aurreko gaian ikusi dugun sailkapenaz gainera, zenbait kalifikazio-agentziak publikatutako rating-ak ere erabiltzen dira: Standar&Poor, Moody's eta IBCA.

Herrialde-arriskuaren estaldura:

3 eta 6 bitarteko taldeetan sailkatutako herrialdeekin egindako eragiketen zenbatekoak honako ehuneko minimo hauekin babestu behar dira:

6.4 taula. Herrialde-arriskuaren estaldura

	%
3. taldea	10,1
4. taldea	22,8
5. taldea	83,5
6. taldea	100

Iturria: egileek prestatua (2009)

Aitzitik, herrialde hori 3. edo 4. taldean badago, hiru hilabetetik beherako bankuarteko kredituei dagokienez, estaldura minimo horien % 50 babesten da.

6.3.4.- Merkatu-arriskua neurtzea

Interes-tasen arriskua: funtsen GAPa (kontabilitate-GAPa), balantzearen sentiberatasuna neurtzeko tresna gisa

Sistema horretan, aktiboak eta pasiboak bi multzotan sailkatzen dira: interes-tasen aldaketekiko denbora-epe zehatz batean sentiberak direnak eta sentiberak ez direnak.

Aktibo edo pasibo bat sentiberatzat hartzen da, sortzen dituen fluxuak epe laburrean aldatzen badira merkatuko interes-tasak aldatzen direnean.

Interes-tasa igotzen bada, aktiboek sortutako kutxa-fluxuak igo egiten dira, hau da, erakundearen diru-sarrerak igotzen dira. Bestalde, pasiboek sortutako fluxu negatiboak ere igotzen dira (gehiago ordaindu behar da zorren truke); beraz, gastuak ere igotzen dira.

Aktibo eta pasibo ez-sentiberak interes-tasa finkoa dute. Interes-tasarekin erlaziorik ez duten kontu-sailak ere izan daitezke; ibilgetua, adibidez. Ikus ditzagun aktibo eta pasibo sentiberen adibide batzuk. Kontuan hartu behar da beti badaudela sailkatzen zailak diren kontuak eta, beraz, kasu bakoitza banaka aztertu behar dela.

- Aktibo sentiberak: interes-tasa aldakorreko maileguak (adibidez, Miborraren edo Euriborraren arabekoak), epe laburrerako balio-zorroa, bankuarteko merkatuko maileguak, berriz saltzeko ituna duten erosketa-eragiketak, urtebetetik gorakoak diren eta interes-tasa finkoa duten maileguak, merkataritza-deskontuak, urtebetetik beherako zorroa (errenta finkoa duena).
- Pasibo sentiberak: bankuarteko merkatuan lortutako funtsak, tasa aldakorra edo berrikuspentasa duten gordailu eta kontuak, tasa aldakorra duten obligazioak eta epe laburreko gordailu-ziurtagiriak, berriz erosteko ituna duten salmenta-eragiketak, urtebetetik beherako epemuga duten eta interes-tasa finkoa duten jesapenak.
- Aktibo ez-sentiberak: urtebetetik gorako muga-eguna duten eta epe finkoa duten maileguak, ibilgetua, epe luzeko inbertsioak.
- Pasibo ez-sentiberak: baliabide propioak, epe luzeko gordailuak, hornidurak, kontu-korrante normalak, urtebetetik gorako iraupena duten eta tasa finkoa duten jesapenak.

Oharra: epe finkoko maileguren bat baldin badago analizatutako epe batean partzialki amortizatzen dena (ez-sentibera), amortizatzen den zatia sentiberatzat hartzen da, merkatuko interes-tasaren arabera inbertitu behar baita berriz.

Oinarrizko ereduak: funtsen GAPa edo kontabilitate-GAPa

GAParen definizioa: aktibo sentiberen (ASI) eta pasibo sentiberen (PSI) arteko diferentzia interes-tasen aldaketekiko, epe mugatu batean (hilabetetik behera, hilabete bat eta hiru hilabete artean, hiru eta sei hilabete artean eta abar izan ohi da).

$$\boxed{GAP = ASI - PSI}$$

Neurri alternatibo gisa, sentiberatasun-ratioa ere (SR) erabil daiteke. Honela kalkulatzen da:

$$\boxed{SR = ASI / PSI}$$

$$\Delta \text{ Finantza-tartea} = \text{metatutako GAPa} \times \Delta i/t$$

- **GAP negatiboa** bada ($GAP < 0$), $ASI < PSI$ esan nahi du. Hau da, aktibo ez-sentiberen zati bat pasibo sentiberek finantzatzan dute. Interes-tasaren beherakada bankuaren aldekoa da, eta, interes-tasak igotzen badira, berriz, tartea murriztu egiten da.
- **GAP positiboa** ($GAP > 0$) bada, $ASI > PSI$ esan nahi du. Hau da, aktibo sentiberen zati bat pasibo ez-sentiberek finantzatzan dute. Interes-tasak handitzen badira, tartea handitu egiten da; interes-tasak jaisten badira, tartea gutxitu egiten da.

Oro har, hau esan daiteke:

$$\boxed{\text{finantza-tartea } \Delta = \text{metatutako GAPa} \times i/t\Delta}$$

GAParen ordeaz SR erabiltzen bada, arrazoibidea bera da, baina:

$GAP > 0$ denean, $SR > 1$ izaten da.

$GAP < 0$ denean, $SR < 1$ izaten da.

IRAUPEN-EREDUA (edo IRAUPEN-GAParen EREDUA)

Eredu horrek zera dio: bankuak interes-tasaren arriskua babestuko du bere aktiboen iraupenak bere pasibo galdagarrien iraupena berdintzen duenean, hau da, iraupen-GAPa berdin zero denean.

iraupen-GAPa = aktiboen iraupena - pasibo galdagarrien iraupena

aktiboa (A) = pasibo galdagarria (P) + baliabide propioak (BP) denez:

$$A\Delta = P\Delta + BP\Delta$$

$$BP\Delta = A\Delta - P\Delta$$

Hau da, interes-tasek bankuaren aktiboan eta pasiboan duten eraginaren arabera da interes-tasek bankuaren baliabide propioetan duten eragina.

Era berean, $A\Delta$ eta $P\Delta$ denboraren funtzioan jarriz gero:

$$A\Delta/A = [-AI/(1+i)] i\Delta \longrightarrow A\Delta = -AI \times A \times i\Delta / (1+i)$$

$$P\Delta/A = [-PI/(1+i)] i\Delta \longrightarrow P\Delta = -PI \times P \times i\Delta / (1+i)$$

Azalpena:

AI: aktiboaren iraupena

PI: pasiboaren iraupena

Beraz:

$$BP\Delta = -[AI \times A - PI \times P] i\Delta / (1 + i)$$

Edo baita hau ere:

$$BP\Delta = -[AI - PI \times P/A] \times A \times i\Delta / (1 + i)$$

Iraupen-GAPa $[AI - PI \times P/A]$ izanik.

Adierazpen horretatik ondoriozta dezakegunez, honako baldintza hauen arabera da interes-tasen aldaketa batek baliabide propioetan duen eragina:

- $[AI - PI \times P/A]$ iraupen-GAPa, hau da, aktibo eta pasiboen iraupenen arteko diferentzia zorpetze-mailaren arabera (P/A) egokituta.
- Finantza-erakundearen aktiboen nolakotasuna. Zenbat eta handiagoak izan aktiboak, hainbat eta arrisku handiagoa dute baliabide propioek.
- Interes-tasen aldaketa: $i\Delta / (1 + i)$. Zenbat eta gehiago aldatu interes-tasa, orduan eta gehiago aldatuko dira baliabide propioak.

Lehenengo eta bigarren faktoreak (GAPa eta aktiboen nolakotasuna) finantza-erakundeetako kudeatzaileek kontrolatu eta kudeatu behar dituzte. Hirugarren faktorea ez dago haien esku, diru-politikaren arabera baita.


VaR-a

Edozein finantza-erakunde kalkula dezake, VaR-aren laguntzarekin, zein izango litzatekeen interes-tasen aldaketa baten ondorioz bere zorroaren balioak izan dezakeen aldaketa kaltegarririk handiena, epe mugatu batean eta konfiantza-maila jakin batekin. Behin galerarik maximoena ezarrita, dagokion hornidura ematen da zenbateko horren truke.

VaR = posizioaren batez besteko errentagarritasuna - $t_{\alpha/2} * \sigma$ (posizioaren errentagarritasuna)

Formularen jatorria hau da:

Hipotesi honetatik abiatuko gara: interes-tasen probabilitateen banaketa ezagutzen dugu, eta, interes-tasen fluktuazioa dela eta, posizioaren errentagarritasunaren (balioen aldakuntza) banaketa ohikoa da. Hala, honako hau izango dugu:



Demagun merkatuko kasuen % 90 normala dela ($\alpha = \% 10$). Gainerako %10a ohiz kanpoko egoerek osatzen dute: % 5, irabaziak lortzen ditugun ezohiko egoerak, eta beste % 5a, berriz, galerak izaten ditugun ezohiko egoerak. Hala, VaR-a honako hau izango da:

$VaR = \text{posizioaren batez besteko errentagarritasuna} - t_{\alpha/2} * \sigma$ (posizioaren errentagarritasuna)

Hau da, posizioaren errentagarritasunaren balio minimoa, irabaziak lortzen ditugun egoera normaletan eta ezohiko egoeretan (kasuen % 95en lortuko den balio txikiena).

Normalean, eguneroko errentagarritasunak hartzen dira kontuan, eta batez besteko errentagarritasuna berdin zero dela jotzen da. Horrela eginez gero, VaR-a honako hau izango litzateke:

$VaR = - t_{\alpha/2} * \sigma$ (posizioaren errentagarritasuna)

Hau da, kasuen % 95en lor genezakeen emaitzarik txarrena.

Finantza-erakundeentzat, honetan datza VaR-aren erabilera: VaR-aren estimazioetatik abiatuta, merkatuko aldagai multzo baten (haien artean, interes-tasak) aurkako mugimendu batek eragin ditzakeen galera posiblei aurre egiteko zenbat diru behar duten esan dezakete. Hala, Risk Capital – kapital-arriskua– kontzeptua sortzen da; alegia, erakundeek zenbat baliabide propio mantendu behar dituzten beren jardueran arrisku-maila jakin bati aurre egiteko.

Aitzitik, kapital-arriskua kalkulatzeko garatu diren ereduak badituzte muga garrantzitsuak: batez ere, interes-tasen aldakuntzek epe laburrean nolako eragina izango duten aztertzen dute guztiek ere, eta epe ertainerako eta laburrerako eraginak alde batera utzi⁴¹.

Praktikan, finantza-erakundeek back-testing bat edo a posteriori egindako kontraste bat izan ohi dute, arriskuak zehatzago neurtzen laguntzen duena.

SIMULAZIO-EREDUAK

Bai GAPa bai iraupenaren analisia simulazio-teknikekin batera erabiltzen dira: askotariko egoerak azter daitezke askotariko hipotesietatik abiatuz, interes-tasaren askotariko aldaketak kontuan hartuz...

ESTALDURA MODUAK

Interes-tasen arriskua kudeatzeko ikusi ditugun ereduez gainera, finantza-erakundeek estaldura-tresnak ere erabiltzen dituzte berez duten arriskuaz babesteko. Finantza-tresna hauek, hain zuzen:

- Etorkizunak eta aukerak (merkatu antolatuak)
- Bankuarteko merkatuan eta OTC merkatuetan negoziatutako produktuak, hala nola FRAk, swapak...

⁴¹ Ikus: Barreira, Navarro eta Nave (1992): *Análisis y Gestión del Riesgo de Interés*. Ariel Economía. Bartzelona.
Finantza-erakundeen kudeaketa

Finantza-erakundeek gehiago erabiltzen dituzte OTC merkatuetan negoziatutako produktuak, merkatu antolatuetan negoziatutakoak baino.

6.5 taula. GAPa, interes-tasen arriskua eta estaldura-estrategiak

GAPa	Interes-tasen arriskua	Estaldura-estrategiak
GAP < 0	Tasak igotzea	<ul style="list-style-type: none"> • Etorkizunak saltzea • Call-ak saltzea • Put-ak erostea • FRA erostea • IRS
GAP > 0	Tasak jaistea	<ul style="list-style-type: none"> • Etorkizunak erostea • Put-ak saltzea • Call-ak erostea • FRA saltzea • IRS
GAP = 0	Ez dago arriskurik	

Iturria: egileek prestatua (2008)

6.3.5.- Truke-arriskua neurtzea

Ikusi dugu dibisetan posizio irekiak izatearen ondorioz agertzen dela arrisku hori; truke-tasaren aurkako aldaketen ondorio gisa, alegia.

Dibisa-aldaketen tasa zenbat eta gehiago aldatu, orduan eta handiagoa izango da arriskua ere. Aldaketa edo gorabehera horiek askotariko faktoreen arabera aldatuko dira (merkataritza-balantza, inflazio-tasa, ordainketa-balantza, interes-tasen eboluzioa, faktore politikoak, eta abar).

Truke-arriskuak hainbat modutan eragin diezaioke finantza-erakunde bati:

- Finantza-eragiketak bihurtzeko arriskua: zenbaitetan, dibisatan adierazitako finantza-eragiketak, etorkizunean kobratzekoak edo ordaintzekoak direnak, ondare-egoeratan adierazten dira truke-tasa zehatz baten arabera, eta hortik dator arriskua. Dagokiona behin betikoz kobratu edo ordaindu ondoren, hasieratik ezberdina den beste emaitzaren bat sor dezake truke-tasaren aldaketak. Hau da, epe batean, kobratu edo ordaindu arte, badago arriskua; izan ere, irabaziak edo galerak sor daitezke erakundetik kanpoko baldintzak direla eta.
- Dibisa zehatz batean adierazitako balantzeak beste batera bihurtzeko arriskua. Beste herrialde batzuetan filialak dituzten bankuei eragiten die arrisku horrek, balantze bateratua egiteko garaian.

Bietatik garrantzitsuena lehenengoa da, eta era honetan kudea daiteke egoera:

1. Arrisku-politika bat ezartzea. Truke-tasaren arriskuaren aurrean nola ekin zehaztea.
2. Arriskua identifikatzea. Erakunde askok ondo zehaztu gabe dauzkate gaur egungo eta etorkizuneko beren dibisa-eragiketak. Horretarako modu egoki bat da, aurrerago ikusiko dugun bezala, esposizioaren balantzea ezartzea.

3. Erakundearen eta merkaturaren zer estaldura-tresna dagoen ezagutzea.
4. Zer arrisku onar daitekeen zehaztea.
5. Onargarriak ez diren arriskuentzako neurriak hartzea.

Azken emaitza gisa, arriskua samurtzea edo kontrolatzea lortu behar da, hau da, galera potentziala tartean onargarri baten barnean mantentzen saiatu, edo mozkin potentziala ziurtatu behar da, eta ez da espekulaziorako joerarik izan behar.

Esposizioaren balantzea

Truke-arriskuak kudeatzeko, enpresek zer arrisku duten jakin behar dute, eta arriskuetatik babesteari ekin behar dio, nahikoa denbora hartuta.

Dibisatan zenbatutako aktibo- eta pasibo-mugimenduen kontrabaliario buruzko ziurgabetasuna dagoenean sortzen da arriskua. Epe mugatu batean dibisatan izaten diren sarrera- eta irteera-fluxuetatik eratortzen da erakunde batek duen truke-arriskua.

Esposizioaren ezagutza sakona izateko, beharrezkoa da datuak biltzeko informazio-sistema bat edukitzea, atzerriko diruan zenbatutako fluxuak dibisak eta epeka sakabanaturik edukitzeko. Hona hemen informazio hori biltzen duen taula baten adibidea:

Dibisa:	Egoera, hainbat datatan:				
	1. astea	2. astea	3. astea	4. astea	2. hilabet.
Finantza-eragiketa kobratuak					
Finantza-eragiketa ordainduak					
Esposizio kopuru gordina					
Ziurtatu gabeko kobrantzak					
Ziurtatu gabeko ordainketak					
Esposizioen azken kopuru garbia					

Esposizioen azken kopuru garbiak zera adierazten du: dibisa bakoitzean kobratu edo ordaindu beharreko saldoa, estaldurarik gabea, hau da, dibisa bakoitzak etorkizunean duen arriskua.

Esposizioen taula horiek eguneratuta egon behar dute eragiketak egiten diren bakoitzean edo aurreko egoera nabarmenki aldatzen duen eragiketaren bat dagoen bakoitzean. Dibisakako taulek dibisakako esposizio kopuru garbiaren balantze bateratua osatzeko balio dute. Hona taula horren adibide bat:

Esposizioen kopuru garbia	Egoera, hainbat datatan				
	1. astea	2. astea	3. astea	4. astea	2. hilabet.
AEBko dolarrak					
Yenak					
Libera esterlinak					
Brasilgo errealak					
...					

Laburpen-taula horretatik abiatuz, estaldurari buruzko erabakiak har daitezke, edo posizio jakin batzuk irekirik utzi. Erakunde bakoitzak bere arrisku-politika izango du, baina, oro har, honako estrategia hauek bete behar dira:

- Posizio luzea edo aktibokoa badago, eta dibisaren balioa handituko dela aurreikusten bada, posizio hori irekita utzi behar da. Dibisaren balioa jaitsi egingo dela aurreikusten bada, gerta litekeen galera hori babestu egin behar da.
- Posizio laburra edo pasibokoa badago, eta dibisaren balioa handituko dela aurreikusten bada, gerta litekeen galera hori babestu egin behar da. Aldiz, dibisaren balioa jaitsi egingo dela aurreikusten bada, posizio hori irekita mantentzeko daiteke.

Dibisen esposizioak zein diren ikusita eta zein arrisku babestu edo estali nahi den erabakita, hurrengo urratsa da erabakitzea zer tresnarekin babestu nahi diren arrisku horiek.

Estaldura-tresnei dagokienez, barneko metodoak (hala nola esportatzaileen eta inportatzaileen arteko akordioak, atzerapenak edo aurrerapenak, eta abar) eta kanpoko metodoak (dibisen etorkizunak, aukerak eta swapak) daude.

Truke-arriskuaren adibide bat

Finantza-erakunde batek kopuru batzuk kobratzea eta ordaintzea aurreikusi du, milaka libera esterlinatan, hurrengo asteetan, baina haien % 20 eta % 30 ez daude bermatuta, hurrenez hurren.

Hona hemen taula:

Libera	1. astea	2. astea
Finantza-eragiketarik eratorritako kobrantzak	1.000	2.000
Finantza-eragiketarik eratorritako ordainketak	1.500	3.000
Bermatu gabeko kobrantzak	200	400
Bermatu gabeko ordainketak	450	900
Esposizioen azken kopuru garbia	-250	-500

Libera esterlina diru sendoa da, baina, azken hilabeteetan, balioa galtzen ari da. Une horretan, 1,10 libera/euro da truke-tasa. Lehen asterako, 0,95 libera/euro espero dute, eta bigarren asterako, berriz, 0,94 libera/euro.

Adibide horretan, truke-tasa gutxitu denez, liberaren balioa handitu egingo da euroarekin alderatuta, hau da, liberaren balioak gora egitea espero dute.

Esposizioen kopuru garbia negatiboa denez, liberaren balioak gora egitea kaltegarria izango da. Beraz, arriskua estaltzeko aukera aztertu behar luke erakundeak.

TRUKE-ARRISKUAZ BABESTEKO BEHARREZKOTZAT JOTZEN DEN BALIABIDE PROPIOEN KOPURUA (BASILEA II)

Baliabide propioen baldintza, truke-tasaren arriskutik eratorria, kalkulatzeko, dibisatan, urrean eta tresna-dibisatan ditugun posizio global garbien batura % 8z biderkatu behar da.

PROPOSATUTAKO ARIKETAK

1. Zer da Credit Scoring-a? Nola erabiltzen dute kreditu-erakundeek? Azaldu ezazu zer abantaila eta desabantaila dakartzan kreditu-erakundeentzat.
2. Kreditu-erakunde batek balantzea aurkeztu du 2011ko abenduaren 31n.

AKTIBOA		ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	
Kutxak eta banku zentralak	4.818	Espainiako Bankua eta kreditu-erakundeak	600
Estatuaren zorrak	3.715,5		
Kreditu-erakundeak	3.708	Bezeroen gordailuak	9.229,5
Bezeroen gaineko kredituak	7.437		
Balio-zorroak:	0	Balio negoziagarriak	3.750
Errenta finkoa	570	Beste pasibo batzuk	2.568
Errenta aldakorra	675	Aldizkakotzea	1.027,5
Partaidetzak	361,5	Arrisku eta kargentzako hornidurak	1.035
Taldeko enpresetako partaidetzak	3	Arrisku orokorretarako funtsa	15
Aktibo materiala	121,5	Bateratzetik eratorritako diferentzia negatiboa	25,5
Aktibo immateriala	3	Ekitaldiko emaitzak	1.897,5
Bateratzetik eratorritako merkataritza-funtsa	153	Menpeko pasiboak	291
Akzio propioak	0	Gutxiengoen interesak	10,5
Beste batzuk	51	Kapitala	0
Aldizkakotzeak	46,5	Jaulkitze-saria	0
Aurreko ekitaldiko emaitzak	37,5	Erreserbak	810
	0	Balioa gehitzearen ondoriozko erreserbak	0
	0	Elkarte bateratuetako erreserbak	441
Guztira	21.700,5	Guztira	21.700,5

Oharra: bezeroei eskaintzen zaizkien kredituen % 50ek interes aldakorra du; gainerakoek % 10ek urtebetetik beherako epemuga du; balio-zorroaren %50 sentibera da interes-tasen aldaketekiko; gordailuen % 30ek interes-tasa aldakorra du. Zer espozizio dakar interes-arriskuak?

3.- Banku-erakunde batek datu hauek aurkeztu ditu abenduaren 31n:

Aktiboa		Ondare garbia eta pasiboa	
Kreditu-erakundeak	10.000	Gordailu egonkorrak	30.000
Balio-zorroa	5.000	Kreditu-erakundeak	1.000
Kredituak	40.000	Gordailu aldakorrak	20.000
Bestelako aktiboak	1.000	Funts propioak	4.000
Guztira	55.000	Guztira	55.000

Dibisetan honako eragiketa hauek egitea aurreikusi dute:

Dibisa: dolarra (milakotan)	Egoera:				
	t astea	t + 1. astea	t + 2. astea	t + 3. astea	t + 4. astea
Finantza-eragiketa kobratuak	100	500	300	1.000	250
Finantza-eragiketa ordainduak	2.000	500	5.000	1.000	500
Esposizioen kopuru gordina					
Aseguratu gabeko kobrantzak (% 20)					
Aseguratu gabeko ordainketak (% 70)					
Esposizioen azken kopuru garbia					

Bankuko analistek aurreikusi dute EBZk 0,5 puntuan igoko duela interes-tasa; izan ere, Estatu Batuetan, gauza bera egin du Erreserba Federalak. Eskaini dituzten kreditu guztiek interes aldakorra dute, eta balio-zorroaren %50 sentibera da interesen aldakortasunarekiko.

- Azter ezazu zer esposizio izan dezakeen dolarraren balioak aldaketan ondorioz.
- a).- Azter ezazu zer esposizio izan dezakeen dolarraren balioak aldaketan ondorioz.
- Azter ezazu zer eragin izango duen EBZk iragarri duen interes-gehikuntzak erakundean.

4.- Demagun erakunde batek datu hauek aurkeztu dituela abenduaren 31n:

AKTIBOA		ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	
Altxortegia	5.000	Gordailu finkoak	20.000
Balio-zorroa	2.000	Bankuarteke finantzazioa	2.000
Kredituak	35.000	Gordailu aldakorrak	17.000
Beste aktibo batzuk	1.000	Funts propioak	4.000
Guztira	43.000	Guztira	43.000

Bankuarteke finantzazioaren muga 10.000 m.u.-koa da. Eta, gainera, badakigu:

- (a) Erreserbatan mantendu behar den gordailuen zenbatekoa hau da: gordailu finkoen % 15 eta gordailu aldakorren % 30. Hurrengo seihilekoko eboluzioa edo joera honako hau izango da:

	<i>Gordailu aldakorrak</i>	<i>Gordailu finkoak</i>	<i>Kredituak</i>
Urtarrila	17.500	21.000	35.500
Otsaila	18.000	22.000	34.750
Martxoa	18.250	21.500	34.000
Apirila	17.750	21.250	35.000
Maiatza	18.500	22.250	36.000
Ekaina	18.000	23.000	35.500

- (b) Dibisatan honako eragiketa hauek aurreikusi dituzte:

Dibisa: dolarra (milakotan)	Egoera:				
	1. astea	2. astea	3. astea	4. astea	2. hilabetea
Finantza-eragiketa kobratuak	1.000	1.500	3.000	500	2.000
Finantza-eragiketa ordainduak	2.000	500	5.000	1.000	500
Esposizioen kopuru gordina					
Aseguratu gabeko kobrantzak (% 60)					
Aseguratu gabeko ordainketak (% 50)					
Esposizioen azkene kopuru garbia					

Dibisa: libera esterlina	Egoera:				
	1. astea	2. astea	3. astea	4. astea	2. hilabetea
Finantza-eragiketa kobratuak	5.000	4.000	1.000	2.000	3.000
Finantza-eragiketa ordainduak	2.000	5.000	8.000	200	200
Esposizioen kopuru gordina					
Aseguratu gabeko kobrantzak (% 40)					
Aseguratu gabeko ordainketak (% 70)					
Esposizioen azken kopuru garbia					

- (c) Bankuko analistek aurreikusi dute EBZk 0,25 puntuan igoko duela interes-tasa. Gainera, kreditu guztiak eta balio-zorroaren % 50 sentibera da tasen aldaketekiko.
- (d) Bankua hedapen-prozesuan dago Iberoamerikan eta, horregatik, kredituak eskaini dizkie herrialde hauei:
- Ekuador: Ekuadorreko erakunde bati 300 milioiko kreditu bat eskaini diote. Badakigu Ekuador oso egoera politiko konplexuan dagoela (estatu-kolpearen ondorioz), eta hango gobernuak 15 hilabete daramatza zorrei eta zorren interesei aurre egin gabe.
 - Kolonbia: orain dela bi urte eta erdi, Kolonbiako erakunde bati 500 milioi euroko kreditua eman zioten. Kolonbia 3. taldean dago, herrialde arriskutsuen taldean.

Azaldu ezazu nola kudea ditzakeen erakundeak arrisku-tasa horiek modu eraginkor batean.

5.- Demagun banku-erakunde batek balantze hau aurkeztu duela abenduaren 31n:

AKTIBOA		ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	
Altxortegia	10.000	Gordailu finkoak	40.000
Balio-zorroa	22.000	Bankuarteko finantzazioa	8.000
Kredituak	35.000	Gordailu aldakorrak	34.000
Beste aktibo batzuk	30.000	Funts propioak	15.000
Guztira	97.000	Guztira	97.000

Bankuarteko finantzazioaren gehieneko kopurua : 25.000 m.u.

(a) Erreserbatan mantendu behar den gordailu finkoen kopurua % 10 da, eta aldakorren kopurua, berriz, % 20. Hurrengo sehilekoko joera honako hau da:

	<i>Gordailu aldakorrak</i>	<i>Gordailu finkoak</i>	<i>Kredituak</i>
Urtarrila	35.000	42.000	37.000
Otsaila	36.000	40.000	35.000
Martxoa	35.500	43.000	36.000
Apirila	36.750	39.000	38.000
Maiatza	36.000	41.000	40.000
Ekaina	35.750	39.500	39.000

(b) Dibisatan honako eragiketa hauek aurreikusi dituzte:

Dibisa: Suitzako libera	Egoera:				
	1. astea	2. astea	3. astea	4. astea	2. hilabetea
Finantza-eragiketa kobratuak	10.000	30.000	4.000	30.000	10.000
Finantza-eragiketa ordainduak	20.000	50.000	10.000	10.000	40.000
Esposizioen kopuru gordina					
Aseguratu gabeko kobrantzak (% 40)					
Aseguratu gabeko ordainketak (% 50)					
Esposizioen azkene kopuru garbia					

Dibisa: Mexikoko pesoa	Egoera:				
	1. astea	2. astea	3. astea	4. astea	2. hilabetea
Finantza-eragiketak kobratuak	100.000	200.000	100.000	50.000	500.000
Finantza-eragiketa ordainduak	200.000	100.000	25.000	50.000	250.000
Esposizioen kopuru gordina					
Aseguratu gabeko kobrantzak (% 70)					
Aseguratu gabeko ordainketak (% 80)					
Esposizioen azken kopuru garbia					

- (a) Etorkizunean, euroa indartzeko asmoz, interesak nabarmen goratzea aurreikusten da. Gainera, balioen zorroaren % 25 eta kredituen % 70 sentibera da interes-tasekiko.
- (b) Arriskuen kudeatzaileak ziurgabetasun-egoera batean daude, eta ez dakite kreditua nori eskaini: Irango enpresa bati (alfonbrak esportatzen ditu Europako merkatura) edo Kazakhstanen dagoen beste enpresa bati? Une honetan, badakigu Iran ziklo ekonomiko egoki batean sartzen hasi dela, baina zazpi hilabete daramatza kanpo-zorroaren interesak ordaindu gabe. Bestalde, Kazakhstan gai da bere ordainketei aurre egiteko, baina oso egoera politiko konplexuan daude. Zer aholkatuko zenioke enpresari?

ESTEKA INTERESGARRIAK

- KREDITU-ERAKUNDEEN ELKARTE NAZIONALA (ASOCIACIÓN NACIONAL DE ESTABLECIMIENTOS DE CRÉDITO): <http://www.asnef.com>
- ESPAINIAKO BANKUAREN ARRISKU-INFORMAZIOAREN ZENTRALA (CENTRAL DE INFORMACIÓN DE RIESGOS DEL BANCO DE ESPAÑA, CIRBE): <http://www.bde.es/clientebanca/cirbe/cirbe.htm>
- ESPAINIAKO BANKUAREN BALANTZEEN ZENTRALA (CENTRAL DE BALANCES DEL BANCO DE ESPAÑA): <http://www.bde.es/cenbal/cenbal.htm>
- BANKU-ARRISKUA (WIKIPEDIA): http://es.wikipedia.org/wiki/Riesgo_bancario
- X-trade brokers: truke-arriskua: <http://www.xtb.es/forex.php?p=49>
- KREDITU-ERAKUNDEEN ERANTZUKIZUNA KAPITAL MINIMOAREN ETA ARRISKU-KUDEAKETAREN AURREAN (LA RESPONSABILIDAD DE LAS ENTIDADES FINANCIERAS EN LOS REQUISITOS DE CAPITAL MÍNIMO Y EN LA GESTIÓN DE RIESGOS): http://www.financialtech-mag.com/docum/03_documento.pdf
- FINANTZA-HIZTEGIA, LIKIDEZIA-ARRISKUA (DICCIONARIO DE FINANZAS, RIESGO DE LIQUIDEZ): http://www.euroresidentes.com/empresa_empresas/diccionario_de_empresa/finanzas/r/riesgo-de-liquidez.htm
- BANK FOR INTERNATIONAL SETTLEMENTS: <http://www.bis.org/>
- FINANCIAL MARKET REFORMS. EHUko EKONOMIA ETA ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEKO 9. BULETINA:
http://www.ekonomia-enpresa-zientziak.ehu.es/p242-content/es/contenidos/noticia/boletin_9/es_bolnum8/adjuntos/201106_bol_fcee_es.pdf

IV. ATALA: BANKU-MARKETINA

7. GAIA. FINANTZA-ERAKUNDEEN MERKATARITZA-FUNTZIOA

7.1.- SARRERA: FINANTZA-ERAKUNDEEN MARKETINAREN EZAUGARRIAK

Orain arte ikusitakoa baliagarri izateko, erakunde batek bezeroak behar ditu, eta marketinak garrantzi handia du horretan.

Finantza-erakundeen kasuan, lehia beste sektoreetan baino handiagoa da, finantza-erakundeek eskaintzen dituzten zerbitzuak erraz kopiatu daitezkeelako. Hori dela eta, marketina elementu bereizgarri gisa erabiltzen da, eta lehiakideekiko abantaila izateko faktore erabakigarrietako bat da. Izan ere, banketxe batek produktu bat merkatuan aurkezten duenean, beste banketxeek oso azkar barneratzen dute eskaintza hori, eta produktu bera eskaintzen dute; zenbait kasutan, berrikuntza batzuk gehituta.

Banku-marketinean, oinarritzko bi faktore daude:

- bitartekariak ezabatzea eta erregulazioa ezabatzea
- garapen teknologikoa

Banku-marketinak askotariko merkataritza-teknikak baliatzen ditu, baina ezaugarri komun hauek dituzte:

Eskaintzen duten zerbitzuaren ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- a) **Immaterialtasuna:** bankuek zerbitzu bat eskaintzen dute eta, beraz, ez da materiala; gainera, zerbitzuaren ezaugarri batzuek konplexu bihurtzen dute: UTBa, likidezia, errentagarritasuna, eta abar. Bezero gehienentzat zaila da ezaugarri horiek ulertzea, ez baitute finantza-ezagutzarik. Bankuek zerbitzu horiek material bihurtzeko, aurrezki-libretak eta kreditu-txartelak emanaz.
- b) **Banaezintasuna:** bezeroen eta banku-erakundeko langileen artean erlazio estu bat sortzen da transakzioa ohiko sukurtsal batean gauzatzen denean. Gaur egun urrutiko bankuaz asko hitz egiten den arren, bulegoa da finantza-produktuak saltzeko bide nagusia.
- c) **Heterogeneotasuna:** zerbitzuaren kalitatea eskaintzen duenaren arabera da, hau da, bankuko langileen umorearen edo ezagupenen arabera.

Zerbitzu horiek jasotzen dituzten bezeroen ezaugarriak honako hauek dira:

- a) **Bezeroen eta kreditu-erakundearen artean erlazio bikoitz bat sortzen da.** Finantza-erakundeek gordailuak eskaintzen dituzte, eta, aldi berean, eskatu ere egiten dizkiete bezeroei. Bezeroek ere gordailuak eskatzen eta eskaintzen dituzte. Bi eragiketetan bezeroek negoziatzeko boterea dutenez eta bankuek bezeroen beharra dutenez, bankuak bezeroen gogobetetasuna modu errentagarri batean lortzera behartuta daude.
- b) **Bezeroen multzoa oso heterogeneoa da:** pertsona fisiko eta juridikoak, hemengoak edo kanpokoak, hainbat maila kultural eta sozioekonomikotakoak...

Bezeroak hiru taldetan sailka daitezke, beren beharren arabera:

7.1 taula. Bankuetako bezeroen segmentu eta beharrak

Segmentuak	Beharrak
1.- Erakundeak	<ul style="list-style-type: none"> • Aurrekontuak finantzatzea • Zergak biltzea • Jaulkipenak merkaturatzea
2.- Enpresak eta profesionalak	<ul style="list-style-type: none"> • Korrontea finantzatzea • Kapital finkoa finantzatzea • Kanpo-merkataritza finantzatzea • Kobrantzak eta ordainketak kudeatzea • Diruzaintza kudeatzea • Aholkularitza
3.- Partikularrak	<ul style="list-style-type: none"> • Kobrantzak eta ordainketak kudeatzea • Aurrezkiaren plangintza bat egitea • Ondarea kudeatzea • Inbertsioa eta kontsumoa kudeatzea • Aholkularitza • Aisialdia eta beste zerbitzu batzuk

Bezeroen hiru segmentu horiek kontuan hartuta, bi merkatu mota eratu dira:

- Txikizkako merkatua: familiek osatzen dutena.
 - Handizkako merkatua: enpresa edo erakunde publiko zein pribatuak, estatuaren administrazioarekin erlazionatuta dauden erakundeak eta irabazteko asmorik gabeko erakundeak osatua.
- c) **Bezeroen finantza-ezagutza nahiko mugatua da:** batez ere txikizkariaren segmentuan, nahiz eta 18 urtetik gorako biztanleen % 85ek erlazioa duen finantza-erakundeekin.
- d) **Finantza-zerbitzuen eskaria gizabanakoen bizitza-zikloaren edo enpresa-egoeren araberakoa da:** finantza-erakundeek zerbitzu sorta altuak dituztenez, badituzte gizabanakoen bizitza-ziklo guztietarako zerbitzuak. Gainera, bezeroek, beren bizitzan aldaketak izaten direnean, beren produktuak berraztertzen dituzte (ikasketen finantzazioa, lan-merkatuan sartzea, ezkontza, seme-alabak, erretiroa...), edo baita enpresaren egoera aldatzen denean ere (ekitaldi-itxierak, negozio-hedatzeak, langile-aldaketak...).

Ondoren, merkataritza-funtzioaren oinarriko puntuak aipatuko ditugu. Orain arte, bezero berriak lortzea izan da finantza-erakundeen helburua, lehia txikia baitzen, eta tarteak altuak. Gaur egun, egoera aldatu egin denez, bezeroak leial bihurtzea da haien helburua, eta, horretarako, harreman-marketina erabiltzen dute.

Jarrera hori azaltzeko, honako arrazoi hauek emango ditugu:

1. Bezero berri bat lortzea zailagoa da zaharrak mantentzea baino

Espainiako banku-merkatua, herrialde garatuetako beste banku-merkatuak bezala, heldutasun-fasean dago, hau da, merkatuaren hazkunde-tasa oso txikia da. Ondorioz, bezero berriak lortzearen kostua asko

igo da eta, horregatik, orain, errentagarriagoa da erakundearekin erlazioa duten bezeroak leial bihurtzea (promozioak, sariak, zozketak...). Gauzak horrela, kreditu-erakundeek publizitatean egiten duten gastua izugarri hazi da.

2. Lehiakidetasunaren mehatxuak gure bezeroengan eginiko inbertsioa justifikatzen du

Bankuetako bezeroen egonkortasun ezak finantza-erakundeak eta beste finantza-bitartekari batzuk mehatxatzen ditu: aseguru-etxeak, inbertsio kolektiboko erakundeak... Erakunde ez-finantzarioak ere mehatxupean daude: zerga-aholkularitzak, bidaiia-agentziak, kreditu-txartel propioak jaulkitzen dituzten enpresa komertzialak...

3. Harreman-marketingaren oinarria da aukerak dibertsifikatzea

Banku-erakundeek, ohiko finantza-jarduera egiteaz gainera, beren jarduera dibertsifikatu egiten dute; hala, beste finantza-zerbitzu batzuen bitartekaritza (inbertsio-funtsak, aseguruak...) eta guztiz finantzarioak ez diren zerbitzuak eskaintzen dituzte, bezeroei zerbitzu global bat emateko.

4. Kalitatearen zerbitzua ezberdintze-faktore garrantzitsu bat da

Tradizionalki, finantza-erakundeek besteengandik ezberdintzeko erabili dituzten faktoreak (produktuan, teknologian, prezioetan eta halakoetan oinarritzen zirenak) erraz imitatu ahal izan dira. Banku-produktuak oso erraz imitatu daitezke, eta ezin dira patente bidez babestu. Zerbitzuaren kalitatea, aldiz, oso zaila da imitatzen.

Orain dela gutxi, “bezeroen babeslea”⁴² sortu zen, kalitatearekin zerikusia duena eta bezeroak babestea helburu duena. Legearen arabera, finantza-erakundeak, aseguru-etxeak eta inbertsio-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek bezeroen babesle bat izan behar dute, bezeroen kexuak jasotzeko eta haien eskubideak betearazteko.

7.2.- BEZEROEN LEIALTASUNA LORTZEA: ERAGIKETA-BANKUTIK HARREMAN-BANKURA

Bezeroen premiak asetzea eta bezeroak gogobetetzea da banku-marketingaren ardatza, bezeroen leialtasuna lortzea helburu. Izan ere, bezero berriak lortzea bezain garrantzitsua da bezeroak mantentzea (harreman-marketingaren ikuspuntutik, helburua betetzeko pauso bat besterik ez da bezero berriak lortzea: bezeroak mantentzea). Horren ondorioz, baliabide gehiago bideratzen dira leialtasuna mantentzera eta truke-harreman sendoa lortzera, bezero berriak bilatzera baino.

Harreman-marketingaren helburua da bezeroekin truke-harreman etengabea eta erlazio sendo bat eratzea. Hala ere, kontuan hartu behar da bezero bat, definizioz, enpresa edo erakunde batekin erlazio errepikatuak dituen pertsona bat dela, baina horrek ez du esan nahi bezeroak enpresari buruz duen iritzia ona denik. Horren adibide garbiak aurkitu ditzakegu finantza-erakundeen merkatuan: bezero batzuek beren kontu-korronteak mantentzen dituzte, ez asebeteta sentitzen direlako, baizik eta aldatzeak dakartzan kostuak ez ordaintzeagatik edo ohituragatik.

Harreman-marketingak truke-harreman sendoak bilatzen ditu; betiere, bi aldeentzat errentagarriak diren neurrian. Hortaz, harreman-marketinga izateko, finantza-erakundeek gai izan behar dute bezeroak modu errentagarri batean asebetetzeko. Horregatik, harreman-marketingaren estrategiari jarraitzeko gomendioa da, batez ere, marketinga merkatu heldu eta oso lehiakorretan aplikatzea. Merkatu horien ezaugarriak honako hauek dira:

- 1) Erraza edo posible da erakundeko bezeroengana iristea.
- 2) Posible da produktuaren diseinua, ekoizpena edo entrega-epea bezeroen nahietara egokitzea.

⁴² 44/2002 Legeko 28. artikulua (44/2002 Legea, azaroaren 22koa, Finantza Sistema Erreformatzeko Neurriei buruzkoa; BOE 281. zenbakia, 2002ko azaroaren 23an).

3) Erlazio leialak eta produktu dibertsifikatuak sortuz, bezeroengandik balioa jasotzeko ahalmen handia duten merkatuak dira.⁴³

Faktore edo ezaugarri horiek guztiak aurkitzen ditugu banku-merkatuan.

Ildo horretatik, finantza-erakundeek erlazio leialak nola sor ditzaketen aztertzea du helburu atal honek. Horretarako, erlazioak sendotzen diren heinean eta enpresen errentagarritasuna handitzen den heinean, funtsezkoa da bezeroek ere irabaziak lortzea. Horretaz gainera, oso garrantzitsua da banku-entitateek bezeroen ahotsa eta iritzia egoki kudeatzea; alegia, produktuak garatzeko edo aldatzeko unean haien iradokizunak kontuan izatea.

Hainbat ikerketa enpiriko egin dituzte banku-merkatuan bezeroen leialtasuna zerk eragiten duen jakiteko. Zenbait egilek⁴⁴ hiru balio nagusi proposatu dituzte banku-sektorean bezeroen leialtasuna lortzeko:

- Balio funtzionala: produktuek edo entitateek dituzten ahalmenak dira, bezeroen helburu funtzionalak edo erabilgarritasun-helburuak betetzeko. Hau da, produktuen kalitatea, eskuragarritasuna, iraupena, bermea eta zerbitzu erantsiak, eta baita enpresaren profesionaltasuna ere.
- Balio afektiboa: harreman horri esker bezeroek lortzen dituzten onura psikologiko eta sozialak. Alegia, pertsonengandik —kasu honetan, erakundeko langileengandik— jasotzen duten banakako eta lehentasunezko arreta eta kontaktuaren ondorioz sortzen diren sentipen eta onurak dira.
- Aurrezte-balioa: fideltasunaren ondoriozko onura ekonomikoak dira, hau da, baldintza ekonomiko hobeak izatea eta informazioa bilatzeak eta ebaluatzeak kostu txikiagoak izatea.

Ikerketa horietatik ondorioztatzen dena da alderdi afektiboak alderdi funtzionalak baino garrantzi gehiago duela fideltasunean. Kontuan izan behar da, finantza-enpresak eskaintza hobea izateko egiten duten ahalegina ezinbestekoa dela truke-harremana sortzeko. Hori horrela izanik, egile horiek alderdi afektiboa lehenesten dute harremana sendotzea lortzeko.

Beste ikerketa garrantzitsu batean, zera aztertu zuten: bezeroei zer onura dakarkien beren finantza-erakundearekin epe luzeko harreman estu bat izateak.⁴⁵ Ikerketaren ondorioetan, bezeroen onura horietan eragina duten sei faktore deskribatzaile aipatu zituzten (7.2 taula):

⁴³ Ikus: BARRUTIA, J.M. (2002): *Marketing bancario en la era de la información*, Piramide eta Esic argitaletxea, Madril.

⁴⁴ RODRIGUEZ, S.; CAMARERO, C. eta GUTIERREZ, J. (2002): “Lealtad y valor en la relación del consumidor. Una aplicación al caso de los servicios financieros”. *XIV Encuentro de Profesores Universitarios de Marketing*, Granada, 429-443. or.

⁴⁵ ESTEBAN, A.; MILLAN, A; MOLINA, A eta MARTIN-CONSUEGRA, D. (2000): “Identificación de los beneficios para el consumidor del marketing relacional: el caso de las entidades financieras”, *Revista Europea de Dirección y Economía de la Empresa*, 9. alea, 3. zk., 147-156. or.

7.2 taula. Bankuek eta bezeroek lortzen dituzten onurak

Harreman-onurak	Ranking-a
Kualifikazioa: profesionaltasun-irudi orokorra.	1
Pertsonalizatzea: produktuak bezero bakoitzak dituen beharrietara egokitzeko edo produktu berriak eskaintzeko, hornitzaileek egiten duten ahalegina da.	2
Erosotasuna: bezeroek sentitzen duten ongizatea da, ez baitute arduratu behar hornitzailea aldatzeaz, ezta aldaketak dakartzan kostu eta arazoez ere.	3
Onura sozialak: bezeroak gogobetetzea lortzeko faktore emozionalak dira, hots, langileek edo erakundeek berek eskaintzen dituztenak. Oro har, finantza-erakundeek baino, zerbitzua ematen duten langileek zaintzen dute bezeroen leialtasuna.	4
Konfiantza: alderdi psikologikoekin erlazioa duten onurak dira. Hornitzailearengan konfiantza izateak antsietatea gutxitzea eta eragiketetan arrisku gutxiago nabaritzea dakar.	5
Lehentasunezko tratua onurak: kontsumitzaileek aparteko arreta bat nabaritzean edo beste bezeroentzat eskuragarri ez dagoen zerbitzu bat izatean datza. Diru-arrazoiak (interes-tasa hobeak, komisio gutxiago...) edo bestelakoak (denbora aurrezte, zerbitzu azkarrak...) biltzen ditu.	6

Iturria: BLANCO, VICENTE eta MENDIZABAL (2003)⁴⁶ (Esteban eta beste (2000) lanaren egokitzapena)

Ikerketen arabera, kualifikazioa da onura guztietan garrantzitsuena, eta, atzetik, zerbitzua pertsonalizatzea dator. Hurrengo hiru faktoreei garrantzi antzekoa ematen diete (erosotasuna, onura sozialak eta konfiantza), antzeko eragina baitute bezeroengan. Azkenik, lehentasunezko tratua onurek dute eragin txikiena.

Europako finantza-sisteman, negozioa kudeatzeko bi modu orokor bereiz daitezke: Espainiako eredu (Frantzia, Italia eta Espainia) eta Britainiako eredu (Erresuma Batua eta Alemania). Espainiako ereduak hurbiltasuna du oinarri; bulego- edo sukurtsal-sare zabala dute, baina haietako bakoitzak langile kopuru ez oso handia. Britainiako eredu, aldiz, bulego gutxiago daude, baina haietako bakoitzak langile gehiago ditu, eta gehiago oinarritzen da beste bide batzuetan (telefonoa edo Internet, adibidez).

7.3.- BANKU-JARDUERAREN KANAL BERRIAK

Kreditu-erakundeak, bezeroak leial bihurtzea helburu, kanal berriak garatzen ari dira bezeroen beharrak asetzeko. Bezeroen eta erakundeen arteko harremanak gauzatzeko kanalek izugarri egin dute aurrera. Kanal berriak eragin-trukezko zerbitzuetan oinarrituta daude, eta negozio-aukera berriak direla ere esan daiteke.

⁴⁶ VICENTE MOLINA, A.; BLANCO MENDIALDUA, A. eta MENDIZABAL ZUBELDIA, A. (2003): "La fidelización del cliente en las entidades financieras: El caso de los fuentos éticos y las affinity cards solidarias", *Actas del XVII Congreso Nacional y XIII Hispano-francés AEDEM*, Bordele (Frantzia).

7.3.1. Telefono bidezko bankua

Finantza-erakundeek, elkarrengandik ezberdintzeko eta bezero berriak lortzeko ahaleginetan, telefono bidezko bankua sortu dute. Bezero berriak telefono bidez lortzen dituzte, eta produktu edo zerbitzuak eskaintzen dizkiete.

Nagusiki, bi aukera daude:

- Osagarria: bezeroei kanal berri bat eskaintzean datza.
- Independentzia: mota horretako zerbitzuak eskaintzeko bulego berezi bat sortzean datza.

Banku telefonikoaren segurtasun-neurriak garrantzitsuak dira bi aldeentzat:

- Bezeroen ikuspuntutik: bezeroek zerbitzua kontratatzen dutenean, kode sekretu bat jasotzen dute, haren bidez eragiketak egiteko eta kontuetako informazioa ikusteko.
- Bankuen ikuspuntutik: elementu fisikoak desagertu egiten direnez, beharrezkoa da eragiketei baliagarritasuna ematea (zer gertatzen da sinadurarik gabe?). Hala, sinadurarik ez dagoenez, bezeroei esaten diete telefono-deia grabatu egiten dutela eragiketari baliagarritasuna emateko.

Telefono mugikorren bidezko bankua

Telefono-sare mugikorren bidez eskainitako finantza-zerbitzuak dira. Teknologikoki, aukera asko eskaintzen ditu metodo horrek, baina kontu handia izan behar da, ez baita gauza bera puntako teknologia duen telefono mugikor batetik eragiketak egitea edo funtsak finantza-erakundearekin erlaziorik ez duen norbaiti bideratzea. Banku mota horretan erabil daitezkeen estrategien arabera, sailkapen bat baino gehiago egin daiteke:

- Hedatzea bideratzen duen agentearen arabera:
 - Telekomunikazio-enpresek bideraturako estrategiak, finantza-erakundeen laguntzarik gabe: Kenian, M-PESA konpainia, adibidez (Safaricom enpresaren jabetzapean dago).
 - Finantza-erakundeek bultzatutako estrategiak: banku bakoitzak era askotako aukerak eskaintzen dizkie bere bezeroei (adibidez: Santander Río-k Argentinan ematen duen zerbitzua, Blackberryyetarako soilik; edo Wizzit zerbitzua, Bank of Athensek Hegoafrikan eskaintzen duena, edozein operadorearekin erabiltzeko).
 - Estrategia mistoak: kategoria horretan daude telekomunikazio-enpresak eta finantza-erakundeen arteko *joint venture*ak; esate baterako, Hegoafrikako MTN Banking, MTN telefono-operadoreak eta Standard Bank finantza-erakundeak bideratua.
- Finantza-sistemaren ohiko banaketa-kanalen eta telefono mugikorren banaketa-kanalen arteko erlazioaren arabera:
 - Gehigarria: ohiko banaketa-bideen osagarri moduan erabiltzen dira. Oro har, Espainiako sisteman, bide hori da erabiliena.
 - Eraldaketa: kasu horietan, ohiko banaketa-kanalak erabiliz iritsi ezin daitezkeen segmentuetara iristen saiatzen da finantza-erakundea. Finantza-erakundeak telefono mugikorraren bidezko bankuaren bitartez soilik zuzentzen zaizkie bezeroei; alegia, telefono mugikorra beste edozein kanalen ordeztu bilakatzen da.
- Zerbitzua eskaintzeko erabiltzen den teknologiaren arabera:
 - Mezu laburretan oinarritutakoa (SMS).
 - Datu-bidalketan oinarritutakoa (USSD).
 - Erabiltzailearen GSM identifikazio-moduluan instalaturiko aplikazioetan oinarritutakoa (SIM Toolkit).
 - WAP-orrialde bidezko sarbidean oinarritutakoak. Adibidez, Bankinterrek erabiltzen duen WAP-zerbitzua.
 - JAVA aplikazioetan oinarritutakoak (J2ME edo BREW).

7.3.2. Diru elektronikoa

a) Diru-zorro elektronikoa

Diru-zorro elektronikoa txartel batean gauzatzen da (VISA CASH, adibidez), eta, txip baten bidez, txartela diruz hornitzen da. Kargatutako kopurua ordainketak egin ahala murrizten da, eta nahi den guztietan kargatu daiteke. Bezeroek klabe bat daukate diru-zorroa kargatzeko eta ordainketak egiteko. Txartel hori pertsona bakar batentzat jaulkitzen da.

b) Ordaintzeko bitartekoak: txartelak

Txartelak dira finantza-erakundeek eskaintzen duten zerbitzu garrantzitsuenetariko bat. Haien bitartez, eskudirurik erabili gabe kobra ditzakete merkatariak salerosketak. Bezeroen erosketak beren kontuko saldotik zuzenean (zor-txartela) edo finantza-erakunde batek eskaintako kreditutik (kreditu-txartela) kobratzen dira.

b.1) Zor-txartelak:

Txartel horien bitartez, transakzioaren zenbatekoa titularraren kontuan zorduntzen da, eta kutxa automatikoetan eragiketak egiteko erabiltzen dira.

Mota askotakoak izan daitezke:

- Berehalako zorra: titularraren kontuan zorduntzen da eragiketa egiten den unean.
- Konfiantza-zorra: ordainketa hilabete bukaeran edo hurrengo hilaren hasieran zorduntzen da kontuan. Ohikoenak erosketa-txartelak dira, banaketa-enpresek jaulkiak (Cortefiel, Eroski, eta abar).

b.2) Kreditu-txartelak:

Txartelaren titularraren aldeko kreditu bat duten txartelak dira. Erosketa egiten den unean ez da kontuan dirurik eduki behar. Eskaintzen den kredituaren muga txartel motaren arabera da: kreditu-txartel arruntak baino muga altuagoa dute urrezko txartelek (6.000 €, nahiz eta batzuk 42.000 €-ra ere irits daitezkeen) eta platinozkoek (60.000 €-raino iris ditezke, baina urteko kuota 120 €-raino ere irits daiteke zenbait kasutan). Oro har, muga zenbat eta handiagoa izan, orduan eta altuagoa izango da urteko kuota. Kreditu-txartelek zerbitzu gehigarriak eskaintzen dizkiete bezeroei; bidaia bat haien bitartez ordainduz gero, doako istripu-asegurua izatea, adibidez.

Azken urteetan, Espainiako finantza-erakundeek kolaborazio-akordioak eratu dituzte beste erakunde batzuekin, kreditu-txartelak kudeatzeko eta jaulkitzeko. Akordio horien arabera, lortutako etekinak elkarren artean banatzen dituzte. Hala, finantza-erakundeak elkarrekin edo erakunde horien datu-baseez baliatzen dira interesatzen zaien bezero multzoarekin harremanetan jartzeko. Datu-basearen jabe den erakundeak, trukean, oso kostu txikiko finantzazioa lortzeko aukera du. Akordio horiek bi modutan gauzatu daitezke: *affinity* txartelen bidez edo *co-branding*⁴⁷ bidez.

Bi modu horien arteko ezberdintasuna erlazio emozionalaren ñabarduran datza. Hau da, *affinity* txartelak elkarrekin kideei bideratuta daude (futbol-klubak, ikastetxeak, unibertsitateak, GKEak...). Izaera pribatuko txartelak dira, eta finantza-erakundeekin akordioa egin duten elkarrekin kideei zuzenduta daude; hala, haientzat ere doakoa izan daiteke zenbait kasutan. Akordio horietan, gehienbat GKEek, unibertsitateek, ikastetxe profesionalek, futbol-elkarteek eta halakoek parte hartu izan dute gehienbat, baina, azkenaldian, sindikatuak ere parte hartzen hasi dira. Modalitate horretako txartelak jaulki dituzten finantza-erakunderik esanguratsuenak bankuak eta aurrezki-kutxak dira: La Caixa, Bankinter, Caja Madrid, Caixa Catalunya, BBVA, Bancaja, Ibercaja...

⁴⁷ Adibide gisa, batetik, Visa Repsol txartela dugu, Repsolek, BBVAk eta La Caixak jaulkia, eta, bestetik, Iberiak, BBVAk, Banco Popularrek eta Caja Madridek sinatutako akordioa Visa Iberia txartela jaulkitzeko. Txartel horien bidez, puntu gehigarriak lortzen dira txartela erabiltzen den bakoitzean. Azken urteetan, Interneteko enpresek ere horrelako akordioak sinatu dituzte finantza-erakundeekin txartel zehatzak sortzeko merkataritzza-elektronikoaren alorrean; adibidez, BBVAk Yahoorekin eta Terrarekin sinatu dituen akordioak.

Txartel horiek kudeatzeko, modu bat baino gehiago dago:

- Helburu nagusitzat kreditu-txartelak jaulkitzea eta kudeatzea duten enpresek sor ditzakete: Dinners club, American Express...
- Kreditu-erakundeek txartelak jaulki eta kudea ditzakete (adibidez, Barclays card, Barclays Bank-ena).
- Gerta daiteke bankuek kudeaketaren ardura izatea baina jaulkipena nazioarteko erakunde batek gauzatzea; adibidez: Visa, Mastercard...

Finantza-erakundeentzat, txartel horiek diru-sarrerak lortzeko iturri bat dira, bezeroei komisioak kobratzen baitizkiete eta, gainera, dendariei salmentaren ehuneko bat ere kobratzen baitiete.

Txartel batekin egiten den ordainketa bakoitzeko, dendariak, batetik, zenbatekoaren ehuneko bat ordaintzen diote erakunde jaulkitzaileari (Visa, 6000...), eta, bestetik, deskontu-tasa bat STaren titularraren bankuari edo kutzari.⁴⁸

7.4. INTERNET

Azken urteotan, aurrezki-kutxek eta bankuek inbertsio handiak egin dituzte teknologian, baina lortutako mozkinak ez dira beti behar bestekoak izan. Inbertsio horietatik etekina lortzeko, beharrezkoa da ezagutzea bezeroek zertarako erabiliko dituzten kanal horiek eta erakundearen antolaketa bezeroen beharrianetara egokitzea. Hala ere, erakundeek ezin dute planteatu ere egin Interneten ez parte hartzea.

2000ko maiatza eta ekaina artean, Internet bidezko bankuaren erabilerari buruzko ikerketa bat egin zuten. Hona emaitzak:

Internet bidezko bankua

- Bezeroek balioesten dituzten alderdiak

	%
Erabilgarritasuna 24 orduz	49,24
Erosotasuna	28,13
Bizkortasuna	12,23
Segurtasuna	1,07
Finantza-hobekuntzak	7,65
Zerbitzu pertsonalizatua	1,68

- Banku elektronikoaren erabilera mugatzen duten faktoreak

	%
Harreman pertsonalak	23,60
Segurtasunik eza	24,05
Moteltasuna	14,95
Erabilera konplexua	7,97

⁴⁸ 2008az geroztik, % 1,1ekoa da kreditu-txartelaren bidezko eragiketarako egiteko tasa maximoa.

Zerbitzurik eza	13,05
Produkturik eza	10,85
Denbora	5,54

- Bezeroek sareko banku-agentziekin duten harremana:

	Ezagutzen du	Erabiltzen du
Banesto	13,91	12,95
eBankinter	38,38	46,28
Patagon	17,61	27,82
Uno-e	20,60	12,95
eING	8,36	0
Evolve	1,14	0

- Banku elektronikoak kontratatzeko garrantzitsuak diren faktoreak:

Kalitatea	16,62
Erabiltzen errazitatea	34,58
Produktu-aukera	8,04
Irudia	4,56
Baldintzak	36,19

Interneten erabilerak eszenatoki berri bat sortu du, honako ezaugarri hauek dituena:

- Finantza-zerbitzuak lortzeko zailtasunak desagertu dira.
- Lehiak eta bezeroen negoziazio-botereak gora egin dute.
- Finantza-informazioaren hedapena: (2001. urtean, bisita gehien jaso zituzten hamar web-orrialdeetatik lau finantza-erakundeak izan ziren). Internet bidez, erraz konpara daitezke erakundeen eskaintzak, eta, era horretan, merkatuaren gardentasuna ere bultzatzen da.

Internet bidezko bankuak finantza-erakundeentzat dituen abantaila eta desabantailak honako hauek dira:

Abantaila nagusia da sareak kostu operatibo baxuagoa duela. Ohiko bulego bat izatea baino merkeagoa da. Transferentzia bat egitean, adibidez, Internet bidez eginez gero, bezeroak berak egiten du; baina, bulego batean eginez gero, langile bat behar da. Internet bidezko bankuak, beraz, giza baliabideen erabilera efizienteago bat dakar.

Horretaz gainera, bezeroekiko harremana ia berehalakoa da, eta, eragiketak bezeroek berek egiten dituzenez, bankuek ez dute akatsen gaineko erantzukizunik.

Interneti esker, errazagoa da geografikoki oso banatuta dauden merkatuetara sartzea, eta, horrekin batera, lehia areagotzen du, tarteak murriztu egiten dira, eta mozkinak behera egiten dute. Egoera berri horren aurrean, antolaketak malguagoa izan behar du, eta horregatik eskatzen dituzte ondo prestatutako langileak, teknologia berriak menperatzen dituztenak, inizatiba eta lidergo-ahalmena dutenak...

Kostu operatiboa murriztu arren, beste kostu batzuk igo egiten dira. Erakundeek inbertsio handiak egin behar izaten dituzte informazioaren eta komunikazioaren teknologian (IKTak) eta komunikazio-sareetan, eta, gainera, sare horri segurtasuna eman behar diote. Horrek guztiak gastuek gora egitea dakar.

Beraz, Internetek baditu abantailak eta desabantailak, eta garbi dago Internet bidezko bankuaren bezero-segmentua 25 urtetik 45 urterakoa dela eta 50etik gorakoetan, aldiz, oso garrantzi apala duela. Gainera, bezero gehienek kontsultak egiteko erabiltzen dute sarea, baina ez horrenbeste banku-zerbitzuak kontratatzeko.

Taula honetan, sareko bankuek eskaintzen dituzten zerbitzuak agertzen dira:

	Kontuak	Gordailuak	Hipotekak	Beste batzuk
ING	Laranja: % 4 Etxebizitza-kon.: % 4	Laranja 25: % 3,75 Laranja 36: % 3,75	Euriborra + % 0,49 Komisiorik gabe	Inbertsio-funtsak, pentsio-planak
Patagon	Patagon: % 4 Etxebizitza-kontua: % 2,73	% 2,5etik % 4,75era 5 urte arte	% 4 Berrikuspenak: Euriborra + 0,45; +0,49; kasuaren arabera, + 0,55	Inbertsio-funtsak, pentsio-planak, Unit Linked, aseguruak, kontsumorako kredituak...
Uno-e	Kontu-korrontea: % 1etik % 3ra, erabileraren arabera Aurrezkia: % 4,5 Etxebizitza: % 3	% 3,3tik % 3,7ra 1 astetik 2 urte eta 1 egunera	% 4,4Berrikuspenak : Euriborra + 0,55. Finkoa: 12 urte arte, % 5,7	Kotxea/motorra erosteko mailegua, pentsioak, inbertsio-funtsak...
EBankinter	-	% 3tik % 4,15era 1 egunetik 2 urtera	Euriborra + % 0,49 35 urte arte	E-mail bidezko ordainketa-sistema segurua
Activo Bank	-	% 2,75etik % 5era 1 hilabetetik 12 hilabetera Activo Depósito + Funts: % 50eko inbertsioa % 6ra (3 hilabete) eta % 50eko funtsa saski batean. Depósito Doble Activo: % 50eko inbertsioa % 7ra (6 hilabete), eta % 50ekoa akzioen araberrako gordailu batean, 36 hilabetera.	-	Inbertsio-zerbitzuetan espezializatua: burtsa, warrant, etorkizunak...

Iturria: PELAEZ, A. (2002): "Banca on-line: ¿cómo posicionarse?", *Revista Banca y Finanzas*, 77. zk., 19. or.

ESPAINIAKO BANKU-ERAKUNDEEN ESTRATEGIAK

Internet salmenta-kanal gisa erabiltzean, banku-erakundeek askotariko estrategiak baliatzen dituzte:

- **Estrategia integratua edo multikanala:** kasu horretan, Internet ohiko bulegoaren osagarria izaten da. Bi kanalen artean ez dago desberdintasunik prezioetan, ezta markan ere. Estrategia horren adibide garbienak dira aurrezki-kutxak, Barclays, Citybank, eta abar.
- **Estrategia independentea:** banku batzuek, Internet kanal osagarri gisa erabiltzeaz gainera, prezio-politika erasokorrek darabiltzaten filialak eratu dituzte.⁴⁹ Ahalik eta bezero gehien lortu nahi dute, baina kostu altukoak eta leialtasun gutxikoak izaten dira. Estrategia mota hori bi eratan gauzatu daiteke: alde batetik, bankuek normalean dituzten produktu propioak eskaintzen dituzte, oso prezio lehiakorrek baliatuz; beste alde batetik, merkatuan dauden produktuak baino produktu hobek eskaintzen dituzte, eta lehia gogortu egiten da. Bezeroak prezio baxuen eta produktu-eskaintza altuen bitartez erakarri nahi dituzte. Estrategia hori oso garatuta dago AEBn. Espainian, Interneten marka propioarekin jarduten duten bankuak dira, besteak beste, Openbank, Allfunds, Uno-e, Inversis eta Banco Popular.⁵⁰
- **Estrategia multikanala eta erasokorra:** kasu horretan, Internet ohiko bulegoaren osagarri bat da, baina bi kanalen artean badago prezio-diskriminazio bat. Estrategia hori aplikatzen du, adibidez, Bankinterrek.

Edozein estrategia erabilita ere, banku mota berri horren hastapenak ez dira errazak izan. Espainian, 2000. urtean, ohiko banku-negozioek % 31ko errentagarritasuna izan zuten; sareko bankuek, aldiz, galerak izan zituzten, eta, emaitza kaskarren ondorioz, estrategia aldatu egin behar izan zuten.

Galera horien arrazoi nagusiak honako hauek izan ziren:

- Bezeroak erakartzeko prezio-politika erasokorraren ondorioz, sektorean ohikoak diren baino tarte txikiagoekin lan egiten dute.
- Publizitatean eginiko inbertsio altuak eta kualifikazio altuko langileei ordaindutako soldata altuak.
- Arazo nagusiak dira sareko bankuetako bezeroen hazkunde motela, alde batetik, eta Internet Espainiako gizartean behar beste sartuta ez egotea, bestetik. Gainera, lortu dituzten bezeroek kontsultarako erabiltzen dute Internet, eragiketarako egiteko baino gehiago;⁵¹ horregatik, bezeroak erakartzeko, interes-tasa altuak eskaini behar izaten dituzte.

Internet bidezko banku-erakunde gehienek uste dute bi edo hiru urteren buruan gai izango direla mozkin lortzeko. Egoera horri aurre egiteko, bankuen hedapena moteldu egin dute, eta eskaintza multikanala erabiltzen ari dira.

Egindako ikerketa batzuen arabera,⁵² finantza-erakundeek egokitze-fase batzuk bete behar izan dituzte Internetek eskaintzen dituen aukera berrietara egokitzeko:

⁴⁹ Gordailu bat sukurtsalean edo Interneten kontratatu, 0,2 edo 0,5 puntu bitartekoa izan daiteke interesen diferentzia.

⁵⁰ Espainian, ING taldearen sukurtsal bat da ING DIRECT.

⁵¹ “Encuesta online sobre el comercio y servicios bancarios electrónicos” inkestaren arabera, galdekatuen % 80k saldoa kontsultatzeko bakarrik erabiltzen du Internet, eta gainerako % 20ak, berriz, produktu berriak kontratatzen.

⁵² Ikus: ACOSTA, M. , SALVADOR, B. eta SAINZ, J. (2006): “Hago click y opero a tu lado: Estrategia de la banca on line en España”, *Cuadernos de gestión*, 6. alea, 1. zk., 101-110. or.

7.3 taula. Sareko bankuen garapen-faseak

1. fasea: 1998tik 2001era
<ul style="list-style-type: none"> - Beren matrizeetatik modu independente batean osatu ziren bankuak: Uno-e (BBVA taldekoa), Openbank (Santander taldekoa), Activo Bank (Banco Sabadell taldekoa). - Europako finantza-erakundeak: ING Direct, Evolve... - Soilik sarean zeuden bankuak: Inversis (Corte Inglés, Indrak eta zenbait aurrezki-kutxak osatua). <p>Balioespen-moduak: bisitatutako orrialdeen kopurua eta abar.</p> <p>Bezeroen hazkundea aurreikusitakoaren azpitik egon zen.</p>
2. fasea: 2001etik 2005era
<ul style="list-style-type: none"> - Evolve desagertu egin zen. Santanderren eta BBVAren eskutik, BBVA.net (2001eko martxoan) eta Santander Supernet (2001eko ekainean) sortu ziren, baina ez marka independente gisa. - Errentagarritasuna neurtzeko, ohiko bideetara itzuli ziren: bezero kopurua, eragiketa kopurua... - Sareko bankuak negozio independente izatetik, negozioaren zati bat izatera igaro ziren.
3. fasea: 2005etik gaur egun arte
<p>Erabiltzen diren estrategiek honako ezaugarri hauek dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bankuentzat beharrezkoa da teknologiaren, produktu berrien eta bezeroen arteko harremanak sortzea. - Finantza-erakundeak gai izan behar du eskuartean duen teknologiari ahalik eta errentagarritasun gehien ateratzeko. - Beharrezkoa da era askotako presentzia izatea era askotako kanaletan, baita soilik sarean jarduten duten bankuentzat ere.

Iturria: ACOSTA, M. , SALVADOR, B. eta SAINZ, J. (2006); egokitua.

Espanian, sareko bankuen garapena 56/2007 Legearen bitartez arautu dute. Lege hori informazioaren gizartea garatzeko sortu zen, eta zenbait betebeharrak ezarri zizkien finantza-erakundeak.

Legearen arabera, erakundeak behartuta daude beren bezeroei komunikaziorako bide telematikoko bat eskaintzera, eragiketarako egiteko beharrezkoa izan ez dadin sukurtsal batera joatea.

7.5. TELEBISTA BIDEZKO BANKUA

Espanian, telebista bidezko bankuaren garapenak eskaintza handitzeko aukera ekarriko du.⁵³ Erresuma Batuan, Alemanian eta Estatu Batuetan, adibidez, orain dela urte batzuetatik hona, telebista bidez eskaintzen diren eragiketarako negozioaren atal garrantzitsu bihurtu dira.

⁵³ 2007an, La Caixa zen telebistaren bidez produktuak eskaintzen zituen finantza-erakunde bakarra; telebista digitala erabiltzen dute: Imagenio eta Windows Media Center.

PROPOSATUTAKO ARIKETAK

- 1- Azaldu ezazu zein diren handizkako bankuaren eta txikizkako bankuaren arteko ezberdintasun nagusiak.
- 2- Finantza-erakunde batek eperako gordailu bat merkaturatu berri du. Gordailuarekin batera, Carrefour-en erosketak egiteko 100 €-ko kreditu-txartel bat eskaintzen du. Azaldu ezazu zer lortu nahi duen bankuak eskaintza horren bidez. Arrazoitu zure iritzia.
- 3- BBK-k funts berri bat jaulki du. Alde batetik % 100 inbertitzea ziurtatzen du, eta, bestetik, errentagarritasun aldakorra eskaintzen du, Telefonicarek kotizazioaren arabera. Gainera, abenduaren 9aren aurretik funts berri horretan 15.000 €-ko inbertsio gehigarri bat egiten den bakoitzean, bezeroek 10 €-ko loteria-txartel bat eskuratuko dute (bezeroek 40 €-ko muga finkatu du). Azaldu ezazu zein den oparia ematearen helburua, finantza-erakundearen marketin-politikaren ikuspuntutik.
- 4- Azaldu ezazu zein den *affinity* eta *co-branding* txartelen arteko desberdintasuna. Zer txartel mota da Visa Repsol? Eta Athletic-eko Visa?
- 5- Banesto erakundea Banenet gordailua merkaturatzen ari da. Soilik Internet bidez kontrata daiteke, eta ohiko bidetik kontratatzen diren beste gordailu batzuek baino interes-tasa altuagoa eskaintzen du. Kasu horretan, zer estrategia ari da erabiltzen Banesto, Internet banaketa-bide gisa erabiltzean?

ESTEKA INTEREGARRIAK

- INTERNETEKO ERABILTZAILEEN ELKARTEA (ASOCIACIÓN DE USUARIOS DE INTERNET): <http://www.aui.es>
- DIRU ELEKTRONIKOAREN ERABILERARI BURUZKO ARTIKULU BAT: http://www.creaciondempresas.com/serv_gratuitos/albanova/ecommerce/art3.asp
- KREDITU- ETA ZOR-TXARTELA: KONSUMITZAILEARENTZAKO AHOLKUAK: <http://www.las-tarjetas-credito.com>
- INTERNET EKONOMIA-GAIETAN ERABILTZEARI BURUZKO DATUAK: http://www.economyweb.com/internet_economy.htm
- BANKU-MARKETINA: <http://onlymarketing.buscamix.com/web/content/view/22/85/>
- TELEKOMUNIKAZIOEN ETA INFORMAZIO-GIZARTEAREN BEHATOKI NAZIONALA (INDUSTRIAKO, TURISMOKO ETA MERKATARITZAKO MINISTERIOA) (OBSERVATORIO NACIONAL DE LAS TELECOMUNICACIONES Y DE LA SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN) (MINISTERIO DE INDUSTRIA, TURISMO Y COMERCIO): <http://observatorio.red.es>
- AQMETRIX: Internet bidezko finantza-zerbitzuak kalifikatzeko enpresa (Empresa calificadora de los servicios financieros por Internet): <http://aqmetrix.com>

V. ATALA: ZUZENDARITZA ESTRATEGIKOA

8. GAIA. KREDITU-ERAKUNDEEN ESTRATEGIA LEHIAKORRAK

8.1.- SARRERA

90eko hamarkadatik aurrera, kreditu-erakundeek beren estrategia aldatu zuten, egoera egonkor batetik merkatu konplexu eta dinamiko batera pasatu baitziren.

Espainiako bankuen arteko lehiaren hazkundera etengabekoa izan da; batez ere, 1989tik aurrera. Urte horretatik aurrera, bi gertaera garrantzitsu izan dira:

1. Aurrezki-kutxak geografikoki hedatzen hasi dira.
2. 1989ko irailean, Banco de Santanderrek lehenengo superkontua jaulki zuen (% 11ko interes-tasa 500.000 pezeta baino gehiagoko saldoentzat). Superkontuak 1991 arte iraun zuen; urte hartan, beste banku batzuek ere antzeko kontuak jaulki zituzten, eta, gainera, lehia hori maileguetara ere hedatu zen.

Krisia iritsi arte, Espainiako bankuen lehiakidetasunak honako ezaugarri hauek zituen:

- Arrisku berriak agertu ziren.
- Bezeroei bideratua zen.
- Presio handia zegoen tarteetan.
- Aurrezki-kutxek jokaera dinamikoagoa hartu zuten, eta beren balio tradizionalak indartu egin zituzten.
- Errentagarritasun altuko produktuen eskaintza orokortu egin zen.
- Enpresa handiek bankuekiko zuten dependentzia murriztu egin zen, eta ETEena, aldiz, ez horrenbeste.
- Gero eta joera handiagoa banakako bankuetatik abiatuta finantza-taldeak eratzeko (Santander taldea, BBVA taldea...); batez ere, eskala-ekonomiak lortzeko asmoz.
- Finantza-erakundeek industria-taldeetan zeuzkaten partaidetzei esker, erakundeen jarduera-eremua zabaldu egin zen, baina baita arriskua ere. Bankuek, besteak beste, honako enpresa hauetan lortu zituzten partaidetzak: Telefónica, Repsol, Endesa eta Vodafone. Espainian, finantza-erakundeek enpresa nazionalen % 30 kontrolatzen dute; Erresuma Batuan edo Estatu Batuetan, aldiz, ehuneko hori % 10 ingurukoa da.

Laburbilduz, Espainiako finantza-erakundeen egoera nahiko solidoa zen krisia iritsi arte. Gainera, beren errentagarritasuna Europako batezbestekoaren gainetik zegoen, berdintzeko joera nabaria zen arren.

8.2.- LEHIARAKO ESTRATEGIA OROKORRAK

Definizioa: jarrera berri bat bilatzea helburu duten ekintzen multzoa da; erasorako edo defentsarako ekintzak izan ohi dira, egoera ekonomikoari eusteko, egoera ekonomikoa hobetzeko edota etekin altuago bat lortzeko.

Oro har, estrategia horiek hiru motatakoak izan daitezke:

- a) kostuetan oinarritutako estrategiak

b) besteengandik ezberdintzean oinarritutako estrategiak

c) segmentazioan oinarritutako estrategiak

Europar Batasunean sartu arte, banku eta aurrezki-kutxek zeinek bere estrategia erabiltzen zuten: bankuek kostuak murriztea bilatzen zuten, eta aurrezki-kutxek, berriz, aktiboa haztea, kostu altuagoak izan arren. Hala, aurrezki-kutxek merkatu-kuota altuagoak lortu zituzten, eta bankuak, xehekako segmentua berreskuratzeko asmoz, ordura arte aurrezki-kutxek eskaintzen zituzten produktuen antzekoak eskaintzen hasi ziren. Gaur egun, biek antzeko estrategiak aplikatzen dituzte: kostuak murriztea eta hazkundera bilatzea produktu-aukera zabal bat eskainiz.

Atzerriko bankuen lehiakidetasunari dagokionez, gaur egun oso txikia dela aipatu behar da. Atzerriko bankuei dagokienez, batez ere banku espezializatuak izan dute arrakasta gehien; Chase Manhattanek edo Halifaxek, adibidez. Chase Manhattan aldizkako bankuetan espezializatu da, eta Halifax, berriz, hipoteka-maileguetan zentratu da. BNPrri dagokionez, unit-linketan eta kapital aldakorreko inbertsio elkarteetan zentratu da. Deutsche Bank eta Barclays Bank bankuak dira, azkenik, banku unibertsalaren zerbitzuak eskainiz arrakasta izan duten atzerriko banku bakarrak.

8.3.- FINANTZA-ERAKUNDEEN JOERA ESTRATEGIKOAK

8.3.1.- ESPEZIALIZAZIOA

Finantza-erakundeek erabaki bat hartu behar izan dute: espezializatzearen alde, edo zerbitzu unibertsalak eskaintzearen alde. Lehenengo estrategia aplikatzen dutenak banku espezializatuak dira, eta bigarrena praktikara eramaten dutenak, berriz, ohiko banku unibertsalak.

Espainiako banku unibertsalek garrantzi handia daukate, baina zerbitzu bereizia behar duten bezeroen segmentuak ere badaude:

a) errenta altua duten partikularrak

b) enpresa handiak eta ETEak

a) Errenta altua duten partikularrak (banku pertsonala edo banku pribatua):

Errenta altua duten bezeroekiko harremanek beste kultura bat, beste kudeaketa bat eta kualifikazio altuko langileak eskatzen dituzte.

Negozioek bezeroengana bideratuta egon behar dute, haien ondarea ezagutu behar dute, eta banakako tratu bat eskaini. Mota horretako bezeroek finantza-ezagupen altuak eta negoziazio-botere handia dute. Produktu berriak eskaini behar zaizkie, eta malgutasun handiagoko komisio eta gastuak kobratzean (halako bezeroak bilatzen dituzte, besteak beste, Banif, BBVA Privanza edo UBS erakundeek).

b) Enpresa handiak eta ETEak:

Enpresa handiek merkatuetara jotzen dute finantzazioa bilatzeko, eta, ondorioz, bankuekin duten lotura gero eta txikiagoa da.

Espainiako enpresa gehienak eta enplegu gehien sortzen dutenak dira ETEak.

Enpresa horiek honako finantza-arazo hauek dituzte:

- Besteren baliabideen gehiengoa dute, eta autofinantzatzeko gaitasun txikia.
- Kapital-merkatuan parte hartu ezin dutenez, banku-sistemarekiko lotura handia dute.
- Epe laburrerako finantzazioak garrantzi altua du.
- Finantza-informazioaren gabeziak finantzazio ofizialaz baliatzea zailtzen du.

ETEek, oro har, enpresa handiek baino arazo gehiago dituzte kredituak lortzeko. Horregatik, finantza-erakundeek aukeratu duten estrategia da “enpresa-bulegoak” zabaltzea, enpresa horiei arreta berezia eskaintzeko. Enpresa-bulegoak independenteak dira, eta, ondorioz, ohiko bulegoek baino arreta bereziagoa eskain dezakete.

Laburbilduz, bankuek, besteengandik ezberdintzeko kredituak emateaz gainera, aholkularitza-zerbitzuak ere eskaintzen dituzte.

8.3.2.- HAZKUNDE-ESTRATEGIAK

8.3.2.1.- FUSIOAK

Historikoki::

- 1988 (urtarrila): Banco Bilbaok eta Banco Vizcayak BBV sortu zuten.
- 1991: Banco Centralek eta Banco Hispanok BCH sortu zuten
- 1994: Banco Santanderrek Banesto eskuratu zuen, enkante bidez.
- 1999: BSCH sortu zen.
- 2000: BBVA sortu zen.
- 2010etik aurrera: Espainiako finantza-sistema berregituratu egin da.

Azken urteotan, kontzentrazio-mugimenduak ugaritu egin dira. Egoera horren aurrean, Europan banku handiak eratzeko aukera aztertu zuten, baina badaude horretarako oztopoak, eta ez da, beraz, fusiorik izan Espainiako eta Europako bankuen artean.

BI BANKUREN ARTEKO FUSIOAREN ALDEKO ARGUDIOAK (EDO BANKU BATEK BESTE BAT ESKURATZEAREN ALDEKOAK):

- Merkatu bakarra eta diru bakarra eratu izanak lehia bat inposatu du, eta fusioek baldintza horietara egokitzen laguntzen dute.
- Eskala-ekonomien ondorioz, kostuak murriztu egiten dira. Hala ere, ikerketa enpirikoek zalantzan jartzen dute baieztapen hori, neurri batetik aurrera ez baitago eskala-ekonomiarik lortzerik.

Euroa ezarri zutenean, bankuek beren bitartekaritza-negozioaren zati handi bat galdu zuten, eta, ondorioz, komisio bidez zeuzkaten sarrerak murriztu eta tarteak estutu egin ziren. Bankuek, beraz, Europako merkatuan beren presentzia bermatzeko antolaketa eta baliabide nahikoak badituztela segurtatu behar dute.

Fusioak baino gehiago, banku batzuek nahiago dute aliantzak egin. Banco Popularren kasuan, adibidez, bulego-sare bat eratu dute atzerrian, estrategia horren bitartez. Hala, 4.200 bulego batzea lortu dute, beren aliantzakideen jabegopean daudenak. Esate baterako, Espainiako enpresa batek Polonian lan egin dezake Banco Popularrekin; kasu horretan, zerbitzuen prestakuntza Poloniako erakundearen kontura joango da. Halaber, Poloniako enpresa batek Poloniako banku batekin lan egin dezake, Espainiako zerbitzuak Banco Popularrek emanda.

Krisiaren ondoren, Espainiako banku-sektorea berregituratu egin zen, eta, ondorioz, bat egiteko prozesu asko sortu dira.

8.3.2.2.- NAZIOARTEAN HEDATZEA

Finantza-erakundeak nazioartekotze-prozesu batean murgilduta daude, hau da, lehiakortasunaren abantailari eutsi nahi badiote, nazioarteko merkatuetara zabaldu behar dute.

Nazioartekotze-prozesua oso lotuta dago finantza-merkatuen globalizazioarekin. Espainiako ekonomia garapen-prozesuan dagoenez, bankuek finantzazio hobia bilatzen dute atzerriko merkatuetan, inbertsioari eta errentagarritasun- zein arrisku-baldintzei dagokienez.

Nazioarteko banku-inbertsioan eragina duten faktore nagusiak, Moshirian-en⁵⁴ arabera, honako hauek dira: dibisatan dauden banku-aktiboak, atzerriko banku-merkatuen neurria, kapital-kostuaren diferentziala eta truke-tasa.

- Dibisatan dauden banku-aktiboak: funtsak atzerriko diruan izateak nazioartean inbertitzea errazten du, eta baita kreditu eta maileguak atzerrian eskaintzea ere.
- Atzerriko banku-merkatuen neurria oso faktore garrantzitsua da, finantza-erakundeek bezero potentzial handiak topatu nahi baitituzte. Atzerriko merkatuan banku-garapena urria bada, merkatu horretan sartzan diren erakundeek aukera handiak izango dituzte negozioak garatzeko. Gainera, gazteen ehunekoa eta biztanleriaren hazkunde-tasa altuak badira herrialde batean, finantza-erakundeak merkatu horretan sartzan ahaleginduko dira, etorkizuneko negozio bat lantzen hasteko.
- Kapital-kostuaren diferentziala: inbertitzaileek finantza-erakundeei eskatzen dieten gutxieneko errentagarritasuna da kapital-kostua. Finantza-erakundeek diferentzial edo tarte bat lortu behar dute (*spread*: aktiboko eragiketen errentagarritasunaren eta pasiboko eragiketen kostuaren arteko aldea), kapital-kostua babestu ahal izateko⁵⁵. Hortaz, kapital-kostua babesteko behar den tarte zenbat eta handiagoa izan, enpresek orduan eta ahalmen txikiagoa izango dute lehiakortasunerako, eta garestiago kobratu beharko dituzte mailegu eta kredituak. Bestalde, oso tarte txikia behar baldin bada, enpresek jarduteko ahalmen handiagoa izango dute, eta baita bezero berriak erakartzeko gaitasun handiagoa ere.
- Truke-tasa: atzerriko erakundeekin egiten diren eragiketetan, dibisa-fluxuen eragin-truke bat dago, eta, horregatik, truke-tasaren aldaketek badute eragina nazioartekotzeari buruzko erabakietan. Hultman eta McGee ikertzaileen arabera⁵⁶, diruaren balioa handitzen bada, inbertsioen balioa igo egiten dela sumatzen dute atzerrian inbertitu dutenek. Hala ere, argudio hori egokiagoa da epe laburrean epe luzean baino; izan ere, truke-tasaren aldaketek eragin apalagoa dute inbertsioek epe luzera hartzen duten balioan. Oro har, erlazio negatibo bat izan ohi da atzerriko diruaren balioaren eta tokiko bankuek nazioartean egiten dituzten inbertsioen artean. Hots, dibisaren balioa handitzen bada, inbertsioa garestiagoa izango da atzerriko merkatuan, eta entitateek nahiago dute tokiko merkatuetan inbertitu. Aldiz, diruak balioa galtzen badu, inbertsioa errentagarriagoa izango da; betiere, dibisa horren balioak behera egiten jarraituko duela aurreikusten ez bada.

ZERGATIK NAZIOARTEKOTU DA ESPAINIAKO BANKUA?

Arrazoiak:

- I. Efizientzia altuagoa lortzeko, dimentsio handiago baten beharra dagoelako.
- II. Hedatzen ari diren merkatuetara hurbiltzeko, Espainiako merkatua agortuta dago eta.
- III. Baliabideak eta antolatzeke ahalmenak lortzeko.
- IV. Arriskuak dibertsifikatzeko.

Taula honetan, nazioartekotzearen arrazoi nagusiak bi taldetan sailkatuko ditugu, faktore tradizionalak eta ingurune berria elkarren artean konparatuz:

⁵⁴ MOSHIRIAN, F. (2001): "International investment in financial services", *Journal of Banking and Finance*, 25 zk., 317-337. or.

⁵⁵ Ikus: McCAULEY, R. N. eta ZIMMER, S.A. (1991): "Cost of capital for industry and banks", *Business Economics*, 26. zk., 14-18. or.

⁵⁶ HULTMAN, C. W. eta McGEE, L. R. (1989): "Factors affecting the foreign banking presence in the U.S.", *Journal of Banking and Finance*, 13, zk., 383-396. or.

Bankuak nazioartekotzea azaltzen duten arrazoiak	
<i>Nazioartekotzeari buruzko faktore tradizionalak</i>	<i>Ingurune berrietako lehiakortasunarekin erlazionatuta dauden faktoreak</i>
<ul style="list-style-type: none"> • Bezero garrantzitsuen jarraipena (bezeroak leial bihurtzeko bidea). • Kapital-kostu txikiago bat bilatzea. • Arriskua dibertsifikatzea. • Jatorriko herrialdeko hazkunde ekonomikoa baino hazkunde handiagoa duten herrialdeetarako joera. • Etengabeko harreman komertzialak dituzten eremuei ematen zaie lehentasuna. 	<ul style="list-style-type: none"> • Atzerriko diruan emandako baliabideak izatea. • Bezero potentzialak bilatzea, hau da, banku-garapen txikiko herrialdeak bilatzeko joera, etorkizunari begira jarrera bat edo beste hartzeko. • Tarteak handitzeko presioa. • Diruak balioa galdua duen eta etorkizunean diruaren balioak gora egingo duen eremuek dute lehentasuna.

Iturria: BERAZA, A.; BLANCO, A. eta URIONABARRENETXEA, S. (2001)⁵⁷

Laburbilduz, nazioartekotzeak badu zerikusia oinarritzko bi faktoreekin:

- Alde batetik, herrialde garatuetako bankuek badituzte kapital-soberakinak, eta baita tarteak handitzeko beharra ere. Aldi berean, haien finantza-merkatuak helduak dira, eta hazkunderako ahalmen txikia dute.
- Bestalde, garatzen ari diren herrietako bankuek kapitala behar dute finantza-zerbitzuen eskariari aurre egiteko, gorantz baitoa.

Bi faktore horiek elkartuz gero, nazioartekotze-prozesua garatu egiten da.

BANKUAK NAZIOARTEKOTZEKO ESTRATEGIAK

Bi estrategia multzo bereiz daitezke. Alde batetik, finantza-erakundeek betiko jardueran oinarrituz gauzatzen dituztenak, eta, beste alde batetik, dibertsifikatzeko asmoz, bankuko betiko jarduerak ez diren eragiketetan oinarritutakoak.

Lehenengo taldearen barruan sartzen da ordezkari-taldea ezartzeko estrategia. Estrategia “ez-operatibo” bat da. Bulego horiek ez dute banku-zerbitzurik ematen, informazioa baizik.

Banku-zerbitzuekin lotutako beste jarduera guztiak “estrategia operatibo”en barruan sartzen dira. Jarduera operatibo horien barruan, hiru nazioartekotze mota bereizten dira: kanpo-hazkundera, barne-hazkundera eta aliantzak.

- Kanpo-hazkundera estrategien artean, fusioak, eskuratzeak, gehiengo edo gutxiengo partaidetzak eta elkarrekiko partaidetzak nabarmentzen dira.

BSCh fusio eta eskuratzeen estrategia erabili du Latinoamerikan, pentsio-funtzen eta inbertsio-funtzen sozietate kudeatzaileak eskuratu baititu, hala nola Previnter⁵⁸, Argentinan, eta Abbey taldea, Erresuma Batuan. Modu berean, BBVA taldeak estrategia horren bitartez eskuratu zuen Mexikoko Bancomer, eta hala sortu zen BBVA-Bancomer finantza-taldea.

⁵⁷ BERAZA, A.; BLANCO, A. eta URIONABARRENETXEA, S. (2001): “Estrategias de Internacionalización bancaria. Una propuesta de clasificación”. *Actualidad Financiera*, VI. urtea, 12. zk., 41-54. or.

⁵⁸ 2008an, Santanderrek albo batera utzi zuen pentsioen kudeaketa, oso jarduera aldakorra baitzen, eta arauen menpekoa.


Gehiengo partaidetzei dagokienez, Banco Popularrek, Banco Comercial Portuguêsekin batera, % 50eko partaidetza izan zuen Frantzian aritzen zen Banco Popular Comercialen, bederatzi urtez (1992-2001). Gutxiengo partaidetzei dagokienez, BBVAk Bank of Montrealen % 2,22, Banca Nazionale del Lavoroaren % 9,93 eta Crédit Lyonnaisen % 3,82 dauka.

- Barne-hazkundeko estrategien artean daude sukurtsalak edo filialak zabaltzea –adibidez, Santander bankuaren filiala da Banco de Venezuela– edota zerbitzuak beste kanal batzuen bidez eskaintzea.

- Estrategia operatiboen bitartez egindako aliantza- eta lankidetzak-akordioen adibide ugari topa ditzakegu: Santanderrek aliantza-akordioak egin ditu Europako lau banku handirekin (Royal Bank of Scotland, Socièté Gènèrale, Commerzbank eta San Paolo IMI); Brasilgo Itaú bankuak *joint venture*ak eratu ditu atzerriko beste banku batzuekin, aktiboak kudeatzeko eta inbertsio-banku bat egiteko, eta abar.

Honako taula honetan, bankuen estrategiak aipatuko ditugu:

Bankuak nazioartekotzeko estrategien sailkapena:



Iturria: BERAZA, A.; BLANCO, A. eta URIONABARRENETXEA, S. (2001)

IBEROAMERIKAN HEDATZEAREN JUSTIFIKAZIOA:

- I. Hizkuntza eta kultura: langileen transferentzia edota dokumentuen jaulkipena errazten du.
- II. Merkatuaren egitura: gaur egungo dimentsio baxua eta hazkunde potentzial handia.
- III. Hango herrialdeetako egonkortasun- eta liberalizazio-prozesuak aukera handia eskaintzen du.
- IV. Ameriketako bankuek inbertsio-lehia txikia dute, eta horrek operazioak errazago bideratzea dakar.
- V. Iberoamerikak garrantzi estrategikoa du beste bankuekin aliantzak egiteko unean (batez ere AEBkoekin).
- VI. Iberoamerikan, banku-zerbitzuek ospe txikia dute (Espainian orain dela hogeit hamar urte gertatzen zenaren antzera). Espainian, 18 urtetik gorakoen % 98k badu harremana bankuekin; Iberoamerikan, % 40k batez beste, hots, xehekako bankuek negozio potentzial altua daukate.

Horiek guztiak efektu onuragarriak dira; hala ere, kontuan izan behar da banku-krisi handiak izan direla (1995ean, Mexikon, Brasilen, Argentinan...). Hala ere, ekonomia-aukerak onak dira.

Arrisku horien ondorioz, nazioarteko agentziak erosketen gorakada horiek zaintzen eta Espainiako bankuen rating-ak berrikusten hasi dira. Taula honetan, herrialdeen garapenaren adierazleak eta atzerriko inbertsioarekiko eskaintzen dituzten aukerak agertzen dira:

Europako Diru Batasunean eta Latinoamerikan bankuak nazioartekotzeko prozesuan eragiten duten oinarrizko faktoreak

	<i>BPGren hazkundera (%)1999</i>	<i>BPGren hazkundera (%)2000</i>	<i>BPGren hazkundera (%)2001</i>	<i>Truke-tasa (2000. urtearen bukaeran vs \$)</i>	<i>Truke-tasa (2001. urtearen bukaerarako estimatua vs \$)</i>	<i>Kontu-korronte bat duten eta 18 urte baino helduagoak direnen ehunekoa (%)</i>
UEM	2,5	3,4	2,5	1,064 (0,94 \$/□)	1,111 (0,90 \$/□)	95
Argentina	-3,4	-0,5	2,2	1,0	1,0	35
Brasil	0,8	4,5	4,0	1,83	1,95	48
Txile	-1,1	5,4	4,7	535	538	50
Kolonbia	-4,3	2,8	3,3	2130	2200	N.D.
Mexiko	3,8	6,9	3,1	9,8	10,3	35
Peru	1,4	3,6	0,9	3,67	3,65	37
Venezuela	-6,1	3,2	3,5	730	830	N.D.

ITURRIAK: LATINWATCH, BBVA-REN IKERKETA-ZERBITZUA, 2001eko MAIATZA; BANCO INTERAMERICANO DE DESARROLLO-REN URTEKO TXOSTENA (2000); HERNANSANZ eta SEBASTIÁN (2000).

INBERTSIO-DINAMIKA:

BBVA eta BSCH bankuek izan dute jarrera aktiboena Iberoamerikan.

Banco Santanderrek bankuak erosi ditu; BBVAk, aldiz, nahiago izan du aliantzak egin, nahiz eta erosketak ere egin dituen. Biek ere inbertsio kolektiborako joera dute (batez ere, inbertsio-funtsak), eta kreditu-arriskua kontu handiz kudeatzen dute, berankortasun-tasa Espainian baino altuagoa baita.

8.4.- ESPAINIAKO BANKUAREN EBOLUZIOA AZKEN URTEETAN

Zenbait autoreren iritziei jarraituz⁵⁹ eta Espainiako Bankuak argitaratutako informazioan⁶⁰ oinarrituz, Espainiako finantza-sistemaren egoera eta etorkizuneko aurreikuspenak zein diren ondoriozta daiteke.

Espainiako ekonomiak aldaketa-prozesu nabarmena izan du azken urteetan; batez ere, Europar Batasunean sartu ondoren, 1986an. Horrekin batera, finantza-sektorean ere izugarriko aldaketa izan zen, sektorea atzerrira zabaltzeko neurrien, desarautzeen eta liberalizazioaren bidez.

Ondoren, Espainiako bankuak eta haien inguruaren garapena aztertuko ditugu 1980tik 2006rako epean:

1. Banku-sektorearen garrantzia finantza-sistemaren barruan:

1.1. Ekonomiaren garapena eta finantza-egitura:

⁵⁹ MAUDOS VILARROYA, J. eta FERNÁNDEZ DE GUEVARA RADOSELOVICS, J. (2008): *El sector bancario español en el contexto internacional: evolución reciente y retos futuros*. BBVA Fundazioa, Bilbo.

⁶⁰ Banco de España (2009): *Informe trimestral de la Economía Española, enero 2009*. Espainiako Bankuaren web-orriandago: <http://www.bde.es/informes/be/boleco/ene2009/coy.pdf>

- Espainian, finantza-sektoreak ekonomiarekiko zuen pisu erlatiboa Europako batezbestekoa baino txikiagoa zen.
- Espainiako finantza-sistema EB-27ko herrialdeetako baino txikiagoa zen.
- 90eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, Europako finantza-sistema nabarmen hazi zen, bai EB-27an eta baita Espainian ere. Zenbaki absolutuetan, Espainiaren hazkundera handiagoa izan zen EB-27rena baino.
- Espainiako ekonomiaren finantza-egitura bankuetara bideratuta zegoen, bankuak baitziren sistema osoaren ardatza.

1.2. Finantza-bitartekariak ezabatzeko prozesua:

- Merkatuarekin erlazionatutako aktiboak gehiago hazi ziren bankuei loturiko finantza-aktiboak (mailegu eta gordailuak) baino.
- Finantza-iturrietan, bitartekaritza ezabatzeko prozesua ahulagoa izan zen. Espainiako finantza-sisteman, bereziki, kredituak ziren finantzatzeko modurik garrantzitsuena. Familiek, beren finantzazio-beharrak asetzeko, gero eta menpekotasun handiagoa zuten kredituekiko.
- Banku-aktiboak jarduera ekonomikoa baino azkarrago hazten ari ziren, bankuek egiten baitzituzten merkatuko eragiketa gehienak.
- Finantza-merkatuak bateratzeko ahalegin izugarria egin zuten arren, herrialdeetako finantza-egiturak ez zeuden berdintze-prozesuan.

1.3. Banku-sektorearen garrantzia Espainian:

- Kreditu-erakundeek Espainiako finantza-aktiboen erdia baino gehiago kudeatzen zuten; Euroguneko batezbestekoa baino gehiago.
- Espainiako ekonomia bankuen menpe gelditu zen nabarmen: banku-aktiboak 1,54 biderkatuz hazi ziren. Hala ere, kontuan izan behar da Europako estandarrak baino pisu erlatibo txikiagoa zuela.

2. Espainiako banku-sektorearen garapena:

2.1. Banku-sistemaren egitura eta osaketa:

- Europako banku-sektorea sendotzeko prozesuan, fusioek eta eskuratzeez garrantzi handia izan zuten.
- EBn, 1997tik 2004ra, kreditu-erakundeen kopurua nabarmen gutxitu zen; hala ere, joera hori aldatu egin zen 2005ean.
- Espainian, sukurtsal-sareen garapena ez zettorren bat Europakoarekin, % 15 egin baitzuten gora. Datu horrek adierazten du zer garrantzi duten sukurtsalek finantza-erakundeak garatzeko eta lehiakortasuna lortzeko.
- Europan, nahiz eta sukurtsal kopurua gutxitu, langile kopurua mantendu egin zen, oro har. Espainian, aldiz, epe horretan, langile kopurua handitu egin zen.
- Europako banku-sektorea sendotzeak banku-merkatuak kontzentratzeko prozesu bat ekarri zuen.

2.2. Bankuek biztanleei zerbitzuak eskaintzeko duten gaitasuna: ahalmenaren adierazleak

- Europakoarekin alderatuz, Espainiako banku-sektoreak entitate gutxiago zituen, biztanleria kontuan hartuz gero.
- Kutxazain kopuruari eta biztanleko sukurtsal kopuruari dagokienez, aldiz, Espainia EB-27ko bigarren postuan zegoen.

2.3. Banku-jardueraren garapena:

- Espainiako bankuek kreditu-erakundeen guztizko aktiboen hazkunde-tasa handiagoa izan zuten Euroguneko bankuek baino; batez ere, bezeroentzako maileguen merkatuan.
- Espainiako bankuetako jardueraren hazkundera finantzatzeko, Eurogunean lortutako gordailuak erabili zituzten, gehienbat.
- Hala ere, gordailuez gainera, Espainiako bankuek finantzatzeko beste iturri alternatibo batzuk bilatu behar izan zituzten, maileguen hazkunde handiak behartuta; besteak beste, merkatura tituluak jaulkitzea, bankuarteko merkatua, titulazioa... Bide horiek gordailuek baino kostu handiagoak zituzten.
- Espainiako bankuen jarduerak oso hazkunde sendoa izan zuen 2002 eta 2007 urte bitartean.

2.4. Banku-espezializazioa:

- Espainiako banku-sektorearen negozioa oso zentratuta egon zen maileguetan eta, zehatzago esanda, etxebizitzak erosteko maileguetan. Mailegu mota hori zen Espainiako bankuen diru-sarrerara nagusia, eta baita Europako bankuena ere.
- Hala ere, horrek ez du esan nahi Espainiako ekonomiaren hipoteka-zorra, Europakoarekin alderatuz, neurrigabea zenik.
- Pasiboari dagokionez, gordailuak ziren Espainiako bankuen finantzazio-iturri nagusia.

2.5. Kostuak eta kudeaketaren efizientzia:

- Garapen teknologikoa dela eta, Europako batez besteko kostuak baino kostu txikiagoak izatea lortu zuen Espainiak.
- Ustiapen-tartea gutxitu arren, Espainiako bankuek beren efizientzia hobetu egin zuten kostuak gutxitzearen ondorioz, eta Europako batez besteko efizientzia gainditu zuten.

2.6. Tartekak, sarreren egitura eta errentagarritasuna:

- Espainiako bitartekaritza-tartea Europakoa baino gehiago gutxitu zen.
- Europa guztiko bankuen (Espainiakoak barne) sarrera-iturriak nabarmen aldatu ziren: bankuek kobratzen dituzten interesek sarrera guztien ehuneko gero eta handiagoa osatzen zuten.
- Europako banku-sektorearen errentagarritasuna nabarmen hazi zen. Horren arrazoi nagusiak dira: jardueraren hazkunde-tasa nabarmena, komisioak igotzea eta kostuak gutxitzea. Espainiako bankuek Europakoek baino errentagarritasun altuagoa izan dute beti.

2.7. Kaudimena eta arriskua:

- 2006. urtearen bukaeran, Espainiako bankuen kaudimen-ratio orokorra Europako batezbestekoaren azpitik kokatu zen, baina % 8ren gainetik (minimoa).
- Espainiako banku-sektorea beti izan da berezia arriskuei aurre egiteko funtsetan; izan ere, gainerako herrialdeetan baino altuagoak dira.

3. Espainiako banku-sistema, nazioartekotzearen, lehiaren eta garapen teknikoaren erronken aurrean:

3.1. Espainiako bankuak nazioartekotzea:

- Espainiako bankuek nazioartekotu egin zituzten beren jarduerak, eta kanporantz zabaldu ziren, Europako bankuak baino abiadura handiagoan.
- Nahiz eta hazi, Espainiako bankuek pisu urria zuten atzerrian, beste herrialde batzuek atzerrian zuten pisuarekin alderatuz.

- Espainiako bankuen finantza-inbertsioaren helmuga EB-15a zen, eta Erresuma Batuaren garrantzia nabarmendu zen.
- Atzerriko herrialdeetan, Espainiako bankuen finantzazio-iturri nagusia ziren Alemania, Frantzia, Herbehereak eta Erresuma Batua.
- Merkatu-kuota hazi egin zen atzerriko bankuek Espainian duten presentziari dagokionez.
- Espainiako gordailu-entitateek atzerrian zuten garrantziak erakusten digu, batez ere, entitate handiek bultzatu zutela zabaltze-prozesu hori, hazkunde potentzial handia duten merkatuak bilatuz eta arriskuak dibertsifikatzeko estrategiak garatuz.

3.2. Lehiakortasunaren hazkundera:

- Bai Europan eta bai Espainian, gutxitu egin zen lehiakortasunaren intentsitatea.
- Lehiakortasunaren adierazlea ezin da bere osotasunean aztertu; izan ere, ezberdintasun handiak daude produktuen artean.

3.3. Teknologiaren garrantzia bankuetan:

- Espainiako banku-sektorea oso intentsiboa zen teknologia berrien erabilerari dagokionez; batez ere, banaketa-kanalen atalean eta banku-bulegoen bide osagarriak bilatzeko orduan. Hala ere, Europako bankuetan baino urriago erabiltzen zuten.
- Espainian, sareko bankuen erabilera oso urria zen; batez ere, Interneten erabilera oso urria zelako. Izan ere, Espainiako giza kapitala eta garapen ekonomikoa ere ahulagoak izan ziren.

4. Espainiako banku-sektorearen indargune eta ahuleziak:

4.1. Indarguneak:

- Hazkunde azkarra: Espainiako ekonomia bankuen menpe gelditu zen; ondorioz, BPGrekiko kreditu kopuruaren ratioa handitu egin zen, Europan baino bizikiago.
- Kanpora irekitzea eta nazioartekotzea: enpresek faktore hori baliatu zuten enpresak handitzeko, eta nazioarteko beste banku batzuekin elkartu ziren fusio- eta eskuratzeko-estrategien bidez.
- Produktibitatea hobetzea: giza kapitala nabarmen hazi zen, baita IKTen erabilera ere, eta, ondorioz, enpresek irabazi gehiago lortu zituzten, eta oso efizientzia-maila altua lortu zuten.
- Kostuak mantentzea. Espainia asko hurbildu zen Europako batez besteko balioetara.
- Efizientzia operatibo altua: Espainiako efizientzia operatiboaren ratioa Europakoa baino txikiagoa zen.
- Berankortasun urria: kreditua oso azkar hazi zen arren, Espainiako berankortasun-tasa oso txikia zen Europako herrialdeen zenbatekoekin alderatuz.
- Kaudimen altua: araututako minimotik (% 8) oso urrun ibili da Espainiako bankuen kaudimena; beraz, kaudimena egokia da.
- Hornikuntza-maila altua: Espainiako Bankuaren politika zuhurraren ondorioa da.
- Errentagarritasun altua: Espainiako banku-jardueran errentagarritasuna handitu egin zenez, tartekak ere handitu egin ziren; halaber, bankuen efizientzia altuak errentagarritasun egokia izatera bultzatu zuen sektorea.

4.2. Ahuleziak:

- Higiezin jarduerarekiko menpekotasuna: banku-kredituak izugarri hazi ziren; batez ere, hipoteka-kredituei dagokienez. Horren ondorioz, hipoteka-kredituetan oso kontzentrazio-maila altua duen banku-sektorea da Espainiakoa.
- Berankortasunaren hazkundera: interes-tasaren erreferentzia-indizea hazi egin zen, eta zorra zuten familiek ordaintzeko zuten ahalmena gutxitzea ekarri zuen horrek.
- Finantzazio-iturri garestiagoak: Espainian, askoz ere kreditu gehiago eman zituzten, baina banku-gordailuen jarduerak ez zuen hainbesteko hazkunderik izan; horren ondorioz, Espainiako bankuek beste finantzazio-iturri batzuk bilatu behar izan zituzten, garestiagoak; adibidez, bankuarteko finantzazioa, kapitalen merkatua edo aktiboak titulu bihurtzea.
- Sarearen hazkundera eta horrek dakarren kostua: sareak izugarritzko hazkundera izan zuen banku-jardueren munduan ere. Horrek kalitate hobeko zerbitzuak eskaintzea ekarri zuen, baina sukurtsalak ziren, artean ere, jardueraren diru-iturri nagusia. Zerbitzu gehigarri horrek kostuak handitzea ekarri zuen, eta horrek eragin kaltegarria izan dezake Espainiako bankuen efizientzian eta lehiakortasun-ahalmenean.
- IKTen erabilera mugatua: sareko bankuen kasuan, badirudi, oro har, Espainiako bankuek ez zituztela guztiz ustiatzen haien baliabideak.
- Baliabide propioen behar handiagoa: enpresek gero eta baliabide propio gutxiago zituzten, eta, ondorioz, kaudimen-ratioa gero eta txikiagoa da.
- Errenta monopolistikoak: Europako finantza-merkatuak gero eta handiagoak ziren, baita lehiakortasuna ere; horren ondorioz, Espainiako banku-sektorearen errentagarritasuna txikitu egin zen.

Espainiako bankuek 2006. urtera arte izan duten garapena aztertu dugu, Europaren testuinguruan kokaturik. Azter dezagun, orain, finantza-sektoreak azken urteetan egin duen ibilbidea, 2006tik 2008ra bitartean:

- Kredituen eskaintza gero eta handiagoa da.
 - Gero eta langile gehiago daude, eta izugarritzko finantza-presioa dute.
 - Euriborra gutxitu egin da azken hilabeteetan; horren ondorioz, sektore pribatuen finantzazio-iturriak merkatu egin dira, eta baita enpresek eta familiek gainean duten finantza-karga ere.
 - Nazioarteko finantza-merkatuetan tentsioak daude oraindik ere, eta horrek finantzazio ekonomikoa lortzeko aukerak murrizten ditu; adibidez, Espainiak defizit-tasa altua du atzerrian, eta horrek finantzazioa lortzeko zailtasunak dakartza.
 - Funtzak eratzen dira finantza-aktiboak erosteko; batez ere, sistemari likidezia emateko asmoz eta kreditu-fluxuak gelditzea saihesteko asmoz.
 - Estatu-abalak eman dizkiete 53 erakunderi, zorra jaulkitzen jarraitu dezaten.
-

Gaia bukatzeko, 2008ra arte gure lurraldeko kreditu-erakundeek nolako egoera bizi izan duten laburtuko dugu:

- 1) Espainiako banku-sistema oso lehiakorra da, eta kreditu-erakundeek askatasun handiagoa dute beren jardueran, estatuaren interbentzionismoa murriztu egin baita.

- 2) Erakunde tradizionalen kopurua murriztu egin da, erakunde handiagoen mesedetan. Badirudi Espainiako banku eta kutxen fusio-prozesuak bere horretan jarraituko duela, tarteak estutu izana konpentsatzeko.
- 3) Ohiko jarduerak garrantzia galdu dute, banku pertsonalen, banku pribatuen, finantza-ingeniaritzaren, kapitalen merkatuen eta halako zerbitzuen mesedetan.
- 4) Bezeroak leial bihurtzeko estrategia zerbitzuetan oinarritzen da, eta ez prezioetan (bankua joaten da bezeroengana, eta ez alderantziz).
- 5) Banku birtualerantz goaz, teknologiak garrantzi handia hartu baitu.
- 6) Globalizazioa, erregulazioa ezabatzea, erakunde-askatasuna, eta abar.

8.5. ESPAINIAKO BANKU-SEKTOREA BERREGITURATZEA⁶¹

Nazioarteko finantza-krisia gertatu aurreko garapen ekonomikoaren garai luzean zehar, Espainiako finantza-sisteman —batez ere, aurrezki-kutxen sektorean—, desoreka hauek metatu ziren: bulego edo sukurtsalak eta langile kopurua gehiegi hazi ziren, aurrezki-kutxa txiki gehiegi zegoen, negozioak errentagarritasuna galtzen ari ziren etengabe, eta gehiegizko esposizioa zegoen handizkako finantza-merkatuarekiko eta baita higiezinaren sektorearekiko. Gainera, aurrezki-kutxek bazituzten bi arazo estruktural: emaitzak atxikitzea ez beste baliabide propioak lortzeko zailtasuna, eta gobernu-egitura eta -antolakuntza zaila izatea. Bi arazo horiek gero eta handiago bilakatu ziren erakundeak zabalduz joan ziren heinean.

Nazioarteko finantza-krisiaren ondorioz, ordura arteko konfiantza nabarmen galdu zuten, eta finantzazioa lortzeko zailtasunak azaldu ziren. Horrek aurretik aipatutako desoreka horiek zuzentzeko neurriak hartzera behartu zituen aurrezki-kutxak, eta aurrezki-kutxak berregituratzea izan zen erronkarik handiena. Kreditu-erakundeak berregituratzea bultzatzeko eta haien baliabide propioak berrindartzeko asmoz, BBAF (Banku Berregituraketa Antolatuaren Funtza) deritzona sortu zen. Haren bidez, diru-laguntza eskatu zuten entitateek diru-laguntzak jaso zituzten, bidegarriak ez ziren erakundeak atzean utzi, bideragarriak zirenak bultzatu, eta harietara irtenbide azkar eta eraginkor bat bilatzen laguntzeko (soilik Cajasur-en kasua ezagutzen dugu).

Berregituratze-plana abian jartzeko, beharrezkoa izan zen aurrezki-kutxei dagokien marko juridikoan aldaketak egitea. Arau berriak politizazio-maila txikiagoa eta aholkularien profesionaltasun handiagoa eskatzen zuen. Gainera, erakundeak antolatzeko aukera bat baino gehiago arautu zituen (Babeserako Sistema Instituzionala, BSI/Sistema institucional de protección, SIP; fusio osoa, eta abar), eta kapitalen merkatura sartzeko aukera eta partaidetza-kuotak jaulkitzeko eskubide politikoak eskuratzeko aukera eman zuen. Hala, aurrezki-kutxek aukera izan zuten berregituratzeko tarte bat lortzeko, eta, bide batez, etorkizunean finantza-sistema berregituratzean izango dituzten erronkei aurre egiteko gaitasuna izatea lortu zuten; izan ere, berregituratze horien ondorioz, kapital gehiago izatea eta kalitate hobea lortzea (Basilea III) eskatzen zaie finantza-erakundeei.

Berregituratze-prozesu hori beste prozesu batzuekin bat eginda joan da; haien artean, adibidez, horniduren sistema zurruntzea. Horrek zera ekarri du: aktiboak balioesteko sistemen eskakizunak

- ⁶¹ 9/2006 Errege Dekretu Legea, ekainaren 26koa, Bankuak Berregituratzeari eta Kreditu Erakundeen Baliabide Propioak Sendotzeari buruzkoa.

- 11/2011 Errege Dekretu Legea, uztailaren 9koa, Gobernuako Organoen eta Aurrezki Kutxen Erregimen Juridikoaren Beste Alderdi Batzuei buruzkoa.

- 2/2011 Errege Dekretu Legea, otsailaren 18koa, Finantza Sistema Sendotzeari buruzkoa.

handitzea, arriskutik babesteko hornikuntzaren epemuga laburtzea, zuzkidura minimoak handitzea eta kredituak ematean zuhurtasuna sustatzea.

Prozesu horretan, ahalegin handia egin zuten gardentasunaren alde. Alde batetik, estres-testak koordinatu zituzten Europa mailan, eta Espainian oso irismen handia izan zuten, Europar Batasuneko beste herrialdeekin alderatuz. Test horien bidez erakutsi zuten Espainiako entitateak sendoak eta kaudimen altukoak direla, oro har. Bestalde, informazio zabalagoak ere argitaratu zituzten; hala, zalantza-koak izan zitezkeen aktiboen datuak azaldu zituzten, Europako marko juridikoan eskatzen zuten moduan, eta, batez ere, higiezinaren sektoreari zegozkien kredituei buruzko datuak ere eman zituzten. Neurri horien guztien ondorioz, Espainiako banku-sistemari buruzko ziurgabetasuna gutxitu egin zen, baina beste herrialde batzuetako krisiak eragina izan zuen Espainiako Gobernuaren gain. Horren ondorioz, Gobernuak neurriak hartu behar izan zituen Espainiako bankuen kaudimena handitzeko (gutxienez % 8ko *core kapitala* eskatu zien bankuei, eta % 10ekoa, berriz, kotizatzen ez zutenei eta merkatu handizkarien menpe zeudenei, haiek baitute arrisku-maila altuena). Bestalde, aukera bat eman zieten banku bidez jarduten zuten eta atzerriko kapitala behar zuten aurrezki-kutxei, arau berrien menpean jardun zezaten, estrukturarik egokiena baitzen inbertitzaile berriak erakartzeko. Beren kabuz baliabide propioak lortzeko gai ez ziren entitateek BBAFera jotzeko aukera erdietsi zuten; kapital sozialean akzioak erosi eta beren baliabide propioak berrindartzeko aukera lortu zuten, gehienez ere bost urteko epean banku izan nahi izanez gero edo banku bilakatuz gero.

Orain arte, Gobernuak desorekak konpontzeko hartutako neurriak bide egokian doaz. Berregituratze-plana abian jarri zutenetik, jada hamabi integrazio-prozesu izan dira (zazpi fusio- edo eskuratze-prozesu eta bost BSI). Haien bidez, aurrezki-kutxen kopurua 45etik 17ra jaitsi da. Prozesu horiek guztiek, alde batetik, bulego eta langileak gutxitzea eragin dute (% 10-25 bitartean sukurtsaletan, eta % 12-18 bitartean langileei dagokienez). Horren ondorioz, alde batetik, efizientzia-ratioak hobetu egin dira, eta, bestetik, erakundeak handitu egin dira (aktiboaren batezbestekoa 28.500 milioi eurotik 75.400 milioi eurora igaro da, gutxi gorabehera; alegia, 2,6 aldiz biderkatu da). Horri esker, handizkarien merkatuan duten lehiakortasun-egoera hobetu egingo da.

Hala ere, arau berriek aldaketak eragin dituzte aurrezki-kutxen antolakuntzan, eta aurrezki-kutxak “banku bihurtzea” bultzatu dute. Horrek erakundeen gizarte-ekintzak arriskuan jar ditzake, haien ezaugarri diferentziala dela kontuan izanda. Bestalde, prozesu hori egokiro buka dadin, beharrezkoa da Espainiako finantza-sistemaren gaineko ziurgabetasuna murriztea. Horrek inbertitzaileen kapitala erakarriko luke, beharrezkoa baita kapitala lortzeko planak aurrera eramateko. Arrazoi horren ondorioz, aktibo hondatuak oneratzeko eta informazioaren gardentasuna sustatzen jarraitu behar dugu. Soilik modu horretan lortuko du Espainiako finantza-sistemak kredituen eskariari aurre egitea; izan ere, langabezia gutxitzen den heinean, kredituen eskariak gora egingo du berriz.

PROPOSATUTAKO ARIKETAK

- BBK KASUA. INNOBASQUE: KUDEAKETA AURRERATUKO KASUAK:
http://www.casosinnovasque.com/cast/pages/empresas/lstempresas_eu.asp?Emp=0004

ESTEKA INTERESGARRIAK

- ENPRESA-KUDEAKETARI BURUZKO ARTIKULUAK: *CUADERNOS DE GESTIÓN*
ALDIZKARIA: <http://www.ehu.es/cuadernosdegestion/>
- ESTRATEGIA LEHIAKORRAREN XEDEAK:
<http://www.capacinet.gob.mx/work/resources/LocalContent/9840/1/temaIV.html>
- UNIVERSIA BUSINESS REVIEW: EUROPAKO BANKU-SEKTOREA
NAZIOARTEKOTZEKO PROZESUARI BURUZKO DOKUMENTUA:
http://ubr.universia.net/pdfs_web/UBR0012008084.pdf
- TATUM AHOLKULARITZA-ENPRESAK FINANTZA-SEKTOREARI BURUZ EGINDAKO
TXOSTENAK: <http://www.tatum.es>
- ESPAINIAKO BANKUAREN URTEKO TXOSTENAK:
<http://www.bde.es/informes/be/infanu/infanu.htm>
- BBVA: <https://www.bbva.es>
- GRUPO SANTANDER: <https://www.bancosantander.es>
- GRUPO BANCO POPULAR: <http://www.bancopopular.es/popular-web/>
- LA CAIXA: http://portal.lacaixa.es/home/particulares_es.html
- BBK KASUA. INNOBASQUE: KUDEAKETA AURRERATUKO KASUAK:
http://www.casosinnovasque.com/cast/pages/empresas/lstempresas_eu.asp?Emp=0004

Oinarrizko erreferentzia bibliografikoak:

- BLANCO, A.; BERAZA, A. eta GILSANZ, S. (2009): *Gestión De Entidades Financieras*. Netbiblo.
- BUENO CAMPOS, E. eta TORRE PRADOS, I. (2001): *Evolución y perspectivas de la banca española*. Biblioteca Civitas Economía y Empresa, Civitas, Madril.
- CASILDA BÉJAR, R.; LAMOTHE FERNÁNDEZ, P. eta MONJAS BARROSO, M. (1997): *La banca y los mercados financieros*. Mc Graw-Hill, Madril.
- FREIXAS, X. eta ROCHET, J. C. (1999): *Economía Bancaria*. BBV, Antoni Bosch Editor, Madril.
- INSTITUTO SUPERIOR DE TÉCNICAS Y PRÁCTICAS BANCARIAS (2007): *Agenda bancaria y de costes financieros, Tomos I y II*, ISTP, Madril.
- LÓPEZ PASCUAL, J. eta SEBASTIÁN GONZÁLEZ, A. (2007): *Gestión Bancaria. Los nuevos retos en un entorno global*. Mc Graw-Hill, Madril.
- MAUDOS VILARROYA, J. eta FERNÁNDEZ DE GUEVARA RADOSELOVICS, J. (2008): *El sector bancario español en el contexto internacional: evolución reciente y retos futuros*. BBVA Fundazioa, Bilbo.
- MARBELLA SÁNCHEZ, FEDERICO (2005): *Dirección estratégica de las entidades de crédito*. Editorial Cívitas, Madril.
- MENÉNDEZ ALONSO, E. (2007): *Prácticas de contabilidad financiera bancaria*. Ed. Netbiblo, A Coruña.
- PEDROSA, M. (2003): *Los mercados financieros internacionales y su globalización*. Editorial AC, Madril.
- PEREZ RAMIREZ, J. eta CALVO GONZALEZ-VALLINAS, J. (2006): *Instrumentos Financieros*. Ed. Pirámide.

Erreferentzia bibliografiko osagarriak:

- ACOSTA, M. , SALVADOR, B. eta SAINZ, J. (2006): “Hago click y opero a tu lado: Estrategia de la banca on line en España”, *Cuadernos de gestión*, 6. alea, 1. zk., 101-110. or.
- ANÁLISIS FINANCIERO INTERNACIONAL (2008), laugarren lauhilekoa, 134. or.
- ANALISTAS FINANCIEROS INTERNACIONALES (2008): *Guía del sistema financiero español. En el nuevo contexto europeo*. CECA, Madril.
- ANDREU, J. M (2000): *Sobre los fundamentos de el dinero y la banca*. Dykinson 2000, Madril.
- BARRUTIA, J. M. (2002): *Marketing bancario en la era de la información*, Ediciones Pirámide eta Esic Editorial, Madril.
- BERAZA, A.; BLANCO, A. eta URIONABARRENETXEA, S. (2001): “Estrategias de Internacionalización bancaria. Una propuesta de clasificación”. *Actualidad Financiera*, VI. urtea, 12. zk. 41-54. or.

- BERAZA, A. (2010): “Finantza-erakundeek ekonomia errealarari emandako erantzuna”. Gaindegia txostena 2009. GAINDEGIA, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia. 29-31. or. <http://www.gaindegia.org/eu/gt09/adituen-analisisa-Ana-Beraza>
- BLANCO, A. eta BEGIRISTAIN, A. (2000): “Cooperativas de crédito: Entorno de las entidades vasco-navarras y su posicionamiento para el futuro”, *Cuadernos de Gestión*, 22. zk., apirila, Bilbo. 25-40. or.
- CASILDA BEJAR, R. (1999): *La Banca Española en Iberoamérica: Inversiones y Perspectivas*. ESIC Market, iraila-abendua. 9-32. or.
- COSTA RAN, L. eta FONT VILALTA, M. (1990): *Nuevos instrumentos financieros*, ESIC, Madril.
- DE CARLOS MARTÍN-LAGOS, F. B (2007): *Un modelo integral de gestión del valor de clientes: una nueva forma de gestión en banca*. Ed. Netbiblo, A Coruña.
- ESTEBAN, A.; MILLAN, A; MOLINA, A. eta MARTIN-CONSUEGRA, D. (2000): “Identificación de los beneficios para el consumidor del marketing relacional: el caso de las entidades financieras”, *Revista Europea de Dirección y Economía de la Empresa*, 9. alea, 3. zk.
- ESSINGER, J. (1999): *The virtual banking revolution*. International Thompson Business Press, Erresuma Batua.
- GRANDÍO DOPICO (koord.) (1997): *Mercados Financieros*. Mc Graw-Hill, Madril.
- HULL, J. C. (1996): *Futuros y Opciones*, McGraw-Hill, Madril.
- HULTMAN, C. W. eta McGEE, L. R. (1989): “Factors affecting the foreign banking presence in the U.S.”, *Journal of Banking and Finance*, 13. zk. 383-396. or.
- IGUAL, D. (2008): *Conocer los productos y servicios bancarios*. Ed. Profit, Bartzelona.
- LAGARTOS, I. (1999): “El papel de la Banca Española”. *Perspectivas del sistema Financiero*, 66. zk. 85-88. or.
- LAMOTHE, P. eta SOLER, J. A.(1996): *Swaps y otros derivados OTC en tipos de interés*, McGraw-Hill, Madril.
- MARTÍN MARÍN, J. L. eta TRUJILLO PONCE, A. (2004): *Manual de Mercados Financieros*. Ed. Thomson, Madril.
- McCAULEY, R. N eta ZIMMER, S. A. (1991): “Cost of capital for industry and banks”, *Business Economics*, 26. zk. 14-18. or.
- MONTERO PÉREZ, A. (1999): “Las Cajas de Ahorros y el nuevo entorno”. *Perspectivas del sistema Financiero*, 66. zk.. 69-78. or.
- MOSHIRIAN, F. (2001): “International investment in financial services”, *Journal of Banking and Finance*, 25. zk. 317-337. or.
- PAREJO, J. A.; CUERVO, A.; CALVO, A. eta RODRÍGUEZ SAÍZ, L. (1999): *Manual del sistema financiero*. Ariel Economía, Bartzelona.
- PETIT ASURMENDI, J. (1999): “Los retos de las Cooperativas de Crédito”. *Perspectivas del sistema Financiero*, 66. zk. 79-84. or.
- REVELL, J (1999): “Las Fusiones y la Dimensión Bancaria en la Actualidad”. *Cuadernos de Información Económica*, 143. zk., otsaila. 89-92. or.
- RODRIGUEZ, S.; CAMARERO, C. eta GUTIERREZ, J. (2002): “Lealtad y valor en la relación del consumidor. Una aplicación al caso de los servicios financieros”. *XIV Encuentro de Profesores Universitarios de Marketing*, Granada.

ROJAS SUÁREZ, L. (1997): *Las crisis bancarias de América Latina*. Funtss de Cultura Económica, Mexiko.

ROSE, P.S.; KOLARI, J.W. eta FRASER, D. R. (1993): *Financial Institutions*, Irwin, Boston.

RUBIO GIL, A. (1995): *La revolución bancaria*, Instituto de Estudios de la Administración (IEA), Madril.

SOLDEVILLA GARCÍA, E. (1999): *Los Fondos de Inversión. Gestión y valoración*. Ed. Pirámide, Madril.

VAZQUEZ ORDÁS, C. (2002): *Estrategias de operaciones empresariales en los nuevos mercados. 20 casos a estudio*. Civitas, Madril.

VICENTE MOLINA, A.; BLANCO MENDIALDUA, A. eta MENDIZABAL ZUBELDIA, A. (2003): “La fidelización del cliente en las entidades financieras: El caso de los fondos éticos y las affinity cards solidarias”. *Actas del XVII Congreso Nacional y XIII Hispano-francés AEDEM*, Bordele (Frantzia).